

Curriculum.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Izenburua: Curriculum. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
Azala: Asis Bastida
Argitaratzailea: Nafarroako Gobernu. Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
Fotokonposizioa: PRETEXTO. Estafeta, 60 - 31001 Iruña
Inprimatzailea: Ona I. Gráficas
Lege gordailua: NA 2077-2002
I.S.B.N.: 84-235-2251-2

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza eta Kultura Departamentua

Sustatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua
Navas de Tolosa K., 21
Telefonoa: (948) 42 71 21
Faxa: 948 42 71 23
31002 Iruña
Posta elektronikoa: publi01@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es

Aurkezpena

Espainiako Konstituzioak bere 27. artikuluan dio gutxienezko irakaskuntzak ikasle guztientzat komunak izango direla eta erdietsi behar dituztela ikasleen ikaskuntzaren jarraipena, progresioa eta koherentzia. Hezkuntzako eskumenak Autonomi Erkidegoetara transferitzeko prozesua amaitu ondoren, halabeharrezkoa da gutxienezko irakaskuntza horiek espainiar guztiei bermatzea. LOGSEren 4.2. artikulua dio "ikasle guztien heziketa komuna bermatzeko, Gobernuak gutxienezko irakaskuntzak finkatuko dituela" eta Gobernuari ematen dizkion ahalmenak erabiliz, espainiar lurraldean ikasleen mugikortasuna errazteko, 3473/2000 Errege Dekretua argitaratu du, zeinek finkatzen baititu autonomi erkidego guztietako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumetan agertuko diren gutxienezko edukiak. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, halabeharrez, eduki horiek bere egin behar ditu curriculumetara ekarriz, eta horrez gain beharrezko mekanismoak ezarri behar ditu Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetan beteazteko.

Derrigorrezko Hezkuntza 16 urtetaraino ezartzeko xedea gauzatu ondoren eta LOGSE hamar urtez indarrean egon eta gero, hainbat erakundek egindako azterlanek islatu dute badaudela zenbait gabezia, zeinek ohartarazten baitigute ikasketen planak berrikustea beharrezkoa dela, XXI. mendeko jakintza-gizartearen kalitatea hobetze aldera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxienezko irakaskuntzetan aldaketak sartu dira, eta horien ondorioz Bigarren Hezkuntzako curriculum guztiak (helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak) gaurkotu dira, milurteko berriaren hasiera honetan ikasleek bizi duten errealitate sozial eta zientifikora egokitzeke.

Curriculum berriak zehazterakoan funtsezko oinarria izan da arlo instrumentalak indartzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, batik bat, Matematika eta Gaztelania arloetan, izan ere, kontsideratu da irakasgai horien ezagutza behar-beharrezkoa dela, batetik beste jakintza arlo batzuk garrantzia handiagoz ikasteko, eta bestetik egiaztatu delako irakasgai horien irakastordua gure herrialdean askoz ere gutxiago direla Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan baino. Nafarroako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum berriaren arabera, curriculum osoko teknika edo zehar prozedurarik "bikainena" irakurketa ulerkorra da, zeren eta beharrezko tresnatzat jotzen baita arlo guztietan ezagutzak eskuratzeko, eta teknika hori menperatzeak baldintzatuko baitu ikasleen arrakasta akademiko eta profesiona-
nala.

Historia irakasgaiari dagokionez, eboluzioaren eta memoria historikoaren kontzeptuak ulertarazteko, metodologia diakronikoa sartu da. Gisa berean, kontsideratu da garrantzitsua dela ikasleek Espainiako faktore kulturantzak eta Nafarroako bereizgarritasunak aintzat hartzea, gertaera historikoak elkarlotuz eta osotasunean hartuz.

Zientzien irakaskuntza ere birmoldatu da, errealitate teknologiko eta zientifiko berrietara egokitzeko. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eduki berriak sartu dira, eta berauek ezinbesteko lanabes gisa sartu dira ikaskuntzarako. Natur Zientzien irakaskuntza ere aldatu da, planteamendu moderno eta eraginkorragoa sartuz, izan ere, Biologiaren eta Geologiaren ebaluazioa ez da egingo Fisika eta Kimikaren ebaluazioarekin batera, bereiz baizik.

Azkenik, hizkuntzen curriculum garatzeko "Hizkuntzen Urte Europarra" ren gomendioak aintzat hartu dira, ikasle bakoitzak norberaren hizkuntza ez ezik beste bi hizkuntza ere jakin ditzan bere ikasketak amaitzerakoan.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria
Jesús M^a Laguna Peña

Aurkibidea

61/2002 FORU DEKRETUA, martxoaren 25ekoa, otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu horren bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma Nafarroako Foru Komunitatean ezarri zen	9
Etapako printzipio metodologikoak	17
Natur Zientziak	21
Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia	43
Gorputz Hezkuntza	65
Plastika eta Ikus-hezkuntza	85
Etika	105
Gaztelania eta Literatura	115
Atzerriko Hizkuntza: frantsesa	137
Atzerriko Hizkuntza: ingelesa	161
Euskara eta Euskal literatura: A Eredua	189
Euskara eta Euskal literatura: D Eredua	201
Matematikak	215
Musika	239
Teknologia	255
87/2002 FORU AGINDUA, martxoaren 26koa, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Erlijio Katolikoaren arloko curriculumaren argitalpena onesten duena	273
Erlijio Katolikoa	275
85/2002 FORU AGINDUA, maiatzaren 26koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparako Hezkuntza Jarduera Antolatua (H.I.A.) arautzen duena	291
Hezkuntza Jarduera Antolatua	295

61/2002 FORU DEKRETUA, martxoaren 25ekoa, otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu horren bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma Nafarroako Foru Komunitatean ezarri zen.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, laugarren artikuluan, xedatzen du estatu osorako gutxienezko irakaskuntzak finkatzea Gobernuari dagokiola, espainol guztiek hezkuntza bera izan dezaten bermatzeko eta horren ondoriozko tituluak baliozkoak izateko, eta lurralde bakoitzaren curriculuma egitea, berriz, tokian tokiko hezkuntza administrazioaren eskumena dela, beti ere gutxienezko irakaskuntzak osagai direla.

Kontuan harturik zer agintzen duten Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoko 47. artikulua eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuak (onesten du irakaskuntza ez unibertsitarioko gaietan estatutik Nafarroako Foru Komunitatera eginkizunak eta zerbitzuak aldatzea), argitaratu delarik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gutxienezko irakaskuntzak ezartzen dituen ekainaren 14ko 1007/1991 Errege Dekretua, Komunitate honetako Gobernuari dagokio curriculuma zehaztea bere eskumenaren peko lurraldean.

Otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretuak ezarri zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako curriculuma Nafarroan: etapako helburu orokorrak, etapa egituratzen duten arlo desberdinen helburuak, bakoitzari dagozkion edukiak eta ebaluazio irizpideak eta printzipio metodologiko orokorrak.

Abenduaren 29ko 3473/2000 Errege Dekretua argitaratu delarik, zeinak aldatzen duen 1007/1991 Errege Dekretua, berritu egiten baititu gutxieneko irakaskuntzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, oraingoan ere Nafarroako Gobernuari dagokio etapa honetako curriculum berria ezartzea Nafarroako Foru Komunitaterako.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Derrigorrezko Hezkuntzako azken aldia da. Haren helburua da ikasleei kulturako osagai oinarrizko guztiak helaraztea, beren eskubideak erabiltzeko, eginkizunak beren gain hartzeko prestatzea, eta bai lan munduratzeko edo bestela erdi mailako lanbide heziketa jakin batera edo batxilergora sartzeko ere.

Hartarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak egitura eta curriculum jakin zehatzak hartzen ditu.

Egiturari dagokionez, etapa hau bina kurtsoko bi heziketa ziklotan banatzen da. Ziklo bakoitza beregaina bada ere, adin horretako ikasleen psikologia desberdinak agintzen dutenez, etapa honek esangura baterakoa du hamabi urtetik hamasei urtera arteko ikasle guztientzat. Etapa bukatutakoan, ikasle horiek gai izanen dira beren nortasunean jakintza kultural diferenteak integratzeko, portaera beregain eta sortzaile bat izateko eta zenbait balio etiko barrenduak eduki behar dituzte: erantzunbeharra, elkartasuna, beregaintasun pertsonala eta parte-hartze demokratikoa.

Curriculumari dagokionez, LOGSEko 41. artikulua agintzen duenaren arabera, curriculumak hezkuntza sistemako maila, etapa, ziklo, gradu eta mota bakoitzeko helburu, eduki, metodo pedagogiko eta ebaluazio irizpideak ditu osagai, irakaslan gidatzen dutenak.

1007/1991 Errege Dekretuak agintzen duenaren arabera, Estatu osorako gutxieneko irakaskuntzak eta Hezkuntza Administrazio bakoitzeko curriculumak finkatzerakoan, lehenbizi eginahala egingen da curriculum horiek izan daitezen behar bezain irekiak eta malguak. Horrez gain ikasleek beretu beharreko eduki eta kontzeptuak zerrendatu ez ezik, haien gaitasun osoa biziagotzeko moduko hezkuntza eskaini beharko da.

Foru Dekretu honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari eta bertan eman beharreko arloei dagozkien helburuak ezartzen dira. Finkatzen ere dira arloetako eduki, prozedura, jarrera eta ebaluazio irizpideak eta curriculumaren gidari izanen diren printzipio metodologiko orokorrak.

Helburuak dira LOGSEko 19. artikuluan aipatzen diren gaitasunak, ikasleek etapa hau aurrera doan ahala irakaslanaren ondorioz garatu beharrekoak. Haietan zehazten dira –curriculumeko beste osagaietan ere bai, bestalde– hezkuntza asmoak; horregatik helburuok ezinbesteko tresna dira irakasleek ikasgelako irakaslan planifikatu eta ebaluatzeko. Ezinbesteko erreferentzia dira, bestalde, Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua emateko etapa bukatzean Legeko 18. artikulua etapa honetarako aipatzen duen xedea iritsi duten ikasleei.

Ikasle guztiek hezkuntza bera izan dezaten segurtatzeko eta kasuko tituluak baliozkoak izateko, eta bai bestalde ikasleak Espainiako lurralde osoan zein lurralde autonomoetan mugi ahal izan daitezen, zehaztu behar dira helburu eta eduki komunak hartarako oinarritzko curriculum bat ezarriz, gero eta zailagoko segmentutan banatua, eta denboran barrena modu berean banatu ere etapa egituratzen duten kurtsoen arabera.

Prozedura eta jarrerak, arloka, etapa osorako aurkezten dira.

Ebaluazio irizpideek ikasleek ikasketan aurrera egin ahala iritsi behar duten ikasketa mota eta gradua definitzen dituzte. Ez dira zurrunegi hartu ez eta mekanikoki aplikatu behar; aitzitik, curriculum oso aintzat hartuta aplikatuko dira, bai etapako helburu eta edukiak eta bai ikasleen ezaugarriak eta gaitasunak kontuan harturik.

Printzipio metodologikoak, hau da, irakaslan gidatzeko hainbat irizpide orokor, etapa osorako zehazten dira.

Hona hemen etapa honetako curriculum egituratzen duten arloak: natur zientziak, gizarte zientziak, geografia eta historia; gorputz hezkuntza; plastika eta ikus hezkuntza; gaztelania eta literatura eta, hala bide denean, euskara eta euskal literatura; atzerriko hizkuntzak; matematika; musika; teknologia.

Toki aipagarria ematen zaio curriculum honetan ulertuzko irakurmenari, garrantzi handiko faktorea baita ikaslea edozein ikasketa mota egin ahal izateko gai izateko eta bere heldutasuna sendotzeko. Horregatik curriculumeko arlo guztietan lantzen da eta, bereziki bultzatzeko, arlo bakoitzeko lehenbiziko kontzeptu eta prozedura gai honekin lotzen da.

Bestalde, curriculum esan bezala osotarakoa delarik, arloak ez ezik beste zenbait hezkuntza alderdi oinarritzko ere sartu behar dira, nola bakea eta elkartasuna, osasuna, ingurumenarekiko eta ondare historiko kulturalarekiko errespetua, giza bizitzaren duintasuna defendatzea, inolako bereizkeriarik egin gabe, heziketa sexual eta afektiboa, familiaren aukera eta balioak errespetatuz, kontsumoari eta ondasunen erabilerari buruz hezitzea eta zirkulazio hezkuntza. Eta bai heziera morala eta gizarte heziera ere. Denak egonen dira etengabe presente etapa osoan barrena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, etengabeko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eman behar zaien arretaz gain, gero eta handiagoko dibertsifikazioa lortu behar da ikasle guztientzat, eskolaren batasuna eta osotasuna ukatu gabe; hala ematen da aditzera LOGSEko hitzaurrean eta artikuluetan, erantzun

egokia eman ahal izateko ikasle bakoitzaren interes diferenteei, aldi berean irakaslana beren premia eta gaitasun aniztasunaren arabera moldatuz, etapa honetako helburu komunak iristen laguntzeko.

Hori kontuan harturik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza komunitate honetan ezarri zenetik hainbeste urte iragan direlarik, epe horretan Nafarroako Gobernuak askotariko hezkuntza erantzunen sare konplexua eratu du ikasleen aniztasunari aurre egiteko, curriculum neurriak eta antolamendu neurriak uztartuz, ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektuaren arabera moldatzeko modua izan zezan.

Hona neurri horietako batzuk: laguntzak eta indargarriak gairen batean zailtasunak dituzten ikasleen mesedetan; ziklo batean egonaldia urtebete luzatzea, maila propedeutikoa iritsi nahi baina arrazoi bereziren batengatik (eritasuna, aldi bateko ez-antsia, heldutasunik eza.) lortu ez dutenen ikasleen mesedetan; berriazko taldeak sortzea oinarrizko arloetan, oinarrizko falta bat dela medio ikasketan esanguratsua egin ezinik dabilzan ikasleentzat; laugarren kurtsoan, bi ibilbide: bat zientzia kutsu gehiagokoa eta bestea giza jakintzaren aldera makurtuagoa; laugarren kurtso horretan, oinarrizko hurbilbideko taldeak sortzea, oinarrizko irakaskuntza bat eta hurbilbide praktikoak uztartuz.

Aukera horiek osatzen duten curriculumean ikasle guztientzako zenbait alderdi uztartzen dira askotariko dibertsifikazio aukerekin, bakoitzaren gaitasun eta interesen arabera, LOGSEko 18. artikulua agintzen duenaren arabera.

Curriculumaren dibertsifikazioa, ekainaren 18ko 225/1998 Foru Aginduak beharrezko egiten duena, D.B.H.an aipatzen den neurri bereziena da, ikasleei titulua eskuratzen laguntzeko, etapak ordura arte eskaini dizkien aukeretan porrot egin (bai eta laugarren kurtsoan hurbilbide praktikoko talde batetik pasata) baina jarrera positiboa ageri dutenean. Kasu horretan curriculumak dibertsifikatu egiten da, ikasleen interes eta gaitasunetatik hurbilago dauden edukiak aurkeztuz, hurbilbide globalizatzaile eta guztiz praktikoa hartuz, arloka antolatuz.

Curriculum Egokituko Unitateak, apirilaren 2ko 90/1998 Foru Aginduak arautuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako kurtso desberdinetako ikasleei gizarteratze eta hezitze erantzun egoki emateko sortu dira, bereziki bigarren zikloko, ikasle horiek bistako eskola atzerapena dutenean, eta horrekin batera ikasgelako lanean etsitzeko zailtasuna eta horregatik, irakasleen ustez eskola sistematik alde egiteko arrisku nabarmenean daudenean. Neurri hori hezkuntzan desberdintasunak zelaitzeko joeraren barrenean kokatzen dira. Gizarteratze egin-

kizun hori iristen bada, C.E.U.ko aldia bukaturik ikaslea gai izanen da curriculum dibertsifikazioan hasteko.

Ikasleen gaitasun, interes eta motibazio desberdinen arabera moldatutako irakaskuntza bat eman beharrezko curriculum neurrietan, curriculum bat bererako hiru curriculum gaitasunetan antolatutako programazio proposamen bat dago: oinarritzkoa, erdikoa eta gorengoa, maila bakoitzeko edukiak, estrategiak, jarduerak eta ebaluatzeko kalitate irizpideak bereiziz. Lehenbiziko mailarekin ikasle guztiek oinarritzko kultur substratu bat iristea segurtatuko da; bigarren eta hirugarrenarekin, segurtatuko da goi mailako ikasketaren bidetik –goren-goreneko helburuarekin ere– abiatu nahi duten ikasleei behar bezalako arreta ematea.

Otsailaren 10eko 25/1997 Foru Dekretuak agintzen duenaren arabera ikastetxe bakoitzak izanen du dekretu honen eranskinean ageri den curriculum zehaztu eta moldatzeko ardura, hartarako etapako curriculum proiektua eginaz. Proiektu hori itxuratzeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen jarraibideak hartuko dira aintzat, eta hainbat erabaki bilduko ditu, curriculumeko osagaien gainekoak, erantzun egokia emateko, ikastetxearen errealitatea oinarri, ikaslearen heziketa integrala eta Departamentuen arteko koherentzia lortu beharri.

Bestalde, irakaskuntza departamentuek izanen dute ardura etapako curriculum proiektuarekin bat eta Departamentu burua hotsemaile dela, esleitu zaizkion irakaskuntzen programazio didaktikoak itxuratzeko, Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen jarraibide orokorrak zehaztuz.

Azkenik, irakasleak, proiektu horiek oinarri eta Departamentu burua hotsemaile dutela, ikasgelako programazioak itxuratu behar dituzte, haietan, besteak beste honakoak sartuz: alde batetik arloetako helburu didaktikoak, eduki eta ikasketa jarduerak, kurtsoetan barrena banaturik, eta bestetik, horiek egituratzen dituzten unitate didaktikoak, Foru Dekretu honek agintzen duena ezertan galarrazi gabe.

Errealitate bakoitzaren arabera moldatutako curriculum proiektu bat itxuratu eta etengabe errebisatu eta gaurkotzeko, irakasleen talde lana behar da. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak lan hori bultzatuko du eta bai aholku emanen ere ikastetxeetako curriculum proiektuak itxuratu eta errebisatzeko Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua eta eskolako lanari laguntzeko dauden zerbitzu desberdinen bidez.

Hori horrela, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak, aurrez Nafarroako Eskola Kontseiluaren irizpena ikusirik, hala proposatuta eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta biko martxoaren hogeita bosteko bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:**1. artikulua.**

Honela aldatzen da otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretuko 4. artikulua:

“Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 19. artikulua aipatzen dituen gaitasunak garatzeko, ikasleek honako helburuak iritsi behar dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan:

- a) Egoki, sortzaile eta beregain mezu idatziak eta ahozkoak ulertu eta produzitzea, gatzelaniaz eta hala bide denean Komunitate Autonomoko hizkuntzan, eta gogoeta egitea hizkuntzaren erabileran esku hartzen duten prozesuen gainean eta hizkuntzak norbere pentsamenduak antolatzerakoan duen garrantziaren gainean.
- b) Ikasten diren atzerriko hizkuntzan edo hizkuntzak egoki ulertu eta mintzatzea.
- c) Egoki, sortzaile eta beregain interpretatu eta produzitzea kode artistiko, zientifiko eta teknikoak erabiltzen dituzten mezuak, komunikazio aukerak aberastu eta erabilera horretan esku hartzen duten prozesuak atzemanetz.
- d) Informazio lortu eta hautatzea hartarako eskura diren iturri egokiak erabiliz; informazio hori era beregainean eta kritikoa tratatzea, aurretik jarritako helburuaren arabera, eta era antolatu eta ulergarrian transmitituz.
- e) Problema atzeman eta ebazteko estrategiak itxuratzea, jakitearen eta esperientziaren arlo desberdinetan, prozedura intuitiboak eta arrazonamendu logikokoak erabiliz, erkatuz eta prozesuaren gainean gogoeta eginaz.
- f) Norbere buruaren irudi egokia itxuratzea, norbere gaitasunak, interesak eta premiak kontuan hartuz erabakiak hartzerakoan, zailtasunak gainditzeko ahalegina baloratuz.
- g) Errespetu eta diziplina ohiturak beretu eta garatzea, ezinbesteko baldintza baita hezkuntza lanak atarramentu ona izanen badu eta ikasleek jarrera solidario eta toleranteak garatuko badituzte gizarte, erlijio, sexu eta arraza diferentzien aurrean, aurreiritziak izpiritu kritiko, ireki eta demokratiko batekin gaindituz.
- h) Gure tradizioko sinesmen, jarrera eta balio oinarritzkoak ezagutzea eta kritikoki baloratzea.

- i) Gizartearen jardunbidea gobernatzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki herritarren eskubide-eginbarrei buruzkoak, eta horren gainean juzgu eta jarrera pertsonalak hartzea.
- j) Izadiaren jardunbidea gobernatzen duten lege eta prozesu oinarrikoak aztertzea, giza jarduerak haien gainean duen eragin positibo nahiz negatiboa baloratzea eta kontserbatu eta hobetzeko lanean lagun egitea.
- k) Garapen zientifiko eta teknologikoa baloratzea eta ingurumen fisiko eta sozialean zer eragin izaten duen, eta informazio eta komunikazio teknologia berriak erabiltzea ikas eta irakas-prozesuetan.
- l) Kultura eta hizkuntza ondarea ezagutu eta estimatzea eta hura kontserbatzen eta hobetzen lagun egitea, kulturaren eta hizkuntzen aniztasunari buruzko jarrera interesatu eta errespetuzko bat garatuz, herrien eta gizabanakoen eskubidea den partez.
- m) Giza gorputzaren osagai desberdinak ezagutzea eta haien jardunbidea ulertzea, eta bai ere gorputz ariketak, higieak, elikatze eta bizitza sanoak osasunerako dituen ondorioen berri jakitea”.

2. artikulua.

Ulertuzko irakurmena, garrantzi handiko faktore baita ikasleen gaitasunen garabidean, helburu lehenetsia izanen da curriculumean. Etapako arlo guztietan eduki eta prozedura lehenetsi gisa agertuko da.

3. artikulua.

Otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretu eranskinaren ordezt, Foru Dekretu honetako eranskina jartzen da.

4. artikulua.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak erabakiko du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arlo eta irakasgai guztiek zer ordutegi izanen duten.

Xedapen iragankor bakarra.

Ezarpen egutegia

Foru Dekretu honek agintzen duena honela ezarriko da: 2002-2003 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1 eta 3. kurtsoetako curriculumari dagokiona aplikatuko da eta 2003-2004 ikasturtean 2 eta 4. kurtsoetako.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Arau indargabetzea

Indargabetzen dira Foru Dekretu honek agintzen duenari kontra egiten dioten xedapen maila bereko nahiz apalagoko guztiak.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa.- Esku ematen zaio Hezkuntza eta Kultura kontseilariari Foru Dekretu hau bete garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.- Foru Dekretu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, bi mila eta biko martxoaren hogeita bostean.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria

Miguel Sanz Sesma

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria

Jesús María Laguna Peña

Etapako printzipio metodologikoak

Irakasleen esku dago irakaslan garatzea hartarako metodo pedagogiko egokiak erabiliz; metodo horiek, ordea, hainbat printzipio errespetatu behar dituzte, etapa honetako curriculumerako ezinbestekoak. Ondoren, orokorki aipatzen dira printzipio horiek, arlo guztietarako balio dutenak.

Edukiak aurkezteko moduak eragin handia izaten du gero benetako ikasketan. Bi printzipioren arabera antolatu behar da edukien aurkezpena: Alde batetik irakasgaien barne egitura errespetatu, eta bestetik ikasleek aurretik dituzten jakintza eskemak eta ideia eta esperientziak oinarri hartu. Irakasleek alderdi horiek biak hartuko dituzte kontuan ikasketa mekanikoa eta antzua izan ez dadin.

Ikasi beharreko edukiak ikasleen benetako interesekin lotzen direnean, errazago izaten da ikasleak motibatzea beren bizitza testuinguruaz landara aurkezten direnean baino. Irakasleek hautatu dituzten edukiak eta metodoak aurkezteko moduak, beraz, ikasteko motibazioa gehitu behar dute.

Etapako curriculumaren edukietan aipatzen diren jarrerak garatu beharra ere oso lotura estua du ikasleek ikasketari aurre egiteko hartzen duten erarekin, eta bai ere irakasleek erabiltzen dituzten irakaste estrategiekin. Ikasgelako giroa, ikasleen artean eratzen diren harremanak eta bai haien eta irakaslearen artekoak ere, norbere buruaren ederretsia garatzea eta abar dira metodo pedagogiko eraginkor baten oinarri.

Erabiltzen diren metodoek, beraz, sustatu egingen dituzte eginahalean curriculumeko jakingaiekiko jakin-mina eta interesa. Horrela norbera ikas prozesuan inplikatzeko bultzatu eta interes kultural berriak piztuko dira ikaslearengan. Irakasleen

adimena lantzen saiatzea ezinbestekoa da ikasketa baliozkoa eta eraginkorra izan bada. Gauzei hautematea, ideien, kontzeptuen eta bizitakoen arteko harremana egitea, eta ideien eta errealitatearen arteko lotura egitea dira ikasketari eta pertsonen garapen intelektualari aurrera eragiteko bidea.

Diziplina arteko ikuspegia hartzen duten metodologiak dira egokienak ikasleek beren esperientzia eta interesen hurbilagoko esangura eman diezaioten ikasten dituzten edukiei. Hala ere, etapa aurrera doan neurrian, eta ikasleek egitura formal eta logikoak hobeki barrentzen dituzten ahala, arloak osatzen dituzten diziplinen berezko logikarekin batago datorren tratamendu bat ere sartuko da, ezertan galdu gabe, horratik, errealitatearen osotarako ezagupen bat lortu beharrezko etapa curriculumaren proiektu baten zentzua. Horrela, ikasleek ulertuko dute alderdi bat bera ikuspegi bat baino gehiagotatik azter daitekeela, eta helburu desberdinekin.

Ikasleek beren lehengo ezagupenak eta errealitatearen azalpenak gogoan ikasten dituzte gauza berriak. Hori kontuan hartu ezean, ikasketa lana mekanikoa eta ezer ulertu gabekoa izan liteke. Ildo horretatik, oso garrantzi handikoa da hasierako ebaluazioa, oso balio handiko informazioa ematen baitie irakasleei ikasketa esanguratsuko esperientziak planifikatzeko. Etopan barrena garatu behar diren eduki-gaitasunak ez dira soil-soilik eskola eremurakoak; aitzitik, ikasleen giroko eremu eta testuinguru guztietan aplikatzekoak dira. Ikasitako funtzionaltasun horrek esplikatzen du zergatik ikasitako eduki eta gaitasunak ikasleen errealitateko egoera asko eta askotarikoetan aplikatzeko modukoak diren.

Hortaz, irakasleak aukerak sortuko ditu ikasleek ikasitakoak egiaztatu eta aplikatzeko eta ikasitakoak baliagarriak direla ulertzeko.

Ikasketaren funtzionaltasuna ez da bukatzen ikasitako aplikazio praktikoan eta ezagupenen baliagarritasunean; ezagupen horiek beste ezagupen berri batzuen oinarri izan beharra ere ekartzen du berekin.

Norbere buruz ikasten segitzeko gauza izan beharrez ikastea da etapa honetako helburu lehenetsietako bat. Ikasketak bereganatzeko moduak estrategia pertsonalak sortu behar ditu, ikasleei bide emanen dietenak ikasketa berriei ekiteko irakaslearen edo beste heldu baten mende egon gabe. Prozedurekin lotutako edukiek ikasleen beregaintasun intelektual hori iritsi behararen helburua biltzen dute.

On da jarduera bakoitzean egin direnen gaineko gogoeta pertsonala bultzatzea, eta ikasitako gaineko ondorioak ateratzea ere bai. Ikaslea ohartu behar da zer adimen prozedura eta estrategia erabiltzen dituen problemak askatzeko eta gauzak ikasteko, hori ere garapen kognitiborako eragile handia baita.

Ikasleak pentsatzen eta gogoeta egiten ikasiko badu, erabiltzen diren metodoek aukera eman behar diote ikasleari bere pentsamendu kritiko eta sortzailea erabiltzeko, ikasketako esperientzietan beren burua inplikatzu eta ulertzen ez duenari edo bere pentsaerarekin kontraesanean dagoenari esplikazio arrazionalagoak bihurtuz.

Ikasleek aukera dutenean beren ezagupen eta iritziak beste ikasleekin eta irakaslearekin erkatzeko, zabaldu egiten dute beren ikuspegia eta bai, aldi berean, ikuspegi horren mugatutasunari ere oihartzen; hots: aurrera egiten duten beren garapen kognitiboan. Erkatze hori beraz tresna didaktiko handia da haien irakasleentzat.

Ikasleen osotarako hezkuntza lortu beharrez, bada, eta kontuan harturik etapa hau bukaerakoa dela, eginahalean bai ikuspegi teorikoa eta praktikoa uztartuko dira arlo guztietan. Horrela hurbilbide teorikoegiak galaraziko dira, aplikazio konkretuekin lotu gabekoak; hartarako lan munduarekin ere lotuko da eskola ahal den neurrian, eta lanbide heziketa oinarrikoa emanen ere etapa honetako ikasleei. Proposatzen diren metodo eta edukietan, beraz, kontuan hartuko da etapako curriculumaren alderdi praktikoa hori.

Kontuan hartuko ere da ikasleen dibertsitatea eta bakoitzari arreta indibiduala eman behar zaiola curriculumak gauzatzean. Ikasle bakoitzak askotariko motibazio, interes, gaitasun eta ikasketara hurbiltzeko moduak dituelarik, irakasleek egoera bakoitzari egoki aurre emateko zer metodo erabili erabaki behar dute.

Irakaskuntzako metodoak ez dira berez txarrak edo berez onak; hezkuntza helburu desberdinak eta eduki mota desberdinak lantzeko eta ikasleen premiei erantzuteko duten balioak erabakitzen du hori. Hartarako, irakasleek zilegi dute ikasle talde bakoitzean abiada desberdina segitzea, helburu jakin batzuk lehenestea, material didaktiko desberdinak eta erabilera anitzekoak erabiltzea, jarduera desberdinak proposatzea zailtasunen arabera edo, bestela, ikasleen gaitasunen arabera sakontasun maila bat baino gehiagotan landu daitezkeen jarduerak proposatzea; zilegi dute, halaber, talde malguak faboratzea edo ikasleen arteko elkarlanean laguntza bultzatzea.

Neurri horien osagarri, etapako curriculumak hiru neurri klase hartzen ditu aintzat, elkarren osagarri ere izan daitezkeenak: aukeratasunaren eremua, curriculumaren moldakuntza, eta hala behar denean, curriculum dibertsifikazioa.

Bestalde, irakasleek kontuan hartu behar dute ikasleen ikasketak lotura handia duela bakoitzak jakitera iristeko eta ikasteko duen estiloarekin. Ikasle batzuk inpultsiboak dira, bestetarik gogoetazaleak; batzuek estilo analitikoa dute, beste batzuk sintetikoa: batzuek zentzumenezko modalitate bat maite izaten dute bereziki

informazioa jaso eta elaboratzeko; hortaz, zenbait ikaslerengan ikusmeneko, entzumeneko, mintzameneko estiloa izaten da gailen eta abar. Norbere ikaste estiloaren arabera molda daitezkeen material didaktikoak erabiltzeak, beraz, aukera ematen du ikasleen aniztasunari kasu egiteko.

Ebaluazio prozesuek ere oso lotura handia dute alderdi metodologikoetarako hartzen diren erabakiekin. Etapa honetan ebaluazioak etengabea, hezitzailea eta pertsonalizatua behar du, aukera eman dezan irakaskuntza prozesuak moldatzeko ikasleek hezkuntza helburuak zenbateraino iritsi dituzten ikusirik.

Ebaluazioak, bestalde, lagun egin behar du ikaslearen hezkuntza garapenerako, ikasleak jakin dezan zer momentutan dagoen, ohar dakizkien bere posibilitateei, egoki aurreratzeko dituen zailtasunei eta horiek gaintzeko dituen baliabideei. Aldi berean, ebaluazioak, zentzu zabalean, aukera eman behar die irakasleei irakaslan hobetzeko, curriculum proiektuan hartu diren programazio eta erabakien azterketa kritikoa faboratzen duen neurrian.

Tutorearen eta orientatzailearen eginkizunak garrantzi handia hartzen du etapa honetan, aldi berean osotarakoa eta dibertsifikatua baita, eta aldi berean bukarakoa eta atarikoak; ikasleen garapen pertsonala eta erabaki akademiko eta profesional pertsonalak hartzeko prestakuntza garrantzi handiko hezkuntza helburuak dira adin hauetako ikasleentzat.

Natur Zientziak

Sarrera

Gaurko gizartean zientzia ezinbesteko tresna da gure inguruko mundua eta haren aldaketak ulertzeko eta bizitza eta osasunari buruzko nahiz baliabideei eta ingurumenari buruzko alderdienganako jarrera erantzuleak garatzeko. Horregatik eza-gupen zientifikoek herritar guztien oinarrizko kultura osatu behar duen giza jakintzaren parte izan behar dute.

Ikasleek lehen hezkuntzan natur zientzien gainean bereganatzen dituzten edukiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan finkatu eta garatu behar dira, jarduerak praktikoak ere sartuz, fisika eta kimika lanean edo naturalistaren lanean izaten diren antzekoak, beti esplikazioak bilatu beharrez.

Arlo honetako edukiak ez dira lantzen biologoak, geologoak, fisikariak edo kimikariak sortu beharrez; haien helburua da ikasleak kultura zientifikoaren oinarriak bereganatzea, garrantzi berezia emanaz natur mundua osatzen duten fenomenoen batasunari, gidari dituzten legee eta lege horien adierazpen matematikoari, horrela gure ingurunearen ikuspegi arrazional eta osotarakoa lortuz, zeinak bide emanen dien bizitzarekin, osasunarekin, ingurumenarekin eta aplikazio teknologikoekin lotura duten gaurko problemak ulertzeko.

Hemen aurkezten den curriculum honetan Biologia eta Geologia eta Fisika eta Kimika bezalako gaiak ere sartu dira natur zientzietan, etapa honetako lehenbiziko bi kurtsoetan, curriculum unitate bat sortuz eta izadiko fenomenoenganako osotarako hurbilbidea mantenduz, kontzeptuak integratuz eta haien arteko lotura eta

harremanak azpimarratuz. Horren helburua da ikasleak jakintza zientifikoko arlo guztiek komunean dituzten kontzeptu sareak eta ikerketa prozedurak daudela konturatzea. Bigarren zikloan, ikasleak helduago baitaude eta gaitasun eta interesak ere askotarikoak baitituzte, aukera izanen da bi gaiak bereizteko, ebaluazio eta kalifikazio bana emanaz, edukietan era espezializatuagoan sakontzeko.

Kurtsoz kurtso hautatu diren edukiak gero eta konplexuagoko ordena batean jarrita daude, ikasleen ulermena handituz joaten den heinean. Hartarako prozedurak ere kontzeptuekin hertsiki lotutako ikasketa alderdiak dira; haien artean, ikas-tetxeko baliabideak aski diren neurrian, informazioaren teknologia eta ikus entzutezko baliabideak ere sartuko dira lan tresnatzat. Beharrezkoa izanen da, halaber, curriculum osoan barrena, zeharkako moduan, izadia ikertzeko metodo zientifikoa sartzea, eta teknologiarako eta gizarterako harengandik heldu diren inplikazioak ere.

Lehen zikloko eduki blokearen sekuentzia egiteko zientzia integratuaren irizpide bat erabili da. Horregatik, lehen kurtsoko hari gidaritzat Lurra hautatu da, eta Lurra gainerako planetak ez bezalakatzen duten berezitasunak, materia delarik edukiak egituratzeko gune nagusia. Bigarren kurtsoan, energia da edukiak egituratzeko gune nagusia, gure planeta harturik hari gidaritzat, energiaren jariobide den sistema materiala den partez, azpi-sistema diferenteetan jario hori nolakoa den agertzea emanaz (azala, eguratsa, ekosfera eta abar).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren kurtsoan, alderdi konkretuen ikerketan aurrera egiteko, beharrezkoa dela juzgatu da Natur Zientziak bi partetan banatzea: Fisika eta kimika batetik eta Biologia eta Geologia bestetik. Hala ere, bi ikasgaietarako ezarri diren edukiak batera eta osotara ere eman litezke.

Fisika eta Kimikako gaien bigarren zikloari dagozkion curriculum blokeak asimetrikoak banatu dira bi kurtsoen artean. Ikasleek matematiketan dituzten ezagupenak kontuan harturik, hirugarren kurtsoan Kimika edukiak gailenduko zaizkie Fisika edukiei eta laugarren kurtsoan Fisikakoak Kimikakoei, horrela etapa bukatzean bi gaien ezagupen homogeen eta egokia lortzeko.

Gai hauei lehen zikloan emandako tratamendua gehienbat kualitatiboa izan da, bistazko eta oro-harko prestakuntza alderdiei garrantzi gehiago emanaz ezen ez bigarren zikloan zaindu behar diren alderdi formal eta akademikoei baino, ikasle- en gaitasunaren arabera.

Hirugarren kurtsoan, konkretuki sartzen da metodo eta lan zientifikoa. Materialen egitura ere aztertzen da makro- eta mikroskopikoki, eta erreaktibitate kimikoa- ren osagai nagusiak. Bereziki azpimarratzen da zientzia honek gaurko gizartean

duen eragin nabarmena. Maila honetan ikasten den fisikak kontzeptu energetikoak garatzen ditu, elektrizitatearekin lotuak bereziki, sinpleak baitira eta ingurunean aplikazio asko izateko modukoak.

Laugarren kurtsoan, Fisika partean, indarren eta mugimenduen kontzeptuak eta aplikazioak sartzen dira, eta horrez gain bai energia mekanikoa eta bero eta uhin energiak ere aztertzen. Kimikak gehienbat aldaketa kimikoak hartzen ditu aztergai, eta karbono konposatuen sarrera bat egiten.

Biologia eta Geologia, hirugarren kurtsoan, materia mineralaren ezagupen teoriko eta praktikoari buruzko gune bat sartzen du, eta beste bat, zabalagoa, giza anatomia eta fisiologiari buruzkoa, bizimodu osasuntsuarekin duen lotura agertuz. Laugarrenean, xehero aztertzen da luraren dinamika, Tektonika Globalaren paradigma azpimarratuz, eta zitologia eta ekologiaren hainbat alderditan sakontzen da; Mendelen genetika ere sartzen da.

Eduki sekuentziaren eta haren ebaluazio irizpideen ondotik, jarduera zientifikoaren prozedura nagusiak biltzen dira, jarduera zientifikoaren prozesu oinarrizko hauek egitura duen ardatz baten bidez: informazioa beretu eta jasotzea, tresnak manipulatu eta erabiltzea eta obserbazioa; modeloen azterketa eta konparazioa, aurreikusteko inferentziak egitea, kausalak eta deduktiboak, ikerketa teknikak; informazioa ulertzea.

Oinarrizko prozeduren ondotik hiru iturritatik heldu diren arau, balio eta jarrerak jasotzen dira: jarduera zientifikoa, izaki soziala izatearen oharmena eta zientzia kultur osagai dela ulertzea.

Ikasketa eta lanbide orientazioaren ikuspegitik (etapa honek bere-berezkoa baitu orientazio hori), programa honetako parte desberdinek aukera ematen dute laburki aurkezteko ikasketa edukiekin zer jarduera sektore dauden loturik: osasun sektorea, gizarte sektorea, teknikariak, ingeniariak, nekazaritzakoak, ikertzaileak eta abar, eta bokazio zientifikoak ere sustatu.

Aurreko hori guztiaren osagarri, dibulgazio irakurgaiak ere sartuko dira, ikaslea bultzatzeko ikasgelan gai zientifikoei buruzko eztabaidak prestatu eta parte hartzera. Jarduera honek, egoki antolatzen bada, mintzamina, hizkuntza zientifiko sinple eta zehatza eta arrazoibide zorrotza garatzen ditu, irakurgaiak berez ikasleari dakarkion kultur aberastasunaz gain.

Jarduera praktikoak, etapako ikasketa maila bakoitzaren arabera moldatuak, metodo zientifikoaren benetako garapena aurkeztuko dio ikasleari, talde lana egiteko metodoak emanen dizkio, zeregin zientifikoaren problemei aurre egiten lagunduko eta ikasketarako motibazioa sortuko. Jarduera praktikoek ikasle guztiei aukera

emanen diete beren prestakuntza metodologikoan sakondu eta beren gaitasun esperimentalak garatzeko.

Ezarri diren ebaluazio irizpideak, ondoren aipatzen diren eduki blokeei dagozkienak dira. Horiei, irakasleek ontzat hartzen dituzten beste hainbat irizpide gehituko zaizkie, kontuan harturik edukien garapena eta jarduera praktikoak zertan diren eta zein baliori eman behar zaien lehentasuna.

Azkenik –ez, ordea, hutsalenik–, esan behar da irakurriaren ulermena zeharkako teknika edo prozedurarik behinena dela curriculum osorako, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketan trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkioten askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi espezifikoak eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Metodo zientifikoa ezagutzen eta aplikatzen hastea.
4. Mezu zientifikoak ulertu eta adieraztea ahozko eta idatzizko hizkuntza egoki erabiliz, eta diagramak, grafikoak, taulak, adierazpen matematiko sinpleak eta bestelako aurkezpen sistemak interpretatzea.
5. Izadiko fenomeno nagusiak zientifikoki interpretatzea, eta bai haien aplikazio teknologikoak ere, Natur Zientzietako lege eta kontzeptuak erabiliz.
6. Jarduera zientifikoaren plangintzan eta gauzapenean erantzunbeharrez parte hartzea.
7. Hainbat informazio iturri diferente beregain erabiltzea, informazio eta komunikazio teknologia berriak barne, haien edukia ebaluatu eta gai zientifiko eta teknologikoen gainean jarrera pertsonal kritikoak hartzeko.
8. Giza gorputzaren jardunbidearen gainean ezagupenak bereganatzea, gorputzaren osasunerako eta zainketarako ohiturak hartzeko.
9. Natur zientzietan ikasitakoak natur inguruneaz gozatzeko aplikatzea, ingurune hori baloratuz eta hura kontserbatzen eta hobetzen parte hartuz.

10. Jakitea eta preziatzea zientziak zenbateko aportazioak egiten dituen gizakien bizi baldintzak hobetzeko, eta zientzia prestakuntzak zenbateko garrantzia duen preziatzea.
11. Jakintza zientifikoa osotasun bat bezala ikustea, errealitatearen zenbait alderditan sakontzeko adarretan partitua.

Natur Zientziak I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Lurra unibertsoan*

1. Unibertsoa, Esne-bidea eta Eguzki sistema. Unibertsoaren obserbazioa: planetak, izarrak eta galaxiak. Unibertsoaren ezagupenak historian zer bilakaera izan duen. esne-bidea eta eguzki sistema. Lurraren eta Eguzki sistemako beste partaideen ezaugarri fisikoak. Lurraren mugimenduak: urtaroak, eguna eta gaua, ilargiaren eklipseak eta aldiak. Lurraren geruzak: gunea, mantua, azala, hidrosfera, atmosfera eta biosfera.
2. Materia unibertsoan. Unibertsoan materiaren ezaugarri orokorrak: dimentsioak (azalera eta bolumena), masa eta dentsitatea (S.I.). Materiaren agregazio egoerak. Gai hutsak eta nahasturak. Homogeneitatea eta heterogeneitatea. Atomoak eta molekulak. Hidrogenoa eta helioa: ugaritasuna eta ezaugarriak.

II. *Lurreko materialak*

3. Lurreko atmosfera. Airearen jatorria, osaera eta kokalekua. Nitrogenoa eta oxigenoa: ugaritasuna eta ezaugarriak. Karbono dioxidoa eta ozonoa: ingurumeneko inplikazioak. Airearen osaeraren aldaketak. Kutsagaiak. Airearen eta osasuna.

4. Lurreko hidrosfera. Lurreko uraren jatorria. Ura beste planetetan. Uraren molekula: ugaritasuna, propietateak eta garrantzia. Itsas ura disoluzioa den aldetik. Sodioa, potasioa eta kloroa; ugaritasuna eta propietateak. Ura kontinenteean. Ur lurrina eguratsean. Uraren zikloa, Uraren kutsadura, uraren arazpena. Ura eta osasuna.
5. Lurreko azala. Lurreko azala: lurraren azalera, osaera kimikoa eta osagai geokimikoak. Silizioa eta aluminioa: ugaritasuna eta propietateak. Mineralaren eta harriaren kontzeptua. Material artifizialak. Mineralen garrantzia eta ugaritasun erlatiboa. Harri motak.

III. *Lurra eta izaki bizidunak*

6. Lurra, planeta habitatua. Planeta batean bizitza ahalbidetzen duten faktoreak. Osagai biokimikoak. Karbonoa: propietateak. Izaki bizidunen ezaugarriak eta eginkizun komunak. Teoria zelularra. Izaki bizidunen dibertsitatea: giroak, tainak, formak eta elikabideak.
7. Izaki bizidunen sailkapena. Bost erresumak. Taxonomiaren atarian. Birusak, bakteriak eta organismo unizelular eukarotikoak. Onttoak. Landareen erresuma. Enbor nagusiak. Animalien erresuma. Enbor nagusiak. Giza espeziea.

Natur Zientziak II

Edukiak

Arloko lengoiaren giltza: irakurriaren ulermena

I. *Materia eta energia*

1. Sistema materialak eta energia. Sistema materialak. Obserbazio makro- eta mikroskopikoaren eskalak. Energia, sistema materialen propietate. Energiaren barietatea sistema materialetan: jarrera, forma eta egoera aldatzea. Energia motak. Energiaren iturriak. Lurra: etengabe aldatzen ari den sistema materiala.

2. Jarrera aldaketak sistema materialetan. Mugimendu sinpleen aurkezpen grafikoa. Indarrak mugimenduaren eta deformazioaren sortzaile. Gorputzen masa eta pisua. Energia mekanikoa.
3. Hautematen dugun energia. Argiaren eta soinuaren hedapena. Haien arteko diferentziak. Bestelako uhinak. Argiaren eta soinuaren hautematea: begia eta entzumen sistema. Beroa: pasabideko energia. Ondorioak. Beroa eta tenperatura. Termometroak. Beroaren hedapena. Isolagarriak eta eroaleak. Beroaren sentipena: azala.

II. *Nola zirkulatzen den energia lurrian*

4. Planetaz kanpoko energia. Eguzki energiaren jatorria. Eguratsa, eguzki energiaren iragazki: haren egitura. Energia islatua: berotegi efektua; nazioarteko azken jarraibideak. Hidrosfera erregulatzailerik termiko. Korranteak, itsasaldiak, uhinak. Planetaren azalera iristen den energia nola banatzen den: kanpoko eragile geologikoen jatorria.
5. Kanpoko eragile geologikoak. Eguratseko eragileak. Meteorizazioa. Zoruak nola sortzen diren. Haizea. Ekintza geologikoa, haize energia. ur basak eta uharrak. Ekintza geologikoa. Ibaiak. Ekintza geologikoa. Ur energia. Glaziarrak. Ekintza geologikoa. Lurpeko urak. Ekintza geologikoa. Aprobetxamendua. Itsasoa. Ekintza geologikoa. Itsas-mugimenduko energia. Jalkin harriak nola sortzen diren. Ikatza eta petrolioak.
6. Planetaren barrengo energia. Lurraren barrengo beroaren jatorria. Kontinenteen mugimenduak. Vulkanismoa eta lurrikarak. Lurreko erliebea. Kontinenteak eta itsas hondaleak. Harri magmatiko eta metamorfikoak nola sortzen diren.

III. *Energia eta izaki bizidunak*

7. Izaki bizidunen funtzioak eta energia kontsumoa. Bizitzaren mantentzea. Elikadura autotrofoa eta heterotrofoa. Fotosintesia, arnasketa eta elikadura zelularra. Izaki bizidunek kontsumitzen duten energia: hazkundera, beroa, mugimendua. Espeziea mantentzea. Animalien eta landareen ugalketa: analogiak eta diferentziak. Koordinazioa, erlazioa eta adaptazioa. Giza ugalketa.

8. Energia jarioa ekosistemetan. Biosfera, Ekosfera eta Ekosistema kontzeptuak. Produzitzailak, kontsumitzaileak eta deskonposatzaileak. Kate eta sare trofikoak. Biomasa energia iturri.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Eguzki sistemaren antolamendua eta lurraren nahiz ilargiaren mugimenduen ezaugarriak esplikatzea, eta bai ere sistema horren gainean historian zehar izan diren zenbait kontzepzio ere.
3. Arrazoen bidez esplikatzea zergatik unibertsoan ugarien dauden elementu kimikoak izaten diren protoi kopuru txikiena dutenak, eta osagai horien propietateak azaltzea.
4. Kalkulu sinpleak ongi egitea, S.I. unitate desberdinak erabiltzea barne dela.
5. Gai hutsak eta nahasturak bereiztea, kontzeptu horiek mineral, harri, aire eta itsas ur kontzepturekin lotuz.
6. Materiaren osaera unibertsalaren ezagupena aplikatzea esplikatzeko zergatik osagai kimikoak bai sustantzia inerteetan eta bai izaki bizidunetan dauden eta bai osagaien eta konposatuen arteko diferentzia esplikatzeko.
7. Materiaren hiru egoerak bereiztea propietate orokorren arabera (dimentsioak, masa, dentsitatea), gure hidrosfera bereziarekin lotuz eta uraren propietateak aipatuz.
8. Lurraren ezaugarri fisiko eta kimikoak azaltzea, esplikatuz horrek zer eragin duen bizitzaren jatorrian, garabidean eta mantentzean.
9. Finkatzea zer irizpideren bidez sailka daitezkeen izaki bizidunak eta animalia eta landare arruntenak osagai diren modelo taxonomiko nagusiak atzema-tea, zenbait egitura jakin eta ingurunera moldatu beharra lotuz.
10. Izaki bizidun guztien funtzio komunak azaltzea teoria zelularra kontuan hartuz.
11. Giza espeziearen bereizgarri diren ezaugarriak deskribatzea.

12. Sistema materialak oso eskala diferenteko unibertsoko partetzat interpretatzea, eta zientziak ikertu ahal izateko egiten dituen mugatzat, energia azpimarratuz haien guztien parte bereiztezina eta aldaketak sortzeko moduko dela.
13. Sistema materialetan gertatzen diren eraldatze batzuk deskribatzea (mugimendua, deformazioak, egoera eta barne aldaketak) eta zenbait kausa aztertzea (indarren eragina, beroa eta abar); kontzeptu orokor horiek aplikatzea Lurra sistema material konkretua den partez ikertzeko.
14. Pisuaren kontzeptua indar bat bezala definitzea eta zehazki bereiztea energia zinetikoa eta potentzialaren kontzeptuak eta beroa eta tenperaturaren kontzeptuak.
15. Argiaren eta soinuaren transmisioari buruzko fenomeno sinple batzuk azaltzea, haien ezaugarriak aztertuz, eta bai haiek atzematen dituzten organoen egiturak eta jardunbidea ere aztertuz.
16. Eguzki energian planetaren azaleran duen banaketa irregularra lotzea kanpoko eragile geologikoen jatorriarekin, horiek lurreko erliebea modelatzeko eta jalkin harriak sortzeko dituzten ondorioak azalduz.
17. Energiaren inguruko zenbait ekintza indibidual eta sozialek ingurumena endekatzen edo hobetzen eta bizi kalitatean izaten duten eragina aztertzea.
18. Bulkanismoa, lurrikarak, erliebearen sorrera eta harri magmatikoen eta metamorfikoen sorrera lotzea planetaren barrengo energiarekin, eta mapa batean kokatzea agerkari horiek maizenik eta bortitzenik izaten diren eskualdeak.
19. Elikatze zelularra eta arnasketa kontzeptuak definitzea, energia lortzearen gaineko ezaupenak aplikatuz.
20. Izaki plurizelularrek beren funtzioak bururatzeko erabiltzen dituzten mekanismoak bereiztea, zehaztuz zein prozesuk sortzen duten energia eta zeintzuek kontsumitzen duten, elikadura autotrofoa eta heterotrofoa eta animalien eta landareen ugalketa bereiziz.
21. Biosfera eta ekosfera kontzeptuak bereiztea, adibide sinpleen bidez ekosistematan energiak dituen jarioak azalduz.

Natur Zientziak III

Fisika eta Kimika

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

Metodo zientifikoaren atarian

Metodo zientifikoa: etapak. Txosten zientifikoa. Magnitudeen neurketa. Nazioarteko unitate sistema. Neurketa gutxi gorabeherakoa da. Sentsibilitatea eta zehaztasuna. Zifra esanguratsuak. Notazio zientifikoa. Datuak taula eta grafikoetan azterturik. Laborategiko lana.

I. Materiaren egitura eta dibertsitatea

1. Materia, elementuak eta konposatuak. Materiaren agregazio egoerak: solido, likido eta gas-egoerak. Teoria zinetikoa eta egoera aldaketa. Gai hutsak eta nahasturak. Nahasturak bereizteko metodoak. Disoluzioak.
2. Atomoak, molekulak eta kristalak. Egitura atomikoa: partikula osatzaileak. Modeloak nola erabili. Zenbaki atomikoa eta elementu kimikoak. Atomoen arteko loturak: molekulak eta kristalak. Gai arruntenen formulak eta izenak IUPAC-en arauen arabera. Masa atomikoak eta molekularrak. Isotopoak.

II. Aldaketa kimikoak eta haien aplikazioak

1. Erreaktibitate kimikoa. Masaren kontserbazioa. Mol kontzeptua. Ekuazio kimikoak eta haiek nola doitu. Masaren kalkulua erreakzio kimiko sinpleetan.
2. Kimika gizartean. Izaki bizidunen oinarritzko osagai kimikoak. Kimika eta ingurumena: berotegi efektua, euri azidoa, ozono geruza suntsitzea, uraren eta lurren kutsadura. Petrolio eta haren deribatuak. Energia nuklearra. Medikamentuak.

III. *Energia eta elektrizitatea*

1. Energia. Energia tradizionalak. Energia iturriak. Energia alternatiboak. Energiaren kontserbazioa eta degradazioa.
2. Elektrizitatea. Karga elektrikoak eta haien arteko eragiketa. Arlo elektrikoa. Eroaleak eta isolagarriak. Karga jarioak, sorgailuak eta korrante elektrikoa. Zirkuitu elektriko sinpleak. Elektrizitatea etxean.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Solido, likido eta gas egoeren ezaugarriak deskribatzea. Egoera aldaketaren muina zertan den aipatzea, teoria zinetikoa erabiliz, grafikoak eta bero ezkutuaren kontzeptua erabiliz.
3. Elementuak, konposatuak eta nahasturak bereiztea, eta azaltzea zein diren haien ikertzeko prozedura kimiko oinarrizkoak. Disoluzioak deskribatzea. Haien osaeraren gaineko kalkulu numeriko errazak egoki egitea. Bereizte eta azalte teknikak azaldu eta erabiltzea.
4. Atomoak eta molekulak bereiztea. Atomoak osatzen dituzten partikulen ezaugarriak aipatzea. Atomoak, ioiak eta isotopoak osatzen dituzten partikulak kalkulatzeko.
5. Zenbait gai inportante formulatu eta izendatzea. Haien propietatea aipatzea. Haien masa molekularrak kalkulatzeko.
6. Aldaketa fisikoa eta aldaketa kimikoa zer den bereiztea. Erreakzio kimiko guztietan masa kontserbatzen dela egiaztatzea. Ekuazio kimiko sinpleak ongi idatzi eta doitzea. Molek esku hartzen duten ariketa numeriko sinpleak egitea.
7. Bizitzaren osagai oinarrizkoak aipatzea. Gure garaiko ingurumen problema nagusiak zein diren eta nola galarazi azaltzea.
8. Interes sozialeko konposatu kimiko batzuen ezaugarri oinarrizkoak azaldu: petrolioa eta haren deribatuak eta farmakoak. Medikamentuak oker erabiltzearen arriskuak azaltzea. Energia nuklearra zer den eta zer problema sortzen dituen azaltzea.

9. Energi iturrien on-gaitzak aipatu eta arrazoitzea. Energia taldeka nahiz bakar-ka aurreztearen aldeko diren neurriak aipatzea. Azaltzea zergatik energia ezin den mugarik gabe berrerabili.
10. Materia kargatzearen prozesu desberdinak azaldu. Materialak eroaletasunaren arabera sailkatu.
11. Ariketak egin Coulomben legeari jarraikiz. Zirkuitu baten magnitude elektrikoak eta haren osagai oinarrizkoak azaldu. Zirkuitu sinpleen ariketa numerikoak egin. Etxeko argindar kontsumoa kalkulatzeko jakin.
12. Korrante zuzeneko zirkuituak segurtasun arauak begiratzeko diseinatu eta muntatzea, haietan korrantearen intentsitatea eta potentzial diferentzia neurtu ahal izateko moduan, kantitateak erabili den aparatuen zehaztasunaren arabera azalduz.
13. Kurtsoan barrena proposatzen diren laborategiko esperientziak egoki egin.
14. Gaur egun Gizartea, Zientzia eta Teknologiaren artean zer harreman dauden azaldu.

Biologia eta Geologia

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Harriak eta mineralak*

1. Materia minerala. Materia mineralaren, materia kristalinoaren eta materia amorfoaren ezaugarriak. Kristalaren kontzeptua. Kristalizazioa. Mineralak, Propietate fisiko-kimikoak eta sailkapena. Aplikazio eta interes ekonomikoak.
2. Harriak. Harrien sailkapen generikoa. Ziklo litologikoa. Jalkin harriak: sailkapena. Harri metamorfikoak: sailkapena. Harri magmatikoak: sailkapena. Harri mota horiek zer interes industrial eta ekonomikoko dituzten.
3. Kanpoko geodinamika.

II. *Giza anatomia eta fisiologia*

1. Gizona animalia plurizelularra. Zelula, ehunak, organoak eta aparatuak. Organismo plurizelularren kontzeptua. Osasunaren eta eritasunaren kontzeptuak. Eritasun infekziosoak sortzen dituzten agente nagusiak. Eritasun horien kontrako borroka. Eritasun ez infekziosoak. Arrazoiak, erremedioak eta aurreneurriak. Organoen birlanaketa. Ondorio etiko eta sozialak.
2. Elikadura eta osasuna. Elikaduraren kontzeptua. Dieta osasungarri eta orekatuak. Elikabide txarrak sortzen dituen eritasunak nola galarazi. Elikagaiak nola kontserbatu, maneiatu eta merkaturatu. Pertsonak eta elikagaien kontsumoa. Elikagai transgenikoak.
3. Elikabidean esku hartzen duten aparatuak. Digestio aparatua. Ohitura osasungarriak. Eritasun arruntenak. Arnas aparatua. Ohitura osasungarriak. Eritasun arruntenak. Zirkulazio aparatua. Ohitura osasungarriak. Eritasun arruntenak. Eskrezi aparatua. Ohitura osasungarriak. Eritasun arruntenak.
4. Harremana eta koordinazioa. Nerbio sistema. Oinarrizko kontzeptuak. Burmuinaren degenerazio prozesuak. Alzheimerren eritasuna. Zentzumen errezeptoreak. Nerbio integratzioko maila desberdinak. Ondorio motoreak. Lokomozio aparatua. Nahi gabeko egintzak. Nahia gabeen gaineko egintzak. Gaurko gizartean gogo osasunari eragiten dioten faktoreak. Sistema endokrinoa. Organismoaren barne kontrola. Gurintxak eta hormona nagusiak. Oreka hormonalak. Eritasun arruntenak.
5. Giza ugalketa. Ugalketa aparatua, Nola diharduen. Hilekoaren zikloa. Ernalgaitasunarekin zer lotura duen. Ernaltzea, haurduntzea eta erditzea. Ernaltzearen kontrako metodoak. Ugalketa teknika berriak; zer balorazio etiko eta sozial dituzten. Higiene sexualaren ohitura osasungarriak. Sexu bidezko eritasunak.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Materia amorfoaren, kristalinoaren mineralaren eta kristalaren kontzeptuak definitzea.
3. Jalkin harri, harri magmatiko eta metamorfiko nagusiak zein diren ikasi, duten jatorria eta dituzten egiturak eta ehundurak lotuz.

4. Zelulen morfologia deskribatu eta organulu nagusien jardunbidea esplikatu.
5. Bizi-funtzioetan esku hartzen duten giza organo eta aparatuak deskribatu eta funtzio horiek eta higiene eta osasun ohituren arteko lotura egin.
6. Digestioaren eta elikagaiak barrentzearen prozesu nagusiak azaldu eta haiek oinarri, elikatze ohitura osasungarriak zein diren azaldu, kontsumismo de-segokia baztertuz.
7. Nerbio sistemak estimuluen aurrean duten integrazio eginkizuna azaldu; nola diharduen deskribatu, sistema asaldatzen duten zenbait faktore aipatu eta bi-zitza ohitura osasungarriek zenbateko garrantzia duten pentsarazi.
8. Sistema endokrinoak integrazioarako duen garrantzia azaldu, hura asaldatzen duten faktore arruntenak aipatuz eta giza gorputzaren organo guztien arteko orekak duen garrantzia baloratu.
9. Lokomozio aparatua osatzen duten hezur eta muskulu nagusiak zein diren jakin.
10. Ugalketa aparatuaren alderdi oinarritzkoak deskribatu, sexualitatea eta ugalketa bereiziz. Ugalketa kontrolatzeko metodoak ezagutzea eta sexu bidezko eritasunak galarazteko metodoak ere bai.
11. Egindako jarduera praktikoen gaineko txosten sinpleak egin.

Natur Zientziak IV

Fisika eta Kimika

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Indarrak eta mugimendua*

1. Mugimenduaren azterketaren atarian. Mugimendua eta erreferentzia sistema. Traiektoria eta posizioa. Toki-aldaketa eta ibilitako espazioa. Lastertasu-

na eta azelerazioa. Mugimendu lerrozuzenekoak eta uniformeak. Mugimendu lerrozuzenekoaren eta uniformeki azeleratuaren azterketa. Eguneroko mugimenduen azterketa.

2. Indarrak eta indarren oreka. Gorputzen arteko elkarreragina: indarrak. Indar motak. Norabide bereko eta angeluko indarren konposizioa eta deskonposizioa. Indarren oreka. Dinamikaren legeak. Igurzpen indarraren tratamendu kualitatiboa. Grabitazio indarra. Gorputzen pisua. Presio kontzeptua. Indarrak fluidoaren barrenean. Presio hidrostatiakoak eta atmosferikoak.

II. *Energia, lana eta beroa*

1. Lana, potentzia eta energia mekanikoa. Lanaren kontzeptua. Unitateak. Lan mekanikoa. Makina eta tresnei nola aplikatu. Potentzia kontzeptua. Energia mekanikoa. Kontserbazioaren printzipioa.
2. Energia trukea. Beroa eta energiaren transferentzia. Energia kontserbatzearen printzipioa. Beroak gorputzen gainean dituen ondorioak.
3. Uhin energia: argia eta soinua. Uhin kontzeptua. Uhin motak eta ezaugarriak. Energia transferentzia masarik garraiatu gabe. Argia eta soinua. Hedapenaren propietateak. Argiaren espektroa.

III. *Atomoa eta aldaketa kimikoak*

1. Atomoen arteko loturak. Osagai kimikoen ordenazioa. Lotura kimikoa, elementuek Sistema Periodikoan duten posizioa oinarri. Lotura ionikodun konposatuak. Lotura kobalentedun konposatuak. Lotura metalikodun konposatuak. Formulazio kimiko inorganikoa IUPAC-en arauen arabera.
2. Erreakzio kimikoak. Erreakzio kimikoen motak. Harreman estekiometrikoak eta bolometrikoak erreakzio kimikoetan. Erreakzioko beroa. Exotermia eta endotermia kontzeptua. Erreakzio kimiko baten lastertasuna. Faktore eragileak.
3. Karbono konposatuen kimika. Karbonoa izaki bizidunen osagai funtsezkoa. Karbonoa eta konposatu organikoen kopuru handia. Karbono konposatuen ezaugarriak. Konposatu organiko sinpleen deskripzioa: hidrokarburoak, alkoholak, azido organiko polimero sintetikoak. Material plastikoak nola sortu eta nola erreziklatu.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Ekuazio nagusiak egoki aplikatzea, azalduz nagusiki zertan bereizten diren mugimendu lerrozuzen uniformeak, mugimendu lerrozuzen uniformeki azeleratua eta mugimendu zirkular uniformeak. Argiro bereiztea zein diren lastertasun unitateak eta zein azelerazio unitateak, eta bai magnitude linealak eta angularrak.
3. Gorputz bati eragiten dioten indarrak zein diren antz ematea, mugimendua sortu ala ez sortu, eta azaltzea zein Dinamika Legeren pean ari diren. Finkatu igurzpen indarrak zenbateko garrantzia izaten duen eguneroko bizitzan. Mugitzen ari den gorputz bati eragiten dioten indarrak marraztea, indar bakoitzaren jatorria adieraziz eta delako gorputzak beste zenbait gorputzekin izan litzakeen elkar eraginak azalduz.
4. Azaldu nola grabitazio indarra unibertsala den.
5. Lan mekanikoa eta lan fisiologikoa bereizi. Azaldu nola lanaren funtsa den gorputz batetik beste batera indar baten bidez energia aldatzea. Azaldu potentzia eta lan bat egiteko lastertasuna bat direla eta esplikatuz zer garrantzia duen magnitude horrek industrian eta teknologian.
6. Lotu prozesu batean energia mekanikoa gertatu den aldaketa eta egin den lana. Egoki aplikatu energia kontserbatzearen printzipioa.
7. Ulertu beroa gorputzean artean pasatzen den energia dela eta hori argiro ageri den zenbait kasu azaldu. Energia kontserbatzearen printzipioa aplikatzea eguneroko bizitzan izaten diren energia aldaketa batzuei.
8. Makina termiko baten jardunbide teorikoa deskribatu eta haren errendimendua kalkulatu. Maiz erabiltzen diren aparatuetan izaten diren energia aldaketak atzeman (aparatu mekanikoak, elektrikoak eta termikoak).
9. Azaldu zer ezaugarri nagusi dituzten uhin mugimenduek. Aipatu uhin mugimendua argiro ageri den zenbait gertaera arrunt. Uhin baten sorrera uhin hori sortu duen perturbazioaren hedapenarekin lotu. Bereizi zein uhin diren luzetarakoak eta zein zeharkakoak eta soinu uhinen eta uhin elektromagnetikoen periodo, maiztasuna eta luzeraren gaineko kalkulu numerikoak egin.
10. Adierazi soinuek zer ezaugarri izan behar dituzten entzun ahal izateko. Soinu igorpenaren nolakoak deskribatu.

11. Teoria atomikoa erabili aurreko gai batzuk oinarri gai berriak nola sortzen diren esplikatzeko. Ekuazioen bidez adierazi eraldaketa horiek aurkezpena, haietan materia kontserbatzearen printzipioa atzemanaz.
12. Prozesu fisikoak eta kimikoak bereiztea. Prozesu kimiko sinpleen enuntziatu eta deskripzioei dagozkien ekuazio kimikoak egoki idatzi eta doitzea eta funtsezko energia prozesuetan esku hartzen duten erreakzio kimikoak aztertzea.
13. Karbono konposatuen formula sinpleak idaztea, konposatu saturatuak eta insaturatuak bereiziz.

Biologia eta Geologia

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena

1. *Lurraren dinamika*

1. Lurreko erliebea nola modelatzen den. Erliebea zer den. Kanpoko eragile eta prozesuak: meteorizazioa, higadura, garraioa eta jalkiera. Erliebea modelatzearen kanpoko faktoreak: litologikoak, estrukturalak, dinamikoak, klimatikoak eta antropikoak. Modelatze litorala. Modelatze karstikoa. Sistema morfoklimatikoak, Saillapena. Eremu epeletako eta eremu desertikoetako sistema morfoklimatikoak.
2. Plaken tektonika. Lurrikara eta sumendien banaketa geografikoa. Wegener eta kontinenteen jitoa. Ozeanoko hondalearen hedapena. Plaka litosferikoak. Plaka ertzak. Plaka tektonikaren frogak.
3. Plaken mugimenduekin lotura duten fenomeno geologikoak. Lurrikarak. Bennioffen planoak. Lurreko bulkanismoa. Dorsal ozeanikoak. Itsas azpiko hobiak. Subdukzioa. Mendikateak nola sortzen diren. Egitura tektonikoak: tolesak, failak eta lerrakuntzako mantuak.
4. Lurraren historia, Lurraren jatorria, denbora geologikoa. Lurraren historia geologikoa: aro geologikoak. Fossilak igarbide.

II. *Genetika eta bilakaera*

1. Genetika. Zelulen ugalketa. Mitosia eta meiosis. Ugalketa eta herentzia. Mendelen legeak. Gen kontzeptuaren atarian. Zenbait eritasun hereditario-ren azterketa. Nola galarazi: jaio aurreko diagnostikoa. Manipulazio genetikoa: aplikazio nagusiak.
2. Bilakaera. Bizitzaren sorrera. Teoria nagusiak. Bilakaera: mekanismoak eta frogak.

III. *Ekologia eta ingurumena*

1. Izaki bizidunak eta ingurumena. Ingurumena eta ingurumen motak. Espezie, populazio eta komunitate kontzeptuak. Ingurune desberdinetara nola moldatu. Lurreko eta uretako ekosistemak.
2. Ekosistemen dinamika. Ekosistema batean energiak duen jariobidea. Materialen zikloa. Ziklo biogeokimiko nagusiak. Ekosistemetan izaten diren aldaketa naturalak. Gizonak eragindako aldaketak. Ingurumenaren gaineko eragina. Nola galarazi.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Izadian, edo foto eta diapositibak erabiliz, erliebearen higadura, garraioa edo jalkiera adierazten dituzten igarbideak atzematea, zein agentek sortuak diren adieraziz.
3. Lurraren barne dinamikako agerkari nagusiak azaldu (lurrikarak, sumendiak, mendikateak, tolesak eta failak), Tektonika Globalaren arabera.
4. Munduko eta eskualdeko mapak egin plaka listoferikoak eta haien mugitzearekin lotutako fenomeno nagusiak non diren adierazteko.
5. Lurraren historiako denbora unitate nagusiak adierazi eta fosilek testigantza stratigrafiko eta paleobiotikoak diren partez zenbateko garrantzia duten azaldu.
6. Zelulen ugalketa deskribatu, meiosiaren eta mitosiaren arteko diferentzia nagusiak aipatuz, eta bai bataren zein bestearen helburua ere.

7. Ezaugarri hereditarioen transmisioko problema errazak askatu, giza eritasunekin lotutakoak ere bai, Mendelen legeez dakitena aplikatuz.
8. Arrazoen gainean zenbait datu azaldu bilakaeraren teoria oinarritzeko, eta teoria horrek piztu zituen eztabaida zientifiko eta erlijiosoak azaldu.
9. Ekosistema batean desoreka sortzen duten faktoreak atzeman eta lehengo oreka berrezartzeko estrategiak finkatu.
10. Zenbait ekosistemaren gaineko giza ekintza batzuk aztertu eta azaldu zer ekintza indibidual, kolektibo nahiz administratibo behar diren ingurumena endekatzea galarazteko.

Prozedurak

Askotariko testuak bakarka irakurri, ulertuz: manualak, dibulgazio liburuak, kazeta zientifikoak eta abar.

1. Informazio nola bildu eta jaso. Tresnak nola eskukatu eta erabili. Obserbazioa.
 - a) Informazio iturriak nola erabili.
 - b) Tresnen bidez zuzeneko nahiz zeharbideko obserbazioa nola egin.
 - c) Neurketa tresnak nola erabili.
 - d) Irudikapen sistemak nola erabili.
 - e) Datuak nola antolatu eta taula sinpleetan sailkatu, eta grafikoak nola eratu.
 - f) Magnitudeak nola neurtu, eskalak, unitateak eta adierazpen numerikoak nola erabili.
 - g) Grafikoak nola interpretatu.
 - h) Datuak kalkulagailuarekin eta ordenagailuarekin nola prozesatu.
 - i) Elementuak zenbait irizpide jakinen arabera nola sailkatu.
 - j) Ordenazioa eta sekuentzia.
2. Modeloak nola aztertu eta konparatu. Inferentzia aurreikuspenekoak, kausalak eta deduktiboak nola egin.
 - a) Egoerak aztertu harreman kualitatiboak inferitzeko.
 - b) Printzipio edo eredu bat oinarri hartuta egoerak aztertu eta interpretatu.
 - c) Datu multzo bat oinarri jarraibideak deduzitzea.

- d) Egoera, aparatu edo material bat ebaluatzea, alderdi esanguratsu bat baino gehiago kontuan harturik.
 - e) Fenomeno edo prozesuen dedukzio aurreikuspenezkoa eta kausala.
 - f) Eredu bat osatzeko moduko hipotesiak igortzea.
 - g) Eredu bat oinarri, fenomenoak edo emaitzak aurreikustea.
 - h) Ereduen konparazioa.
 - i) Ikerketa teknikak planifikatu eta erabiltzea (ikertu beharreko problema zein den finkatu, aldagaiak atzeman eta kontrolatu, hipotesiak egin, esperimentuak diseinatu, datuak bildu, hipotesia egiaztatu, ondorioak atera eta txostenak egin.
 - j) Problema numeriko edo algoritmikoak askatzeko estrategiak aplikatzea.
3. Informazioa ulertzea.
- a) Diskurtso zientifikoa ulertzeko estrategiak.
 - b) Harreman kontzeptualak ezartzeko estrategiak.
 - c) Antolamendu kontzeptuala.

Jarrerak

1. Zientzia jardueraren ezaugarrien ondoriozkoak
- a) Informazioa komunikatzean zorrotz eta eraginkor jokatu.
 - b) Baieztapenak edo teoriak, baita norberarenak ere, kritikoki juzgatu. Jankintza zientifikoa antidogmatikoa dela konturatzea. Esperimentu bidezko kontrastazioa irizpidetzat erabiltzea.
 - c) Problema konpontzeko estrategiak biltzerakoan beregain jokatu.
 - d) Lana talde lan gisa ulertu. Zureekin bat ez datozen ideiak onartzen ikasi. Argudio bidezko eztabaida erabiltzea ondorioak ateratzeko metodotzat.
 - e) Esperientziak egiterakoan eta datuak eta informazioak biltzerakoan zorrotz eta zehatz jokatu.
2. Izaki sozialaren oharmenaren ondoriozkoak.
- a) Talde ekintzen zein gizabanakoaren ekintzen eraginez ohart izan.
 - b) Baliabideak baloratu eta haiek erabiltzerakoan arduraz jokatu.
 - c) Beste izaki bizidun batzuen egintza baloratu.

- d) Gizaki guztiak berdinak direla ohar hartu. Diferentzia indibidualak errespetuz aintzat hartu.
 - e) Norberaren eta taldearen osasunarekiko arduraz jokatu.
 - f) Segurtasun arauak materialak eta aparatuak erabiltzean.
3. Zientzia kulturako osagaitzat ulertzearen ondoriozkoak.
- a) Zientzia eta teknologiaren arteko harremanen garrantziaz konturatzea, gizarteko premiak konpontzeko.
 - b) Informatzeko interesa agertu, koherentziaz parte hartzeko problema kolektibo zein indibidualen aurrean erabakiak hartzerakoan (kontsumoa).
 - c) Jarrera aktiboa izan, baliabideen banaketaren, bizitza kalitatearen, osasunaren, garraioaren eta abarren ondoriozko problemen aurrean.
 - d) Zientzia Historian barrena garatu den jarduera soziala dela ulertzea, munduaren ikuskera baldintzatu zuena eta duena.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Sarrera

Gizarte bat ongi ezagutzea, bai haren iraganari eta bai kokaleku duen lurraldeari dagokionez, beti izan da gure Mendebalde honetan gazteen hezkuntzako osagai inportantea. Geografia eta Historia, edozein errealitate edo prozesu denboraz eta eremuz zein koordinatutan txertatzen den finkatzen duten partez, giza jakintza-ren eremuko bizkar-hezur dira.

Historiak, batetik behar adina juzgu-gai eman behar dizkio ikasleari gizarteek denboran duten bilakaera ulertzeko. Geografiak, berriz, eremuari dagokionez egiten du lan hori. Bien ahala bien helburua da ikasleak eskolatzea, munduaren ikuspegi osotarakoa eta gizarte plural eta solidario batean jarrera etiko positiboa hartzeko behar duten balio saila emanaz.

Horiek gogoan, bada, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburu orokorren zerbitzuan, zenbait helburu komun definitu dira arlo osorako, gaitasun orokorrak eta ikaskizun konkretuak garatzen dituztenak.

Geografian helburu horien bidez lortu nahi da ikasleak ingurumenari buruz sentikortzea eta unitate geografiko handiak ezagutzea, gehienbat Europa eta Hispanoamerikakoak, eta Espainiako eta bereziki Nafarroako geografiaren alderdi komunak eta diferenteak ere ezagutzea.

Historian, bilakaera eta memoria historikoaren kontzeptuak eman nahi zaizkio ikasleari. Hortaz aldaketaren eta iraupenaren nozioak eta horien azpiko arrazoiak ulertuko ditu, denboran finkatu eta eremuan kokatuko ditu ardurako prozesu eta

gertaerak; Espainiako eta Nafarroako Historiaren alderdi komun eta pluralei antz emanen, eta ohartuko da gure erkidego eta eskualdeen aniztasun eta aldakortasuna gure ondare historiko komunaren osagai direla.

Oinarrizko eduki komun gehienak Geografia eta Historiatik heldu dira, eta haien arabera moldatzen dira beste zientzia hurbileko batzuen kontzeptuak. Aurkezpenarako, blokekako sekuentzia bat hobetsi da, blokeok ongi bereiziz, diakronia, sinkronia eta eskala bateratzeko aukera ematen baitu. Edukiak garatzerakoan, Nafarroa, Espainia eta Europari buruzko alderdi hurbilenak bateratzen dira errealtate unibertsal zabal eta urrutikoekin.

Edukiak hautatu eta ordenatzeko, arlo honetako bi diziplinen berezitasuna hartu da aintzat. Kurtso bakoitzean edukiak gai multzotan biltzen dira, eta horiek ere idazpurutan, gaiaren alderdi konkrituak xehatzeko. Edukien banaketa honetan, bada, historian irizpide gehienbat kronologikoak hartu dira aintzat, eta geografian eremu eta eskala irizpideak.

Lehenbiziko zikloan, bi gaietako edukiak sartu dira kurtso bakoitzean. Lehen kurtsoan, Historiari dagokionez, Historiaurrea eta Antzinateko historia sartu dira; geografian, berriz, Lurraren eta ingurune naturalen azterketa. Bigarren kurtsoan Erdi Aroa eta gizartearen azterketa geografikoa.

Bigarren zikloan, espezializazio gehiago eskatzen baitu, juzkatu da hobe zela bi gaietako edukiak bereiztea. Horretara, hirugarren kurtsoan geografia hutseko edukiak lantzen dira. Laugarren kurtsoan gizarte historikoek Aro modernotik gure munduraino izan duten bilakaera jorratzen da. Ebaluazio irizpideek harreman zuzena dute helburu eta edukiekin.

Orain arte azaldu den plan honek ikasleen garapen psikologikoa errespetatu behar du, eta haien ulermena pixkanaka handiagotuz joan, eta horrez gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak Geografia eta Historian trebatzen hasi, gutiz inportantea baita, eta bai behar adinako oinarria eman ere ondoren gauza izan daitezten gai horietan sakonago janzteko dela beren buruz ikasiz dela beste bide akademikoetan.

Irakaskuntza metodoak hautatzea, jakina, irakasle bakoitzaren ardua da; hala ere, arrazoizkoa da hezkuntza diseinua hau azaltzen ari garen honetan, zenbait erreferentzia didaktiko egitea. Ildo horretatik eginahala eginen da ikaslea ohitu dadin gertaera geografiko sinple batzuk hautematen, haien osagaiei antz ematen eta haien ezaugarriak aurkitzen, hartarako sistematikoki erabiliz mapak, irudiak, testuak eta datu estatistikoak. Ezinbestekoa da lortzea ikasleak interes har dezan fenomeno horiek kokatu eta deskribatzeko eskala orokorrean, Espainiakoan eta

Nafarroakoan. Etapa honetako lehen zikloko geografiak giza gertaera eta gertaera fisikoen kokatze eta deskribatze lan hori hartzen baitu ardatz.

D.B.H.ko bigarren zikloan gertaera sinple horiek hauteman eta deskribatu ez ezik, fenomeno geografiko konplexuagoak ere aztertuko dira. Geografia irakasteak, ziklo honetan, faktore geografiko desberdinen arteko harremana eta horren ondoriozko eremuen antolamendu erak ikastea izanen du helburu. Hartarako ikasleek informazio iturriak erabili beharko dituzte, eta fenomeno desberdinei antz ematen ikasi, hartarako mapa tematikoak konparatuz eta bere inguruan kanpo lanak eginez.

Historiaren irakaskuntzari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan barrena irakasleek pixkanaka sartu beharko dituzte oinarrizko informazioa bereganatu eta erabiltzeko metodoak, testu laburrak eta mapa historiko sinpleak emanaz, eta bai irudiak, mapa geografikoak, estatistikak edo prentsa berriak, adin bakoitzaren ezaugarriak kontuan harturik.

Teknologia berriak erabiltzeak makina bat datu eskuetaraten dizkio ikasleari; gehiegi ere bai batzuetan, behar diren irizpideen arabera hautatzen ez badira. Horrek batzuetan mugatu egin dezake ikaslearen sormena eta gaitasun kritikoa. Horregatik irakaslearen gidaliburua ezinbestekoa da baliabide horiek egoki erabiltzeko. Dituen informazio iturriak aztertzeko metodo egokia eskura izaten badu, ikaslea gai izanen da ondorio pertsonal arrazoituak eta argudiatuak itxuratzeko. Horiek oinarri, irakasleek behar den sintesia egin, historiaren diziplinak behar duen zorroztasun zientifikoarekin.

Historiak testigantza idatzia du abiapuntu nagusia, baina ikus-entzunezko hedabideek –zineak eta telebistak bereziki– hartu duten garrantzia ikusirik, ezinbestekoa da haiek ere erabiltzea klasean. Irakasleak lagun egingen dio ikasleari hark ohartuki aztertzeko irudi eta soinuen bidez heldu zaion informazioa, eta horrela ondoren analisi kritikoa egiteko gai bihurtuko. Ardatz kronologikoen, honetarako, oso baliagarriak dira prozesu handien dimentsioari antz emateko, zeinen barrenean bakarkako gertaera esanguratsuenak azpimarratzen iren.

Kontuan har bedi historia irakasteak ulertarazi behar diola ikasleari zein garrantzi handikoa den iraganaren azterketa orainaldia ulertu eta etorkizunerantz abiarazteko gai izanen bada.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada,

zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko teknikan trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkion askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Geografia eta Historiak berezko dituen teknikak erabiliz informazioa hautatzea problemen arrazoiak eta ondorioak esplikatzen eta iragan historikoa eta eremu geografikoa ulertzeko.
4. Gertaera sozialak gidatzen dituzten prozesu eta mekanismo oinarrizkoak zein diren jakin eta jakite hori gizartearen iragana eta antolamendua ulertzeko erabiltzea.
5. Irudiak, aurkezpen kartografikoak eta bestelako informazio iturri geografikoak erabiltzea objektu eta gertaera geografikoak atzeman eta kokatzeko eta hainbat eskalatan haien banaketa esplikatzen, Espainiako eta Nafarroako lurraldeari kasu berezia eginaz.
6. Ingurune fisikoko elementuak zein diren atzeman eta ingurune natural nagusiak eta haien banaketa deskribatu eta ezaugarritzea, Europako, Espainiako eta Nafarroako lurraldeari kasu berezia eginaz.
7. Gizarte taldeek baliabideak nola erabiltzen dituzten aztertu eta horren ingurumen ondorioak baloratu.
8. Munduaren dibertsitate geografikoa ezagutu, haren giza ezaugarri eta ezaugarri fisiko nagusiak, eta eremu sozioekonomiko, kultural eta politiko handiak bereiztea.
9. Espainiako eta Nafarroako giza ezaugarri eta ezaugarri fisikoak eta haien geografia eta kulturen dibertsitatea ulertu.
10. Eremu geografiko bat deskribatu eta haren ezaugarriak aipatu. Landa eta hiri paisaiak, paisaia industrialak eta zerbitzukoak zein diren atzeman, Europako, Espainiako eta Nafarroako lurraldeari kasu berezia eginaz.
11. Denboran eta eremuan atzeman eta kokatzea ardurako prozesu eta gertaerak, Gizadiaren bilakaera historikoaren ikuspegi osotarako lortzeko, esparru kronologiko zehatza eta data kakoen eskema bat erabiliz.

12. Kolektibitateen eta pertsonaia handien bilakaera esplikatzeko duten faktore multikausalen harremana ulertzea, historiaren ikuskera erredukzionista batean ez erortzeko.
13. Historia unibertsalean, Europakoan, Espainiakoan eta Nafarroakoan pixka bat trebatzea, horrela ikasleek munduaren ulermen egokia lortu eta gai izan daitezkeen beren sustraia lokalak unibertsalekin lotzeko.
14. Ondare natural, historiko, linguistiko, kultural eta artistikoa baloratu eta errespetatzea, hori kontserbatu eta hobetzeko ardura beren gain hartuz.
15. Tolerantzia eta solidaritatearen balioak indartzea, hartarako etapa historiko desberdinetako gertaerak eta dibertsitate geografiko, natural eta kulturala ikasiz.
16. Demokrazia eta giza eskubideak ulertu eta baloratzea, proiektu sozial desberdinen gertaleku izanen den esparrua den partez.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Lurra eta ingurune naturalak*

1. Lur planeta
 - Lur planeta eguzki sisteman.
 - Lurraren mugimenduak eta haien ondorioak. Lurra nola irudikatu. Mapak eta irudiak.
2. Ingurune naturalaren osagaiak
 - Lurraren osaera. Lurreko plakak eta nola dauden banaturik. Kontinenteak eta ozeanoak.
 - Lurreko erliebea. Kontinenteetako erliebe unitate handiak eta nola dauden banaturik. Ozeano hondaleetako erliebea.
 - Eguratsa eta eguratseko fenomenoak. Klimak eta nola dauden banaturik.

- Izaki bizidunak: landaretza, zorua eta animaliak.
 - Ur kontinentalak.
3. Ingurune naturalak. Banaketa geografikoa.
- Ingurune hezeak, eskualde polarrak, tundrak, oihan boreala, mendi alpinoak eta basamortuak.
 - Oihan tropikalak eta sabanak.
 - Ingurune epel-hezeak eta mediterraniarrak, Europari, Penintsula Iberikoari eta Nafarroari garrantzi berezia emanaz.
4. Arrisku naturalak.
- Arrisku klimatikoak: lehorteak, uholde euriak eta zikloi tropikalak.
 - Lurrikarak eta sumendien erupzioak.
5. Ingurune naturalak eta gizonaren eragina.
- Gizonak ingurumen naturaletan esku hartzearen zenbait ondorio. Arrisku eta katastrofeak galarazi, zuzendu eta gutxiagotzeko neurriak.

II. *Historiaurrea eta Antzinateko Historia*

6. Hominizazio prozesua. Historiaurrea
- Paleolitoa. Iraultza neolitikoa eta metalen aroa.
 - Historiaurreko artea eta arkitektura megalitikoa.
7. Historiako lehenbiziko zibilizazioak.
- Egipto eta Mesopotamia,
 - Artea eta kultura.
8. Grezia: Europako kulturaren oinarriak.
- Kreta eta mundu mizenikoa.
 - Polisa. Greziako demokrazia.
 - Helenismoa. Artea eta kultura.
9. Erromako zibilizazioa: Mediterranioko munduaren batasuna
- Herri germaniarrak. Errepublika eta inperioa.
 - Kristautasuna.
 - Erromako artea eta kultura.

10. Hispania erromatarra
 - Erromatarren aurreko herriak. Feniziarren, grekoen eta kartagotarren kolonizazioak.
 - Konkista eta erromatartzea.
 - Kultura hispano-erromatarra.
 - Bisigodoen erreinua: antolamendu politikoa eta instituzioak. Artea eta kultura.
11. Historiaurrea eta Antzinatea Nafarroan
 - Historiaurreko zenbait aztarna.
 - Baskoiak eta erromanizazioa.
 - Bisigodoen jaunaldia

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia II

Edukiak

Arloko lengoiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Gizarteak*

1. Munduko populazioa
 - Munduko populazioaren banaketa geografikoa.
 - Populazioaren dinamika. Mugimendu naturalak eta migrazio mugimenduak.
 - Egitura demografikoak.
 - Populazioaren hazkundera.
 - Nafarroako populazioa.
2. Gizartearen jardura ekonomikoa.
 - Jardura ekonomikoaren funtzionamendua. Produkzioa, truketzea eta kontsumoa.

- Eragile ekonomikoak.
 - Produkzio faktoreak. Baliabide naturalak, lana eta kapitala.
 - Jarduera ekonomikoaren ezaugarriak.
 - Europako, Espainiako eta Nafarroako ekonomia.
 - Informazioaren gizartea eta ekonomia.
3. Gizarteen antolamendua
- Gizartearen egitura. Gizarte estratifikazioa. Lanaren banaketa tekniko eta soziala.
 - Gizartearen dinamika. Gizarteko aldaketa eta liskar prozesuak.
 - Giza taldeen dibertsitate kulturala.
 - Europako, Espainiako eta Nafarroako gizartearen ezaugarri nagusiak.
4. Gizarteen antolamendu politikoa.
- Estatua, entitate politiko eta geografiko. Erakunde subestatalak eta supraestatalak.
 - Erregimen politikoak. Estatu demokratikoak, diktadurak eta bestelako Estatu ez demokratikoak.
 - Espainiako eta Nafarroako mapa politikoa. Europako batasunaren mapa. Munduaren mapa politikoa.
 - Nazio Batuen Erakundea.

II. *Erdi Aroa*

5. Mediterranioko batasunaren apurtzea.
- Bizantzioko inperioa.
 - Mahoma eta islama.
 - Karlomagnoaren inperioa. Europaren sorrera.
 - Artea eta kultura.
6. Europa feudala.
- Feudalismoa. Jaunak, apaizak eta nekazariak.
 - Hirien goraldia. Burgesia eta gremio antolamendua.
7. Europa XI. mendetik XV.era.
- Europaren hedapena (XI. mendetik XIII.era). Gurutze gerren denbora.

- Erdi Aroaren krisia (XIV. eta XV. mendeak): atzerakada demografiko eta ekonomikoa.
 - Arte erromanikoa eta gotikoa Europan eta Espainian.
8. Penintsula Iberikoa Erdi Aroan: Al-Andalus
 - Konkista.
 - Bilakaera politiko, ekonomiko eta soziala: emiratoa, kalifatoa eta taifa erresumak.
 - Kultura eta artea.
 9. Penintsula iberikoa erdi aroan: erresuma kristauak.
 - Errekonkista eta jendeberritzea.
 - Instituzio politikoak.
 - Aragoiko koroak Mediterraneoan hartutako itzala.
 - Atlantikoko bideak: portugesak eta gaztelauak.
 - Espainia, kulturen batgune: kristauak, musulmanak eta juduak.
 10. Nafarroa Erdi Aroan
 - Bisigodoetatik musulmanetara (VI-VIII. mendeak).
 - Iruñeko erresumaren sorrera eta susperraldia (X-XI. mendeak). Nafarroako Zuzenbide berekia. Iruñeko erresumatik Nafarroako erresumara (XI-XIII mendeak).
 - Dinastia ingelesak eta erdi aroko erresumaren bukaera (1234-1512).
 - Arte erromanikoa eta gotikoa Nafarroan. Donejakue bidea.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berriazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Lur planeta ezagutzea. Irudi mota desberdinak eta lurreko eremuaren beste irudikabideak erabiltzea. Mapetan toki eta eremu konkretuak kokatzea. Plaka kontinentalak eta ozeanoak nola dauden banaturik jakitea. Orientatzea eta distantziak kalkulatzeko. Krokisak eta grafikoak itxuratzea.
3. Ezaugarri fisiko nagusiak atzeman eta kokatzea: erliebea, klima, urak eta planetako, Europako, Espainiako ingurumen naturalak osatzen dituzten elementu biogeografikoak, Nafarroakoei garrantzia berezia emanaz, eta gizonaren eskuak eragindako eraldaketak aztertu.

4. Hominizazio prozesua eta gizadiak idazkera azaldu arte izan duen bilakaera kulturala ulertu, eta Espainiako eta Nafarroan iraultza neolitikoarekin heldu diren errotikako aldaketak aztertzea.
5. Lehenbiziko zibilizazio historikoen ezaugarri nagusiak ezagutu eta zibilizazio grekoaren alderdi orijinalak atzematea, hala nola mendebaldeko zibilizazioari egin dizkion ekarpenak, Zibilizazio erromatarraren ezaugarriak zein diren jakin. Denboran eta eremuan bereizi eta kokatu Penintsula Iberikoan antzinatean izandako kulturak, eta erromatartzeak izan zuen garrantzia eta legatu horrek Espainian eta Nafarroan dituen perbibentziak baloratzea.
6. Oinarrizko eskema bat erabiliz, bisigodoen aroa Hispania Erromatarraren eta Erdi Aroaren arteko zubia dela ulertu.
7. Populazioak munduan nola dagoen banaturik jakin, herriak eta eskualdeak populazio dentsitatearen, populazio dinamikaren eta egituraren arabera bereiziz. Superpopulazio, migrazio eta zahartze kontzeptuak hainbat eskalatan aplikatu. Espainiako eta Nafarroako populazioaren ezaugarriak aztertu. Populazioaren gaineko mapa tematikoak interpretatu. Gertaera demografikoen gaineko grafikoak interpretatu eta itxuratu.
8. Kasu konkrituak aztertuz, jarduera ekonomikoaren funtzionamendua, haren oinarrizko mekanismoak eta eragileak zein diren ulertu eta bereizi. Sistema ekonomiko nagusien ezaugarriak atzeman, Espainiako eta Nafarroako jarduera ekonomikoaren alderdi geografikoei garrantzi berezia emanaz, eta grafiko eta mapa tematikoak interpretatu eta itxuratzea.
9. Lanaren banaketa tekniko eta soziala eta haren ondorio sozioekonomikoak atzeman, aztertu eta baloratzea. Gizartearen dinamika eta mundu soziolaboralaren antolamendua zein den jakin, Europa, Espainia eta Nafarroari garrantzi berezia emanaz.
10. Munduko estatuak atzeman eta kokatzea. Mapa politikoak interpretatu. Espainiako eta Nafarroako antolamendu politiko-administratiboa, Espainiako mapa politikoa eta Europako batasunarena ezagutzea.
11. Azpimarratzea zenbateko garrantzia eta ondorioak izan zituen mundu mediterraniarraren batasuna apurtzeak eta hiru zibilizazio eredu desberdin eratzekak: Bizantzio, islama eta kristautasun latinoa.
12. Europa feudalaren alderdi sozioekonomiko, politiko eta ideologikoak atzeman eta deskribatzea, eta Estatu modernoa sortu arte zer bilakaera izan duten aztertzea, Nafarroako berezitasunei garrantzia berezia emanaz.

13. Erdi Aroan Penintsula Iberikoan bata bestearen ondotik etorri ziren unitate politikoak bereizi eta denboran nahiz eremuan kokatzea, Nafarroari garrantzia berezia emanaz, haien alderdi komunak eta haien berezitasunak aztertuz.
14. Espainiak eta Nafarroak Erdi Aroan izan zituzten alderdi kultural eta artistikoen garrantzia atzematea, eta gure ondare historikoa nola aberastu zuten ulertu.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. Gizarteak ingurumen naturaletan izaten duen eragina. Eremu geografikoak eta jarduera ekonomikoak.
 - Izadiaren eta gizartearen arteko harremanak. Eremu geografikoen sorrera. Nekazaritza jarduerak. Mota nagusiak. Arrantza jarduera. Nekazaritzako paisaiak eta haien banaketa geografikoa.
 - Energia iturriak, lehengaiak eta industria. Banaketa geografikoa, Eremu industrialak.
 - Zerbitzuak. Merkataritza, garraioak eta komunikazioak munduan. Turismoa. Eremu komertzialak. Aisia eremuak.
 - Ingurumen naturala gehiegi esplotatzearen ondoriozko problemak. Giza jardunak ingurumenaren gainean izaten dituen ondorioak. Ingurumen krisiak.
2. Hiria eremu geografiko
 - Populatze modua. Landa populatzea eta hiri populatzea. Landa eremuen urbanizazioa. Hiria. Hiri jarduerak. Hirien barnealdea. Hiri egituren dibertsitatea.
 - Hirien hazkundera. Konurbazioak eta megalopoliak. Lurraldearen urbanizazioa. Hiriaren problemak.
3. Espainiako eremu geografikoa
 - Unitate fisiko handiak. Eskualde naturalak. Nafarroako eskualdeak.

- Ingurumen problemak Espainian.
 - Espainiako populazioa. Populazioa eta populatze modua Nafarroan.
 - Jarduera ekonomikoak. Nekazaritza jardueren modernizazioa eta industria-
ren berregituratzea. Zerbitzuen garapena.
 - Sektore ekonomikoak Nafarroan.
 - Espainiako hiriak eta urbanizazio prozesua. Nafarroako hiriak. Iruña eta Iru-
ñerria. Tuterako eta Tuterako Erribera.
 - Estatuaren lurralde antolamendua 1978ko konstituzioan. Estatuaren auto-
nomi antolamendua, Nafarroako Foru Komunitateari aipamen berezia egi-
naz. Jende baliabideek eta baliabide fisikoek, bilakaera historikoak eta ga-
rapen ekonomikoak zer pisu izan duten lurraldearen antolamenduan.
 - Espainiako dibertsitate geografikoa: Komunitate Autonomoen azterketa
geografikoa. Nafarroako Foru Komunitatearen azterketa geografikoa.
4. Munduaren eremua eta haren problemak
- Mundua gero eta elkarri lotuagoa. Mundializazioaren ondorioak. Mundu
osoko eremu geografiko baten sorrera. Gaurko munduaren problemak
ikusuntu geografiko batetik ikusirik.
 - Populazioaren hazkundera eta baliabideen bilakaera.
 - Desberdintasun sozioekonomiko eta ingurumenekoak. Ipar-hego harrema-
nak.
 - Liskar politikoak gaurko munduan.
 - Munduaren dibertsitate geografikoa. Eskualde multzo handien azterketa
eta zenbait estaturena, Europa eta Iberoamerikari garrantzia berezia ema-
naz.
5. Europa. Europako Batasuna.
- Europaren egitura fisikoa.
 - Europako populazioa.
 - Lurraldeen arteko desorekak.
 - Europako batasunaren sorrera eta haren antolamendua.
 - Nafarroa Europako Batasunean.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Azaldu zer nolako elkarreraginak gertatzen diren gizartean eta ingurunearen artean eremu geografikoak sortu eta antolatzerakoan. Motak bereizi, giza eragina nolakoa eta zenbatekoa izan den kontuan harturik, eta ingurumenearen gaineko ondorioak baloratzea.
3. Baliabide naturalen mota nagusiak bereizi eta munduan nola dauden banaturik ikusi. Gizarterako zer garrantzia duten baloratu eta arrazionalki esplotatu behar diren garrantzia ulertu.
4. Giza ekintzak ingurumenaren gainean dituen ondorioak hauteman eta deskribatu, bereziki Europan, Espainian eta Nafarroan. Ingurumenaren alde zer proposamen egiten diren jakin eta ingurunearen alderako errespetua agertu.
5. Landa eremuak, eremu industrialak, komertzialak eta turistikoak eta haien banaketa ezagutu. Garraio eta komunikazio ardatz nagusiak eta trukeen ibilbideak non diren kokatu. Jarduera ekonomikoak Nafarroan.
6. Hiriaren egitura, morfologia eta eginkizunak azaldu. Hiriek lurraldea nola egituratzen duten jakin. Munduko hiri eremu nagusiak kokatu. Iruñaren eta haren hiri ingurunearen ezaugarriak jakin, eta bai Tuteran eta Nafarroako hiri txikiagoenak ere. Hiriko bizitzaren on-gaitzak baloratu.
7. Espainiaren ezaugarri geografikoak konparatu, komunak eta diferenteak direnak bereiziz.
8. Espainiako Estatuaren antolamendu politiko-administratiboa atzeman eta azaldu. Estatuaren egitura autonomikoaren ezaugarriak eta komunitate autonomoen dibertsitatea, Nafarroako Foru Komunitateari garrantzia berezia emanaz. Lurraldeen arteko desorekak aztertu.
9. Munduko eremu geopolitiko ekonomiko eta kulturalak atzeman eta kokatu. Zenbait Estatu islagarriren ezaugarri geografikoak aztertu.
10. Europako Batasunaren ezaugarri geografikoak eta haren dibertsitatea ezagutu. Espainia eta Nafarroan Europako Batasunaren kide izatearen ondorioak aztertu.
11. Gaurko munduaren problema nagusiak atzeman eta geografiaren ikuspuntutik aztertu. Ingurunearen alderdi geografikoak ezagutu, atzeman eta baloratu, ingurune naturalaren eta giza ekintzaren arteko elkarreraginaren ondorioak diren partez.

12. Iturri sinpleetatik gai geografikoen gainean informazio ardurakoak eskuratu. Informazioen artean lotura egin gizarte gertaerak esplikatzen. Mapak, krokisak, grafikoak eta taula estatistikoak erabili eta interpretatu, informazio iturritzat eta azterbide eta sintesi bidetzat erabiliz.
13. Bakarka nahiz taldeka lan sinpleak eta ahozko azalpenak itxuratu arlo honetako gaien gainean, behar den hiztegia eta behar den zuzentasun formala erabiliz.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia IV

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. Aro modernoa

1. Estatu modernoaren sorrera
 - Aro modernoaren hasierako aldaketa sozial eta ekonomikoak. Hasierako kapitalismoa. Monarkia autoritarioak Mendebaldeko Europan.
 - Errege-erregina katolikoak: Estatu modernoaren oinarriak. Kanpo politika eta Italiako gerrak. Europaren hedapena: Kanariak eratzekitzea eta Amerika aurkitzea.
 - Nafarroa aro modernoan. Nafarroa Gaztelarekin batzea (1512).
2. Errenazimendua eta erreforma
 - Humanismoa eta erlijio krisia.
 - Karlos V.aren Europa. Felipe II.aren monarkia hispanikoa.
 - Colónen aurreko kulturak. Amerika hispanoaren sorrera.
 - Errenazimentuko artea.
 - Errenazimenduaren zenbait adibide Nafarroan.
 - Nafarroako instituzioen sendotzea.
3. Barrokoko Europa
 - Eraldaketa ekonomikoak: merkantilismoa.
 - Eraldaketa politikoak. Absolutismoa.

- Luis XIV.aren Frantzia. 30 urteetako gerra eta Westfaliako Europa.
 - Arte barrokoa.
 - Arte barrokoaren zenbait adibide Nafarroan.
 - Espainiako Urrezko mendea.
 - Nafarroako gizartea eta ekonomia XVII eta XVIII. mendeetan.
4. Argien mendea
- Ilustrazioa. Despotismo ilustratua. Ingalaterrako parlamentarismoa.
 - Borbondarren erreformismoa Espainian eta Amerikan. Karlos III.a.
 - Europako artea XVIII. mendean: neoklasizismoa. Neoklasizismoaren zenbait adibide Nafarroan.
 - Nafarroako foru instituzioak borbondarren Estatu espainolean.

II. Aro garaikidea

5. Erregimen Zaharraren krisia. Liberalismoa.
- Ingeles Iraultzaren etapa nagusiak. Napoleonen inperioa. Vienako kongresua eta Errestaurazioaren garaiko Europa. Iraultza liberalak: 1830 eta 1848.
 - EEBBen eta Amerika espainolaren independentzia. Absolutistak eta liberalak Nafarroan: karlistadak.
6. Iraultza industrial.
- Iraultza industrial Ingalaterran: hedapena. Bigarren iraultza industrial.
 - Eraldaketa ekonomiko eta sozialak: burgesiaren goraldia.
 - Langileen mugimendua: sindikalismoa, anarkismoa eta sozialismoa.
7. Espainia XIX. mendean
- Erregimen Zaharraren krisia: gerra eta iraultza.
 - Kadizko gorteak eta 1812ko konstituzioa.
 - Estatu liberalaren sorrera: Isabel II.aren erresuma.
 - 1868ko iraultza eta Seiurteko demokratikoa.
 - Errestaurazioaren sistema eta mende bukaerako krisia.
 - XIX. mendeko artea eta kultura.
 - Nafarroa XIX. mendean, 1841eko Lege Itundua.
 - XIX. mendeko artearen zenbait adibide Nafarroan.

8. Inperialismoaren garaia

- Nazionalismoak: Italia eta Alemaniaren batze prozesuak.
- Hedapen koloniala eta potentzia handien arteko tentsioa.
- Lehenbiziko Mundu gerra. Parisko Bakea eta Europako mapa berria.
- Europako kultura XIX. mendean. Erromantizismotik inpresionismora.
- XIX. mendeko artearen zenbait adibide Nafarroan.

9. Gerra bitartea.

- Errusiako iraultza.
- ESSBaren sorrera.
- 1929ko krisia. Depresio Handia. Totalitarismoak gorabidean eta gerrarako bidea.
- XX. mendeko artea eta kultura. Abangoardiak.

10. Espainia XX. mendeko lehenbiziko herenean.

- Alfontso XIII.aren erresuma.
- II. errepublikaren etapak.
- Gerra zibila eta haren ondorioak.
- Nafarroa bigarren errepublikan eta gerra zibilean.

III. *Gaurko mundua*

11. Bigarren mundu gerra eta haren ondorioak.

- Gerra nola piztu eta nola garatu zen. Nazioarteko ordena berria. NBE.
- Gerra hotza.
- Asia eta Afrikaren deskolonizazioa.
- Zientzia, Kultura eta artea XX. mendeko bigarren erdian.

12. Mendebaldeko mundua.

- EEBBen hegemonia eta munduko ordena ekonomiko berria.
- Demokrazia eta ongizatearen Estatua.
- Europako Batasunaren sorrera.

13. Mundu Komunista.

- ESSBa eta herri demokraziak. Perestroikatik Berlingo harresia erori arte.
- Ekialdeko Europaren oraingo egoera.
- Txina, maoismotik gaur arte.

14. Espainia Frankoren pean.
 - Erregimen politikoa eta nazioarteko harremanak.
 - Bilakaera ekonomikoa: autarkia, estabilizazioa eta garapen planak.
 - Eraldaketa sozialak.
 - Oposizio politiko eta sindikala.
 - Nafarroa Frankoren pean.
15. Espainia demokratikoa
 - Trantsizioa. 1978ko konstituzioa eta autonomien Estatua.
 - Gobernu demokratikoak eta Europan sartzea.
 - Nafarroa demokratikoa. Foruaren hobeagotzea. Nafarroako Foru Komunitatea: foru instituzioak gaur egun.
 - Nafarroako artearen obra aipagarriak XX eta XXI. mendeetan.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berriazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Aro modernoaren ezaugarri diren pentsaera aldaketak aztertu; zehazkiago, Errenazimentuaren eta Erreformaren ezaugarri oinarrikoak deskribatu.
3. Estatu modernoaren sorreran zein une nagusi izan diren bereizi eta monarkia hispanikoaren gertaera esanguratsuenek eta Nafarroan izan zuten eragina azpimarratu.
4. Mundu ezaguna zabaltzean zenbateko garrantzia izan zuen baloratu, herri iberikoen protagonismoa azpimarratuz.
5. XVIII. mendeko eraldaketa nagusiak aipatu, Borbondarren erreformismoak Espainian eta Amerikan sortu zituenak bereziki azpimarratuz.
6. Erregimen Zaharraren krisia eta iraultza liberalak dakartzaten aldaketa politikoak bereizi eta Espainian eta Nafarroan izan zituzten ondorioak aipatu.
7. Iraultza industrialarekin datozen eraldaketa sozioekonomikoak ulertu, eta bai inperialismoaren garaian Europa zergatik gailendu zen esplikatzeko duten gertaera nagusiak, haien ondorioak eta ondorengo depresioa ere.
8. XIX eta XX. mendeetako Nafarroaren gertaera historiko inportanteenak aipatu eta esplikatzeko, eta gaurko gertaeretan zer ondorio dituzten azaldu.

9. XX. mendearen lehen erdiko liskarrek zer lotura duten aipatu, gure herriaren historiarekin duten harremana azalduz
10. II. Mundu Gerraren ondorengo aldaketa sakonak eta gertaerarik esanguratsuak ezaugarritzatu, bereziki Espainiari eragiten diotenak.
11. Europako eraikuntzaren garrantzia eta ondorioak azpimarratu, eta Espainiak prozesu horretan nola parte hartu duen azaldu.
12. Sistema demokratikoen printzipio eta instituzio oinarrikoak baloratu eta Gaurko Konstituzio espainolean islatzen direla ikusi.
13. 1978ko konstituzioa trantsizio demokratikoaren prozesuan kokatu, bizitza publikoan eta estatuaren lurralde artikulazioan izan duen eragina azpimarratuz.
14. Gure ondare artistiko historikoa baloratu eta errespetatu eta ondare hori kontserbatu beharra dagoela ohartaraztea, ondorengo belaunaldiek ere hura gozatzeko aukera izan dezaten.

Prozedurak

Informazioa nola tratatu

1. Askotariko testuak bakarka eta ulertuz irakurtzea: manualak, nobela historikoak, turismoko gidaliburuak, dibulgazio liburuak, albumak, kazetak, egunkariak eta abar.
2. Informazio geografiko, historiko eta artistiko ardurakoa eskuratu eta hautatu, irispide errazeko iturriak kontsultatuz (kontsulta liburuak, urtekariak eta almanakak, atlasak eta entziklopediak, datu base sinpleak eta abar), eta bai gizarte hedabideak, ezagupen bloke bakoitzean aztertzen den gaiaren gainean.
3. Askotariko eta hainbat eskalatako plano eta mapak irakurri eta interpretatu, eta bai grafikoak eta diagramak ere, bai historikoak eta bai geografikoak, bereziki Europako Batasunari, Espainiari eta Nafarroari buruzkoak.
4. Krokisak eta eskemak itxuratzea hainbat bidetatik eskuratutako informazioa oinarri, zuzeneko obserbazioa ere barne, eta mota banako informazioen artean (irudiak, grafikoak, testuak eta abar) lotura egitea.

5. Gertaera historiko eta geografikoak kokatzea, Europako Batasunekoei, Espainiakoei eta Nafarroakoei garrantzia berezia emanaz.
6. Lanak argiro eta ordenatuki aurkeztea, bakarka nahiz taldeka, hainbat adierazpen bide behar den bezala uztartuz.

Azalpen multikausala

7. Azaldu nola prozesu geografiko eta historikoetan elkarreraginak izaten diren ingurune eta giza ekintzaren artean, Europako, Espainiako eta Nafarroakoei garrantzia berezia emanaz.
8. Lurralde jakin baten gaineko hainbat azterketa sektorial oinarri (fisikoak, demografikoak, ekonomikoak, kulturalak...) sintesiak egitea.
9. Lurralde desberdinek fenomeno geografiko bat berari dagokionez ageri dituzten antzak eta diferentziak konparatuz aztertzea.
10. Lurralde eremu bat bereko aldi historiko diferenteak konparatuz aztertzea eta hainbat eremu geografikoko aldi historiko bera ere bai.
11. Debateak eta simulazioak prestatu eta egitea eremu eta denbora gaien inguruan, edo gai geografiko edo historikoen inguruan.

Ikerketa eta azterketa

12. Bakarka, azterlanak eta ikerketa sinpleak antolatu eta egin, gehienbat deskriptiboak, gertaera historiko edo geografiko baten gainean, eskolako liburutegiko iturriak erabiliz.
13. Taldeka, azterlanak eta ikerketa sinpleak antolatu eta egitea, gehienbat deskriptiboak, gertaera historiko edo geografiko baten gainean, eskolako liburutegiko iturriak erabiliz.
14. Azterlantxo horiek behar dituzten lanak koordinatzea, taldekideek aurkeztu ahal izan ditzaten.
15. Ikerketa txiki horietako atalak sistematizatzea, ondoren hala behartzen bada ikasgelan edo ikasleen irispideko beste tokiren batean ahoz azaltzeko.
16. Egindako azterlan edo ikerketaren eztabaida kritikoa egin eta ondorioak ateratzea.

Jarrerak

Zorroztasun kritikoa eta jakin-min zientifikoa

1. Askotariko lurraldeak aurkitu eta ezagutzeko jakin-mina izatea, eta Lurraren gainean gizonaren bizitzak aurkitzen dituen problema handiez ohartzea: ingurumenaren endekatzea eta baliabideen gain-esplotazioa, jende hazkunde desorekatua, herrien arteko desberdintasun ekonomikoak eta abar.
2. Zorroztasun kritikoa eta objektibitatea txostenak eta sintesi lanak itxuratu eta interpretatzerakoan.
3. Informazio historikoak bilatu eta interpretatzerakoan zorroztasunaren eta objektibitatearen aldeko kezka eta gogoa agertzea, eta gaurko egoera eta gertaera askoren esplikazioa lehenengo gertaera historikoetan bilatzeko joera.
4. Denboran eta eremuan guregandik urruti dauden gizarteen arte eta kultura adierazpeneko formak ezagutzeko interesa.
5. Ongi informaturik egoteko interesa eta hedabideetako informazio eta mezuen aurreko jarrera kritikoa.

Ondarearen balorazioa eta kontserbazioa

6. Ingurune naturala baloratzea gizataldeen bizitza kalitaterako baliabide eta osagai inportantetzat, eta ingurunea kontserbatu eta defendatzearen aldeko jarrera azaltzea.
7. Paisaia naturalen, landakoen eta hirikoen dibertsitatea baloratzea Europako Batasunean, Espainian eta Nafarroan, zaindu eta kontserbatu beharreko aberastasun natural eta kulturala diren partez.
8. Zenbait jarduera ekonomikorik ingurumenerako sortzen duten arriskuaz konturatzeta.
9. Gure inguruan dauden iraganeko hondarkiak baloratzea, gure esperientzia eta memoria kolektiboaren agerkari diren partez, eta haien kontserbazioa segurtatzeko moduan jokatzearen aldeko jarrera agertzea.
10. Printzipio eta instituzio demokratikoak baloratzea desadostasun politikoak ebazteko tresna egokituz, eta eguneroko jardunean printzipio horiek errespetatuz jokatzeta.

Tolerantzia eta elkartasuna

11. Baliabide edo janari eskasia nozitzen dutenen alderako elkartasuna, edo bizitzako kalitate eta duintasunerako eskubide gutxienekoak ukatzen zaizkien alderako.
12. Giza eskubideak baloratzea irabazpen historikotzat, eta eskubide horien urradura guztiak gaitzestea, eta bai gizarte desberdintasunak ere, zein ere arrazoiren ondoriozkoak diren.
13. Espainia eta Nafarroako dibertsitate historiko eta kulturala errespetatu eta baloratzea, gure ondare kolektiboaren errealitate bereizgarri eta aberasgarri diren partez, eta gureaz beste gizarteetako pertsona edo taldeen jarrerak, sinismenak, bizimoduak eta abar errespetatu eta kritikoki baloratzea.
14. Iritzi ideologiko, politiko, erlijioso eta abarren dibertsitatea aintzat hartu eta errespetatzea; Konturatzea bakea lortzea denon eginkizuna eta ardura dela eta eguneroko bizitzan jarrera antisozialak gaitzestea.

Gorputz Hezkuntza

Sarrera

Gaurko gizartean gero eta gehiago nabaritzen da kultura eta hezkuntzari bestelako ezagupenak ere erantsi beharra, gorputzarekin eta mugimenduarekin lotuak, ezinbestekoak baitira norberaren garapenerako eta bizitza kalitatea hobetzeko. XXI. mendeko gizonak nahitaezkoa du bere gorputza lantzea, hainbat gorputz gaitasun eta funtzio garaia baino lehen maskaltzea nahi ez badu. Gorputzaren eta mugimenduaren bidez eratzen du pertsonak inguruarekiko harremana.

Hortaz, gizakiaren garapen harmoniko eta osotarakoa lortuko bada, ezinbestekoa da gazteen hezieran beste eduki horiek ere sartzea, haien mugimendu gaitasun eta trebetasunak garatzen dituztenak, jokaera horien ezagupenean sakonduz, giza portaeraren antolamendu esanguratsua diren partez, eta gorputzaren eta gorputz mugimenduei buruzko jarrerak, balioak eta arauak bereganatuz.

Bestalde, gaurko bizimoduak hain gorputz lan gutxi behar izaten duelarik (ibilgailuz mugitzen gara, lehen zuzenean eskuz egiten ziren lan asko orain makina egozien bidez egiten, lan denbora gero eta gutxiagotzen, etxebizitzak txikiak dira...) gero eta handiagoko garrantzia ematen zaie jarduera fisikoei, oreka psikofisikoa lortzeko, gorputza zaintzeko eta aisia igartzeko bidetzat.

Gorputza eta mugimendua dira arlo honetako hezkuntza lanaren ardatz nagusi. Ildo horretatik, agertzeraz eman behar da zenbateko garrantzia duen gorputza eta mugimendua ezagutzeak, ez soilik balio funtzionalaren aldetik, baizik eta ezagutze

horrek integrazioarako duen balioagatik ere. Gure lana, bada, gorputza eta mugimendua formatzea da, batetik, formazio horrek berezko eta besterik gabeko balioa duelako, eta bestetik gorputzaren eta mugimenduaren bidez bestelako hezkuntza helburuak ere iriztea, gaurko bizimoduan horiek ere oso inportanteak baitira (osasuna, aisia, estresa gutxitzea eta abar).

Gorputz Hezkuntzarako hemen proposatzen den hurbilbideak batu eta integratu nahi ditu gaur egun arlo horretan dauden joerak. Ildo horretatik, ontzat ematen da joera horiek gorputz hezkuntzari egotzen dizkioten eginkizun guztien balioa: ezagutze eginkizuna, ulertze eginkizuna; anatomiko funtzionala; estetikoa eta espresiboa; komunikazioa eta harremana; higienikoa; agonistikoa; katarikoa eta atsegigarria eta konpentsaziokoa. Gorputz hezkuntzak, azken finean, askotariko eginkizunak ditu, eta haien bidez lagun egiten du derrigorrezko hezkuntzaren helburu orokorrak iristen; horregatik gorputz jarduera guztien multzoa bildu behar du, eta ez jarduera horien alderdi partzialak.

Hezkuntza ekintzak helburu izan behar dituen ekintza lerroak edo orientazioak honela gauzatzen dira:

- Gorputza eta osasuna zaintzeko hezkuntza
- Gorputza hobetzeko hezkuntza
- Gorputz sasoia hobetzeko hezkuntza
- Aisia josteta eta kirol jarduerak bakarka nahiz taldeka eginaz modu probetxugarrian erabiltzeko hezkuntza.

Kirolak, mugitze portaeren osagai berariazkoa baita, balio hau ere badu gizarterako: gorputz jarduera ulertu eta egiteko gure testuinguru sozial eta kulturalean maizenik izaten den modua dela. Oro har, kirol jarduerak gizartean duen balorazioa espezialitate bakar bateko lehiaketa eta elite giro baten gainekoa izaten da. Ildo horiek, ordea, ezin bateratu dira beti eskola curriculumaren hezitze asmoekin. Gorputz hezkuntza arloan egiten den kirolak ezinbestez irekia behar du, eta ezin egon daiteke sexuaren, trebetasun mailaren edo bestelako irizpide murrizgarri baten araberrako bereizkeriarik bertan parte hartu ahal izateko. Horrek ez du esan nahi, ordea, lehiaketari bere lekua ukatu behar zaionik eskolako kirol jardueratik, lehiaketak ere eginkizun handia baitu ikasleak motibatzeke, betiere irizpide hezitzaileak nagusi badira eta elkarlana bultzatzeko moduko jarduerekin batera egiten bada. Etapa honetan barrena bultzatu eta erraztu behar da ikasleak askotariko gorputz jardueretan trebatu daitezen, gero batean bere garapenerako hoberenak aukeratu ahal izan ditzaten.

Etapa honetako jarduerak ez dira jada lehen bezain ludikoak eta gero eta berariazkoagoko tratamendua izanen dute edukien garapenari dagokionez, edukiok gorputz sasoikoak izan, osasunari begirakoak, edo berariazko trebetasunei dagozkienak, zeinetan kirolak eta jostetak, mugitze gaitasunak ingurumen naturaleko jarduerak eta erritmo zein gorputz adierazpeneko jarduerak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gorputz hezkuntzako arloak lagun egin behar du etapa honetako helburu orokorrak iristen. Hartarako ez da aski tresna gaitasunak garatzea eta gorputz jardueretan maiz aritzera ohitzea; horrez gain, jarduera hori balio, jarrera eta arau eskala batekin lotu behar da, eta eskala horrek norberaren garapenean duen ondorioarekin. Arlo honek lagun egingen du, halaber, ikasleen osasuna bultzatu eta bizitza kalitatea hobea gatzeko moduko ohiturak, baliok, jarrerak, ezagupenak eta trebetasunak sendotzen, horren bidez lortuko duten gorpuzkerari esker uler dezan mugimenduak zenbateko aukerak ematen dituen nor bere burua aberasteko eta bere gorputzaz gozatzeko, eta besteekin harremanetan sartzeko.

Etapa honetan, ezagupenak bereganatzearen helburua izanen da ikasleak gero eta beregainago izatea. Horrek, praktikan esan nahi du irakasleek gero eta erabaki gutxiago hartu behar izaten dituztela eta ikasleek gero eta gehiago. Prozesu hori, jakina, pixkanaka egin beharrekoa da, ikasleek irakas modu berezi batean etsi behar baitute. Prozesu horretan bi aldi izanen dira:

- *Zuzendaritza peko aldia*, zeinean irakaslea baita aktore nagusia, ikas-irakas-prozesuaren gaineko gai guztiak planteatu behar dituen eta ezagupenak ikasleek barrendu ahal izateko moduan aurkezten dituen, ikaslearen barrenean gogoeta prozesu zenbait hasi eta haien bidez bere egitura kognitiboan txerta eta uler ditzan ikasitako gauza berriak. Ikasleek, berriz, gauzatu behar dituzte proposatzen zaizkien jarduerak, ezagupen eta esperientzia multzo zabala bereganatuz.
- *Beregaineko aldia*. Ikasleak ulertuz eta ardura hartuz parte hartzen du programazioaren hainbat alderditan, hala nola eginkizunak eta baliabideak hautatzean, jarduerak antolatzean eta abar... bere-bere kirol jarduera planifikatu arte.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko teknikan trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkion askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Erregulariki gorputz jardueran aritzeak norberaren eta taldearen osasunerako zer ondorio mesedegarri, zer arrisku eta zer debeku dituen jakin eta baloratzea; norberaren gorputza hobeki ezagutzea eta norbere burua hobeki onartzea, eta jarrera kritikoa hartzea osasunerako kalte diren jardueren aurrean.
4. Eskuarki eta sistematikoki jarduera fisikoetan aritzea, osasun baldintza eta bizitza kalitate hobea izateko.
5. Ikasleen gorputz egoera eta haien trebetasun espezifikoak baloratzea, eta horren arabera haien premiak asetzeko moduko jarduerak planifikatzea.
6. Gorpuzkera hobetu eta osasun baldintza nahiz bizi kalitate hobea izateko moduko jarduerak egitea, gaitasun bakoitzaren araberako tratamendua emanez.
7. Ikaslearen mugitze gaitasuna handitu, hartarako bere gorputz gaitasunak moldatuz eta hobetuz, eta gorputza doitu, menderatu eta kontrolatzeko gaitasunak garatzea, bere buruari eskatu eta gailentzeko jarrerak sortuz.
8. Kirol jarduera bakarkakoak, taldekoak eta aurkaridunak ezagutu eta aplikatzea, joko egoeretan, erregelamendu, teknika eta taktika hastapena aplikatuz.
9. Duen trebetasun maila zein ere den, ikasleak parte hartzea kirol eta jostetan (konbentzionalak, jostetakoak, herri kirolak eta alternatiboak), txapelketak antolatzen lagun eginaz, hortik bultzatzen diren harreman alderdiak baloratuz, tolerantzia eta kirol zintzotasuneko jarrerak agertuz, komunitateko kirol eta josteta autoktonoek izaten duten balio kulturala ulertuz.
10. Ingurumenaren gaineko eragin txikia duten kirol eta gorputz jarduerak ingurune naturaletan diseinatu eta egitea, horrela ingurumena kontserbatu eta hobetzen lagunduz.
11. Kirol eta josteta jarduerak behar bezalako beregaintasun maila batekin burutzea.

12. Erlajazio teknika oinarrizkoak ezagutu eta erabiltzea, desorekak gutxitu eta eguneroko bizitzan zein kirol jardueran sortutako tentsioak arintzeko bide-tzat.
13. Erritmoko eta adierazpeneko jarduerak baloratu, diseinatu eta egitea, musika oinarri dela, komunikazio eta sormen adierazpeneko bidetzat.

Gorputz Hezkuntza I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Gorputz egoera eta osasuna*

1. Berotze ariketa. Kontzeptua. Aldiak. Berotze ariketa orokorrean aplikatu be-harreko ariketak egitea.
2. Berotze ariketa orokorra baloratzea, edozein gorputz jardueratan lesioak ga-larazteko.
3. Gorputz egoera. Kontzeptua. Osasunarekin lotura duten gorputz gaitasunak.
4. Osasunarekin lotura duten gorputz gaitasunak orokorki egokitzea. Lasterral-di jarraitua, jostetak, indar orokorreko ariketa dinamikoak eta luzatze arike-tak.
5. Gorputz jarrera estatikoetan luze egotea konpentsatzeko ariketak (ikasteko eserita egotea, kasu) eta karga pisuak altxa eta eramatea konpentsatzekoak (karterak eta zakutoak, kasu).
6. Euskarrizko muskuluak indartzea, hartarako artikulazio mugimendua zauli-tzeko eta muskuluak indartzeko ariketak eginaz.
7. Erlajazioa. Arnas hartze eta erlajazio tekniken hastapenak, eta ariketaren bidez egin beharreko ekintzak: muskuluak luzatzea eta muskuluen bibra-zioa.

II. *Trebetasun espezifikoak*

a) *Jostetak eta kirolak. Mugitze gaitasun pertsonalak*

1. Mugimendu koordinatua: oreka eta zaulitasuna.
2. Trebetasun gimnastiko globalak: saltoak, orekak, trepak eta abar.
3. Oreka estatiko eta dinamikoa garatzea.
4. Koordinazio dinamiko orokor eta okulo-segmentarioa garatzeko jarduerak egitea.
5. Kirol josteten sailkapena: konbentzionalak, tradizionalak, jostetak eta herri kirolak.
6. Elkarlaneko eta lehiaketazko jarduerak egitea, talde kirolen teknika eta taktika hastapenak ikastea helburu.
7. Kirol josteta eta jardueretan bizkorki parte hartzea.
8. Norberaren gaitasuna ulertu eta onartzea, handik norbere buruari gehiago eskatu eta gainditzeko.
9. Kirol eta josteta jardueretan erregularki aritzeak osasunerako, bizi kalitate hobea izateko eta aisia erabiltzeko dituen ondorioak baloratzea.

b) *Ingurumen naturaleko jarduerak*

1. Ingurune naturalak zer aukera eskaintzen dituen kirol eta gorputz jarduerak egiteko (lurrez, airez eta urez).
2. Manipulazioko teknika oinarrizkoen hastapenak ikastea (kabuieria, kasu) eta naturako hainbat jarduerarenak.
3. Hatzak bilatzeko seinaleak atzeman eta aurrez markatutako orientazio ibilbi-deak egitea, ikastetxean eta ikastetxe inguruetan.
4. Hiri eta natur ingurunea kontserbatu eta hobetzeko arauak onartu eta begiratzea.
5. Ingurune naturalean jarduerak egiterakoan kontuan hartu beharreko segurtasun arauak.

c) *Erritmoa eta gorputz adierazpena*

1. Taldearen barne lotura eta elkarreragina lortu beharrezko adierazpen jarduerak.
2. Blokeo eta inhibizio pertsonalak apurtu beharrezko jarduerak esperimentatzea.
3. Eremua, tenpoa eta erritmoa.
4. Erritmo desberdinak uztartzen eta hainbat objektu erabiltzen diren jardueretan aritzea.
5. Desinhibitzearen aldeko jarrera.
6. Gorputza eta mugimendua adierazpidetzat baloratzea.

Gorputz Hezkuntza II

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Gorputz egoera eta osasuna*

1. Berotze ariketa orokorra. Helburuak. Itxuratzeko jarraibideak, Berotze ariketa orokorreko ariketak zerrendatu eta aplikatzea.
2. Osasunarekin lotura duten gorputz gaitasunak: erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna. Kontzeptua. Intentsitatea kontrolatu eta ahalegina moldatzea arnasaldien eta bihotz taupaden maiztasunaren bidez: taupadak hartzea eta jarduera eremua kalkulatzeko.
3. Erresistentzia aerobikoa moldatzea: lasterraldi jarraitua, entrenamendu erabatekoa eta jostetak.
4. Malgutasuna moldatzea: ariketa estatikoak eta dinamikoak.
5. Erlajazioa eta arnasa. Kontzeptua, helburua eta motak. Arnas modalitate desberdinak egitea: klabikularra, Toraxekoa eta abdominala.

6. Norberaren Gorputz egoeraz jabetzea eta behar den lana eginaz hobetzeko jarrera.
7. Ikasgelako eguneroko lanean egonera egokia hartzeak eta gorputz jardueretako gaitasunak zer lotura duten ulertu eta baloratzea, aurreneurritarako.
8. Sasoi onak eta osasun baldintzak hobetzeak zer lotura duten ulertu eta baloratzea.

II. *Trebetasun espezifikoak*

a) *Kirolak eta jostetak. Norberaren mugitze gaitasunak*

1. Trebetasun gimnastiko eta akrobatikoen hainbat konbinazio egitea.
2. Kirol trebetasunen ezaugarri oinarrizko eta komunak: arauak, jarraibideak, alderdi tekniko eta taktikoak.
3. Talde kirol baten hastapen tekniko oinarrizkoak, oinarrizko printzipio taktiko eta erregelamenduzkoak ikasteko jarduerak egitea.
4. Komunitateko herri kirol eta jostetak eta kirol tradizionalak egitea.
5. Josteta eta aisiako kirol jarduerak egitea, bakarka nahiz taldeka.
6. Arauak eta erregelamenduak errespetatu eta onartzea.
7. Ulertzea zenbateko balioa duten kirol eta josteta autoktonoek komunitateko lokarritzat eta ondare kultural propioztat.
8. Norberaren eta besteen maila tekniko taktikoa onartzea kirol josteta eta jardueretarako; norbere burua gainditzeko jarrera eta norbere gaitasunetan konfiantza izatea.

b) *Ingurune naturaleko jarduerak*

1. Kanpainako dendak muntatzeko oinarrizko teknikak ikasi eta erabiltzea.
2. Biziraupeneko eta kanpaldiko hastapenak: segurtasun arauak, terrenoaren hautapena eta kanpainako dendak muntatzeko prekauzioak.
3. Ibil-kirola: zer den. Bide motak, zer material eta zer janzkera behar den. Ibil-kiroleko saio bat egitea.

4. Hiri eta natur ingurunea nozitzen ari den gehiegizko erabileraz ohartzea.
5. Ingurumena errespetatzea eta baloratzea, josteta jardueretan aritzeko baliabide handiko tokizat.

c) *Erritmoa eta gorputz adierazpena*

1. Besteekiko komunikazioa eta norbere gorputzaren kontrola lortzeko jardueretan aritzea.
2. Gorputz segmentu desberdinetako mugimenduak eta toki-aldaketak konbinatzea, sekuentzia erritmiko bati jarraikiz.
3. Talde dantzetako pauso errazak egitea.
4. Gure komunitateko dantza folklorikoetan aritzea eta haiek baloratzea bakoitzaren diferentziak onartu eta besteen dantzaera errespetarazteko bide diren partez.
5. Taldekako nahiz bakarkako inprobisazioetan sortzen den berezko komunikazioaz gozatzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Kirol testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Norbere kabuz ariketa katalogo bat itxuratzea, berotze ariketa orokorrak egiteko modukoa.
3. Bihotz taupaden eta arnasaldien maiztasuneko aldaketak erabiltzea ahaleginaren intentsitatea neurtu edo gorputza ahaleginaren arabera nola moldatzen den ikusteko, norbere jarduera erregulatzeko.
4. Osasunarekin lotura duten gorputz gaitasunak handitzea, abiaburuko mailatik hobetuz.
5. Erlajazioa eta arnasa erabiltzea autokontrola laguntzeko tresnatzat.
6. Ingurune naturaleko jardueren oinarriko teknikak erabiltzea eta jarrera kritikoa hartzea ingurune horrek nozitzen duen axolakabezia eta ez-antsiaren aurrean.
7. Praktikako egoera benetakoetan ikasitako trebetasun espezifikoak erabiltzea, hautematezko eta jostetazko elementuei arreta emanaz.

8. Joko eta kiroletan aritzea egoera errealetan, arauak eta teknika aplikatuz eta atake eta defentsarako estrategiak itxuratuz.
9. Bizkorki parte hartzea kirol eta gorputz jardueretan, ezarritako arauak errespetatuz eta materialak eta instalazioak behar bezala erabiltzeko ardura hartuz.
10. Tolerantzia, kirol-zuzentasuna eta errespetua agertzea, bai parte-hartzaile gisa eta bai ikusle gisa.
11. Dantza errazak dantzatzea talde txikietan, ñabardura adierazkorra emanaz eta norbere dantzaera lagunenaren arabera moldatuz.
12. Taldeka nahiz bakarka, gogo aldarreak eta ideiak aditzera ematea, hartarako talde dinamikako teknikak eta jestu bidezko adierazpenarenak erabiliz.

Gorputz Hezkuntza III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Gorputz egoera eta osasuna*

1. Berotze ariketa orokorra. Berotze orokorra itxuratu eta gauzatzea.
2. Osasunarekin lotura duten gorputz gaitasunak: erresistentzia eta malgutasuna. Entrenamenduen sailkapena eta metodoak.
3. Erresistentzia aerobikoa entrenatzeko sistema berariazkoak nola aplikatu: lasterraldi jarraitu uniformeak, entrenamendu erabatekoa, lasterraldi aldatuak.
4. Metodo estatiko eta dinamikoa nola aplikatu malgutasuna lantzeko.
5. Erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna bezalako gorputz gaitasunak lantzeko lan metodoak nola aplikatu eta nola hautatu, ikasleen lan pertsonalerako, bakoitzaren adinari, gorputz gaitasunari gehien komeni zaizkion siste-

ma eta aplikazioak, kontuan harturik entrenamenduaren printzipioak, ahaleginera moldatzeko mekanismoak eta gorputz gaitasunen eta bilakaera garapenaren arteko harremana.

6. Indar dinamikoaren moldatze orokorra.
7. Erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna lantzeak osasunaren gainean dituen ondorio mesedegarriak, arriskuak eta aurreneurriak.
8. Gorputz jarduerak gorputzaren gainean izaten dituen ondorio onak atzema-tea.

II. *Berariazko trebetasunak*

a) *Kontzeptua. Trebetasunak*

1. Eginen diren kirolen alderdi tekniko, taktiko eta erregelamenduzkoak.
2. Elkarlanean eta lehiaketazko jarduerak talde kirol baten hastapen tekniko eta taktikoak ikastea helburu.
3. Talde kirol edo aurkaridun kirol bat ikasteko jardueretan aritzea.
4. Egiten ari diren kirolei aplikatzeko moduko josteta eta jarduerak itxuratu eta haietan aritzea.
5. Errespetua, tolerantzia eta kirol zintzotasuna, emaitzak nahitaez lortu behar-raren gaintetik.
6. Talde nahiz bakarkako jardueretan parte hartzea, bakoitzak iritsitako maila edozein dela ere, norbere burua gainditu eta norbere buruari gehiago eskatzearen aldeko jarrera agertuz.

b) *Ingurune naturaleko jarduerak*

1. Orientazio teknika oinarrizkoak bereganatzea: mapak irakurtzea, mapen bi-dezko orientazioa eta orientazio ibilaldiak egitea.
2. Orientazioaren hastapenak. Orientazio ibilaldiak hiri eta natur inguruneetan egiteko kontuan hartu beharreko segurtasun arauak.
3. Orientazio ibilaldiak egiteko kontuan hartu beharreko segurtasun eta babes arauak onartzea.

4. Aisia okupatzeko modu berriak ezagutzeko interesa, hartarako izadian gorputz jarduerak eginaz.

c) *Erritmoa eta gorputz adierazpena*

1. Gorputz adierazpenean erabiltzen diren eremu desberdinez ohartu beharrezko jarduera; barrengo eremua, eremu fisikoa, eremu partziala edo propioa eta eremu soziala.
2. Eremua, denbora eta intentsitatea bezalako aldagaiak lotzen dituzten mugimenduak egitea.
3. Mugimendu globalak eta segmentarioak egitea musika oinarri.
4. Erlajazioa. Jacobsonen erlajazio metodoa erabiltzea.
5. Jarduera erritmikoak egitea, haien adierazpen balioa azpimarratuz.
6. Elkarlanean eta laguntzazko jarrerak agertzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Kirol testuen eta berriazko hiztegiaren esangura ulertzea. Norbere kabuz berotze ariketa orokorrak moldatzea.
2. Erresistentzia eta malgutasuna bezalako gorputz gaitasunak handitzea, norbere buruaren mailatik eta inguruko mailatik.
3. Bihotz taupaden eta arnasaldien maiztasuneko aldaketak erabiltzea ahalegiaren intentsitatea neurtzeko.
4. Erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna lantzeak osasunerako izaten dituen ondorio mesedegarri iraunkorrak aztertzea.
5. Ingurune naturalean gorputz jarduerak egitea, bertan egoki jokatzen ikastea helburu, ingurune hori zaindu eta kontserbatzeko konpromisoa hartuz.
6. Norbere ekintzak eta taldearenak koordinatzea, hautatu den kirolean parte hartuz, elkarlanean.
7. Kirol jarduerak egiterakoan sortzen diren erabakitze problemak konpondu, trebetasun berriazkoak erabiliz eta gauzapena asmotan den helburua iritsi behararen arabera moldatuz.

8. Jarduera adierazkor eta talde dantzetan aritzea, ñabardura adierazkorra emana, norbere gauzapeña lagunaren arabera moldatuz eta elkarlaneko eta laguntzako jarrerak agertuz.

Gorputz Hezkuntza IV

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Gorputz egoera eta osasuna*

1. Berariazko berotze ariketa. Ezaugarriak. Itxuratzeke jarraibideak. Berotze ariketak nola egin eta nola gauzatu, aurretik egin behar den gorputz jarduera aztertuta.
2. Berotze ariketa erabiltzeko konpromisoa, lesioak galarazteko bidea baita.
3. Osasunarekin lotura duten gorputz gaitasunak: indarra eta muskuluen erresistentzia. Kontzeptua. Oinarrizko agerkariak. Ariketa motak.
4. Indarra-erresistentzia moldatzea binakako ariketak eta ariketa kokatuak eginaz. Indarra lantzeko ariketa programa bat itxuratzea.
5. Indarra lantzeak osasunaren gainean duen ondorioa.
6. Erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna entrenatzeko plan bat itxuratu eta abiatzea.
7. Gorputzaren egonkera eguneroko zereginetan. Gorputz ohitura makurrez eta egonkera txarrez ohartu eta aztertzea. Nola zuzendu edo galarazi.
8. Osasunerako kalte diren ohitura edo jarduerak: erretzea, edatea, sedentaris-moa eta abar.
9. Zenbait ohiturak (erretzea, edatea, sedentaris-moa eta abar) gorputz egoerari eta osasunari zenbat kalte egoten dioten baloratu eta ohitura horiek gaitzes-teko jarrera hartzea.

10. Istripu edo lesio bat gertatzen denean lehen zainketa nola eman kontzeptu eta printzipio oinarritzkoak.

II. *Berariazko trebetasunak*

a) *Kirol trebetasunak*

1. Talde kirol landua ikasi eta hobetu beharrezko jarduerak egitea.
2. Egiten ari diren kirolei aplikatzen zaizkien gorputz jarduerak planifikatzea eta kirol horietan ikasleak oso beregain aritzea.
3. Taldeko eta bakarkako kirol jardueretan aritzea, aisia eta jostetakoetan.
4. Kirol lehiaketak planifikatu eta antolatzea.
5. Ikasle bakoitzari esleitu zaizkion zereginak onartu eta lagun egitea, talde lan baten barrenean.
6. Kirol jostetako gorputz jardueretan aritzeak integrazio sozialerako duen funtzioa baloratzea.

b) *Ingurune naturaleko jarduerak*

1. Ingurune naturaleko jarduerak antolatzerakoan kontuan hartu beharreko alderdi orokorrak: tokia hautatu eta miratu, administrazio kudeaketak, denbora banaketa eta jardueraren iraupena, gastuak eta dirusarrerak, aseguruak eta jardueren banaketa eta abar.
2. Orientazio tekniketan trebatu eta sakontzea. Kontrolak kokatzea nazioarteko sinbologiaren arabera.
3. Gorputz jarduerak, osasunak eta ingurune naturalak elkarrekin duten harremana.
4. Kirol eta gorputz jarduera batzuek ingurune naturalaren gainean duten eraginaz ohartzea.
5. Ingurune naturaleko jarduera taldeak osatzea, bakoitzak dituen interesen arabera.
6. Izadian egiten diren hainbat gorputz jardueraren gaineko ezagupen oinarritzkoak ikasi eta hainbat teknika arakatzea, hala nola: orientazio lasterraldiak, piraguismoa, eskaladako hastapenak, zikloturismoa eta abar, ikasleen interesen eta ingurunearen arabera.

c) *Erritmoa eta gorputz adierazpena*

1. Jarduera erritmikoetan aritzea musika oinarri.
2. Diseinu koreografikoak egiteko jarraibideak.
3. Taldekako konposizio koreografiko bat egitea musika egitura bat oinarri hartuta, osagai desberdinak sartuz: eremua, denbora eta erritmoa, intentsitatea, gorputza, mugimendua, adierazkortasuna eta konposizioa.
4. Erlajazioa. Schultz-en erlajazio metodoa egitea.
5. Talde lanean parte hartu eta lagun egitea.

Ebaluazio irizpideak

1. Kirol testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Erresistentzia, malgutasuna, indarra eta muskulu erresistentzia bezalako gorputz gaitasunak handitzea, norbere buruarenetatik eta ingurukoenetatik.
3. Nor bere kabuz lan plangintza bat egitea erresistentzia aerobikoa eta malgutasuna lantzeko.
4. Indarra eta muskuluen erresistentzia lantzeak osasunerako dituen ondorio mesedegarri iraunkorrak aztertzea.
5. Ingurune naturalarekiko begirunez jokatu eta izadian gorputz jardueretan aritzeko behar diren teknikak erabiltzea.
6. Norbere jokaera taldearenarekin koordinatzea, hautatu den kirolean elkarlanean parte hartuz.
7. Benetako egoeretan talde kirol konbentzionaletan aritzea, eta bai aisia eta jostetakoetan, berariazko eginkizunen estimulu ardurakoak hautatuz eta hautemanez eta eraso zein defentsarako estrategiak, arauak eta teknika aplikatuz.
8. Bizkorki parte hartzea kirol eta gorputz jardueretan, ikasleak parte hartze egoera benetakoetan ongi moldatu ahal izateko moduko maila emanaz, dela kirol jarduera instituzionaletan, kirol-josteta jokoetan edo bestelako gorputz jardueretan.

9. Trebetasun diferentziak errespetatzea eta onartzea, hortaz edo sexu, etnia, gorputz gaitasunagatik edo halako ezergatik bereizkeriarik egin gabe.
10. Erlajazio teknikak erabiltzea oreka psikofisikoa berreskuratzeko eta bestelako jardueretan hasteko prestabidetzat.
11. Gorputz adierazpeneko teknika oinarrizkoak edo dantzakoak erabiliz, arte produkzio sinpleak egitea, lagunekin elkarlanean eta ñabardura adierazkorra emanaz.

Prozedurak

1. Denetarikoa testuak irakurri eta ulertzea: manualak, kirol erregelamenduak, kirol kazetak, aldizkariak eta abar.
2. Gorputz egokitzapen orokorra: osasunarekin lotura duten gorputz gaitasunak garatzea, garapen prozesuaren arabera.
3. Gorputz gaitasunak hobetzeko lan plangintzak diseinatu eta aplikatzea.
4. Norbere buruaren gorputz gaitasunak eta mugimendu trebetasunak ebaluatzeke tresna oinarrizkoak erabiltzea.
5. Berriazko trebetasunak ikasi eta hobetzea joko edo kirolen testuinguru benetakoetan aplikatuz.
6. Denetarikoa kirol eta josteta jardueren teknika eta taktika aztertu eta erabiltzea.
7. Kirol eta gorputz jarduerak antolatu eta bertan parte hartzea.
8. Berotze ariketa: prestaera orokorretik prestaera berriazkora.
9. Arnasa hartzeko eta erlajatzeko teknikak aplikatu.
10. Postura makurrak eta portaera makurrak konpentsatzeko ariketa fisikoak eta mekanismoak aplikatzea, osasunarekin eta bizitza kalitatearekin lotura eginaz.
11. Mugimendua hobetzeko gorputz gaitasunak entrenatzeko teknikak erabiltzea, berriazko trebetasuneko lotura eginaz (jokoak eta kirolak, erritmoa eta gorputz adierazpena, mugimendu kalitateak eta ingurune naturaleko jarduerak).

12. Berariazko trebetasunak ikasi eta hobetzea joko eta kiroletako testuinguru benetakoetan.
13. Mugimendu erantzunak erabaki, burutu eta kontrolatzeko estrategiak itxuratzzea, gero eta konplexuagoko egoeretara moldatzea helburu.
14. Gorputz adierazpeneko eta dantzako jarduerak aztertu eta erabiltzea.
15. Ingurune naturalera moldatu eta hartaz gozatzeko teknika oinarrizkoak probatzea.
16. Izadian hainbat jarduera planifikatu eta burutzea.

Jarrerak

1. Erregulariki gorputz jardueran aritzeak norberaren eta taldearen osasunerako zer ondorio mesedegarri, zer arrisku eta zer debeku dituen jakin eta baloratzea, eta haien aldeko jarrera positibo eta eragilea hartzea.
2. Arnasa hartzeko eta erlajazioa egitearen aldeko jarrera hartzea, oreka psikofisikoa berreskuratzeko bidetzat.
3. Norbere gorputz egoera mantendu eta hobetzeko ardura eta interesa hartzea, norbere premia eta gaitasunen arabera.
4. Gorputz jardueran aritzeko higie, segurtasun eta galarazpen arauak errespetatzea.
5. Kirol eta gorputz jarduerekin lotura duten fenomeno soziokulturalen aurrean jarrera kritikoa hartzea.
6. Norbere eta besteren gorpuztasunaren aurrean errespetua, tolerantzia eta diskrezioa agertzea eta baloratzea.
7. Laguntza eta elkarlanaren aldeko jarrerak hartzea.
8. Mugimendu gaitasunean trebatzearen aldeko jarrera.
9. Egonkera txarrak ez hartzeak zenbateko garrantzia duen ohartu eta hori galarazteko gorputz jarduerak zenbat balio duen baloratzea.
10. Zenbait ohiturak (erretzea, edatea, sedentarismoa eta abar) gorputz egoerari eta osasunari zenbat kalte egiten dioten baloratu eta ohitura horiek gaitzesteko jarrera hartzea.

11. Norbere gaitasunak ulertu eta abiapuntutzat onartzea, handik norbere burua gainditu eta gehiago eskatzen hasteko.
12. Besteen burutzapenak errespetatu eta norbere ezaugarri nahiz besteren trebetasun maila desberdinak baloratzea.
13. Bakoitzaren eta taldearen ezaugarriak onartu eta errespetatzea, sexu, etnia, gorputz gaitasuna edo halako ezergatik bereizkeriarik egin gabe.
14. Bizkorki parte hartzea taldekako edo bakarkako jardueretan, bakoitzak zein ere maila iritsi duen.
15. Talde lan baten barrenean bakoitzari esleitu zaion eginkizuna onartu eta hartan laguntzea.
16. Kirol jostetako gorputz jardueretan aritzeak integrazio sozialerako duen funtzioa baloratzea.
17. Kirolaren osagai teknikoak eta plastikoak objektiboki baloratzea, kasuan kasuan nork edo zer taldek egiten duen kontuan hartu gabe.
18. Joko eta lehiaketa egoeretan beste pertsona batzuen kontra aritzearen erronka onartzea, etsaitasun edo mesprezu jarrerarik hartu gabe, eta borondate ona, tolerantzia eta kirol zintzotasuna agertuz, bai parte-hartzaile gisa eta bai ikusle gisa ere.
19. Arau eta erregelamenduak onartu eta errespetatzea, eta modu lasai eta bakesuan hartzea jokozainen edo arbitroen erabakiak, sortzen diren gatazkak konpondu eta emaitzak onartzeko, galtzaileak nahiz irabazleak izan.
20. Beste pertsonekin komunikatzeko desinhibizioa, zabaltasuna eta komunikatzeko gaitasuna izatea.
21. Norbere eta besteren burutzapenen sormena, adierazkortasuna eta plastikotasuna baloratu eta errespetatzea.
22. Norbere gorputza baloratzea adierazpen tresnatzat eta talde nahi bakarkako inprobisazioetan sortzen den berezko komunikazioaz gozatzea.
23. Dantza folklorikoak ondare kultureko osagaitzat baloratzea.
24. Hiri eta natur ingurunea kontserbatu eta hobetzeko arauak onartu eta errespetatzea, eta hura baloratzea josteta jardueretan aritzeko aukera asko ematen dituen tokia baita.

25. Aisia okupatzeko modu berriak ikasteko interesa hartzea.
26. Ohikoez beste giroetan jokatzeko beregaintasuna izatea, bere buruaz seguru eta behar diren segurtasun eta babes neurriak hartuz.
27. Gorputz jarduerak antolatu eta burutzeko ardura.
28. Norbere burua hobeki onartu eta jarrera kritikoa hartzea osasunerako kalte diren jardueren aurrean.

Plastika eta Ikus-hezkuntza

Sarrera

Gizabanakoa zentzu estimuluen bitartez garatzen da; horietatik asko ikustezkoak eta ukitezkoak izaten dira. Estimulu horien bidez jasotzen den informazioa, izaditik heldu da, edo giza eskuak egindako obretatik. Informazio hori barrendu ahal izateko, gogoeta kritikoa egin behar da gure ingurune ikusmeneko eta plastikoaren gainean.

Arlo honen abiapuntua eguneroko errealitatea izanen da, izadia izan edo irudi eta gertaera plastikoak izan, han egoten baitira diseinu desberdinen objektuak eta medio desberdinen bidez garraiatutako irudiak (zinea, telebista, irudi digitala eta abar).

Ikusteko eta ukitezko mundu hori lengoaia baten bidez ematen da aditzera: lengoaia plastikoa hain zuzen, zeinaren ezagupena arlo honen ardatza den. Lengoaia plastikoak bi komunikazio maila behar ditu: ikusten jakin eta egiten jakin.

Ikusten jakitea prozesu fisiko-psikikoa da, zeinean zuzeneko pertzepzioa izaten baita sentikortze prozesu baten abiapuntu, ondoren ulermen arrazionalagoa garatzeko.

Egiten jakiteak ikusten jakitea behar du aurrenik eta bi modutan ematen da aditzera: adierazpena eta irudikapena, zeinerako tresna edo erremintaren bat behar izaten baita.

Irudi eta gertaera plastikoez betetako mundu batean, gizabanakoek ikasi behar dute ikusmenaren bidez heldu zaien informazioa preziatu, aztertu, adierazi eta

kritikatzen. Plastika eta Ikus hezkuntza arloak gaitasun horiek garatzea du helburu nagusia.

Plastika eta ikus hezkuntzak pertsonak bere inguruko errealitatearekin izaten duen harreman prozesua erraztu eta aldatu egiten du, garapen momentu desberdinak kontuan hartuz, garatze hori hobeki gerta dadin.

Lehenbiziko zikloan ikasleen inguruko eduki plastikoenganako sentikortze prozesua hasiko da, eta ikusteko mezuetaranzko hurbilbidea eduki konkretuetatik abiatuta egingen da, osagaiak ezagutu, atzeman eta bereiziz, horrela ikaslearen pertzepzio gaitasunak handituz. Horrekin batera, eginahala egingen da ikasleak forma errealen eta haien interpretazioaren adierazte gaitasuna zenbatekoa den uler dezaten, horrela haien sormena biziagotzeko. Lehenbiziko etapa honetan, halaber, ikasleek zenbait trebetasun ere bereganatuko dituzte, lengoia plastikoa- ren trebetasun edo adierazpide desberdinak erabiltzen.

Bigarren etapan, ikasleek sakondu egingen dute pertzepzioan, ingurune naturala eta kulturala aztertuz eta haien osagaiak sormen prozesu pertsonal batean sintetizatuz.

Arlo honen berezitasunagatik, posible da zenbait ideia zentral finkatzea etapa osoan zehar edukien trataeran jarraitasun bat lortzeko, ikasleak gai izan daitezen loturak egin eta aurrera joateko, prozesu berri bakoitza lehengoan utzitako tokian berriro hartuz eta handik konplexuagoko maila batera iritsiz.

Edukiek arlo honetako gaitasunak eta trebetasunak garatzen dituzte, helburu orokorretan definitzen diren moduan. Gehienbat eduki kontzeptualak dira.

Hala ere, arlo hau prozedurazkoa delarik, prozedurak erabiliko dira kontzeptu horiek ikasi eta garatzeko (tresnak eta teknikak).

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketari- ko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.

2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarriko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Ikasleak bere ingurune naturaleko irudi eta formak kritikoki atzeman eta interpretatzea, dituzten gaitasun ebokatzailak, plastikoa, estetikoak eta funtzionalak ulertuz.
4. Ulertzea arte gertaera gozamen estetikoaren iturri dela, eta ondare kultural bateko osagai, eta bizkorki lagun egitea hura errespetatu, kontserbatu, dibulgatu eta hobetu dadin.
5. Sormena garatzea eta adieraztea, ahal dela bere lengoia pertsonalaren subjektibotasunetik edo lengoia ikusteko edo plastikoaren kode, terminologia eta prozedurak erabiliz, bere komunikazio gaitasuna handitzeko.
6. Lengoaia ikusteko edo plastikoaren harremanak beste lengoia batzuen bidez interpretatzea, eta egindako aurkikuntzak komunikatzeko adierazpide pertsonal hoberena bilatzea.
7. Adierazpen ikusteko edo plastikoak norberarenaz eta inguruan nagusi direnez landara dituen beste moduak errespetatu, preziatu eta interpretatzen ikastea, estereotipoak eta konbentzionalismoak gaindituz, eta nork bere juzguak sortzea beregain jokatu eta irizpide propioak izateko moduan.
8. Beste pertsonekin harremanetan sartu eta talde jardueretan parte hartzea, malgutasuna, elkartasuna, interesa eta tolerantzia agertuz, inhibizioak eta aurreiritziak gaindituz, eta bereizkeriak edo ezaugarri pertsonal edo sozialak arbuatuz.
9. Lengoaia ikusteko edo plastikoak bizipen, sentimendu eta ideien adierazpide edo komunikabide gisa duen garrantzia preziatzea, inhibizioak gainditu eta oreka eta ongizate pertsonalari egiten dion aportazioa baloratzeko.
10. Ikusteko edo plastikazko tekniken bidez ikerketa egiteak zenbat adierazpen aukera ematen dituen preziatzea, sormen prozesuan nork bere burua gainditzeko egiten duen eginahala baloratu.
11. Obra baten burutzealdiak bakarka eta taldeka planifikatzea, haren osagaiak aztertu asmotan diren helburuen arabera moldatzeko eta aldi bakoitza bukatzen denean helburu horiek errebisatzea.

Plastika eta Ikus-hezkuntza I

Tailer moduan antola daiteke, aldi laburretan jarduera aldatuz ikasleen gaitasun eta interesen arabera moldatzeko.

Edukiak

- Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena
- Naturalaren marrazketa: bozetoa, enkajea, proportzioa, denetariko teknikak.
- Grabatuaren hastapenak: linolioa, serigrafia.
- Zeramikaren hastapenak.
- Argazkigintzaren, bideoaren, ordenagailuaren hastapenak.
- Bolumena lantzen: buztina, eskaiola, papera.
- Marrazketa teknikoak: marrazki tresnak nola erabili, oinarrizko eraikuntzak, poligonoak, sareak.

Plastika eta Ikus-hezkuntza II

Edukiak

I. *Hizkera bisuala*

1. Hizkera bisual desberdinak zein diren atzeman: masa komunikaziorako bideak: prentsa, TB; diseinu grafikoa, arte plastikoak, teknologia berriak.
2. Hizkera bisualen helburuak: informazioa, komunikazioa, adierazpena eta estetikoak.
3. Pertzepzio bisuala: forma-ingurune harremana. Formen arteko harremana.

II. *Hizkera bisualaren osagaiak*

1. Hizkera plastikoaren osagaiak: lerroa, plano eta ehundura.

2. Lerro motak eta plano motak.
3. Ehundura ukitzezkoak eta ikustezkoak.
4. Kolorea: fenomeno fisikoa eta bisuala. Zirkulu kromatikoa. Gama kromatikoak. Kolorearen kalitateak. Kolorearen teknikak.
5. Kolorea irudikapen eta kolorea sistema kodetu.

III. *Forma planoen irudikapena*

1. Forma eta figura planoen irudikapen bidimentsionala.
2. Geometria deskriptiboa izadian.
3. Formaren egitura: norabideak. Norabideen arteko harremanak: paralelismoa, perpendikulartasuna, angeluak, erdibitzailea.
4. Forma poligonalak: zirkunferentzia batean inskribatutako poligonoak osatzea, forma modularrak sortzen dituzten poligonoak.
5. Neurriaren kontzeptua.
6. Berdintasuna: Talesen teorema, segmentu bat zati berdinetan nola zatitu, zirkunferentzia zati berdinetan nola zatitu, alde bat ezaguturik poligonoak nola trazatu.
7. Proporzionaltasuna eta antzekotasuna: segmentu bat zati proporzionaletan nola zatitu.
8. Eskala motak eta eskalak nola erabili.
9. Proporzioa giza irudian: desproporzioa.

IV. *Espazioa eta bolumena*

1. Espazioaren kontzeptua: pertzepzioa eta irudikapena.
2. Perspektiba konikoa: ikuspuntua eta ihes puntua.
3. Argiak nola eragiten dion pertzepzioari.
4. Argiak forma eta giroetan hartzen duen balio adierazkorra eta irudikatzailea.
5. Bolumena: bolumenaren kontzeptua eta haren harreman espaziala. Argia eta itzala. Solido sinpleak sistema diedrikoan nola irudikatu.

V. *Hizkera bisualetan erabilitako prozedura eta teknikak.* *Arloari dagokion hiztegia ikastea*

1. Hainbat adierazpide grafiko-plastiko erabiltzen jakitea: grafitozko lapitzak, kolorezkoak, errotuladoreak, pastelak, tinta, argizariak, tenperak, collagea.
2. Hainbat euskarri grafiko-plastikorenganako hurbilbidea: zura, kartoia eta abar.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Inguruko hizkera bisual nagusiak ezagutu eta dituzten helburuen arabera sailkatu.
3. Grafiko eta plastikoki forma jakin bat deskribatu, osagaiak adieraziz: egitura-ren konfigurazioa, ehundurak eta kolorea.
4. Teknika eta material desberdinak manipulatzat sor daitezkeen ehundura ikus-tezko eta ukitezko desberdinak bereiztea.
5. Formak grafikoki deskribatzea, haien orientazio espaziala eta haien norabideen arteko harremana atzemanez.
6. Forma geometriko sinpleak marraztea.
7. Forma planoen bidez sentsazio espazialak irudikatzea, tamaina aldaketak, su-perposizioa eta kontrastea erabiliz.
8. Inguruko espazio bat irudikatzea, adierazpidetzat argi kontrasteak erabiliz.
9. Adierazpide grafiko eta plastiko desberdinak ezagutzea.
10. Ingurunearen kalitate estetikoak, eguneroko bizitzaren objektuak eta iru-diak baloratzea.

Plastika eta Ikus-hezkuntza III

Edukiak

Arloko lengoiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Hizkera bisuala*

1. Ikusteko pertzepzioa. Obserbazioa.
2. Irudia adierazpide, komunikabide eta ezaupide.
3. Adierazpide moduak: anagramak, logotipoak, markak, kriptogramak.
4. Zeinu konbentzionalak. Seinaleak. Adierazleak eta adieraziak.
5. Komunikaziobideak eta teknologia berriak.
6. Hizkera desberdinen elkarreragina: plastikoa, musikala, hitzekoa eta jestu bidezkoa.
7. Marrazketa teknikoak ikusteko komunikazioan.

II. *Hizkera bisualetako osagai figuratiboak*

1. Lerroa formaren egitura emaile: enkajea.
2. Lerroa formen abstrakzio: trazadura eta grafismoa.
3. Planoa konposizioko eta adierazpeneko osagai.
4. Ehundura natural eta artifizialen kalitate espresiboak.
5. Ehunduraren espresio teknikak nola erabili. Ehundura artean.
6. Kolorea fenomeno fisiko eta bisuala. Gehituzko nahasturak eta kenduzko nahasturak.
7. Zirkulu kromatikoak. Kolore osagarriak.
8. Kolorearen kalitateak. Harmoniak, kontrasteak, kolore gamak.
9. Koloreak adierazpide eta irudikabide gisa duen balioa. Kolorearen sinbolismoa eta psikologia.
10. Kolorea konposizioan, kolorea giro sortzaile.

III. *Formen analisisa eta irudikapena*

1. Forma geometrikoak eta forma organikoak.
2. Forma poligonalak.
3. Forma kurboak izadian eta artean.
4. Proporzioa.
5. Errepikazioa eta erritmoa.
6. Moduluaren kontzeptua. Egitura modularrak.
7. Sare poligonalak. Forma modular bidimentsional oinarrikoak. Egitura modularrak izadian.

IV. *Konposizioa*

1. Formak nola antolatzen diren planoan. Formatua. Lerro bisuala.
2. Formak eta fondoak konposizioan zer garrantzia duten.
3. Argia eta kolorea konposizioan.

V. *Espazioa eta bolumena*

1. (3D). Espazioaren eta bolumenaren pertzepzioa.
2. Sistema diedrikoa.
3. Sistema axonometrikoa. Cavaliere perspektiba.
4. Perspektiba konikoa.
5. Forma modular tridimentsionalak (3D).

VI. *Hizkera bisualetako prozedura eta teknikak*

1. Teknika grafiko-plastikoak ezagutu eta erabiltzea. Pigmentuak, aglutinatzaileak, urtugarriak. Teknika lehor eta hezeak.
2. Euskarri diferenteak nola erabili irudikapenak adierazi edo deskribatu nahi duenaren arabera.
3. Materia forma bolumentrikoan.

VII. *Sormen prozesua*

1. Obra baten aldiak: bozetoa, gidoia, maketa. Gauzapena. Akabera.
2. Proiektu tekniko baten aldiak: krokisa. Proiektua. Azken buruko aurkezpena.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Irudiak aztertzea sintaxi bisualaren osagai oinarrizkoak kontuan hartuta.
3. Lerro eta ehundurako osagai konfiguratiboak hautatu, formaren deskripzio analitikoaren arabera moldatuz.
4. Kolore nabardurak bereizi eta irudikatu bai izadian eta bai inguruan.
5. Geometrikoki irudikatu forma natural eta artifizialak.
6. Konposizio modularrak diseinatu sare poligonalen gainean.
7. Konposizioak interpretatu formak antolatzeke alternatiba desberdinak bilatuz.
8. Forma poligonal sinplea deskribatu haren oinarrizko bistak irudikatuz.
9. Espazio sentsazioa planoan irudikatu sistema axonometrikoa baliabide grafikotzat erabiliz. Cavaliere perspektiba eta perspektiba konikoa.
10. Adierazpen grafiko-plastikoko euskarri eta teknika desberdinei antz ematen ikastea.
11. Teknika grafikoak komunikazio desberdinen arabera egoki erabili.

Plastika eta Ikus-hezkuntza IV

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Hizkera bisuala*

1. Irudiak nola irakurri, Irudi baten azterketa.
2. Irudi errepresentatibo eta sinbolikoa: irudiak historian izan duen funtzio soziokulturala.
3. Media eta teknologia berrietarako hurbilbidea.
4. Hizkera desberdinen arteko elkarreragina.
5. Marrazketa teknika ikustezko komunikazioan: sistema desberdinak zein eremutan erabili.

II. *Osagai grafiko-plastikoak, irudiak analizatu eta sortzeko bide*

a) *Lerroa*

1. Formaren egitura emaile: enkajea.
2. Lerroa formaren abstrakzio.
3. Lerroaren adierazpen gaitasuna.

b) *Ehundura*

1. Sailkapena: ikustezkoa, ukitzezkoa.
2. Berriazko teknikak: bilbeak, plantillak, frotaga...

c) *Kolorea*

1. Kolorearen sinbolismoa eta psikologia.
2. Kolorea arloen arabera nola aplikatu: industrial, artistikoa. Seinaleak.
3. Kolorearen apreziazio subjektibo eta objektibo.

III. *Formen analisisa eta irudikapena*

1. Formaren egitura.
2. Forma natural konplexuak: adarkatzea, traslazioa, hedapena.
3. Kanon, neurri edo moduluaren kontzeptua.
4. Arte lanetako proportzioen azterketa.
5. Desproportzioak eta deformazioak.
6. Proportzionaltasuna eta eskalak.
7. Formaren irudikapena: ikonotasuna eta abstrakzioa.
8. Forma geometriko lauak.
9. Poligono erregularrak.
10. Kurbak.

IV. *Konposizioa*

1. Konposizio irizpide edo printzipioak.
2. Forma, kolorea eta konposizioa.
3. Konposizioa artean eta inguruan.

V. *Pertzepzioa eta irudikapena*

1. Bolumena. Forma tridimentsionalak.
2. Hirugarren dimentsioa planoan nola irudikatu.
3. Argiluna.
4. Irudikapen sistemak: diedrikoa, axonometrikoa, konikoa.
5. Forma modular tridimentsionalak.

VI. *Hizkera bisualetan erabiltzen diren prozedura eta teknikak*

1. Material eta teknika grafiko-plastikoak (bi-tridimentsionala).
 - Pigmentuak.
 - Aglutinatzaileak.
 - Urtugarriak.
 - Materia forma bolumentrikoan.

VII. *Sormen prozesua*

1. Obra artistiko edo tekniko baten aldiak.
2. Bozetoa, gidoia, maketa, krokisa.
3. Gauzapena, proiektua.
4. Akabera, azken buruko aurkezpena.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Irudi baten osagai sinboliko eta errepresentatiboak analizatu.
3. Lerro mota eta ehundura mota hautatu, irudikapen grafikoak adierazi nahi duenaren arabera.
4. Irudi baten esangura kolorearen bidez aldatu.
5. Formek izadian duten egitura aztertu, ardatzak, norabideak eta proportzioak finkatuz.
6. Arlo bisual jakin batean konposizio aldagai desberdinak bilatu, osagai guztien arteko enkoadraketa eta orekaren kontzeptuak kontuan hartuta.
7. Irudikapen sistema desberdinak erabiliz, forma tridimentsional elementalak deskribatu.
8. Proiektu bat egitea, lengoaia grafiko, plastiko eta bisual desberdinetatik, kasurako gehien komeni dena hautatuz.
9. Teknika grafiko, plastiko eta bisual bakoitzerako behar diren material eta tresna desberdinak nola erabili ikasi.

Prozedurak

Denetariko testuak bakarka eta ulertuz irakurtzea: manualak, dibulgazio liburuak, albumak, kazeta espezializatuak eta abar.

Zuzeneko pertzepzioaren prozedurak

- Errealitatea edo irudiaren obserbaziotik hartutako datu bisualak bilatu, hautatu eta antolatzea. Errealitatea eta haren irudikapena konparatu.
- Hurbileneko ingurutik ateratako formak, objektuak eta multzoak arakatu, haie-tan zer elementu bisual gailen diren atzeman, zer balio estrukturalak definitzen dituzten eta zer argi eraginen pean dauden.
- Formak eta multzoak hainbat kondizio desberdinetan aztertzea: argia, bere itzala, itzal proiektatua, hainbat egonkera, denetariko teknikak erabiliz (eskuz-koak nahiz fotografikoak).
- Objektuetarako egonkera jakin bat hautatu balio estetikoaren, orijinaltasunaren eta lortu beharreko emaitzaren arabera.
- Zein ikuspuntu eta zein enkoadraketa behar den erabaki lortu beharreko helburuen arabera, daitezkeen delimitazioak baloratu.

Zeharbideko pertzepzio prozedurak. Irudi manual edo teknologikoak oinarri

- Irudi baten edukia osotara preziatzea.
- Errealitatea eta haren irudia zertan diren diferenteak finkatu
- Irudia irakurtzeko estrategiak, hizkera grafiko-plastikoaren osagaiak eta tes-tuinguru desberdinetan ageri diren kontzeptu sintaktikoak analizatu.
- Antzeko diseinu edo soluzio grafiko plastikoetatik antzekoa, konparatzekoak eta orokorra dena atera.
- Irudiak, alderdi material, formal eta daitezkeen esanguren mezuaren edukiari buruzkoak deskribatu, egilearen asmoen eta iritsi dituen helburuen arabera.
- Irudien, ikonoen sinboloen eta abarren balorazio eta interpretazio pertsonala egin.

Forma eta irudiei buruzko oroimen bisuala

- Irudi ebokatzailen adibideak.
- Forma eta espazioen oroimena, egiturazio eta konfigurazio eredian barrentzea helburu.
- Objektuak eta osagaiak memoria hutsetik marraztea, zuzeneko kontsultarik egin gabe.

Forma eta irudiak deskribatzea

- Forma konplexuak beste sinpleago eta oinarritzkoago batzuekin lotzea.
- Multzo kromatiko jakin baten azterketa (kontrasteak eta harmoniak) kolore notak erabiliz.
- Forma eta espazioei buruzko informazioa biltzea, irudi fotografikoak edo bideo-grafikoak erabiliz.
- Forma eta espazioen dimentsioak krokis batean mugatzea.
- Hauteman diren edo egin asmo diren forma eta irudien ezaugarri bereizgarriak ahoz nahiz idatziz adieraztea.
- Arlo honek berezko duen terminologia erabiltzea.
- Informazioa dokumentu idatzietatik biltzea.

Testu bisual eta plastikoak analizatu eta interpretatu

- Ikusteko mezu baten eduki osoarenganako hurbilbidea, bai alderdi formaletan bai esanguran, eta bai denotazioari nola konnotazioari dagokionez.
- Obra jakin bateko osagai kontzeptual, bisual eta harremanezkoak hautematea.
- Obra baten balio estruktural, espresibo eta semantikoak azaldu.
- Obra bi eta tridimentsionaletan zer teknika, prozedura eta material erabili diren hautematea.
- Irakurketa mailen inguruko apreziazioa: errealista, sinbolikoa, abstraktua...
- Mezuak eta mezuen eginkizuna definitzea
- Egile batek zenbait obraren aldian zituen ezaugarri ikonografiko esanguratsuak atzematea.

- Mezu bideografiko edo zinematografiko baten diskurtsoari, muntaiari, momentu giltzei, klimaxari, erritmoari buruzko gogoeta.
- Material bideografiko eta bibliografikoa kontsultatzea.

Sormen prozesuetako prozedurak

- Asmotan har ditzakegun lanen inguruan sortzen diren interesak atzeman eta aztertzea.
- Aurretiazko lan plastikorako baliagarri izan daitekeen informazioa dokumentatu, bilatu eta egituratzea.
- Soluzio bideragarrietara eramaten ahal duten ideiak itxuratu, arakatu eta hautatzea.
- Lana ebazteko ardurakoa den informazioa inguratu eta laburbiltzea.
- Lan prozesuaren plana egitea, operazio sekuentzia bat ezarri.
- Obraren asmoei buruzko erabakiak hartzea, xede bat hautatuz: esperimentua, espresioa, komunikazioa, errepresentazioa.
- Obra gauzatzean zer sormen prozesu erabiltzen den ohartzea: intuizioa, analisia, aleatorioa eta abar.
- Erabili behar diren euskarri, tresna eta teknikak baloratzea. Bakoitzaren espresio gaitasunez ohartzea.
- Formak eta irudiak osatzen dituzten elementuak definitzea.
- Formen irudikapen subjektibo eta objektiboa.
- Konposizio bidimentsional, tridimentsional eta sekuentziadunak egitea.
- Zeinu eta kode bisualak erabiltzea.

Arte plastikoek berezko dituzten teknikak eta teknologiak

a) Marrazketa

- Erreferentea hauteman eta aztertzea.
- Erreferentea eta marrazkia etengabe konparatzea naturalaren marrazki bat egiten den bitartean.
- Hainbat artista desberdinen marrazkietan ageri diren espresio baliabideak hauteman eta deskribatzea, kontuan harturik haien obran zein elementu eta harreman izaten diren gailen.

- Zer egin asmo den erabakitzea.
- Marrazki bat egiteko prozesuaren plana egitea.
- Euskarri eta tresna desberdinak erabiltzen ikasi (papera, kartoia... lapitza, ikatza, luma...)
- Teknika desberdinak erabiltzea: enkajatzeta, trazatzeta, markatzeta, itzaleztatzea...
- Prozesua, emaitza, eta hasierako asmoaren aldean emaitza ona den baloratzea.

b) *Pintura*

- Koloreak hauteman eta aztertzea, eta bai inguruan eta irudi inprimatuetan di-tuen kontraste eta harmonia harremanak ere.
- Hainbat joeratako artisten pintoretan erabilitako espresio baliabideak hauteman eta deskribatzea, kontuan harturik zein elementu eta elementuen artean zein harreman gailen izaten diren haien obran.
- Egin asmo den pinturaren helburua erabakitzea.
- Pintura lan baterako plana egitea.
- Euskarri eta tresna desberdinak erabiltzea, eta bai pintura mota desberdinak ere (teknika lehor eta hezeak, mistoak, collageak).
- Zenbait pintura teknika oinarritzoren posibilitateak erabili eta miratzea: nahastu, igurtzi, estanpatu, mantxatzea.
- Prozesua, emaitza, eta hasierako asmoaren aldean emaitza ona den baloratzea.

c) *Grabatua*

- Lerro eta mantxak eta haien harremanak arakatu eta aztertzea estanzazio teknika desberdinetan.
- Hainbat joeratako artisten grabatuetan erabilitako espresio baliabideak hauteman eta deskribatzea, kontuan harturik zein elementu eta elementuen artean zein harreman gailen izaten diren haien obran.
- Egin asmo den grabatuaren helburua erabakitzea.
- Grabatu baten aldi desberdinen plana egitea: Aurretiazko marrazkia, plantxara pasatzea, tintaztatzea eta estanpatzea.
- Oinarritzko kalko teknika batzuen aukerak aztertu eta erabiltzea: azetatoaren gaineko grabatua, linolioa, monotipoa.
- Prozesua, emaitzak eta hasierako asmoaren aldean emaitzak onak izan diren baloratzea.

d) *Eskultura*

- Bolumena inguruan eta eskultura lanetan aztertu eta deskribatzea.
- Hainbat joeratako artisten eskulturetan erabilitako espresio baliabideak hauteman eta deskribatzea, kontuan harturik zein elementu eta elementuen artean zein harreman gailen izaten diren haien obran.
- Egin nahi den eskulturaren helburua erabaki.
- Lan bolumetrikoko baten plana egitea.
- Material eta tresna desberdinak erabiltzea (buztina, xaboa, klarionak, paper matxea, burdin haria, polietileno hedatua, kartulinak...)
- Oinarritzeko bolumen teknika batzuk aztertu eta erabiltzea; batu, erantsi, kendu...
- Prozesua, materialak eta hasierako asmoaren alderako horiek onak diren baloratzea.

e) *Fotografia*

- Autore klasikoaren fotografiak arakatu eta aztertzea.
- Hainbat joeratako artisten fotografietan erabilitako espresio baliabideak hauteman eta deskribatzea, kontuan harturik zein elementu eta elementuen artean zein harreman gailen izaten diren haien obran.
- Egin nahi den fotografiaren helburua erabaki.
- Plana.
- Konfigurazio espazialeko. Konposizioko, erritmoko elementuen aukerak arakatzeko.
- Trebetasun fotografikoak (kamera nola erabili, esposizioa, enfokea...).
- Prozesua baloratzea.
- Zinea, bideoa eta teknologia berriak ere aukerako ikasgaietan ikasten badira, aurreko adibideetan esan bezalako tratamendua izanen dute.

Jarrerak

Ondoren jasotzen diren balioak, arauak eta jarrerak arloko berezko dituen jardueretatik heldu dira, ikaslearen beregaintasun eta garapen pertsonalarekin loturik daude eta talde harremanen eta gizarteratze mailaren ondoriozkoak izanen dira.

Arte jardueretatik heldu direnak

- Fenomeno estetikoari buruz sentikortzea, jarrera ireki eta harkorra duzula bai ingurune naturalarekiko nola artifizialarekiko.
- Denetariko agerkari plastiko eta ikustezkoetan dimentsio estetikoak aurkitzearen aldeko jarrera. Inguruko objektuetan alderdi estetikoak eta funtzionalak baloratzea.
- Arte gertaeraren aurrean kontzeptu estatikoak eta estereotipoak gainditzea. Jarduera grafiko-plastikoak garatzeaz interesa hartzea.
- Jarduerak garatzeko informazio zehatza bilatzeko arduraren hartzea.
- Hizkera grafiko-plastikoaren aukerak eta dituen aukera komunikatiboak atzematea.

Beregaintasun eta garapen pertsonalaren ingurukoak

- Lanean jarrera metodiko eta ordenatua izatea.
- Problema praktikoen aurrean jarrera positibo eta sortzailea eta bere buruarenganako konfiantza erdiestea emaitza konkretu eta fidagarriak izatea helburu.
- Zailtasunak gainditzea, dudak irakasleari kontsultatzea. Lanean irautea.
- Norbere sorkariak gainditzeko norbere buruari gehiago eskatzea.
- Tekniken hautapena baloratzea norbere ezaugarrien arabera.
- Garbitasuna, pazientzia eta ongi egindako lana baloratzea jarduera guztiak burutu eta aurkezterakoan.
- Azalpeneko zorrotasuna eta hiztegi teknikoaren baloratzea.
- Autokritikarako gaitasuna garatzea.
- Jarrera kritikoa hartzea publizitatearen bidez sortutako kontsumo premien aurrean.

Talde harremanaren ondoriozkoak

- Jarrera eta ekimen pertsonala izatea, talde jarduerak antolatu eta bertan solidarioki parte hartzeko.
- Gure jarrerak arrazoitzea eta taldearen jarduerak edo irakaslearen irizpide arrazoituak agindutako aldaketak onartzea.

- Iritzi pertsonalak proiektu orokorrean integratzea eta besteren iritziak ildo berean baloratzea.
- Norbere erantzunbeharra bere gain hartzea.
- Gure kideen estilo eta gustu gureak ez bezalakoak jakin-minez aztertu eta errespetatzea, dituzten alde positiboak baloratuz.
- Ikasgelako ordenak eta garbitasunak duten garrantziaz konturatzeko, lanerako eta elkarbizitzarako osagai ezinbestekoa baitira.

Gizarteratzearen ingurukoak

- Bizileku dugun ingurune sozialaren ezaugarri oinarritzkoak atzematea.
- Jarrera kritikoa izatea gaur egun publizitatearen bidez sortzen diren kontsumo premien aurrean, eta bereizkeria (sexuala, soziala, erlijiozkoa, profesionala) edo edonolako manipulazioa dakarten osagaiak arbuiatzea.
- Gizartearen premiak lehenestea moda edo gustuen aurretik.
- Estilo desberdinak, bai gaur egungoak nola noizbaitekoak baloratzea, eta bai norbere gustutik urruti dauden kulturak ere.
- Ondare historiko eta kultural unibertsala baloratu, errespetatu, kontserbatu eta gozatzea.

Etika

Sarrera

Hezkuntzaren helburu nagusietako bat da ikasleen giza nortasuna bururaino garatzea, bertan toki gailena emanaz haien formazio moralari, hezkuntzaren prozesuari eta eraginari esker ikasleak gauza izan daitezen modu kritikoan eta hausnartuan beren askatasuna eta beren egin behar pertsonal eta sozialak beren gain hartu eta erabiltzeko, errespetua, ulerpen kritikoa eta jatorriko kulturarena ez bezalako jarrera moral, politiko eta erlijiozkoenganako tolerantzia giro bat gailen delarik.

Egia da heziera moral ezagupen arlo guzti-guztien osagai dela, eta hezkuntza komunitate osoak izan behar duela horren ardura. Egia ere da, ordea, ikuspuntu filosofiko hutsetik egiten den gogoeta etikoa ezinbestekoa dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ematen den heziera moralerako.

Filosofia praktikoak, oso zentzu zabalean ulerturik, hainbat arlo ukitzen ditu, dela filosofia morala, dela filosofia politikoa edo zuzenbidearen filosofia. Alderdi horiek goragoko jakite maila eskatzen dute eta gogoeta arrazionalari dagozkionak dira; argudiatze kritikorako gaitasuna ere beharrezkoa dute, eta horiek guztiak, ordea, ez dira gertatzen heziera moralean non ez zaien tratamendu berariazko eta sistematikoa ematen. Filosofia moralak, berariaz, sakonagoko eta kritikogoko gogoeta aportatzen du bizitza moralaren, ekintza politikoaren eta lege juridikoaren oinarrien gainean. Horri esker, ikasleek askoz errazago izanen dute gure bizileku diren gizarte demokratiko, plural, konplexu eta aldakorretan behar den bezalako kontzientzia moral eta zibikoa osatzea.

Etika, beraz, gai propioa, beregaina da, eitez filosofikoa, baina ezagupen eta kulturaren beste arlo batzuetako aportazio kontzeptualekin etengabeko elkarrizketan ari dena. Etika, inolaz ere, ez da erlijio konfesionalen alternatiba.

Etikak ikasle guztien ondare komuna behar du, eta lagun egin behar du herritar arduratsu, zintzo, kritiko, pentsaera zabaleko, eta toleranteak prestatzen, herritar horiek gai izan daitezen beren sinismen moralak arrazionalki oinarritzeko eta beste pertsonekin elkarlanean aritzeko; azken finean, beste aukera erlijioso, moral eta politikoak toleratzeko, hau da, baloratu eta errespetatzeko, giza kulturaren aberasbide eta giza arazoak dituen mugen onarpena ekartzen duten partez. Etika irakaskuntzaren dimentsio zibiko horrek garrantzi handia hartzen du hezkuntza sistemaren eta gaurko gure gizartearen oraingo testuinguruan.

Hortaz, DBHko 4.eko ikasleentzako etika irakasgaiak indartzen du, franko indartu ere, heziera moralak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan duen eginkizuna, eta azken buruko emaitza ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zehar erai ki duten kontzeptu eta jarrera sare guztia sakonagotzea eta arrazionalik kritikatzeta izanen da. Etikak berezko duen gogoeta filosofikoak dialektika kontzeptualean hartzen du oinarri eta honako nozio bikote hauen elkar-osagarritasunean: askatasuna-determinismoa, eskubidea-eginbearra, ongia-gaizkia, balioak-antibalioak, arauak-anomia, legetasuna-zilegitasuna, autonomia-heteronomia, erantzunbearra-erantzunik eza, eta abar. Horrez gain, filosofiak berariaz laguntzen dio problema etiko-politikoak eta etiko-juridikoak unibertsaltasun eta abstrakzio arrazional maila batean jartzen, beste zenbait ezagupen arlotan izaten dena baino gehiagokoa, horiek eskuarki gertaera eta gatazkak deskribatu eta azaltzera mugatzen baitira. Horrez gain, Etikak dilema itxuran aurkeztu ohi ditu gaurko munduan sortzen diren problema moralak, ikasleengan ahalean argudiatze eta kritikarako gaitasuna handitzeko, eta beti inolako dotrinatze moral, politiko edo erlijiosotan erori gabe.

Etikaren dimentsio filosofikoak ez du ekartzen ondorioz mendebaleko kulturaren historian zehar sortu diren teoria etiko guztien tratamendu historiografiko sistematikoa egin beharrik; aitzitik, badirudi beharrezkoa duela giza moralitasunaren oinarritze filosofiko bat egitea (askatasuna, beregaintasuna, balioa, araua, eskubidea, eginbearra eta abar) eta horrekin batera mendebaleko munduaren etika teoria nagusietarako sarrera labur bat egitea. Ildo horretatik, DBHko 4. kurtsoan irakasten den filosofia moralak, eguneroko bizitzarako oinarri arrazional batzuk eskaini ez ezik, propedeutika filosofiko eitez etikoa ere emanen du, batxilergoko lehen kurtsoko gai batzuekin lotura egiteko (pertsona, ekintza eta gizartea) eta hiztegi filosofikoa ezagutzen hasteko atari izanen dena, eta bai gero batean ikasiko diren

mendebaleko filosofiako zenbait autore nagusiren argudiatze prozedura eta teoria filosofikoena ere.

Etika gaztetxo jendeari irakasteak oso eginkizun garrantzitsua du, laguntza baliagarria ematen baitie bakoitzaren nortasun morala itxuratzeko. Gazte denbora honetan, norbere nortasuna baieztatzeko joera izaten da, eta aldi berean inguruko artean onartua izateko kezka ere bai eta norbere eta inguruko errealitatearen gaineko balorazioak eta juzgu kritikoak egiteko aiherra. Bestalde, adin honetan izaten den autobalorazio joerak, inestabilitate emozionalak, mundu koherente eta justu bat erdiesteko desira, denak dira gogoeta etiko filosofikora bultza dezaketen faktoreak.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketan trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkion askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Giza moralitasuna, haren erabilera indibidualean nola sozialean, oinarritzen duten ezaugarri berariazkoak ezagutu eta ulertzea, duintasun pertsonalaren, askatasunaren, kontzientzia zuzenaren, ongiaren eta egiaren esangura baloratu eta bai zuzen jokatzearen oinarri diren printzipioak ere.
4. Irizpide oinarrituak bereganatzea ekintzak, egoerak eta jarrerak juzgatzeko, bereizi ahal izateko zer den gizonaren goragarri eta zer beheragarri eta apalgarri. Oinarrizko balio eta arau moralak nola sortuak diren ulertzea, denak historiaren emaitza direla konturatuz, eta aldi berean gizaki guztientzat baliodunak, eta oinarri objektibo bakarra dutela edozein gizakiren duintasun pertsonala, Giza eskubideen deklarazio Unibertsalean ageri dena, adibidez.
5. Modu kritikoan baloratzea gaurko gizartearen pluralismo kultural eta morala, bertan elkarren ondoan gertatzen diren planteamendu etiko desberdinen

arrazoi moralak atzemanaz. Zehazkiago, konturatzea Europako eremu kulturala oso garrantzi handiko balio moralen esparru dela gizadiaren etorkizuna eraikitzeari begira.

6. Tesi antropologiko eta etiko diferenteak edo eta kontrajarriak ageri diren gaurko munduaren gatazka moral nagusiak atzeman eta aztertzea: materialismoa eta espiritualismoa, liberalismoa eta sozialismoa, indibidualismoa eta komunitarismoa, unibertsalismoa eta kontestualismoa.
7. Gure garaiko munduaren proiektu etiko nagusiak zein diren atzematzea, gehienbat Giza Eskubideak, eta horien aportazio orijinalak ulertzen saiatzea, eta zer soluzio proposatzen duten gure garaiko problema moral nagusietarako.
8. Gaurko gizartearen antolamendu politikoko era desberdinak atzeman eta aztertzea, gehienbat sistema demokratikoa eta Zuzenbideko Estatu soziala, haren lorpenak modu kritikoan baloratuz, eta bai haren hutsuneak eta justizia etengabe bilatzeko helburua ere.
9. Etikaren historiako aportazio teoriko nagusiak ezagutu eta aztertzea, eta batez ere gizabanakoaren eskubide eta askatasunak aitortuak izan zitezten gehien lagundu dutenak, giza kultura guztietan eginbehar moralaren eskakizunak ahaztu gabe.
10. Dialogoaren eta debatearen prozedura egoki erabiltzea gatazka eta dilema moralak planteatzeko eta argudiatzeko gaitasuna handitzeko bidetzat.
11. Modu arrazional eta eraikitzailean parte hartzea ikasgelako jardueretan, barkarka nahiz taldeka, besteen tesi eta jarrera etikoak ulertzera saiatuz, elkarrizketa, errespetu, berdintasun eta tolerantzia positiboko giroa gailen dela.
12. Printzipio eta balio moralak aurkitzen hastea, irizpide independentzia eta juzgu kritikoa bereganatuz, pixkanaka portaera moraleko ohiturak hartuz norbere bizitza planifikatzeko, eta gizakiaren duintasuna behar duten ohi-turak, berriz, arbuatuz, eta aldi berean norbere buruaren irudi positiboa eta norbere buruaren ederretsi egokia izateko jarrera bultzatzea, ikasle bakoitzaren gaitasunen araberakoa.

Edukiak

Epigrafe tematikoen eta unitate didaktikoen banaketa, asmotan genituen helburuen arabera eginga da, eta gizaki guztien duintasun pertsonalak agintzen dituen eginbehar etikoen inguruan eratua, eta bai Giza Eskubideak bezalako etika zibikoaren proiektu funtsezko baten inguruan ere.

Gehienbat filosofia moraleko gaiak sartzen dira edukietan, eta bai ere, gutxiago, filosofia politiko eta juridikokoak. DBHko 4. kurtsoko edukiak honako gai blokeetan sartuko dira, kontuan harturik irakasgai honek gaur egun esleiturik daukan eskola denbora. Gaiak garatzeko, hurrenkera bera hartu daiteke, hasi lehen bloketik, gure garaiko problema moralez ari baita, edo bestela laugarren bloketik, bizitza moralaren oinarritzea eta giza bizitzaren eta elkarbizitzaren gogoeta etikoa hartzen baititu ardatz.

Gai bloke bakoitzean lau unitate proposatzen dira. Irakasleek gutxienez haietako hiru ekman beharko dituzte, ikasleen testuinguru kultural eta soziala kontuan harturik edukiak hautatzerakoan.

Arlo honetako lengoaiaren giltzak: Irakurriaren ulermena.

I. *Gure garaiko problema moralak*

Gai bloke honetan, gaia agortzeko asmorik gabe hainbat problema moral zerrendatzen dira, gure garaian hertsagarrien eta gatazkatsuen ageri direnetakoak. Haietan faktore politikoek, sozialek, ekonomikoek, zientifiko-teknologikoak eta ekologikoek esku hartzen dute. Problema moral hauen guztien gaurkotasuna eta ikasleei pizten dien interesa direla-eta, gai horiek Etika curriculumak garatzeko abiapuntu izan daitezke.

1. Faktore sozial, politiko eta ekonomikoen ondoriozko kontuak: marjinazio soziala. Sexu, arraza, hizkuntza, erlijio eta abarrezko bereizkeriak.
2. Faktore zientifiko teknologikoen ondoriozko kontuak: ingurumenaren endekatzea, arma lasterketa, manipulazio fenomenoak eta abar.
3. Mundu pertsonalaren ondoriozko gaiak: planak eta bizitza idealak, erantzun-beharra, ohiturak, balio eta bertute moralak, eginbeharraren zentzua, norbere buruaren errealizazioa, lan munduratzea, harreman pertsonalak eta abar.
4. Biologiaren arloko aurkikunde zientifikoaren ondoriozko kontuak: giza genoma, ingeniartza genetikoak, donazioa eta abar.

II. *Demokrazia, gaurko proiektu etikoaren gertaleku*

Gai arlo honetan aztertu behar da demokraziak, bizitza moralaren eremu den partez zer esangura etiko, juridiko eta politiko dituen, proiektu etikoaren gauzapean publikoa ahalbidetu eta biltzeko. Giza Eskubideak bizitza demokratikoaren baldintza direla ulertzen da eta proiektu etiko horien gertaleku.

5. Giza Eskubideak eta pertsonen duintasuna.
6. Demokrazia eta herritartasuna. Elkarrizketaren balioa. Askatasuna eta erantzunbeharra. Justizia, elkartasuna, eta tolerantzia gizarte demokratikoetan.
7. Demokraziaren gaineko teoriak.
8. Ingurumenaren babesa, elkartasuna, boluntario lana, beste proiektu etiko batzuk. Bakerako hezkuntza, gizarteko elkarbizitzaren oinarri.

III. *Arrazionaltasuna eta bizitza moralaren egitura*

Gai arlo honetan bizitza morala aztertzeko kontzeptu oinarritzkoak jorratuko dira, aurreko gai blokeetan aipatu diren problema eta proiektuen oinarri teorikoa izan daitezten. Horregatik, komenigarria izan daiteke bloke hau aurrena garatzea, laugarren blokearekin batera.

9. Ongi morala. Balio eta arau moralak.
10. Heteronomia eta autonomia. Moraltasunaren arau objektibo eta subjektiboa. Kontzientzia moralaren formazioa. Juzgu morala: xedea, helburua eta zirkunstantzia.
11. Bizi proiektu pertsonala. Bertute pribatu eta publikoak.
12. Pertsona eta gizartea. Autoritatea eta legitimazioa.

IV. *Teoria etikoak*

Gai bloke honetan gogoeta etikoan historian izan diren eta gaur egun diren lerro nagusiak jorratuko dira. Zorionaren etika, eginbeharrarena eta teoria horiek eta beste batzuek nola definitzen duten bizitza moralaren oinarria aztertuko dira arlo honetan.

13. Bizitza morala zertan oinarritzen den. Izadia, askatasuna, erantzunbeharra. Norbere buruaren errealizazioa, zoriona eta eginbehar morala.
14. Helburuen etikak.
15. Eginbeharraren etikak.
16. Etika eta kultura. Kulturaren agerkari desberdinen dimentsio etikoa: lana, ekonomia, zientzia eta teknologia, erlijioa, artea, aisia eta kirola, komunikabideak, osasuna eta abar.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berriazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Giza moraltasunaren ezaugarriak ezagutu eta argiro ulertzea, eta bai gizakien egitura moralaren kontzeptu oinarrikoak ere, hala nola duintasun pertsonala, araua, eginbearra, erantzunbehar morala eta abar.
3. Gizakien eta gizartearen arau eta balio moralen esangura historiko eta plurala ulertu eta egoki adieraztea, indiferentzia moralean edo erlatibismoan modu akritikoan erori gabe.
4. Gizarte modernoetan gertatzen diren jarraibide moral eta kultural desberdinak ezagutu eta preziatzea, gizajendearen aberastasun kulturalaren adierazpide diren neurrian.
5. Gaurko munduaren gatazka moral nagusiak, jarrera etiko diferenteak edo kontrajarriak argiro agertzen direnak atzeman eta azaltzea.
6. Modu egoki eta arrazoituan ezagutu eta azaltzea gure garaiko proiektu etikoen aportazio teorikoak, bereziki Giza Eskubideena.
7. Modu arrazoituan ezagutu eta azaltzea sistema demokratikoaren eta zuzenbideko estatu sozialaren nozioa, Espainiako eta mundu osoko antolamendu politikorako era baita.
8. Beren aportazio kontzeptualekin eta jarduera sozialarekin munduan gizakien askatasunak eta eskubideak aitortuak izan daitezzen gehien lagundu duten mendebaleko sistema etiko batzuen gune kontzeptual nagusiak ezagutu eta egoki azaltzea.
9. Elkarrizketa eta argudiatzea erabiltzea norbere jarrera etikoak justifikatu eta besterenak arbuiatzeko bidetzat, balorazio eta juzgu positiboak aportatuz. Arlo honetan ebaluatu nahi da zenbateraino erabiltzen den egoki dilema eta gatazka moralen gaineko argudiatzea, eta zenbaterainoko ezagupena eta errespetua dugun beste mintzakideen jarrera diferenteekiko, bai ikasgelan eta bai familia eta gizarteko arloan.
10. Modu erantzule, demokratiko eta lagunkorren parte hartzea bai ikasgelan eta bai handik kanpo antolatzen diren jarduera guztietan.
11. Portaera moralerako kode moral pertsonal eta autonomoa bat eraikitzen hastea. Ebaluatu nahi da ikasleak zenbateraino gai diren garapen psikologikoko etapa honetan beren heldutasun moraleko ibilbide propioa eratzeko, garapen moralaren maila konbentzionalak gaindituz eta unibertsaltasun eta inpartzialtasun etikoen maila iritsiz.

Prozedurak

1. Denetario testuak bakarka eta ulertuz irakurtzea: manualak, eleberriak, dibulgazio liburuak, kazetak eta abar.
2. Irispide errazeko dokumentazio iturriak erabiliz, informazio ardurakoak bilatu, hautatu eta erregistratzea.
3. Berriazko hiztegia ulertu eta menderatzea.
4. Norbere juzgu eta iritziak zehatz eta neurtuki aditzera ematea ahoz nahiz idatziz.
5. Ikasten diren tesiak zein argudiotan oinarritzen diren atzematea.
6. Gure garaiko problema moralen gaineko hainbat informazio modu kritikoan aztertzea.
7. Lanak, azterlan monografikoak eta txosten errazak argi, zehatz eta ordenatuki aurkeztea.
8. Lantaldean aritzea, eginkizunak eta ardurak behar bezala banatuz.
9. Debateak egin eta erabaki-hartzeak simulatu garrantzi handiko problema etikoen gainean, aztertu diren jarreretan alderdi positiboak zein negatiboak atzemanen eta behar bezalako ondorioak aterez.
10. Elkarrizketa, kritika eta argudio eta iritzi trukatzearekin lotura duten trebetasun sozial eta komunikatiboak erabiltzea.

Jarrerak

1. Giza bizitzaren dimentsio etikoaz gogoeta egokia egin eta baloratzea.
2. Erabaki sozial eta pertsonalak hartzerakoan moralak zenbateko garrantzia duen ulertzea, eta bai problema eta gai ekonomiko, sozial, teknologiko, ekologiko eta politikoetan ere.
3. Norbere irizpide etikoa eratzeko borondate arduratsua.
4. Arbitrariedadean, bidegabetasunean eta giza duintasunaren mesprezuan oin hartzen duten egintzak arbuiatzea.
5. Zorroztasuna eta zentzu kritikoa agertzea komunikabideetan eta publizitatean ageri diren mezuen aurrean, kontsumorako akuiluen aurrean eta inguruko presioaren aurrean.

6. Objektibotasuna, zorroztasuna eta errespetua agertzea norbere juzguak adieraztean, presakakeria ahaleaginean galaraziz, eta bai norbere eta besteren portaeraren gaineko balio juzguetan interes pertsonala eta kontrolik gabeko grina ere.
7. Aztertzen diren egintza, gertaera eta jarreretan, asmoak, ondorioak, eta zirkunstantziak neurtuz juzgatzea.
8. Kritikoki bereiztea zer den ezarritako legetasun hutsa, eta zer den zilegitasuna, giza bizitzaren balio moralean eta gizakien eskubideetan oinarritzen baita.
9. Norbere bizitza proiektua oinarritzeko moduko zentzu balioak barrentzea, gizartean elkarrekin bizi beharri laguntzeko modukoak.
10. Lanean elkarri laguntzeko, errespeturako eta elkarrizketarako jarrera azaltzea, elkarrekin erabakiak hartzea, balorazioak eta iritziak elkarrekin trukatzeko eta beste norbaitekin izan daitezkeen problemak konpontzea.
11. Gure garaiko problemen aurrean sentikor eta solidario azaltzea eta problema horien konponbideak behar dituzkeen konpromisoetarako prest egotea.

Gaztelania eta Literatura

Sarrera

Gizakiek hainbat bide eta sistema izaten dituzten elkarrekin komunikatzeko: jestuak, musika, irudikapen plastikoak, sinbolo numeriko eta grafikoak. Hizkuntza ere komunikabide unibertsala da; hari esker askotariko informazioak igorri eta jaso ditzakegu eta bai gure mintzakideei eragin ere. Komunikazioa, beraz, hizkuntza eginkizun funtsezkoa da gizarteko harremanetan.

Horregatik, Gaztelania eta Literatura Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakasteak hori du lehenbiziko helburua: ikasleak hizkuntza erabiltzen trebatzea, zehatz eta aberats, gai izan daitezen ahoz nahiz idatziz komunikatzeko eta edozer testu ulertuz irakurtzeko, testu literarioei garrantzia berezia emanaz.

Ikaslea da Hizkuntza bidezko komunikazio prozesuan parte-hartzaile aktiboa, bi modutara: hartzaile eta igorle gisa. Irakurriaren ulermena eta testuak idatziz sortzea curriculum honetako arlo guztien osagai komuna da, eta irakasle guztiei dagokie ikasleak haietan trebatzea. Hala ere, Gaztelania eta Literatura arloa besteak baino emanago dago ikasleak hizkuntza trebatzeari.

Ikasleak bizi diren hizkuntza ingurunea hartuko da oinarri, bada, eta bai testu-iguru horrek berezko dituen faktore kultural eta sozioekonomikoak, haien komunikazio gaitasunak handik abiatuta handitu eta zuzentzeko. Hortaz, irakasleak egoki erabiliko du hizkuntza eta egoki ulertuko erabiltzen dituen testuak, ikasleen eredu izan eta haien mintzamina ere hobetzeko.

Horrez gain, ikaslea gai izanen da hizkera jaso lagunartekotik bereizteko eta Komunitate autonomoetako aldaera linguistikoak ezagutuko ditu, Espainiaren aniztasun linguistikoa baloratuz.

Hizkuntza jakitea ezinbesteko baldintza da hizkuntza idatzian trebatzeko, eta beraz, hura ikasteko, irakurtzea eta idaztea elkarren osagarri izanen dira.

Hizkuntzari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek egoki ikasiko du zein harreman dauden soinu, fonema eta grafien artean. Harreman sail horren ezagupena sendotu egingen da etapa honetan, hizkuntzaren komunikazio funtzioaren ildo-ildotik, eta ulermen eta mintzamen-idazmenaren bi ardatzekin hertsiki loturik. Idazmena irakasteak sendotu eta garatu behar ditu mezuak, hautatu, aurrehartu, planifikatu eta egituratzearen osagaiak, osagai horiek, ahozko sorketan ere ageri badira ere, garrantzi handia hartzen baitute idatzizkoetan, horietan behin eta berriz irakurtzeko aukera izaten baita, eta testu bat errebisatu eta aldatu baitaiteke, bukatutzat jo baino lehen.

Hizkuntzan trebatzeak esku eman behar dio ikasleari irakurmenak eta idazmenak atsegin eta fantasia iturri gisa zer aukera ematen dituzten konturatzeko, eta bai jakite eta informazio iturritzat ere. Testu idatziek, literarioek gehienik, aukera bereziak ematen dituzte bai irakurri, bai ulertu eta bai sortzeko. Ikaslea gai izanen da hitz idatziarekin erabilera pertsonala egiteko eta bai ahozkoarekin ere, bere gaitasunak aztertuz eta gauzak ahal bezain zehatz eta aberats adieraziz.

Hizkuntza irakasgai honek oinarritzko printzipio gramatikalak eman behar dizkio ikasleari, hau da, hitz klaseak zein diren, haien artean zer konbinazio egon daitezkeen, eta adierazpen horiek esangurarekin zer harreman duten. Oinarritzko ezagupen batzuk badira, beraz, etapa honetako hizkuntza irakaspenean: soinuen eta grafien arteko harremanak, arau panhispanikoa oinarritzen duten oinarritzko printzipio gramatikalak, eta problema lexiko handienen azterketa. Ezagupen horiek hizkuntza funtzio nagusiei antz emateko erabiltzen dira eta testu prototipikoei, azterketa-sorketa prozesu bikoitz batean. Modulu horiekin batera oso lan teknika praktikoak ematen dira, hizkuntza beti lehen tresna izanen baita ikasleen lanetan bizi diren artean; lan teknika horiei gaur teknologia berriek eskuratu dizkiguten osagaiak aplikatu zaizkie, honetaraz gero ezinbestekoak baitira gure gizartean.

Etapa honetako ikasleek, gainera jakin behar du zein harreman dauden hizkuntza eta gizartearen artean. Harreman horiek sakonki ezagutzeak aukera ematen dio bere inguruko mundua ulertzeko, dela Espainiaren eleaniztasuna, dela hizkuntzak Amerikan hartzen duen dimentsioa. Printzipio teoriko hori bera aplikatu zaio literaturaren irakaspeneri, zeinean biziki gomendatua baita adibideak hizkuntza konstituzional guztietan ematea eta bai atzerriko hizkuntza nagusietan ere.

Gaztelania eta Literatura Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakasteak helburu nagusia du: ikaslea gaztelanian trebatzea, zehatz eta aberats komunikatzeko gai izan dadin edozein egoeratan, gizartean kidetu eta aurrera egiteko, errealitate ulertu eta birsortzeko, eta bestelako jakintzak eta esperientziak beretu eta trukatzeko.

Gaztelania eta literaturako klaseek DBH.n, oso izanen dira praktikoak eta pausokakoak, hizkuntzaren erabilera komunikatiboa eta espresiboa oinarri harturik. Klase horietan bakarkako lana ez ezik talde lana era bultzatuko da eta bai, Hala-ber, ikasle bakoitzari kasu berezia egitea ere, irakaslan ikasketaren arabera moldatzeko.

Irakaslan ikasleen ulermena eta mintzamen-idazmena edozein egoeratan hobetu beharrezko jarduerak izanen ditu ardatz. Hortaz, irakurtzeak –ozenki nahiz norbere baitarako–, askotariko ahozko mezuak jasotzeak eta testu idatzi nahiz ahozkoak sortzeko toki gailena izanen dute. Ildo horretatik, testuen azterketak, ikasleen adin eta interesen arabera hautatuak, irakurriaren ulermena handitzea izanen du helburu.

Gogo eman behar zaio, bestalde, irakurriaren ulermena dela curriculum osoko prozedura zeharkako nagusia, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupe-
nak beretzeko eta haren mende baitago ikasleak eskola eta lanbide arrakasta izatea. Garrantzi handikoa da, beraz, ikasleak irakurriaren ulermenean ongi trebatua egotea eta gai izatea arlo honetako irakasleak ikasgai aurkezten dizkion testu guztiak ongi ulertzeko.

Irakurtzeko zaletasuna, literatur lanak irakurtzeko batez ere, ikastetxeko liburutegiko materiala, edo bestela eremu hartako liburutegi publikokoa erabiliz bultzatuko da.

Lehenbiziko zikloan, irakurriaren ulermena bultzatzeko, galdera sailak egin daitezke testua ulertarazteko asmozkoak. Bigarren zikloan, irakurtzeak oraindik ere toki gailena izanen du, Sakonduko da irakurriaren ulermena delako kontzeptuak eta eginahala egingen da ikasleak momentu historikoak literatur lanetan izaten duen eragina ulertzeko. Obra osoak edo zati ongi aukeratuak, testuinguruan kokatuak eta aztertuak, irakurtzea izan daiteke ikasleak literaturaren unibertsoan lehen pausoak emateko bide.

Idazmenari dagokionez, berriz, etapa honetan denetariko testuak sortzea bultzatu behar da, birsortzeak ematen dituen aukerekin jokatzuz: adibidez testu baten ikuspegia edo haren osagaiak antolatzeke modua aldatuz, erregistroa aldatuz, egitura sintaktikoak bestelakotuz, ordezkatzuz eta abar. Lehen zikloan askotariko

testuak hartuko dira abiapuntu: narratiboak, elkarrizketak, azalpenekoak eta abar; bigarrenean, konplexuagokoak erabiliko dira.

Eta osoan barrena komunikabideetan erabiltzen diren testu hitzezkoak eta ez hitzezkoak aztertuko dira, haien mekanismoak ulertuko eta zentzu kritikoa bultzatuko, kazetariak, politikariak eta abarrek erabiltzen duten hizkuntzaren zuzentasuna epaitzeko.

Hizkuntza idatzia egoki erabiltzera bultzatuko da ikaslea, ezinbesteko tresna baita lan intelektualerako, eguneroko bizitzako komunikabidea, eta giza jakite guztiak hartzen duen euskarria. Ildo horretatik, teknologia berriak ere erabili behar dira, aukera handia ematen baitute eskolako hainbat lan egiteko tresna lagungarri gisa eta bai ikasleen eguneroko zereginetarako ere. Ez dezagun ahaztu, ordea, analfabeto funtzionala ez dela gutxiago analfabetoa izanen interneten nabigatzeagatik, eta hortaz irakurriaren ulermena denetarikoa euskarrietan landu behar dela.

Ahozkoaren ulermena ere etapa osoan indartu behar da. Lehen ziklotik eginahala eginen da ikaslea gauza izan dadin testu ahozko nahiz idatzizko bat laburbiltzeko, eta bere iritziak edo gai jakin bat bere ikaskideen aurrean azaltzeko, bere adinari eta ikasketa mailari dagokion zuzentasunarekin.

Azken batean, hizkuntza sistema eta normarekin duen ikuspuntutik ikasteak lotura hertsia izan behar du aurreko orientazioekin ere: irakurriz, mintzatuz, idatziz eta entzunez finkatzen eta erabiltzen dira egitura gramatikal eta testualak, hiztegia aberasten eta askotarikotzen, ebakera eta ortografia sendotzen. Gramatika ezagutzera, bestalde ez da berezko helburu bat, adierazmena eta ulermena hobetzeko tresna hutsa baizik. Ildo horretatik, ariketa praktikoa pausoka garatuko da, ikasleak duen adinaren arabera. Irakurtzeak eta testuak sortzeak gehienbat ebakera eta intonazioa, ortografia eta hiztegia lantzea izanen dute helburu, alderdi morfologiko, sintaktiko eta testualak alde bat utzi gabe, horiek ere beharrezkoak baitira ulermen eta adierazmen zuzen eta bariatua lortzeko.

Literatura, programa antolatzen dutenetako beste gai multzo bat baita, baliabide egokia da obra handiak irakurriz ikasleen heldutasun intelektual eta humanoa iristeko. Literatura, izan ere, ez da gauza diskurtsoaren beste aldaera bat soilik, hizkuntzaren gaitasunak jaso eta nabarmentzen dituena; literatura, ezer baino gehiago esperientzia, emozio, sentimendu eta sormen askoren gordelekua da, mendez mendeko idazleek beren obretan ordeinatu dizkigutenak. Literatur lana irakurtzea bide egokia da ulermena eta adierazmena sendotu eta aberasteko, baina bai ere, ordea, gozamen iturri handia eskuratzeko, sentimena eskolatzeko eta adimena zein afektibitate aberasteko.

Lehen zikloan, literaturaren ikasketak generoen ezagutza izanen du helburu, prozedura metriko nagusiak, eta maizenik izaten diren prozedura erretorikoak. Obra osoak eta zati aukeratuak irakurtzeak dagoneko izanen du toki garrantzitsu bat. Bigarren zikloan bertan, irizpide kronologikoa eta generoena bateraturik, hasiko dira ikasleak gaztelaniazko literaturaren lan eta autore nagusiengana hurbiltzen, zein testuinguru historiko eta kulturean eta Europako kulturarekin duen lotura kokaturik. Ikasketak, berriz, ere, literatura aldi guztietako obra osoak eta zati aukeratuak irakurtzea eta iruzkintzea izanen du ardatz. Testu aukeratu horietan, literatura katalaneko, gailegoko eta euskalduneko autore gailenak ere sartuko dira, eta Europako literaturakoak ere. Beharrezkotzat jotzen denean, gida bat erabiliko da testuak ongi irakurtzeko, galdera gehiegi egin gabe, eta testuaren laburpena, egitura, konposizio moduak, pertsonaiaren baten eginkizuna eta abar bezalako gaiak jorratuko dituen.

Literaturari dagokionez, etapa honetako hezkuntzak literatura ezagutu eta preziatzea garatu behar du, berariazko komunikazio modu baten emaitza baita, prozedura literario diferentek aztertuz eta aintzat hartuz, mundu pertsonalaren adierazpide eta gizarte eta kultura baten fruitu diren partez, testuinguru historiko batean.

Azkenik, esan dezagun ikasle bati irakurtzea gustatzen ez bazaio, eskolak ez duela hori bere errutzat hartu behar; bai, ordea, ikasle batek besterik gabe ezin irakurri badu, irakurtzen duena ez duelako ulertzen eta falta dituelako bere eskola garaia arrakastaz gainditzeko behar dituen baliabideak.

Helburuak

1. Arlo honetako ikasketan erabiltzen diren testuak ongi ulertzeko behar dituen trebetasunak bereganatzea.
2. Hizkuntza ahoz zein idatzioz komunikatzeko erabiltzea komunikazio egoera bakoitzean komeni den moduan.
3. Testu motak eta haien egitura formalak atzemateko eta erabiltzeko gai izatea.
4. Irakurmena eta idazmena garatzea ezagupen berriak beretu, gogoeta egin, norbere kabuz ikasi eta norbere burua aberasteko bidetzat.
5. Arau linguistikoak ezagutu eta erabiltzea, gaur indar duten arau ortografikoei garrantzia berezia emanaz.

6. Gaztelaniaren gramatikazko printzipio oinarrizkoak ezagutzea, hizkuntzaren unitateak eta haien konbinazioak ikasiz.
7. Espainiako errealitatearen hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutzea eta kontaktuan dauden hizkuntzek sortzen dituzten egoerak aintzat hartzea.
8. Mendebaleko literatur tradizioaren forma nagusiak ezagutu eta ulertzea.
9. Literatur tradizioko genero nagusiei antz ematea.
10. Arte eta literaturako aro nagusiak bereiztea, haien ezaugarriak eta bakoitze-ko autore eta lan nagusiak zein diren.
11. Hizkuntza konstituzionalen literaturako obrak eta zatiak ezagutzea, eta men- debaleko literaturaren obra nagusiak.
12. Informazioa erabiltzeko teknika errazak ikasi eta erabiltzea: bilaketa, itxura- tzea eta aurkeztea, baliabide tradizionalak eta teknologia berriak erabiliz.

Gaztelania eta Literatura I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Komunikazioa*

1. Komunikazioko osagaiak
 - Testua komunikazio unitate.
 - Komunikazio testuinguruko faktoreak eta nola islatzen diren testuan.
2. Testu tipologiak
 - Kontaera (osagaiak, kontatzailea, kontaeraren ikuspuntua, kontaeran mai- zenik izaten diren prozedurak).
 - Deskripzioa (deskripzio motak, deskripzioan maizenik izaten diren proze- durak).

- Elkarrizketa (elkarrizketak zer forma hartzen dituen genero desberdinetan eta komunikabideetan).
- Igorleak zer asmo zuen antz ematea eta enuntziatuaren eta jasotzailearen aurrean zer jarrera duen.

II. *Hizkuntza eta gizartea*

1. Aldaera espaziala.
 - Dialekto eta hizkeren aniztasuna. Hizkuntza fenomeno nagusiak: Seseoa, ceceo, yeísmo, voseo eta abar.
2. Espainia, ele anitzeko herria.
 - Hizkuntza konstituzionalen mapa.

III. *Hizkuntzaren azterketa*

1. Fonetika eta ortografia (I)
 - Soinuen eta grafien arteko harremana. Silaba. Azentuazio eta puntuazio arau oinarritzkoak.
2. Gaztelaniaren arau kultua (I)
 - Forma fonetiko nagusiak ezagutzea. Irakurketa ozena (enuntziatua). Morfologiako problemak; artikulua eta numeroa. Hiztegia (bulgarismoak).
3. Gramatika
 - Hitz klaseak. Substantiboa eta adjektiboa (ezaugarriak). Izenordea (sailkapena). Determinantea (sailkapena). Aditza: aditzaren jokoak. Adberbioa. Preposizioa. Juntagailua. Interjekzioa.
 - Perpaus bakunaren egitura. Komunztadura.
4. Hiztegia (I)
 - Hitzaren egitura.

IV. *Lan teknikak*

1. Hiztegia, entziklopediak eta halako kontsulta lanak erabiltzen ikastea.

2. Lan teknikak (I)
 - Analisia (irakurtzea eta oharrak egitea)
 - Sintesia (eskemak, laburpenak).

V. *Literatura*

1. Literatur generoetara hurbiltzea, zati islagarriak irakurriz.
 - Haien ezaugarri nagusiak aztertzea.
2. Hizkuntza literarioa
 - Hizkuntza baliabide nagusiak.

Gaztelania eta Literatura II

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Komunikazioa*

1. Hizkuntzaren eginkizunak.
 - Igorlearen asmoa. Enuntziatuaren eta jasotzailearen aurreko jarrerak.
2. Testu tipologiak
 - Azalpena (modalitateak, maizenik izaten diren hizkuntza prozedurak).
 - Argudiatzea (modalitateak, maizenik izaten diren hizkuntza prozedurak).

II. *Hizkuntza eta gizartea*

1. Gizarte eta estilo bariazioa.
2. Espainia, ele anitzeko herri.
 - Hizkuntza konstituzionalen historiaren atarian.

III. *Hizkuntzaren azterketa*

1. Fonetika eta ortografia (II).
 - Silaba. Gaztelaniaren silaba eskema nagusiak. Diptongoak, triptongoak eta hiatoak. Silaba idatzia. Tleta nola erabili bokale elkarketetan (diptongoak, triptongoak, hiatoak). Esklamazio eta interrogazio zeinuak nola erabili. Gi-
doia, marra, komatxoak eta parentesia nola erabili.
2. Gaztelaniaren arau kultua (II)
 - Talde kultuen ebakera. Irakurketa ozena (egitura banako lerroaldeak). Ize-
nordeak.
 - Lexikoa (dialektalismoa).
3. Gramatika
 - Esaldi bakuna. Subjektua eta predikatua. Osagarri motak. Esaldi motak.
Esaldi modalitateak: atribuzioa eta predikazioa.
4. Hiztegia (II)
 - Polisemia, homonimia, sinonimia eta antonimia.

IV. *Lan teknikak*

1. Hiztegi espezializatuak nola erabili (sinonimoak, esapideak, atsotitzak, dudak
eta abar).
2. Lan teknikak (II)
 - Analsia
 - Sintesia

V. *Literatura*

1. Literatur generoak: ezaugarriak.
 - Narratiba: egitura. Epika, ipuina eta eleberria.
 - Lirika: erritmoa eta errima. Metrika. Bertsoak eta estrofak.
2. Teatroa: testua eta antzezpena.
 - Tragediaren eta komediaren ezaugarri orokorrak.

- Hiruzpalau obra oso eta zenbait zati aukeratu irakurtzea, narratiba, lirika eta teatroaren mostra egokiak direnak, bai hizkuntza konstituzionalak eta nola Mendebaleko literaturakoak.

Ebaluazio irizpideak

1. Hainbat mota eta formalizazio mailatako ahozko testuen ideia funtsezkoak ulertzea, eta haien edukia testu idatzietan birsortzea.
2. Gai jakin eta ezagun baten gaineko ahozko azalpen baten laburpena egitea, parte-hartzaileen argudio eta ikuspuntu nagusiak islatuz.
3. Formalizazio maila banako eta hainbat motako testuen esangura orokorra ahoz laburtzea, testuaren asmoak zein diren azalduz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz, edukian inkoherentziarik edo anbiguitaterik izaten bada haiek seinalatuz eta iritzi pertsonala aportatuz.
4. Gai baten gaineko hainbat testu diferentetarik heldu diren informazioak uz-tartzea testu laburbildua itxuratzeke, zeinean bai informazio nagusiak, bai iritzi kontrajarriak eta bai norberaren iritzia azalduko diren.
5. Gai baten garapena ahoz eta ordenatuki azaltzea, Aurretiazko plan edo gidoi baten arabera, kasuko gaia komunikazio egoeraren arabera moldatuz eta hartzailearen arreta galdu gabe.
6. Hainbatetariko testu idatziak sortzea, komunikazio egoeraren arabera moldatuz, hiztegi aberatsa eta askotarikoa erabiliz eta zuzentasun irizpideak errespetatuz.
7. Bakarka zein taldeka hiztegi espezializatuak eta bestelako kontsulta lanak kontsultatzea.
8. Osorik irakurri den literatur testu bat zein generotakoa den atzematea eta haren egiturako osagai oinarritzoei antz eman, eta bai hartan erabili diren hizkuntza baliabide nagusiei ere.
9. Hiztegiko osagaien artean zein esangura harreman nagusi dauden atzeman.
10. Hizkuntzako unitate sintaktikoei antz eman, eta bai haien klaseei eta harremanei, eta horiek denak gaztelaniaz ahoz zein idatziz erabiltzeko gai izatea.
11. Hizkuntza konstituzionalak eta Espainiako dialekto nagusiak zein diren atzeman, eta haien historiako zenbat ezaugarri ikasi, Nafarroari garrantzia berezia emanaz.

12. Hizkuntzaren erabilera sozial diferenteetako zenbait ezaugarri atzeman (izae-ra sozial edo estilistikokoak batez ere) zuzenean hautemanetz eta denetariko produkzioak egiaztatuz.
13. Testu prozesadoreak erabiltzea eta gai izatea ikerketa lan sinpleetan erabiltzeko, informatikako baliabide osagarriak erabiliz (internet, datu baseak, CD-ROM, testu prozesadoreak eta abar).

Gaztelania eta Literatura III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Komunikazioa*

1. Komunikabide idatziak: prentsa
2. Testuaren egitura formalak
 - Kontaeraren egiturak (ipuina, eleberria, albistea, erreportajea).
 - Deskripzio egiturak (deskripzio zientifikoa, literarioa: erretratua, paisajeak, objektuak).
 - Elkarrizketako egiturak. Elkarrizketa kontaeran eta teatroan. Bakarrizketa. Entrebista. Inkesta.

II. *Hizkuntza eta gizartea*

1. Gaztelaniaren jatorria eta bilakaera.
2. Elebitasuna
 - Ezaugarri orokorrak
 - Gaztelania eta euskara Nafarroan

III. *Hizkuntzaren azterketa*

1. Fonetika eta ortografia (III)
 - Azentuazio problemak (monosilaboak, hitz elkartuak, galde hitzak eta esklamazio hitzak).
2. Gaztelaniaren arau jasoak (III)
 - Aditza.
 - Preposizioa.
 - Ozenki irakurtzea (elkarrizketak).
 - Lexikoa (neologismoak).
3. Gramatika
 - Kategoriak eta funtzioak.
 - Perpaus konposatua: koordinazioa eta subordinazioa (menpeko esaldi substantiboak, adjektiboak eta adberbialak). Lotura osagaiak.
4. Lexikoa (III)
 - Hitzen erabide nagusiak: hitz elkartuak eta eratorriak.
 - Esangura eta zentzua. Arlo semantikoak eta asoziazioak. Lexiko familiarak. Aldaketa semantikoak.

IV. *Lan teknikak*

1. Informazioa euskarri konbentzionaletan bilatzeko teknikak (fitxak, bibliotekak, eta abar).
2. Informazioa nola aurkeztu.
 - Testuen tratamendu informatikoa (I).

V. *Literatura*

1. Erdi aroko literatura
 - Ezaugarri orokorrak. Europako literaturekin zer harreman duen.
 - Lirika (tradizionala eta ikasia).
 - Epika: *Poema de Mío Cid*.

- Hitz laua: Alfontso X.a Jakintsua, Don Juan Manuel: *El Conde Lucanor*.
 - Mester de Clerecía. Gonzalo de Berceo. *Milagros de nuestra señora. El Libro del Buen Amor*.
 - Erromantzeak.
 - *La Celestina*.
2. Urrezko mendeak
- Ezaugarri orokorrak. Europako literaturekin duten harremana.
 - Lirika: Garcilaso de la Vega, Fray Luis de León, San Juan de la Cruz, Lope de Vega, Luis de Góngora, Francisco de Quevedo.
 - Hitz laua: eleberririk motak. *El Lazarillo de Tormes* eta *El Quijote*.
 - Teatroa: Lope de Vega, Tirso de Molina eta Calderón de la Barca.
 - Europako teatroa: Shakespeare. Molière.
3. XVIII. mendea
- Ezaugarri orokorrak. Europako literaturekin duen harremana.
 - Teatroa eta hitz laua.
4. Zati aukeratuak eta hiruzpalau obra oso irakurtzea, narratiba, lirika eta teatroa ongi islatzen dutenak, bai hizkuntza konstituzionaletakoak nola mende-baleko literaturakoak.

Ebaluazio irizpideak

1. Hainbat mota eta formalizazio mailako ahozko testuen ideia funtsezkoak ulertzea, eta haien edukia testu idatzietan birsortzea.
2. Gai jakin eta ezagun baten gaineko ahozko azalpen edo eztabaida baten laburpena egitea, parte-hartzaileen argudio eta ikuspuntu nagusiak islatuz.
3. Hainbat mota eta formalizazio mailako testu narratibo, deskriptibo eta elkarriketatadunen esangura orokorra ahoz laburtzea, testuaren asmoak zein diren azalduz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz, edukian inkoherentziarik edo anbiguitaterik izaten bada haiek seinalatuz eta iritzi pertsonalak aportatuz.
4. Gai baten gaineko hainbat testu diferentetarik heldu diren informazioak uzartzea testu laburbildua itxuratzeko, zeinean bai informazio nagusiak, bai iritzi kontrajarriak eta bai norberaren iritzia azalduko diren.

5. Gai baten garapena ahoz eta ordenatuki azaltzea, Aurretiazko plan edo gidoi baten arabera, kasuko gaia komunikazio egoeraren arabera moldatuz eta hartzailearen arreta galdu gabe.
6. Hainbatetariko testu idatziak sortzea (kontaerak, deskripzioak eta elkarrizketak), komunikazio egoeraren arabera moldatuz, haien antolamendu egoera erabiliz eta hiztegi aberatsa eta askotarikoa erabiliz eta zuzentasun irizpideak errespetatuz.
7. Bakarka zein taldeka hiztegi espezializatuak eta bestelako kontsulta lanak kontsultatzea.
8. Osorik irakurri den literatur testu bat zein generotakoa den atzematea eta haren egiturako osagai oinarritzoei antz eman, eta bai hartan erabili diren hizkuntza baliabide nagusiei ere.
9. XVIII. mendera arteko literaturaren historiako mugimendu oinarritzkoen artean harremanak finkatzea eta bai mugimendu bakoitzeko autore edo obra nagusien artean ere.
10. Hizkuntzaren unitateak atzeman, haien arteko konbinazioak eta hala behar denean unitate horiek beren esangurarekin duten harremana, eta unitate horiek gaztelaniaz, ahoz nahiz idatziz erabiltzeko gauza izatea.
11. Gaztelaniaren jatorria eta bilakaera ezagutzea.
12. Hizkuntza konstituzionalak zein eta non diren atzeman eta elebitasunaren ezaugarri nagusiak ezagutzea, Nafarroako kasuari garrantzia berezia emanaz.
13. Testu prozesadorean erabiltzea eta gai izatea ikerketa lan sinpleetan erabiltzeko, informatikako baliabide osagarriak erabiliz (internet, datu baseak, CD-ROM, testu prozesadoreak eta abar).

Gaztelania eta Literatura IV

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Komunikazioa*

1. Ikus-entzunezko komunikabideak
 - Irratia eta telebista
2. Testuaren egitura formalak
 - Azalpeneko egiturak (curriculum, eskabidea, karta, posta elektronikoa).
 - Argudio egiturak (erreklamazioa, helegitea).

II. *Hizkuntza eta gizartea*

1. Gaurko gaztelania
2. Amerikako gaztelania.

III. *Hizkuntzaren azterketa*

1. Fonetika eta ortografia (IV)
 - Laburdurak, akronimoak eta siglak.
 - Testu prozesadoreetako zuzentzaile ortografikoak nola erabili.
2. Gaztelaniaren arau ikasia (IV)
 - Problema sintaktiko nagusiak.
 - Komunztadura eta ordena.
 - Ozenki irakurtzea (bertsoa). Lexikoa (maileguak).
3. Gramatika
 - Testua eta diskurtsoa. Koherentzia eta barne-lotura. Markatzaile nagusiak nola erabili.
4. Lexikoa (IV)
 - Gaztelaniazko hitzen erabidea: ondareko hitzak, maileguak, neologismoak.

IV. *Lan teknikak*

1. Informazioa euskarri berrietan bilatzeko teknikak (CD-ROM, internet).
2. Informazioa nola aurkeztu.
 - Testuen tratamendu informatikoa (II).

V. *Literatura*

1. XIX. mendeko literatura: Erromantizismoa eta Errealismoa.
 - Ezaugarri orokorrak. Europako literaturekin duten harremana.
 - Literatura erromantikoa.
 - Lirika: José de Espronceda, Gustavo Adolfo Bécquer eta Rosalía de Castro.
 - Teatroa: Duque de Rivas eta Zorrilla.
 - Kontaera errealista: Benito Pérez Galdós eta Leopoldo Alas “Clarín”.
2. XX. mendeko literatura.
 - Ezaugarri orokorrak. Europako literaturekin duen harremana.
 - Rubén Darío. Modernismoa eta 98ko belaunaldia. Unamuno, Antonio Machado, Juan Ramón Jiménez, Pío Baroja eta Ramón del Valle Inclán.
 - 27ko belaunaldia.
 - Gure garaiko literatura. Narratiba, lirika, teatroa. Bilakaera. Joerak. Autore nagusiak.
 - Hispanoamerikako literaturaren atarian.
 - Zenbait zati aukeratu eta hiruzpalau obra oso irakurtzea, Narratiba, lirika eta teatroa ongi islatzen dituztenak, bai hizkuntza konstituzionaletakoak nola mendebaleko literaturakoak.

Ebaluazio irizpideak

1. Hainbat mota eta formalizazio mailatako ahozko testuen ideia funtsezkoak ulertzea, eta haien edukia testu idatzietan aurkeztea.
2. Gai jakin eta ezagun baten gaineko ahozko azalpen edo eztabaida baten laburpena egitea, parte-hartzaileen argudio eta ikuspuntu nagusiak islatuz.

3. Formalizazio maila banako eta hainbat motako testuen esangura orokorra ahoz laburtzea, testuaren asmoak zein diren azalduz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz, edukian inkoherentziarik edo anbiguitaterik izaten bada haiek seinalatu eta iritzi pertsonala aportatzea.
4. Gai baten gaineko hainbat testu diferentetarik heldu diren informazioak uzartzea testu laburbildua itxuratzeko, zeinean bai informazio nagusiak, bai iritzi kontrajarriak eta bai norberaren iritzia azalduko diren.
5. Gai baten garapena ahoz eta ordenatuki azaltzea, Aurretiazko plan edo gidoi baten arabera, kasuko gaia komunikazio egoeraren arabera moldatuz eta hartzailearen arreta galdu gabe.
6. Hainbatetariko testu idatziak sortzea (kontaerak, deskripzioak eta elkarriketak), komunikazio egoeraren arabera moldatuz, haien antolamendu egitura erabiliz, hiztegi aberatsa eta askotarikoa erabiliz eta zuzentasun irizpideak errespetatuz.
7. Bakarka zein taldeka askotariko informazio iturriak kontsultatzea, aurkibideak, fitxak eta askotariko sailkapen sistemak erabiliz, baliabide tradizionalak eta teknologia berriak aplikatuz.
8. Osorik irakurri den literatur testu bat zein generotakoa den atzematea eta haren egiturako osagai oinarrizkoei antz eman, eta bai hartan erabili diren hizkuntza baliabide nagusiei ere.
9. Literaturaren historiako obra, autore eta mugimendu funtsezkoen artean harremanak ezartzea eta hizkuntza konstituzionalak literaturaren eta mendebaleko literaturaren zenbait obra edo zati ezagutzea.
10. Hizkuntzaren unitateak atzeman, haien arteko konbinazioak eta hala behar denean unitate horiek beren esangurarekin duten harremana, eta unitate horiek gaztelaniaz, ahoz nahiz idatziz erabiltzeko gauza izatea.
11. Hizkuntza konstituzionalak eta Espainiako dialekto nagusiak zein eta non diren atzeman Nafarroari garrantzia berezia emanaz.
12. Hizkuntzaren erabilera sozial diferenteetako zenbait ezaugarri atzeman, zuzenean hautemanaz eta denetariko produkzioak egiaztatuz.
13. Testu prozesadoreen jardunbideko printzipio oinarrizkoak erabiltzea eta gai izatea ikerketa lan sinpleetan erabiltzeko, informatikako baliabide osagarriak erabiliz (internet, datu baseak, CD-ROM, testu prozesadoreak eta abar).

Prozedurak eta jarrerak

Hizkuntza eta hiztunak. Hizkuntzen arteko harremanak

Prozedurak

1. Espainiako eta Nafarroako hizkuntzak zein diren atzematea.
2. Hizkuntzen kontaktuak berekin dakartzan fenomenoek konturatzea.
3. Erregistro bateko testuak beste batera pasatzea.
4. Hizkuntzaren bidezko manipulazioa zer den eta zer metodo erabiltzen dituen ikastea.

Jarrerak

1. Hizkuntzarekiko jarrera positiboa bultzatzea, besteekin harremanetan sartzeko bide atsegingarri eta baliagarria den partez.
2. Hizkuntzek agerkari soziokultural gisa eta kultura sortu eta garraiatzeko bide gisa duten balioa baloratzea.
3. Bereizkeria, erredukzionismoa edo manipulazioa dakartzaten hizkuntza erabilerekin konturatzatzea eta jarrera kritikoa hartzea.
4. Hizkuntza desberdinen eta haien aldera geografiko edo sozialen aldeko jarrera positiboa.
5. Edozein hizkuntzaren edo hizkuntza aldaeraren erabilerari buruz egoten diren estereotipo eta aurreiritziak kentzea.
6. Euskara baloratzea Nafarroako ondare kulturalaren osagai gisa.

Hizkuntza eta haren jardunbidea

Prozedurak

1. Komunikazio egoera formalak eta informalak bereiztea.
2. Testuen irakurketa espresiboa.
3. Testu bateko gaiari antz ematen ikastea. Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea.

4. Igorlearen asmoari antz ematea, eta bai enuntziatuaren eta hartzailearen aurrean duen jarrerari ere.
5. Testuak produkzio baldintza materialen arabera eta haiekin batera doazen hizkuntzaz landako osagaien arabera interpretatzea.
6. Testu bateko egitura atzematea eta barne lotura ematen dioten hizkuntza osagaiei antz ematea (lokailuak, errepikazioak, elipsiak, ordezkapenak eta abar).
7. Testuetako baliabide estilistikoak atzematea, testuei zer aportatzen dieten baloratuz.
8. Plangintza egin eta hainbat asmo eta formako testu idatziak sortzea, koherentzia, barne-lotura eta zuzentasun gramatikala begiratzuz, egoki aurkeztuz eta ortografi arauak errespetatuz.
9. Aurretik plangintza eginik, hainbat asmo eta formako testu ahozkoak sortzea, koherentzia, barne-lotura eta zuzentasun gramatikala begiratzuz, eta ohartzuz nola tonuak, jestuak eta gorputz jarrerak ere mezuen harrerari eragiten dioten.
10. Testua eraldatzea komunikazioan esku hartzen duten osagaien arabera (igorlea, hartzailea, kanala eta abar).
11. Testuak, esaldiak edo sekuentziak eraldatzea, hartarako osagaiak ordeztuz, zabalduz, murriztuz, kenduz, ordena aldatuz eta abar, eta aldaketa horiek esanguran duten eragina hautematea.
12. Testuak, esaldiak, sintagmak eta hitzak konparatu eta sailkatzea.
13. Funtzio eta harreman sintaktikoak zein diren atzematea.

Jarrerak

1. Baloratzea zenbateko garrantzia duen hizkuntzaren gaineko gogoetak norbere hizkuntza produkzioak erregulatzeko eta besterenak ere ulertzeko. Hizkuntzaren oinarritzko arauak onartu eta errespetatzea (ortografia, sintaxia, fonetika, semantika eta abar).
2. Baloratzea zenbateko garrantzia duen testuaren plangintza egiteak eta gero koherentzi, barne-lotura eta zuzentasun irizpideen arabera errebisatzea.
3. Irakurtzeak atsegin eta informazio iturri gisa zer balio duen konturatzea.
4. Testu idatziak zenbateko garrantzi pertsonal eta soziala duen konturatzea.

5. Hizkuntza zehatz eta errespetuz erabiltzearen aldeko jarrera hartzea, estereotiporik, hitz zakarrrik eta esapide iraingarri edo bereizkeriazkorik ahaleaginean erabili gabe.
6. Hizkuntza erabiltzean zehaztasun semantikoa begiratzearen aldeko jarrera.

Hizkuntza literaturan

Prozedurak

1. Literatur testuak irakurri eta interpretatzea.
2. Literatur testuek sortu diren ingurune sozial eta kulturalarekin duten harremanaz konturatzea.
3. Zenbait literatur testuren gainean juzgu pertsonal arrazoitua itxuratzea.
4. Asmo literarioko testuak sortzea.

Jarrerak

1. Hainbat generotako literatur testuak irakurtzeko zaletasuna eta interesa hartzea eta baloratze eta hautatze irizpide pertsonalak garatzea.
2. Literatur lanen eduki ideologikoaz konturatzea eta jarrera kritikoa garatzea.
3. Literatura produktu linguistiko, estetiko eta kultural gisa baloratzea.
4. Bibliotekak erabiltzeko interesa eta haien erabilera arauak errespetatzearen aldeko jarrera hartzea.

Hizkuntza komunikabideetan

Prozedurak

1. Komunikabideetako testu mota askotarikoak atzeman, aztertu eta interpretatu. Albistea, ezaugarriak eta tratamendu motak.
2. Propaganda eta publizitateko mezuak aztertzea.
3. Komunikabideetan gehien erabiltzen diren hitzik gabeko kodeak aztertzea.

4. Testuak kritikoki konparatzea.
5. Komunikabideetako testuak eraldatzea.
6. Hitzik gabeko lengoaien komunikazio gaitasunak aztertzea.

Jarrerak

1. Gaurko munduan gizarte komunikabideek zenbateko garrantzia duten konturatzeko.
2. Komunikabideenganako interesa eta jarrera irekia izatea, eta jarrera kritikoa era garatzea.
3. Pixkanaka norbere juzgua garatzea, komunikabideetan ageri diren gaurko gertaeretan ongi oinarritua. "Albiste" eta "informazioa" zer diren bereiztea.
4. Teknologia berrien komunikazio gaitasunak baloratzea.
5. Hitzik gabeko lengoaiak, kasuan kasuko kodeen eta komunikabide desberdinen mezu eta baliabideak baloratzea.

Hizkuntza pertsonen eta instituzioen arteko harremanetan

Prozedurak

1. Idazkera pentsamendua antolatzeko bidetzat erabiltzea.
2. Ahozko zein idatzizko mezuen plangintza egitea, eskemak edo gidoiak eginez.
3. Hiztegia eta hainbat informazio iturri eskuarki erabiltzea.
4. Osagaien arteko harremanak eta haien ordenazio hierarkikoa bistartzeko moduko eskemak itxuratzea.
5. Testuak itxuratzea emandako eskema bat oinarri.
6. Lan jakin bat egiteko informazio idatzi, ahozko, ikus-entzunezko eta informatikoa eskuratzeko iturriak hautatu, aurkitu, kontsultatu eta aprobetxatzea.
7. Lan intelektualerako zenbait teknikan trebatzea: laburpenak, apunteak, azpimarratzea, eskema, gidoia, fitxak eta abar.
8. Berriaz dokumentalak diren testuak, ahozkoak zein idatziak, interpretatzea.

Jarrerak

1. Hizkuntzaren funtzio dokumentala baloratzea.
2. Informazio iturri desberdinak hainbat helburutarako erabiltzeak zenbateko garrantzia duen konturatzea.
3. Ohartzea lan teknikak egoki erabiltzeak zenbateko garrantzia duen gizarterako, pertsonarentzako eta ikasketarako.
4. Inkestak eta galde zerrendak eta bestelako tresnak egiterakoan zorrotz eta zehatz jokatzeko, geroko erantzunak edo erantzunon balorazioa ez baldintzatzeko.

Atzerriko hizkuntza: Frantsesa

Sarrera

Hezkuntza, lana, lanbideak, kultura, turismoa, komunikabideetara iristeko aukera eta antzeko beste arrazoi askorengatik nazioarteko harremanak izugarri ugaltu direlarik, atzerriko hizkuntzak ikastea gero eta handiagoko premia da gaurko gizartean. Teknologia berrien garapenak, bestalde, ezinbesteko tresna bihurtu ditu atzerriko hizkuntzak lan munduan eta oro har komunikazioaren munduan txertatzeko.

Atzerriko hizkuntzak jakiteak aukera ematen du beste kultura, ohitura eta izaera asko ezagutzeko eta bai ere, aldi berean, pertsonen arteko harremanak bultzatu, gizabanakoaren formazio osoa faboratu eta beste herrienganako, hango bizilagunenganako eta hizkuntzaganako errespetua garatzeko. Eta gainera geure hizkuntza hobeki ulertzeko bidea ere ematen digu.

Europako Batasunean kideku garelarik, non hizkuntza arrotz asko hitz egiten baitira, beharrezkoa da atzerriko hizkuntzak jakitea Erkidego zabal honetako kideekin komunikatzeko gauza izanen bagara.

Testuinguru honetan, aitortzen zaie atzerriko hizkuntzei Europako nortasuna eraikitzeko osagai funtsezkotzat duten garrantzia, nortasun eleanitza eta kulturانيتza baita, eta onartzen da pertsonen zirkulazio librea faboratu eta herrien arteko elkarlan kultural, ekonomiko, tekniko eta zientifikoa errazten duten faktoreetako bat direla.

Horiek denak horrela, beharrezkoa dela juzgatu da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek beren ikasketa aldia bukatzean gutxienez bi atzerriko hizkuntza jakitea.

Europako Kontseiluak behin eta berriz esan du pertsonak behar adinako gaitasunak garatu behar dituztela Europako beste herrietakoekin harremana izateko. Horrenbestez, juzgatu du are gehiago bultzatzea egin behar zaiola atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari, Europako herritartasunaren ideia garatzen laguntzeko, eta gomendatu du ikasleek atzerriko hizkuntza bat baino gehiagotan komunikazio gaitasun gutxienezkoa bereganatu dezaten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa honetan, eta bai helduaroan ikasketa horrekin segitzeko moduko hainbat mekanismo ere.

Europako Kontseiluak Europarako erreferentzi barruti komuna ere ezarri du atzerriko hizkuntzak ikasteko, eta seinatu du hizkuntza jakin batean komunikatzeko gaitasuna pixkanaka garatzeko ikasleek gai izan behar dutela zenbait komunikazio lan egiteko, zeren arlo honetako curriculumaren helburua ez baita hizkuntza bat irakastea, hizkuntza horretan komunikatzen irakastea baizik.

Komunikazio eginkizunak ekintza sail baten barrenean sartzen dira, zeinek komunikazio helburu zehatza baitute berriazko arlo batean. Eginkizun horiek burutzeko, beharrezkoa da komunikazio gaitasuna erabiltzea, zenbait estrategia abian jartzea eta hainbat trebetasun linguistiko eta diskurtsiboz baliatzea zein bere testuinguruan. Hortaz, atzerriko hizkuntza erabiltzen diren jarduerak beste zenbait barruti izaten dute gertaleku: barruti publikoak izan (pertsonek eguneroko elkarrekin sozialari dagokion guztia), zein pertsonalak (familia barneko harremanak eta bakarkako gizarte jarduerak), lanekoak edo hezkuntzakoak.

Komunikazio gaitasuna komunikazio eginkizun horiek burutuz garatuko da eta honako azpi-gaitasunak izanen ditu osagai: gaitasun linguistikoa (osagai semantikoak, morfosintaktikoak eta fonologikoak), gaitasun pragmatiko edo diskurtsiboa (funtzioak hizketaldiak, solasaldiak eta abar) eta gaitasun soziolinguistikoa (konbentzio sozialak, komunikazio asmoa, erregistroak eta abar). Estrategia gaitasuna ere sar liteke komunikazio gaitasunaren azpi-gaitasuntzat.

Ikasleek era natural eta sistematikoan erabiliko dituzte komunikazio gaitasunak, komunikazio trebetasunen bidez burututako komunikazio egintzak eraginkorrak izan daitezten. Trebetasun hauek garatu behar dira: sortzaileak (mintzamena eta idazmena), hartzaileak (entzunaren eta irakurriaren ulermena eta hitzik gabeko kodeen interpretazioa) eta elkarrekin edo bitartekaritzan oinarrituak.

Atzerriko hizkuntza bat ikasteko prozesua eraikitze eta sortze prozesua da, zeinean ikasleak, estrategia naturalen sail batean bermaturik eta jasotako hizkuntza datu guztiak oinarri, hipotesiak eratzen dituen sistema berriaren barne irudikapena osatzen duten arauak itxuratzeko.

Ikas prozesu honetan aurrera egiteko modua ez da izaten lerro zuzen baten antzekoa; gehienetan osotarako hurbilbide baten itxura hartzen du, eta hasierako momentuetan behintzat, sinpletze lan franko handia behar izaten du, funtsezkoak ez diren berezitasunak oraingoz kanpo uzteko. Aurrera egin ahala komunikazio sistema berriaren osotarako ikuspegi horren hutsuneak bete, ñabartu eta aberastu eginen dira.

Edukiak kurtsoka zehazten dira, ikas prozesua etengabea delako eta hartan komunikazio gaitasunak, hizkuntzaren gaineko gogoeta eta alderdi soziokulturalak pixkanaka eraikiz joaten baitira. Horregatik, lehen ikusitako ezagupenak berriz azalduko dira beste testuinguru batean. Era berean, hizkuntzaren funtzioek eta alderdi gramatikalek elkarrekin dituzten harremanak malguki landuko dira, hizkuntza funtzio bat bera hainbat hizkuntza osagaien bidez eman baitaiteke aditzera eta alderantziz.

Orientazio metodologikoak orain arte azaldu denaren arabera hautatuko dira, eta haien helburu lehenetsia izanen da lagun egitea ikasleek komunikazio gaitasuna gara dezaten. Ikas jarduerak edo lanak izanen dira plangintza didaktikoaren ardatza, eta bertan helburuak, edukiak eta ebaluazioa sartuko dira, programazio unitateak osatuz. Lan eta eginkizun horiek diseinatzerakoan beste irizpide batzuen artean, hartuko da aintzat garabide honetan zer etapa segitu behar diren, ikasleek zer ezagupen dituzten, hizkuntza osagaiak, trebetasunak eta estrategiek tratamendu integratua behar dutela, azken buruan zein emaitza lortu nahi diren eta ikasgelaren dibertsitatera moldatzeko zer aukera dauden.

Orobat, atzerriko hizkuntzen ikas eta irakas prozesuak lagun eginen dio ikasleen prestakuntza akademikoari ikuspegi oso batetik, haren nortasunaren garabidea eta haren gizarteratzea bultzatuz eta datu interesgarriak eskuratzeko aukerak ere berretuz.

Hortaz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak faboratuko du gaurko ikasleek gureak ez bezalako bizimoduan eta gizarte moduak ezagutu, bere enpatia gaitasuna handitu, bere informazio bideak hobetu eta bere harremanetan tolerantzia sozial eta kulturala ezar ditzaten, nazioarteko komunikazioa gero eta handiago den mundu honetan bizitzeko.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketari tre-

batzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkion askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Komunikazio trebetasunak garatzea, bai hartzaileak eta bai sortzaileak, ikasgelan zein handik kanpo informazio trukeak egiteko.
4. Hainbatetariko testuak ulertuz irakurtzea, hiztegia erabili gabe, askotariko informazio iturrietara iristeko gai izateko, eta norberarenak ez bezalako kultura eta bizimoduak ezagutu ahal izateko.
5. Ahoz zein idatziz ongi komunikatzeko gai bihurtzea, ohiko komunikazio egoeretan, berariazko eginkizunen bidez.
6. Atzerriko hizkuntzaren ikasketan ama hizkuntzan edo beste hizkuntza baten ikasketan lortutako komunikazio estrategiak erabiltzea, egoera benetako zein simulatuetan elkarreaginezko eginkizunak burutzeko.
7. Hizkuntzaren jardunbideaz gogoeta egitea, horrek ikasketa erraztu egiten baitu eginkizunak egiterakoan eta ikaslearen beregaintasuna garatzeko tresna egokia baita.
8. Ikasketa estrategiak eta baliabide didaktikoak erabiltzea (hiztegiak, kontsulta liburuak, multimedia materialak eta abar), informazio bilatu eta ikasketa egoeretako problemak norbere kabuz konpontzeko.
9. Norbere ikasketa prozesuez gogoeta egitea eta hobekuntzak egiteko interesa hartzea agindutako eginkizunak egoki burutzeko.
10. Atzerriko hizkuntza garraiabide duen kultura ezagutzeko aukera izatea, harenaganako eta haren hiztunenganako errespetua haiz, nazioarteko abenikoa handitzeko.
11. Baloratzea atzerriko hizkuntzak zenbateko garrantzia duen beste kultura batenekin komunikatzeko eta gizarte barneko zein pertsonen arteko harremanak faboratzeko.

Frantsesa I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Komunikazio trebetasunak*

1. Entzun edo irakurri behar denaren edukiari aurrea hartzea aurretik dakizkigun datuak eta emandako testuinguru informazioa oinarri: hasierako eztabaidak eta debateak, galderi erantzutea, ilustrazioak eta titulua begiratzea eta abar.
2. Aurretiazko ezagupenak abian jartzea eta testuinguru erabiltzea osotarako eta berriazko informazioa interpretatzeko testu ahozko zein idatzizkoetan: mezu nagusia, asmoa, titulua eta abar.
3. Aurretiazko ezagupenak abian jartzea eta testuinguru erabiltzea osotarako eta berriazko informazioa interpretatzeko testui ahozko zein idatzizkoetan. Informazioak formatu batetik bestera aldatzea. Formularioak, zerrendak, etiketak, gomitak, taulak eta abar osatzea.
4. Testu mota desberdinak atzementa: deskripzioak, kontraerak, elkarrizketak, kartak, egunerokoak, historiak eta abar.
5. Testuak arretaz irakurri edo entzutea eskatutako datuak ebaluatzeko: diferentziak bilatu, informazio faltsuei antz eman eta abar.
6. Ardurako informazioa zein den antz ematea eginkizunaren arabera garrantzia duen edukian zentratzeko.
7. Mintzakideekin modu kontrolatuan elkar eragitea, aurretik jarraibide batzuk harturik zer hizkuntza mota erabili eta zer mezu helarazi behar den jakiteko.
8. Binakako eta talde txikietako elkarrizketetan parte hartzea, hitz egiteko txandak errespetatuz, galderak eginaz eta bakarka erantzunez.
9. Aurretik landutako egoera simulatuetan paperak hartu eta antzeztea.
10. Komunikazio gaitasunak garatzea, komunikazioko etenak gainditzeko gauza izateko.
11. Norbere hutsak era naturalean onartzea, ikasketan aurrera egiteko gogoeta-gai direla ikusiz.

12. Idazmena garatzea, esaldi edo lerroalde proportzionatuak eginaz eta informazioa modu pertsonalizatuan erantsiz.
13. Trebetasunak modu integratuan erabiltzea eginkizunak eta lanak egiteko, benetako materiala oinarri; galde zerrendak eta abar.

II. Hizkuntzaren gaineko gogoeta

a) Lengoiaren eta gramatikaren funtzioak

1. Harremana hastea: nor zaren esan, agur egin, despedida hartu.
 - Diosalak eta agurrak.
 - *S'appeler, être* eta *avoir* aditzen orainaldia.
 - *Voilà*.
2. Informazio pertsonala ulertu, eskatu eta ematea.
 - Nazionalitateak; Europako Batasunaren herrialdeak eta herri frantsesdu-nak.
 - Adjektiboak (maskulinoa/femeninoa; diferentzia grafiko eta fonetikoak).
 - *Parler* aditzaren orainaldia (pertsonek guztiak).
3. Pertsonen gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea; informazio horiek konparatzea.
 - Lanbideak (maskulinoa/femeninoa; diferentzia grafiko eta fonetikoak).
 - Plurala nola osatu (diferentzia grafiko eta fonetikoak).
 - Determinatzaile zehaztuak eta zehaztugabeak.
 - *Habiter* aditzaren orainaldia.
 - Toki adberbioak: *où d'où*.
 - Lokailuak: *et, mais*.
4. Gauzak eta pertsonak identifikatzea. Eskerrak ematea. Gauzak eta pertsonak nolakoak diren adieraztea.
 - *Qu'est-ce que c'est?, qui est-ce?, c'est*.
 - *Comment...?*
 - Adina.
 - Zenbakiak (1-20).

5. Pertsona eta gauzen gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea.
 - Adjektibo kalifikatzaileak (maskulinoa/femeninoa; diferentzia grafiko eta fonetikoak). Koloreak.
 - *Ne ... pas* ukazioa.
 - *Il/Elle est / C'est; ils/elles sont / ce sont.*
6. Jabetasunaren gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea.
 - *À qui est-ce? c'est à* + izenorde tonikoak.
 - *Avoir* aditzaren orainaldia (pertsona guztiak).
 - Determinatzaile posesiboak (singularreko 1., 2., eta 3. pertsonak).
7. Pertsona eta gauzak non diren jakiteko informazioa ulertu, eskatu eta ematea. Kantitateak.
 - *Il y a, est-ce qu'il y a, il n'y a pas de...*
 - Toki preposizioak eta adberbioak (oinarrizkoak).
 - *Savoir, croire, regarder* aditzen orainaldia.
 - Zenbakiak (20-50).
8. Hainbat herri eta hiritan izaten den eguraldiaren gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea.
 - *Faire* aditzaren orainaldia.
 - Erantzunak: *oui/si, pas du tout.*
 - Preposizioak + herriak eta hiriak (*en, au, aux, à...*).
 - Eguraldiaren gaineko esapideak: *faire beau, mauvais, chaud, etc.*
9. Herri edo hiri bateko tokiak/eraikinak non diren jakiteko informazioa ulertu, eskatu eta ematea.
 - Gizabidezko formulak.
 - *Où se trouve, pour aller...*
 - Determinatzaile laburtuak (*au / aux / du / des*).
 - *venir, aller* aditzen orainaldia.
 - Toki adberbio eta esapideak (oinarrizkoak).

b) *Lexikoa*

1. Data, asteko egunak, hilak, urtaroak.
2. Ikasgelako, eskolako eta familiako lexiko berariazkoa.
3. Eguraldiaren lexiko berariazkoa.
4. Hiri edo herri bateko toki eta eraikinei buruzko lexiko berariazkoa.

c) *Fonetika*

1. Frantsesak berezkoen dituen soinuak, ama hizkuntzarekin dituzten diferentziak azpimarratuz: [i], [y], [s], [ç], [b] [v], [c] [j], e mutua, bokal sudurkariak. Esaldi motak eta klaseak. Doinua.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Lantzen ari diren testu eta komunikazio egoerekin lotura duten ezaugarri soziokulturalak atzeman eta interpretatzea: diosalak, helbideak, telefono zenbakiak, ospakizunak eta abar.
2. Frantsesak garraiatzen dituen osagai sozial eta kulturalak norberaren hizkuntzarekin konparatzea: ohitura eta azturen diferentziak, sukalde tradizioarenak, modarenak eta abar.
3. Atzerriko hizkuntzaren ohitura soziokulturalak nola moldatzen diren hizkuntza hori beste ama-hizkuntza bateko hiztunen artean erabiltzen denean.
4. Frantsesaren erabilera formalak eta informalak bereiztea.
5. Norberarenez bestelako ohitura eta tradizioak errespetatzea: janaria, eguneroko ohiturak, orduak eta abar.
6. Gizarte harremanetan behar diren formulak erabiltzen ikastea.
7. Beste pentsaera, ikuskera eta antolaera batzuk errespetatzen ikastea: herri frantsesdunetako alderdi kultural batzuk ezagutzea.
8. Geure kultura ere baloratzea frantsesa garraibide duen kulturaren alderako.
9. Herri frantsesdunetako bizimodu arauak ezagutzeko jakin-mina eta errespetua sortzea.
10. Hizkuntza egoki erabiltzeko interesa sortzea.

Frantsesa II

Edukiak

Arloko lengoiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Komunikazio trebetasunak*

1. Entzun edo irakurri ahala ideiei aurrea hartuz joatea.

2. Testuak arretaz entzun edo irakurtzea haien osotarako esangura atzeman eta eskatutako informazio zehatzak ateratzeko.
3. Hainbat testu motaren, ahozko zein idatzizko, egitura zein den atzeman: kartak, kontaerak, txostenak, elkarrizketak, elkarrizketak eta abar.
4. Ardurako informazioa zein den atzeman, dela osotarako dela zehatza, agindutako eginkizuna egiteko, arduragabeko informaziotik bereiziz.
5. Osagai ezezagunen esangura interpretatzea testuingurutik eta aurretiako ezagupenetatik abiatuta.
6. Askotariko testuak nor bere oldez irakurtzea, aisiarako nahiz informazioa biltzeko: irakurgai mailakatuak, biografia errazak, poema laburrak, datu kulturalak eta abar.
7. Ahozko zein idatzizko historiak interpretatu eta kontatzea.
8. Mintzakideekin era kontrolatuan, erdi-kontrolatuan nahiz librean hitz egitea.
9. Esangurak negoziatzea eta baliabide linguistiko zein ez linguistikoak erabiltzea komunikazioan arrakasta izateko lagungarri.
10. Testu ereduak erabiltzea, ahozko zein idatzizkoak, testu pertsonalatuak sortzeko: gomitak, kartak eta abar.
11. Idazkietan zirriborroak errebisatzea behin betiko testua editatu baino lehen, azken buruko produktua hobea izan dadin.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

a) *Hizkuntzaren funtzioak eta gramatika*

1. Toki bat kokatu eta deskribatzea. Ingurunearen gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea: garraioak.
 - Gizabidezko formulak.
 - Galdetzaileak (*Pourquoi?*, *où?*, *Comment?*).
 - Y izenorde adberbialak.
 - Lehen taldeko aditzak. Agintera.
 - Zenbaki ordinalak.
 - Garraioak buruzko lexiko berariazkoa.

2. Gustuen, desioen, trebetasunen ezagupenen gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea.
 - Erantzun partzialak.
 - Konparazioa nola adierazi: *plus, moins ...que, aussi que*.
 - Kausa nola adierazi: *pourquoi, parce que*.
3. Familia. Harremanak. Norbait gogoz nahiz gorputzez deskribatzea.
 - Galderazko esaldiak nola egin: (doinua, *est-ce que...* inbertsioa).
 - Determinatzaile posesiboak: pertsona guztiak.
 - Gogo eta gorputzezko adjektiboak.
4. Eguneroko gertaeren gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea.
 - Egunarenaldiak. Ordua nola adierazi.
 - Ukazioa: *ne pas, ne plus, ne jamais, ne rien*.
 - Aditz bihurkariak.
 - 2. Taldeko aditzak: orainaldia eta agintera.
5. Osasunaren, nahiaren gaineko informazioa ulertu, eskatu eta ematea.
 - Obligazioa nola adierazi: *il faut* + infinitiboak.
 - *devoir, pouvoir, vouloir* aditzen orainaldia.
 - Kantitate adberbioak.
 - Nahia nola adierazi: *je voudrais, j'aimerais*.
6. Telefonozko harremana. Gomita bat onartu ala gaitzestea.
 - Gizabidezko formulak. Harremana nola hasi eta nola moztu.
 - Gomita bati ezezkoa emateko formulak.
7. Erosten jakin, behar duzun zerbait nola hautatu eta adierazi.
 - Prezioa, kalitatea, gaia, kantitatea galdetzea.
 - *En* izenordea.
 - Determinatzaile partitiboak. Baiezko eta ezezko esaldietan nola erabili.
8. Lehenaldiko gertaerak nola deskribatu eta kontatu.
 - *être* eta *avoir* aditzen bidez *passé composé* delakoa nola eratu.
 - Ukazioa adizki konposatuetan.
 - Izenorde pertsonalak *C.O.D.* eta *C.O.I.*
 - Denborazko adberbio eta esapide adberbialak.

9. Proiektu bat nola deskribatu eta kontatu.
 - Izenorde pertsonal tonikoak (berrikustea). *C.O.D. eta C.O.I.* izenorde pertsonalak non kokatzen diren orainaldian, aginteran eta *passé composé* delakoan.

b) *Lexikoa*

1. Familiari buruzko lexiko berariazkoa, otorduei, bidaiei, proiektuei eta salerosketari buruzkoa.
2. Formulak eta esapideak.

c) *Fonetika*

1. Intonazioa (galderaren/enuntziazioaren eskema).
2. *Liaison* delakoa.
3. Grafia eta ebakeraren arteko harremana berrikustea.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Osagai semiotikoei antz eman eta interpretatzea (jestuak, doinua, osagai proxemikoak eta abar), atzerriko hizkuntza batean ari denaren jardunean: gizabide mailak, formaltasun eta informaltasun maila eta abar.
2. Frantsesaren osagai kultural eta sozialak konparatzea, hainbat herritako hiztunek adieraziak.
3. Frantsesa erabiltzerakoan trebetasun kulturartekoak garatzea.
4. Atzematea zein alderdi soziokultural erabiliko liratekeen frantses hiztun natiibo batekin eta zein beste jatorri batekoekin.
5. Frantsesaren erregistroak (formala, neutroa eta informala) eta aldaerak ezagutzea, ikuskera estereotipatuak gaindituz.
6. Askotariko jakingai kulturalak ezagutzeko interesa: historikoak, monumentalak, artistikoak, geografikoak, literaturazkoak eta abar.
7. Frantses hiztunenganako jarrera errespetuzkoa eta irekia, ikuskera estereotipatuak gaindituz.
8. Norbere mugak gainditzea, eskura dituen baliabide linguistikoei ahalik eta etekin handiena atereaz.
9. Frantsesa baloratzea nazioarteko komunikabide gisa; azterlanak, lana, aisia eta abar.

Ebaluazio irizpideak

Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko testuetan (elkarrizketak, azalpen laburrak eta solasaldiak) informazio osotarakoa eta berariazko atzematea, ikasleak hurbileko dituen gaien gainean eta bai testu idatzi erraz eta laburretan (deskripziozkoak eta kontraerazkoak), testuingurutik abiatuta zenbait osagaien esangurari igartzeko gauza izatea.
2. Egoera ezagunei buruzko elkarrizketa laburretan parte hartzea, hizkera sinplea eta gizarte harremanetan ohi diren esapideak erabiliz.
3. Soinuzko dokumentu errazetatik osotarako esangura atera.
4. Bakarka irakurri, hiztegia erabiliz, bista-lagungarriak dituzten testuak eta gazteentzako liburu errazak, eta gero eginkizun jakin bat burutzea ulertu direla erakusteko.
5. Mezu laburrak eta errazak idatzi eguneroko gaien gainean behar diren lokailuak eta hitzak erabiliz, irakurleek ulertzeko modukoak. Arreta emanen zaie idaztearen pausoei, produktua hobetzeko.

Hizkuntzaren gaineko gogoeta

1. Praktikan erakustea ikasi direla frantsesaren kodeko alderdi formalak (morfolo-
logia, joskera eta fonologia), bai jarduera testuingurudunak eginaz puntu ja-
kin batzuen gainean eta bai mintzameneko eta idazmeneko eginkizunetan
zuzenki erabiliz.
2. Hizkuntzaren funtzioek, kontzeptu gramatikalek eta hizkuntza agerkariek el-
karrekin zer harreman dituzten finkatzea.
3. Oinarrizko termino linguistikoak erabiltzea gramatika osagaiak aipatzeko bai
erabiltzean nola haien gaineko gogoeta egitean.

Alderdi soziokulturalak

1. Testuetan esplizituki nahiz inplizituki ageri diren osagai soziokulturalei antz
ematea eta informazio kultural geografiko, historiko, literarioak eta abar
atzematea.
2. Komunikazio egoerarako, mintzakidearendako eta komunikazio helbururako
egoki diren erregistroak, aldaerak, formulak eta estiloak erabiltzea.

3. Norberarenaz beste kulturetako ikuskerak preziatzea eta beste herrietako baliok eta portaerak errespetatzea.
4. Frantsesak garraiatzen dituen alderdi soziokulturalen ezagupena norbere hizkuntzarekin konparatzeko erabiltzea.

Frantsesa III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Komunikazio trebetasunak*

1. Testu ahozko zein idatzizkoen edukiari aurrez igartzea osagai linguistiko eta ez linguistikoak interpretatzetik abiatuta.
2. Ahozko zein idatzizko testuetan ideia nagusiak ulertzea ikasleari agintzen zaion eginkizun gero eta zailagoaren arabera.
3. Informazio ezezagunetatik esangura deduzitzea osagai testuingurukoak eta linguistikoak interpretatuz: titulua, ilustrazioak, formatua, kokaera, hitz era-keta eta abar.
4. Ahozko zein idatzizko kodeak bereizten dituzten ezaugarriak atzematea; bar-ne loturako eta koherentziako osagaiak, erreduantzia eta errepikazioa eta abar.
5. Testuak irakurtzea, irakurtzen den testu motarako eta helbururako modu egokian: informazio osotarakoak eta xehetuak bilatzea, datuak aldatzea eta abar.
6. Entzundakoaren edo irakurritakoaren gaineko funtsezko informazioa beste norbaitengana helaraztea: oharrak hartzea, egituratzea, laburtzea eta abar.
7. Mezuak igortzeko plangintza egitea, komunikazio helburua, testuingurua eta mintzakideak aintzat harturik: erregistroa, iritsi beharreko ondorioa, hiztunen arteko harremana eta abar.

8. Zuzentasun formala eta jariotasuna elkarrekin orekatuta egotea mezuak helarazi eta esangurak negoziatzeko, ahozko zein idatzizko diskurtsoen funtsezko ezaugarriak aintzat hartuta: etenak, ortografia, puntuazio zeinuak eta abar.
9. Ahozko zein idatzizko testuak sortzea, koordinazio eta subordinazio osagaiak erabiliz.

II. Hizkuntzaren gaineko gogoeta

a) Hizkuntzaren funtzioak eta gramatika

1. Pertsonaiak deskribatu, atzeman, konparatzea: kontraesatea eta interesa azaltzea.
 - Indikatiboko orainaldia eta agintera erreparasatzea (-er, -ir, -re, -oir).
 - *Passé composé*.
 - *qui, que* izenorde erlatiboak.
 - *Sans* + infinitiboa.
 - Kolore adjektiboen komunztadura.
2. Emozioak nola adierazi, protesta egin, ukatu, arrazoitu. Karta bat nola idatzi.
 - *Devoir* + infinitiboa.
 - *Il faut* + infinitiboa.
 - *Il est interdit de...; défense de...*
 - Modu adberbioak.
3. Segurutasuna, zehaztasuna nola adierazi.
 - *Devoir, pouvoir, vouloir*.
 - C.O.D. izenorde pertsonalaren komunztadura partizipio iraganarekin.
4. Iraganeko ohiturak deskribatu, lehenagotasuna nola adierazi, baieztapena nola indartu.
 - Geroaldi bakuna.
 - *Venir de* + infinitiboa (*Passé récent*).
 - *Aller* + infinitiboa (*futur proche*).
5. Gauzak deskribatu eta konparatzea. Gizalegez ezezkoa eman.
 - Konparatiboa.
 - Superlatiboa, erlatiboa eta absolutua.

- Izenorde posesiboak.
 - Izenorde erakusleak.
6. Mehatxu egin, sorpresa nola adierazi, iritzi pertsonala nola azaldu.
- Izenorde pertsonalek esaldian zer kokaleku izaten duten.
 - *qui, que, dont, où* izenorde erlatiboak.

b) *Lexikoa*

1. Pertsona baten izaera eta gorpuzkera deskribatzeko lexiko berariazkoa.
2. Gauza baten ezaugarriak deskribatzeko lexiko berariazkoa.
3. Jorratu diren gaiekin lotura duten formulak eta esapideak.

c) *Fonetika*

1. *Liaison-enchainement*.
2. Insistentzia: azentu tonikoak.
3. Sentimenduak nola adierazi doinuaren bitartez.
4. Diskurtsoaren azentuazioa.
5. *Moyennes* direlako bokalak.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Formula linguistikoak nola egoki erabili (gizalegea, adostasuna, desadostasuna eta abar), komunikazio egoera zehatz baten arabera.
2. Herri eta kultura frantsesdunek berezko dituzten arau eta portaerak atzema-tea: bizimodua, umore zentzua eta abar.
3. Herrialde frantsesdunek berezko dituzten osagai kulturalak ezagutu eta balo-ratzea: jaiegunak, jaialdiak eta abar.
4. Frantses hiztunak ezagutu eta haiekin komunikazio truke benetakoak egite-ko interesa agertzea: posta elektronikozko mezuak, gomitak, kartak, solasal-diak eta abar.
5. Beste kultura batzuekin konparatzearen ondorioz norberaren kultura balora-tzen laguntzeko moduko portaera ohiturak garatzea: ohiturak, tradizioak, ondare historiko artistikoa eta abar.

6. Frantses hiztunenganako errespetua, zein ere jatorri, arraza edo ama hizkuntza duten, eginahala eginaz haiengana hurbildu eta komunikazioko oztopoak, aurrejuzguak, estereotipoak eta abar kentzeko.
7. Baloratzea frantsesak zenbateko garrantzia duen atzerriko hizkuntza hori bera ikasten ari diren pertsonekin komunikatzeko bide gisa: eskola korrespondentzia, trukeak, eta abar.
8. Konturatzea frantsesak zenbateko tokia hartzen duen komunikazio teknologiko sistema berrietan eta zein baliagarria den hainbat jatorriko pertsonekin komunikatzeko: teknologia berrien bidez komunikatzea, interneten bilaldiak egitea, albiste taldeetan parte hartzea eta abar.
9. Konturatzea herri eta kultura desberdin askok forma kultural batzuk komunean dituztela frantsesari esker: musika, literatura, albisteak eta abar.

Ebaluazio irizpideak

Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko mezuetan (buruz buruko komunikazio egoeretan edo komunikazio mekanikoko hedabideetan emanak) eta benetako testu idatzietan osotarako zein berariazko informazioa, ideia nagusia eta xehetasun ardurakoenak ateratzea.
2. Solasaldi laburretan parte hartzea eta komunikazio estrategia egokiena erabiltzea ulertzeko eta ulertarazteko eta nork bere informazioa besteri helaraztea.
3. Testuak luze irakurtzea hainbat helbururekin eta eginkizunen bat burutuz testua ulertu dela erakustea.
4. Testu errazak idaztea eta gramatika zein hitz egokiak erabiltzea eta bai irakurleak testua ongi ulertzeko behar diren barne loturako osagaiak ere.

Hizkuntzaren gaineko gogoeta

1. Frantsesaren kodeko alderdi formalei buruz ikasitakoak praktikan erabiltzeko trebetasunak agertzea (morfologia, joskera eta fonologia) eta horrek komunikazioan arrakasta izateko zenbateko garrantzia duen baloratzea.
2. Frantsesak dituen erregulartasunak hauteman, aztertu, eta arau batzuk itxuratzeko moduko hipotesiak egitea.
3. Pixkanaka gaizki asmatuak direla agertzen diren arauak baztertuz joatea.

4. Hizkuntzaren funtzio berarekin lotura duten forma linguistikoak atzeman eta erabiltzea.

Alderdi soziokulturalak

1. Testuen bidez garraiatzen diren formulak, arauak eta portaerak egoki interpretatzea eta jakin gai kultural gehiago ikasteko interesa agertzea.
2. Beste kulturak ezagutzetik eta konparatuzetik abiatuta norberarena ere baloratzea.
3. Helarazi nahi diren mezuak mintzakideak dituen ezaugarrien arabera moldatu eta hark ebakera, azentuan edo frantsesaren jakite mailan izan ditzakeen diferentziak errespetatzea.
4. Preziatzea frantsesa jakiteak zenbateko garrantzia duen hainbat jatorriko pertsonekin komunikatzeko, komunikazioaren inizatiba hartuz eta dibertsitate kultural eta sozialari buruzko errespetua agertuz.

Frantsesa IV

Edukiak

1. Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko zein idatzizko testuen osotarako edukiari buruz hipotesiak egitea, bai testuko nola testuinguruko osagaietan, eta entzundako edo irakurritakoa oinarri hartuta ondoren hitza hartzea.
2. Ahozko zein idatzizko informazioak interpretatzean, hiztunaren helburua ulertzea, eta bai mezu implizituak ere.
3. Testuetan informazio ezezagunen esangura zein den igartzea osagai linguistikoak interpretatuz: testuaren egitura, hitzen erabidea, etimologia, aurrizkiak eta atzizkiak eta abar.
4. Irakurtze estrategia bana erabiltzea testu motaren eta irakurtzearen helburuaren arabera.

5. Solasaldi naturaleko konbentzioak erabiltzea simulazio eginkizunetan: hitza hartzeko txanda, gai aldaketa eta abar.
6. Norbere produkzioak, ahozko zein idatzizkoak, nola hobetu gogoeta egitea.
7. Informazioak kode batetik beste batera aldatzea: ikustezkotik idatzizko/ahozkora, sinbolikotik hitzekora eta abar.
8. Ahozko zein idatzizko mezuak sortzean zuzentasun formala baloratzea.
9. Ahozko zein idatzizko testuak sortzea testuari barne lotura eta koherentzia emateko moduko osagaiak erabiliz: testu bilbea, denboran barna sekuentzia eta abar.
10. Helarazi nahi diren ideiak nola egituratu eta lerroaldeetan nola banatu: ideien plangintza eta garabidea, puntuazio zeinuak, lokailuak.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

a) *Hizkuntzaren funtzioak eta gramatika*

1. Aginduak gizalegez nola eman, iritziak nola adierazi, kontseiluak eman, hipotesiak egin.
 - Baldintza nola adierazi.
 - *Si* + inperfektua.
 - Izenorde erakusle neutroak.
 - *Avoir* bidezko esapideak.
2. Iraganean gertatuak nola kontatu, kronologia.
 - Inperfektua.
 - *Passé composé* eta inperfektuaren balioak.
 - *En, y* izenordeak erreparatu eta sakontzea.
 - Nola erabili *ce qui, celui qui, ce que, celui que*, eta abar.
3. Informazio hartu, eman, harridura agertu.
 - Galdera esaldiak dituen hiru erak erreparatu.
 - Esklamazio esaldia
 - Adjektibo eta izenorde zehaztugabeak.
 - Galderazko adjektibo eta izenordeak. Esklamazio adjektiboak.

4. Kausa, kontzesioa nola adierazi, Ikuspuntu bat nola defendatu edo atakatu.
 - Kausa nola adierazi (*pourquoi, parce que*).
 - Kontzesioa nola adierazi.
 - Ukazio bikoitza: *ne ni, ni*
 - Argudiatzea: esaldi eginak eta estereotipoak.
5. Iritziak nola adierazi, kontra egin; esaldi murriztaileak.
 - Helburua nola adierazi (*Afin de + infinitiboa; pour + infinitiboa*).
 - *y, en* izenorde osagarri.
6. Testu bat nola laburtu. Sentimenduak nola adierazi. Jabetasuna nola adierazi.
 - *Imparfait + passé composé*.
 - *Pour, afin de + infinitiboa*.
 - *Avant de + infinitiboa*.

b) *Lexikoa*

1. Solasaldiko estereotipoak.
2. Hitz homofonoak.
3. Sinonimoak / antonimoak.

c) *Fonetika*

1. Kontsonante ahostunen eta ahoskabeen arteko diferentzia.
2. Goranzko eta beheranzko intonazioetan intsistitza.
3. Adierazpeneko erritmoa.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Osagai semiotikoak (jestuak edo osagai proxemikoak) nola moldatu mintzakidearen arabera, norbere izaera bortxatu gabe.
2. Erregistro egokia erabiltzea komunikazio egoeraren arabera: formala, neutroa, informala eta abar.
3. Komunikabideetan garraiatzen diren albiste edo gaurko gaietan ikuspuntu soziokulturaleri antz emateko interesa izatea.

4. Lantzen ari diren testuetan inplizitu dauden alderdi soziokulturalak atzema-tea: ohiturak, tradizioak, ospakizunak eta abar.
5. Intereseko gaien gainean izaten diren iritzi diferentziak errespetatzea eta ikuspuntu soziokultural desberdinak ulertzea.
6. Atzerriko hizkuntza erabiltzea kultur arteko topaketak faboratzeko: karta tru-kea, teknologia berrien bidezko trukeak eta abar.
7. Baloratzea atzerriko hizkuntzak zenbateko garrantzia duen komunikazio tek-nologikoko bide berrietan nazioarteko harremanak faboratzeko tresnatzat: internet, albiste taldeak eta abar.
8. Hizkuntza komunitate bereko talde desberdinek ageri dituzten ezaugarri kul-tural eta portaera sozialak sakonago ezagutzea.
9. Frantsesezko mezuak ulertu eta norberaren mezua frantsesez ulertarazteko jarrera positiboa izatea eta estilo formalak zein informalak mintzakidearen arabera errespetatzea.

Ebaluazio irizpideak

Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko testuetako informazio osotarakoa zein berariazkoa, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ateratzea, ikasleentzat ezagunak diren gaien gainean edo frantsesa mintzatzen den herrietan gizarte eta kulturaren eguneroko al-derdien gainean, eta bai askotariko testu idatzi errealetan (deskripzioak, kon-taerak, argudiozko testuak, azalpenekoak eta abar), zer den gertaera eta zer iritzia bereiziz eta autoreak zen argudio nagusia erabiltzen dituen atzemanek.
2. Solasaldietan parte hartzea eta komunikazioa hasi, mantendu eta aurreraz-teko estrategia egokiak erabiltzea, diskurtso ulergarria eta egokia sortuz ko-munikazio egoerarako eta komunikazioaren helbururako.
3. Ohiko testu idatzi laburretatik informazioa atera (kartak, fitxak anuntzioak eta abar).
4. Nork bere kabuz askotariko materialak irakurtzea, norbere helburuaren ara-bera (kontsulta, informazioa bilatzea, irakurketa xehatua, atsegina eta abar).
5. Testu idatziak sortzea hainbat komunikazio helbururen arabera, eta testuari koherentzia eta barne lotura ematen dizkieten osagaiak errespetatzea, testua irakurleak ongi ulertzeko modukoa izan dadin.

Hizkuntzaren gaineko gogoeta

1. Ohartuki erabiltzea sistema linguistiko berriaren gainean ikasitakoak, norbere produkzioak kontrolatu eta zuzentzeko tresnatzat eta besterenak hobeki ulertzeko bidetzat.
2. Frantsesaren hizkuntza sistemak berezko dituen erregulartasun eta salbuespenen gainean gogoeta egitea.
3. Behar bezalako kontzeptuazio maila iristea hizkuntzaren funtzioei, osagai linguistikoei, testuen formatu eta ezaugarriei, diskurtsoaren koherentzia eta barne-loturari dagokienez.
4. Ohartuki lehendik erabilitako ikasketa mekanismoak norberegatzea (dedukzioak egitea, indukzioak, sailkatzea, kategoriak ezartzea, hitzak eratzea) ikasketa egoera berrietan.

Alderdi soziokulturalak

1. Erreferentzia kulturalak atzeman eta interpretatzea, hartarako klabe linguistikoak eta ez linguistikoak erabiliz, ulermenaren lagungarri.
2. Komunikabideetan gaurko gaien gainean garraiatzen diren informazioetan osagai soziokulturei antz ematea.
3. Jarrera kritikoa, errespetuzkoa eta gogoetazkoa agertzea diferentzia soziokulturetatik heldu diren iritzi diferentzietan.
4. Positiboki baloratzea beste kulturek gure kultura nola aberasten duten eta alderantziz, kultur arteko trukeek dakarten abantaila preziatuz.

Prozedurak*Ahozko komunikazioan*

- a) Hainbat iturritarik heldu diren ahozko mezuak osotara ulertzea: mintzakideak, komunikabideak eta abisuak.
- b) Ardurako osagaiak zein diren atzeman.
- c) Ahozko mezuak interpretatzea, oinarritzko datuak zein diren eta bigarren mailakoak zein diren bereiziz.

- d) Ahozko mezu ulergarriak sortzea.
- e) Aditzera eman nahi diren ideien antolamendu koherentea.
- f) Osagai linguistikoak komunikazio helburuaren arabera moldatzea (hitzak, egiturak).
- g) Ahozko elkarrizketetan parte hartzea nahi diren funtzioak adierazteko; bertan estrategia linguistikoak erabiltzea (argitasunak eskatu, perifrasiak eta abar) eta bai ez linguistikoak ere (jestuak, soinuak eta abar).
- h) Ebakera ulergarria eta intonazio egokia.

Komunikazio idatzian

- a) Ikasgelako jarduerekin lotura duten testuak ulertzea (jarraibideak, abisuak, lanen gaineko iruzkinak).
- b) Ikasleen esperientziarekin eta ondare kulturalarekin lotura duten testuak osotara ulertzea.
- c) Hiztegia eta irakaslea lagun komunikabideetatik hartutako zenbait testu osotara ulertzea.
- d) Testu idatzi artaz aukeratuetatik berariazko informazioak ateratzea.
- e) Testu idatzien motak bereiztea.
- f) Haien egitura atzematea.
- g) Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea.
- h) Hitz ezezagunen esangura deduzitzeko estrategiak erabiltzea: testuingurua, beste hizkuntzekin duten antza eta abar.
- i) Hiztegiak eta gramatika erabiltzea, testu idatziak ulertzeko eta bai sortzeko ere.
- j) Testu idatzi sinpleak sortzea: oharrak, karta pertsonalak, gomitak, artikulua laburrak.
- k) Ideiak labur eta ordenatuki aurkeztea: gidoi bat egitea.
- l) Lexikoa komunikazio idatziaren motaren arabera moldatzea eta ohiko gizalage formulak erabiltzea.
- m) Puntuazio zeinuak egoki erabiltzea.

Hizkuntzaren gaineko gogoetan

- a) Egitura gramatikal oinarrikoak aztertzea, erregulartasun morfologiko, sintaktiko eta lexikoak hautemanaz.
- b) Arau gramatikalak bilatu, ordenatu eta ondoren taula gramatikal pertsonalak itxuratzea.
- c) Hiztegia eta kontsulta liburuak erabiltzea hainbat alderdi linguistikoren gaineko informazioa eskuratzeko.
- d) Lexiko berria ikastea hiztegia erabiliz eta hitzen erabidea jakinez.
- e) Lexikoa sailkatzea, dela fitxak erabiliz, dela alfabetoaren arabera zerrendak edo arlo semantikoak.
- f) Hizkuntzak berezko dituen soinuak atzematea eta maiz praktikatzea, bai bera-riazko ariketak eginaz eta bai ozenki irakurriz.

Eduki soziokulturaletan

- a) Frantziak Nafarroan eta Espainian izan duen eragina atzematea.
- b) Nafarroa, Espainia eta Frantziaren arteko harreman sozial, kultural eta ekonomikoak aztertzea.
- c) Frantziaren zenbait alderdi soziokultural aztertzea, komunikabideetan agertzen direnak.
- d) Frantziako portaera arau eta ohitura batzuk erabiltzea (agurra, aurkezpena, gomitak eta abar) egoera simulatuetan.
- e) Frantsesen bizimoduko zenbait alderdi gureekin konparatzea.
- f) Material errealak erabiltzea Frantses kultura hobeki ulertzeko.

Jarrerak*Ahozko komunikazioan*

- a) Ikasten ari den hizkuntzan ahozko komunikazioan parte hartzeko interesa, talde jarduera guztietan parte hartuz.
- b) Frantsesa hitz egiten dutenen alderako jarrera errespetuzko eta irekia izatea, irakasleak izan, natiboak, edo huts asko egiten dituzten ikasleak izan.
- c) Konturatzea gauza zarela mezu bat oro har ulertzeko, osagai guzti-guztiak ulertzen ez badituzu ere.

- d) Norbere hutsa edo besteren hutsa ikas prozesuko nahitaezko osagai direla ulertzea.
- e) Ahozko komunikazioan baliabide faltan sortzen diren problemak eta oztopoak gainditzea.

Idatzizko komunikazioan

- a) Frantsesezko idazki bateko ideiak ezagutzeko interesa eta jakin-mina.
- b) Ulermenean sortzen diren zailtasunak gainditzeko joera, azaldu diren estrategiak erabiliz.
- c) Frantsesez eskuragai dauden informazioen aurreko jarrera irekia.
- d) Konturatzea testu idatzi bat oro har ulertzeko gauza zarela, osagai guzti-guztiak ulertzen ez badituzu ere.
- e) Idatzizko trukeak egiteko interesa, eskolako jardueren artean (karta trukea).

Hizkuntzaren gaineko gogoetan

- a) Ulermena garatzeko egokienak diren ikasgela jardueretan parte hartu eta ardura bizkorra hartzea.
- b) Ikasten ari den hizkuntza zuzen erabili beharra ulertzea, komunikazio jariotsu eta eraginkor bat segurtatzeko.
- c) Norberak aurrera egiteko eta ikasten ari den hizkuntza maila egoki batera iristeko duen gaitasunean sinistea.
- d) Ikasgelako materialen alderako errespetua, ikasketa jarduerak egiteko guztien lagungarri baitira (jokoak, posterrak, mapak eta abar).

Alderdi soziokulturaletan

- a) Baloratzea zenbat aberasten duen norbera beste kultura bateko pertsonekin harremanetan sartzeak.
- b) Frantsesa mintzabide duten herrietako bizimodua eta beste zenbait alderdi soziokultural ezagutzeko irrika, errespetua eta modu kritikoan baloratzea.

Atzerriko hizkuntza: Ingelesa

Sarrera

Hezkuntza, lana, lanbideak, kultura, turismoa, komunikabideetara iristeko aukera eta antzeko beste arrazoi askorengatik nazioarteko harremanak izugarri ugaltu di-relarik, atzerriko hizkuntzak ikastea gero eta handiagoko premia da gaurko gizarte-an. Teknologia berrien garapenak, bestalde, ezinbesteko tresna bihurtu ditu atzerri-ko hizkuntzak lan munduan eta oro har komunikazioaren munduan txertatzeko.

Atzerriko hizkuntzak jakiteak aukera ematen du beste kultura, ohitura eta izaera asko ezagutzeko eta bai ere, aldi berean, pertsonen arteko harremanak bultzatu, gizabanakoaren formazio osoa faboratu eta beste herrienganako, hango bizilagunenganako eta hizkuntzaganako errespetua garatzeko. Eta gainera geure hizkuntza hobeki ulertzeko bidea ere ematen digu.

Europako Batasunean kideku garelarik, non hizkuntza arrotz asko hitz egiten bai-tira, beharrezkoa da atzerriko hizkuntzak jakitea Erkidego zabal honetako kideekin komunikatzeko gauza izanen bagara.

Testuinguru honetan, aitortzen zaie atzerriko hizkuntzei Europako nortasuna erai-kitzeko osagai funtsezkotzat duten garrantzia, nortasun eleanitza eta kulturانيتza baita, eta onartzen da pertsonen zirkulazio librea faboratu eta herrien arteko el-kanlan kultural, ekonomiko, tekniko eta zientifikoa errazten duten faktoreetako bat direla.

Aurreko lerroalde horietan aipatu ditugun baliagarritasun arrazoi argiez gain, bes-talde, gogora dezagun hizkuntzen ikas eta irakas prozesuan kontuan hartu behar

direla arlo honetan lehendik ikasitakoak, haiek osatu eta berretzeko. Hezkuntza etapa honen hasieran ikasleek ezagupen ondare bat eta zenbait trebetasun linguistiko beretu dituzte, franko handiak. Ezagupen horiez baliatuz, bada, gauza izanen dira ikasgelako jardueretan parte hartzeko (galdetzea, esplikazioak eskatzea, erantzutea, ulermen, mintzamen eta idazmeneko eginkizunak egitea). Etapa honetako lanari esker trebetasun horiek praktikaren bidez sendotu eta berretuko dira, eta bai lehendik dakitena eta orain ikasten dutena gehiago formalizatuko, sistematizatuko eta egituratuko ere, adin honetan dituzten gaitasun berriak direla medio. Horiek guztiak horrela, bada, juzgatu da beharrezkoa dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak bere ikasketa aldia bukatzean gutxienez bi atzerriko hizkuntza ikasita izatea.

Europako Kontseiluak behin eta berriz esan du pertsonak behar adinako gaitasunak garatu behar dituztela Europako beste herrietakoekin harremana izateko. Horrenbestez, juzgatu du are gehiago bultzatzea egin behar zaiola atzerriko hizkuntzen irakaskuntzari, Europako herritartasunaren ideia garatzen laguntzeko, eta gomendatu du ikasleek atzerriko hizkuntza bat baino gehiagotan komunikazio gaitasun gutxienekoa beregana dezaten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa honetan, eta bai helduaroan ikasketa horrekin segitzeko moduko hainbat mekanismo ere.

Europako Kontseiluak Europarako erreferentzi barruti komuna ere ezarri du atzerriko hizkuntzak ikasteko, eta seinatu du hizkuntza jakin batean komunikatzeko gaitasuna pixkanaka garatzeko ikasleek gai izan behar dutela zenbait komunikazio lan egiteko.

Komunikazio lan horietan hainbat ekintza sartzen dira, berariazko arlo batean komunikazio helburu jakin bat dutenak. Lan horiek burutzeko, beharrezkoa da komunikazio gaitasuna erabiltzea, zenbait estrategia abian jartzea eta hainbat trebetasun linguistiko eta diskurtsiboz baliatzea zein bere testuinguruan. Hortaz, atzerriko hizkuntza erabiltzen diren jarduerak beste zenbait barruti izaten dute gertaleku: barruti publikoak izan (pertsonek eguneroko elkarreragin sozialari dagokion guztia), zein pertsonalak (familia barneko harremanak eta bakarkako gizarte jarduerak), lanekoak edo hezkuntzakoak.

Komunikazio gaitasuna komunikazio eginkizun horiek burutuz garatuko da eta honako azpi-gaitasunak izanen ditu osagai: gaitasun linguistikoa (osagai semantikoak, morfosintaktikoak eta fonologikoak), gaitasun pragmatiko edo diskurtsiboa (funtzioak hizketaldiak, solasaldiak eta abar) eta gaitasun soziolinguistikoa (kontzertzio sozialak, komunikazio asmoa, erregistroak eta abar). Estrategia gaitasuna ere sar liteke komunikazio gaitasunaren azpi-gaitasuntzat.

Ikasleek era natural eta sistematikoan erabiliko dituzte komunikazio gaitasunak, komunikazio trebetasunen bidez burututako komunikazio egintzak eraginkorrak izan daitezten. Trebetasun hauek garatu beharko dira: sortaileak (mintzamina eta idazmina), hartzaileak (entzunaren eta irakurriaren ulermena eta hitzik gabeko kodeen interpretazioa) eta elkarreraginean edo bitartekaritzan oinarrituak.

Edukiak kurtsoa zehazten dira, ikas prozesua etengabea delako eta hartan komunikazio gaitasunak, hizkuntzaren gaineko gogoeta eta alderdi soziokulturalak pixkanaka eraikiz joaten baitira. Horregatik, lehen ikusitako ezagupenak berriz azalduko dira beste testuinguru batean. Era berean, hizkuntzaren funtzioek eta alderdi gramatikalek elkarrekin dituzten harremanak malguki landuko dira, hizkuntza funtzio bat bera hainbat hizkuntza osagairen bidez eman baitaiteke aditzera eta alderantziz.

Orientazio metodologikoak orain arte azaldu denaren arabera hautatuko dira, eta haien helburu lehenetsia izanen da lagun egitea ikasleek komunikazio gaitasuna gara dezaten. Ikas jarduerak edo lanak izanen dira plangintza didaktikoaren ardatza, eta bertan helburuak, edukiak eta ebaluazioa sartuko dira, programazio unitateak osatuz. Lan eta eginkizun horiek diseinatzeko beste irizpide batzuen artean, aintzat hartuko da garabide honetan zer etapa segitu behar diren, ikasleek zer ezagupen dituzten, hizkuntza osagaiek, trebetasunek eta estrategiek tratamendu integratua behar dutela, azken buruan zein emaitza lortu nahi diren eta ikasgelaren dibertsitatera moldatzeko zer aukera dauden.

Proposamen horren ildotik, curriculum honetan etapako helburuak aipatzen dira eta kurtso bakoitzean zehazten da zer eduki emanen diren. Eduki horietan hainbat komunikazio trebetasun sartzen dira. Trebetasun horiek erdietsiko badira, gainera, hainbat hizkuntza funtzio ikasi eta praktikatu behar dira, eta haiei dagozkien gramatika ezagupenak (horiek zehatzago xehatzen eta azaltzen dira), lexiko bat (oso gainetik azaldua), zenbait osagai fonetiko eta zenbait alderdi soziokultural. Bigarren, hirugarren eta laugarren kurtsoetan (betiere DBHko lehen zikloan), behar diren ebaluazio irizpideak ere sartzen dira (horiek ere beren hiru atal hauetan banatuak: komunikazio trebetasunak, hizkuntzaren gaineko gogoeta eta alderdi soziokulturalak). Atzerriko hizkuntzen ikas eta irakas prozesuak, halaber, lagun eginen du ikasleak osotarako ikuspegi batetik eskolatzeko lanari, haien nortasuna garatzeko, gizarteratzen laguntzeko, datu interesgarriak eskuratzeko aukera emateko, eta abarretarako.

Hizkuntzari buruzko hezkuntzak, bada, zeinaren osagai den atzerriko hizkuntzak ikastea, dudarik gabe osotarako hezkuntzaren ardatz nagusietako bat da, eta bai bereziki ikasleen prestakuntza intelektual eta sozialaren parte handia ere. Atzerri-

ko hizkuntzak ikasteak askoz hobeagoko eta baliozkoagoko ikuspegia ematen du norbere hizkuntza eta hizkuntza horri dagokion kultura ezagutu, baloratu eta preziatzeko. Aukera ematen du, halaber, norbere kabuz ikasteko gaitasuna handitzeko, lan pertsonalerako estrategiak garatzeko eta elkarlanean aritzeko sistemetan trebatzeko. Horrela, bada, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak lagun egingen du gaurko ikasleek gureak ez bezalako bizimoduak eta gizarte antolamenduak ezagutu, bere enpatia gaitasuna handitu, bere informazio bideak aberastu eta bere harremanetan tolerantzia soziala eta kulturala erabili ditzan.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketan trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkion askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Komunikazio trebetasunak garatzea, bai hartze gaitasunak eta bai sortze gaitasunak, ikasgelan zein handik kanpo informazio trukeak egiteko.
4. Hainbatetariko testuak ulertuz irakurtzea, hiztegia erabili gabe, askotariko informazio iturrietara iristeko gai izateko, eta norberarenak ez bezalako kultura eta bizimoduak ezagutu ahal izateko.
5. Ahoz zein idatziz ongi komunikatzeko gai bihurtzea, ohiko komunikazio egoeretan, berariazko eginkizunen bidez.
6. Atzerriko hizkuntzaren ikasketan ama hizkuntzan edo beste hizkuntza baten ikasketan lortutako komunikazio estrategiak erabiltzea, egoera benetako zein simulatuetan elkarreraginezko eginkizunak burutzeko.
7. Hizkuntzaren jardunbideaz gogoeta egitea, horrek ikasketa erraztu egiten baitu eginkizunak egiterakoan eta ikaslearen beregaintasuna garatzeko tresna egokia baita.

8. Ikasketa estrategiak eta baliabide didaktikoak erabiltzea (hiztegiak, kontsulta liburuak, multimedia materialak eta abar), informazio bilatu eta ikasketa egoeretakoko problemak norbere kabuz konpontzeko.
9. Norbere ikasketa prozesuez gogoeta egitea eta hobekuntzak egiteko interesa hartzea agindutako eginkizunak egoki burutzeko.
10. Ingelesa garraiabide duen kultura ezagutzeko aukera izatea, harenganako eta haren hiztunenganako errespetua haiz, nazioarteko abenikoa handitzeko.
11. Baloratzea ingelesak zenbateko garrantzia duen beste kultura bateko pertsonekin komunikatzeko eta gizarte barneko zein pertsonen arteko harremanak faboratzeko.

Ingelesa I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Komunikazio trebetasunak*

1. Entzun edo irakurri behar denaren edukiari aurrea hartzea aurretik dakizkizun datuak eta emandako testuinguru informazioa oinarri: hasierako eztabaidak eta debateak, galderei erantzutea, ilustrazioak eta titulua begiratzea eta abar.
2. Aurretiazko ezagupenak abian jartzea eta testuingurua erabiltzea osotarako eta berariazko informazioa interpretatzeko testu ahozko zein idatzizkoetan: mezu nagusia, asmoa, titulua eta abar.
3. Aurretiazko ezagupenak abian jartzea eta testuingurua erabiltzea osotarako eta berariazko informazioa interpretatzeko testu ahozko zein idatzizkoetan. Informazioak formatu batetik bestera aldatzea. Formularioak, zerrendak, etiketak, gomitak, taulak eta abar osatzea.
4. Testu mota desberdinak atzematea: deskripzioak, kontaerak, elkarrizketak, kartak, egunerokoak, historiak eta abar.

5. Testuak arretaz irakurri edo entzutea eskatutako datuak ebaluatzeko: diferentziak bilatu, informazio faltsuei antz eman eta abar.
6. Ardurako informazioa zein den antz ematea eginkizunaren arabera garrantzia duen edukian zentratzeko, informazio arduragabe baztertuz.
7. Mintzakideekin modu kontrolatuan elkar eragitea, aurretik jarraibide batzuk harturik zer hizkuntza mota erabili eta zer mezu helarazi behar den jakiteko.
8. Binakako eta talde txikiak elkarrekin parte hartzea, hitz egiteko txandak errespetatuz, gaiak proposatzeko, galderak egiteko eta erantzun pertsonalak emateko inizatiba hartuz.
9. Aurretik landutako egoera simulatuetan paperak hartu eta antzeztea.
10. Komunikazio gaitasunak garatzea, komunikazioko etenak gainditzeko gauza izateko.
11. Norbere hutsak era naturalean onartzea, ikasketan aurrera egiteko gogoeta-gai direla ikusiz.
12. Idazmena garatzea, esaldi edo lerroalde proportzionatuak eginaz eta informazioa modu pertsonalizatuan erantsiz.
13. Trebetasunak modu integratuan erabiltzea eginkizunak eta lanak egiteko, benetako materiala oinarri; galde zerrendak eta abar.
14. Osagai gramatikalak ezagutu eta erabiltzea norbere produkzioen kalitatea hobetzeko eta juzgu gai gehiago eskura izateko informazio ulertu edo interpretatzerakoan.
15. Ohartzea zenbateko garrantzia duen lexikoa etengabe handitzeak, hizkuntzaren funtsezkoa osagaia baita, komunikazio trebetasunean eta haren azpi trebetasunetan aurrera egiteko.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

a) *Lengoiaren eta gramatikaren funtzioak*

1. Agurrak, informazio pertsonala eman, eskatu eta ulertzea.
 - Formulak eta agurrak.
 - *be* eta *have got* aditzak.
 - Izenorde pertsonalak, erakusleak eta galdetzaileak.

- Artikuluak.
 - Substantiboaren singularra eta plurala.
 - Hitzen hurrenkera: adjektiboa + substantiboa.
 - Adjektiboak predikazio kokaeran.
 - Posesiboak. Genitibo saxoia.
 - Preposizioak: *on, in, from, at*, eta abar.
 - Telefono zenbakiak.
 - Zenbaki kardinalak.
 - Hitzen erabidea.
2. Jarraibideak eta helbideak eman, eskatu eta ulertzea.
- Agintera.
 - Formulak: *How can I get to the Post Office?*, eta abar.
 - Zenbaki ordinalak.
3. Pertsonak, tokiak eta gauzak deskribatu eta konparatzea, haien gaineko informazioa eskatuz eta emanaz.
- Orainaldi bakuna.
 - *there is / there are*.
 - Adjektibo kalifikatzaileak.
 - Toki preposizioak. *Next to, behind, opposite*, eta abar.
 - Substantibo zenbakarri eta zenbakaitzak.
4. Ohiturak, gustuak, ezagupenak eta gogo zein gorputzezko aldarlean adierazi.
- Orainaldi bakuna maiztasun adberbioekin: *usually, always, often*, eta abar.
 - *Like / Love / Dislike / Don't like / Hate + substantiboak*.
 - *Can*.
 - Modu adberbioak.
 - Lokailuak.
 - Ordua, eguna eta data adierazteko esapideak.
 - Zenbaki ordinalak.
5. Gertatzen ari den zerbaiten gaineko informazioa eman, eskatu eta ulertzea, gertatu ohi denarekin konparatuta.
- Orainaldi jarraitua eta orainaldi bakuna elkarrekin konparaturik.
 - Denbora esapideak: *now, today, on Mondays*, eta abar.
 - Zehaztugabeak.

6. Iraganen gertatuak deskribatu eta kontatzea.
 - *Be* aditzaren lehenaldi bakuna.
 - *There was / were*.
 - Aditz erregular eta irregularretako lehenaldi bakuna.
 - Adberbio eta esapide adberbialak: *yesterday, last week, last month*, eta abar.
7. Asmoak eta gerorako proiektuak nola adierazi.
 - Orainaldi jarraitua geroaldi balioarekin
 - *Be going to + aditza*.
 - Adberbio eta esapide adberbialak: *tomorrow, next week*, eta abar.
8. Sujerentziak egin, onartu eta gaitzestea.
 - *Let's...*
 - *Why don't we...?*
 - *Shall we + infinitiboa*.
 - Onartze edo gaitzeste erantzuna: *Great, That's a good idea, Oh no!*
9. Obligazioa nola adierazi.
 - *Must / mustn't*.

b) *Lexikoa*

1. Jorratu diren gaien buruzkoa: familia, adiskideak, animaliak, elikagaiak, eguraldia, arropa, tokiak, oporrak eta abar.
2. Formulak eta esapideak.

c) *Fonetika*

1. /s/, /z/, /iz/ bukaerak nola ebaki orainaldi bakunean.
2. *-ing* bukaera nola ebaki.
3. Lehenaldi bakuneko /t/, /d/, /id/ bukaera nola ebaki.
4. *must mustn't* adizkietan bukaera nola ebaki.
5. Adizki "ahulak" (weak) nola ebaki: *was / were / can / some*, eta abar.
6. Esaldi eta hitzak nola azentuatu.

7. Esaldien intonazioa: sujerentziak eta sujerentziei nola erantzun. *wh-*, *yes / no*, eta antzeko galderak.
8. Erritmoa.
9. Zenbait sinbolo fonetiko ezagutzen hastea (IPA), hitz arruntenen eta ongi ezagutzen direnen ebakera traskribitzen dutenak (hiztegian, testuliburuetakoko hitz zerrendetan).

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Lantzen ari diren testu eta komunikazio egoerekin lotura duten ezaugarri soziokulturalak atzeman eta interpretatzea: diosalak, helbideak, telefono zenbakiak, ospakizunak eta abar.
2. Ingelesak garraiatzen dituen osagai sozial eta kulturalak norberaren hizkuntzarekin konparatzea: maileguak, ohitura eta azturen diferentziak, sukalde tradizioarenak, modarenak eta abar.
3. Ingelesaren ohitura soziokulturalak nola moldatzen diren hizkuntza hori beste ama-hizkuntza bateko hiztunen artean erabiltzen denean.
4. Ingelesaren erabilera formalak eta informalak bereiztea.
5. Norberarenez bestelako ohitura eta tradizioak errespetatzea: janaria, eguneroko ohiturak, orduak eta abar.
6. Gizarte harremanetan behar diren formulak erabiltzen ikastea.
7. Beste pentsaera, ikuskera eta errealitatearen antolaera batzuk errespetatzen ikastea: herri ingelesdunetako alderdi kultural batzuk ezagutzea.
8. Geure kultura ere baloratzea ingelesa garraiabide duen kulturaren alderako.

Ingelesa II

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Komunikazio trebetasunak*

1. Entzun edo irakurri ahala ideiei aurrea hartuz joatea.
2. Testuak arretaz entzun edo irakurtzea, haien osotarako esangura atzeman eta eskatutako informazio zehatzak ateratzeko.
3. Hainbat testu motaren, ahozko zein idatzizkoren, egitura zein den atzeman: kartak, kontaerak, txostenak, elkarrizketak, entrebistak eta abar.
4. Ardurako informazioa zein den atzematea, dela osotarakoa dela zehatza, agindutako eginkizuna egiteko, arduragabeko informaziotik bereiziz.
5. Osagai ezezagunen esangura interpretatzea testuingurutik eta Aurretiazko ezagupenetatik abiatuta.
6. Askotariko testuak nork bere oldez irakurtzea, aisiarako nahiz informazioa bi-latzeko: irakurgai mailakatuak, biografia errazak, poema laburrak, datu kulturalak eta abar.
7. Ahozko zein idatzizko historiak interpretatu eta kontatzea.
8. Mintzakideekin era kontrolatuan, erdi-kontrolatuan nahiz librean hitz egitea.
9. Esangurak negoziatzea eta baliabide linguistiko zein ez linguistikoak erabiltzea komunikazioan arrakasta izateko lagungarri.
10. Testu ereduak erabiltzea, ahozko zein idatzizkoak, testu pertsonalizatuak sortzeko: gomitak, kartak eta abar.
11. Idazkietan zirriborroak errebisatzea behin betiko testua editatu baino lehen, azken buruko produktua hobea izan dadin.
12. Osagai gramatikalak ezagutu eta erabiltzea norbere produkzioen kalitatea hobetzeko eta juzgu gai gehiago eskura izateko informazio ulertu edo interpretatzerakoan.

13. Ohartzea zenbateko garrantzia duen lexikoa etengabe handitzeak, hizkuntzaren funtsezkoa osagaia baita, komunikazio trebetasunean eta haren azpi trebetasunetan aurrera egiteko.

II. Hizkuntzaren gaineko gogoeta

a) Lengoiaren eta gramatikaren funtzioak

1. Agurrak, era formal nahiz informalean aurkeztea, informazio pertsonala eman, eskatu eta ulertzea.
 - *Be* aditza.
 - Orainaldi bakuna.
 - Maiztasun adberbioak: *always, usually, never*, eta abar.
 - Formulak: *Nice to meet you. What's your address?*, eta abar.
2. Gauzak, tokiak eta pertsonak deskribatzea. Obligazioak, kontseiluak eta haiekin lotutako errutinak adieraztea.
 - *Have got, there is / there are, must / mustn't, should / shouldn't*.
 - Adjektiboaren konparazio gradua.
 - Kantitatea adierazteko bideak: *much / many*, eta abar.
 - Tokizko preposizioak eta hitz multzo preposizionalak: *under, between, on the left*, eta abar.
3. Iraganen gertatuak nola adierazi.
 - *There was / there were*.
 - *Could*.
 - *Lehenaldi bakuna. Lehenaldi jarraitua*.
 - Lehenaldiko egintza etenduak: *lehenaldi jarraitua + lehenaldi bakuna*.
4. Trebetasunen gainean hitz egin. Baimena eskatu eta ematea.
 - *Can, could*.
5. Gustuak adierazi. Iritziak eskatu eta eman.
 - *Like / Love / Dislike / Don't like / Hate + substantiboak / gerundioak (-ing). / think / I don't think*.

6. Gerorako asmoak, erabakiak eta aurreikuspenak adierazi.
 - *Will* + infinitiboa berezko erabakiak eta aurreikuspenak adierazteko
 - *Be going to* + infinitiboa erabaki planifikatuak eta aurreikuspenak adierazteko.
 - Orainaldi jarraitua.
 - Denborazko esapideak: *this weekend, next year*, eta abar.
7. Baldintzak nola adierazi.
 - Lehen baldintza: baldintzazko esaldiak *will* erabiliz.

b) *Lexikoa*

1. Jorratu diren gaiei buruzkoa: lanbideak, aisia (zinea, musika, kirola, aisiako jarduerak, eta abar), gorputza, arropa, irakasgaiak, tokiak (ikastetxea, etxea, hiria, baserria eta abar), egunero erabiltzen diren gauzak, eguraldia eta abar.
2. Formulak eta esapideak.

c) *Fonetika*

1. Bereziki zailak diren fonemak nola ebaki, bai bokalikoak nola kontsonantikoak: schwa, / i / versus / i: /, eta abar.
2. Forma laburtuen ebakera: *will (I'll), I will not (won't), I could not (couldn't)*.
3. Adizkien bukaera nola ebaki: *-ed* lehenaldi bakunean.
4. Forma "ahulak": *was / were / can*.
5. Esaldiak eta hitzak nola azentuatuta.
6. Esaldi bakunak eta konposatuak nola intonatu.
7. Erritmoa.
8. Zenbait sinbolo fonetiko ezagutzea (IPA) hobekien ezagutzen dituzten hitz arrunten ebaketa transkribatzen dituztenak (hiztegia, haien testuliburuaren zerranda...).

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Osagai semiotikoei antz eman eta interpretatzea (jestuak, doinua, osagai proxemikoak eta abar), ingeles hiztun baten jardunean: gizabide mailak, formaltasun eta informaltasun maila eta abar.
2. Ingelesaren osagai kultural eta sozialak konparatzea, hainbat herritako hiztunek adieraziak.
3. Ingelesa erabiltzerakoan trebetasun kulturartekoak garatzea.
4. Atzematea zein alderdi soziokultural erabiliko liritekeen ingeles hiztun natibo batekin eta zein beste jatorri batekoekin.
5. Ingelesaren erregistroak (formala, neutroa eta informala) eta aldaerak ezagutzea, adinari, mailari eta abarri kasu eginaz.
6. Askotariko jakingai kulturalak ezagutzeko interesa: historikoak, monumentalak, artistikoak, geografikoak, literaturazkoak eta abar.
7. Ingeles hiztunenganako jarrera errespetuzkoa, ikuskera estereotipatuak gaindituz.
8. Ingelesa baloratzea nazioarteko komunikabide gisa; azterlanak, lana, aisia eta abar.
9. Hizkuntzaren adierazpen espresibo edo artistikoak preziatzea.

Ebaluazio irizpideak

Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko testuetan (elkarrizketak, azalpen laburrak eta solasaldiak) informazio osotarakoa eta berariazko atzematea, ikasleak hurbileko dituen gaien gainean eta bai testu idatzi erraz eta laburretan (deskripziozkoak eta kontraerazkoak), testuingurutik abiatuta zenbait osagaien esangurari igartzeko gauza izatea.
2. Egoera ezagunei buruzko elkarrizketa laburretan parte hartzea, hizkera sinplea eta gizarte harremanetan ohi diren esapideak erabiliz.
3. Bakarka irakurri, hiztegia erabiliz, bista-lagungarriak dituzten testuak eta gazteentzako liburu errazak, eta gero eginkizun jakin bat burutzea ulertu direla erakusteko.

4. Mezu laburrak eta errazak idatzi eguneroko gaien gainean behar diren lokailuak eta hitzak erabiliz, irakurleek ulertzeko modukoak. Arreta emanen zaie idaztearen pausoei, produktua hobetzeko.

Hizkuntzaren gaineko gogoeta

1. Praktikan erakustea ikasi direla ingelesaren kodeko alderdi formalak (morfolo-
logia, joskera eta fonologia), bai jarduera testuingurudunak eginaz puntu ja-
kin batzuen gainean eta bai mintzameneko eta idazmeneko eginkizunetan
zuzenki erabiliz.
2. Atzerriko hizkuntzaren jardunbideko arauak indusitzea erregulartasunak hau-
tematea oinarri eta alternatiboki indukzio eta dedukzio prozesuak aplikatzea.
3. Hizkuntzaren funtzioek, kontzeptu gramatikalek eta hizkuntza agerkariek el-
karrekin zer harreman dituzten finkatzea.
4. Oinarrizko termino linguistikoak erabiltzea gramatika osagaiak aipatzeko bai
erabiltzean nola haien gaineko gogoeta egitean.

Alderdi soziokulturalak

1. Testuetan esplizituki nahiz inplizituki ageri diren osagai soziokulturei antz
ematea eta informazio kultural geografiko, historiko, literarioak eta abar atze-
matea.
2. Komunikazio egoerarako, mintzakidearendako eta komunikazio helbururako
egoki diren erregistroak, aldaerak, formulak eta estiloak erabiltzea.
3. Norberarenaz beste kulturetako ikuskerak preziatzea eta beste herrietako ba-
lioak eta portaerak errespetatzea. Hizkuntzaren agerkari espresibo edo artis-
tikoak preziatzea.
4. Ingelesak garraiatzen dituen alderdi soziokulturen ezagupena norbere hiz-
kuntzarekin konparatzeko erabiltzea.

Ingelesa III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Komunikazio trebetasunak*

1. Testu ahozko zein idatzizkoen edukiari aurrez igartzea osagai linguistiko eta ez linguistikoak interpretatzetik abiatuta.
2. Ahozko zein idatzizko testuetan ideia nagusiak ulertzea ikasleari agintzen zaion eginkizun gero eta zailagoaren arabera.
3. Informazio ezezagunetatik esangura deduzitzea osagai testuingurukoak eta linguistikoak interpretatuz: titulua, ilustrazioak, formatua, kokaera, hitz era-keta eta abar.
4. Ahozko zein idatzizko kodeak bereizten dituzten ezaugarriak atzematea; bar-ne loturako eta koherentziako osagaiak, erreduantzia eta errepikazioa eta abar.
5. Testuak irakurtzea, irakurtzen den testu motarako eta helbururako modu egokian: informazio osotarakoak eta xehetuak bilatzea, datuak aldatzea eta abar.
6. Irakurketa intentsibo eta estentsiboarekin lotutako estrategiak garatzea.
7. Entzundakoaren edo irakurritakoaren gaineko funtsezko informazioa beste norbaitengana helaraztea: oharrak hartzea, egituratzea, laburtzea eta abar.
8. Mezuak igortzeko plangintza egitea, komunikazio helburua, testuingurua eta mintzakideak aintzat harturik: erregistroa, iritsi beharreko ondorioa, hiztunen arteko harremana eta abar.
9. Zuzentasun formala eta jarioasuna elkarrekin orekatuta egotea mezuak hel-larazi eta esangurak negoziatzeko, ahozko zein idatzizko diskurtsoen fun-tsezko ezaugarriak aintzat hartuta: etenak, ortografia, puntuazio zeinuak eta abar.
10. Ahozko zein idatzizko testuak sortzea, koordinazio eta subordinazio osagaiak erabiliz.

11. Gramatika osagaiak ezagutu eta erabiltzea norbere produkzioen kalitatea hobetu eta juzgu-gai gehiago izateko informazioa ulertu eta interpretatzekoan.
12. Ohartzea zenbateko garrantzia duen lexikoa ikasi eta etengabe handitzeak, hizkuntzaren osagai oinarrizkoetako bat baita, komunikazio trebetasuna eta haren barreneko azpi-trebetasunak hobetzeko.

II. Hizkuntzaren gaineko gogoeta

a) Hizkuntzaren funtzioak eta gramatika

1. Agurrak, nork bere burua eta besteak aurkeztea. Ohiturak, trebetasunak nola adierazi, gorputza eta nortasuna nola deskribatu, zer gustatzen zaizun eta zer ez nola adierazi.
 - Formulak. Orainaldi bakuna. Orainaldi jarraitua. *Can*.
 - *Love /like /dislike /hate* + gerundiozko aditza (*ing*).
 - Adjektiboa atribuzio eta predikazio kokaeran.
 - Adjektiboaren mailaketa: konparatiboa eta superlatiboa.
2. Kantitatea nola adierazi.
 - *Much / many / a lot of* + substantiboa.
 - *Too* + adjektiboa.
 - *Not* + adjektiboa + *enough*.
3. Iraganeko gertaerak eta biografiak kontatzea.
 - Lehenaldi bakuna. Lehenaldi jarraitua.
 - *Could*.
 - Denbora esapideak: *ago / since / for /later/ when / after / before / then*, eta abar.
 - Diskurtsoaren markatzaileak: Lokailuak eta barne loturarako beste baliabideak.
4. Bukatutako nahiz oraindik bukatu gabeko gertaeren gainean galdetu eta erantzutea, eta bai arestian gertatuen eta esperientzien gainean ere. Orainaldi perfektua+ *ever / never / just*.
 - Lehenaldi bakuna.

5. Sujerentziak egin eta haiei erantzutea.
 - *Let's...*
 - *How / What about + gerundioa (-ing)?*
 - *Why don't we...?*
 - *Shall we...?*
 - Baiezko, ezezko edo sujerentzia alternatiboa egiteko erantzunak.
6. Kontseilu ematea.
 - *Should / shouldn't.*
7. Planak, asmoak, aurreikuspenak, gertakortasuna, posibilitatea eta promesak nola adierazi.
 - Orainaldi jarraitua.
 - *Will / will not.*
 - *Be going to + infinitiboa.*
 - I motako baldintzazko esaldiak.
8. Obligazioa eta obligaziorik eza nola adierazi.
 - *Have to/don't have to.*
 - *Must / mustn't.*
 - *Should.*
 - Adberbioak.
9. Elaborazio prozesu bat behar duten produktuen gaineko informazioa eman eta eskatzea.
 - Pasiboa.
 - Sintagma adberbialak.

b) *Lexikoa*

1. Jorratu diren gaiet buruzkoa: harreman pertsonalak eta sozialak, hezkuntza, aisia, elikagaiak, tokiak, planak, biografiak eta abar.
2. Formulak eta esapideak.

c) *Fonetika*

1. Bereziki zailak diren zenbait fonema nola ebaki: bokalikoak, kontsonantikoak eta abar.

2. Forma laburtuak nola ebaki: *I've, I haven't, shouldn't*, eta abar.
3. Adizkietako bukaerak nola ebaki: / ed / lehenaldi bakunean, aditz erregular eta irregularretako partizipioak, eta abar.
4. Forma ahulak nola ebaki: *than, as, was / were*, eta abar.
5. Esaldiak eta hitzak nola azentuatatu.
6. Esaldien intonazioa.
7. Erritmoa.
8. Zenbait sinbolo fonetiko ezagutzea (IPA) hobekien ezagutzen dituzten hitz arrunten ebaketa transkribatzen dituztenak (hiztegia, haien testuliburuaren zerrrenda...).

III. Alderdi soziokulturalak

1. Formula linguistikoak nola egoki erabili (gizalegea, adostasuna, desadostasuna eta abar), komunikazio egoera zehatz baten arabera.
2. Herri eta kultura ingelesdunek berezko dituzten arau eta portaerak atzemaitea: bizimodua, umore zentzua eta abar.
3. Herrialde ingelesdunek berezko dituzten osagai kulturalak ezagutu eta baloratzea: jaiegunak, jaialdiak eta abar.
4. Ingeles hiztunak ezagutu eta haiekin komunikazio truke benetakoak egiteko interesa agertzea: posta elektronikozko mezuak, gomitak, kartak, solasaldiak eta abar.
5. Beste kultura batzuekin konparatzearen ondorioz norberaren kultura baloratzen laguntzeko moduko portaera ohiturak garatzea: ohiturak, tradizioak, ondare historiko artistikoa eta abar.
6. Ingeles hiztunenganako errespetua, zein ere jatorri, arraza edo ama hizkuntza duten, eginahala eginaz haiengana hurbildu eta komunikazioko oztipoak, aurrejuzguak, estereotipoak eta abar kentzeko.
7. Baloratzea ingelesak zenbateko garrantzia duen atzerriko hizkuntza hori berarikosten ari diren pertsonekin komunikatzeko bide gisa: eskola korrespondentzia, trukeak, eta abar.

8. Konturatzea ingelesak zenbateko tokia hartzen duen komunikazio teknologiko sistema berrietan eta zein baliagarria den hainbat jatorriko pertsonekin komunikatzeko: teknologia berrien bidez komunikatzea, interneten bilaldiak egitea, albiste taldeetan parte hartzea eta abar.
9. Konturatzea herri eta kultura desberdin askok forma kultural batzuk komunean dituztela ingelesari esker: musika, literatura, albisteak eta abar.
10. Hizkuntzaren agerkari espresibo edo artistikoak preziatzea.

Ebaluazio irizpideak

Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko mezuetan (buruz buruko komunikazio egoeretan edo komunikazio mekanikoko hedabideetan emanak) eta benetako testu idatzietan osotarako zein berariazko informazioa ateratzea eta testuingurutik inferentziak egiteko gai izatea.
2. Solasaldi laburretan parte hartzea eta komunikazio estrategia egokiena erabiltzea ulertzeko eta ulertarazteko eta nor bere informazioa besteri helaraztea.
3. Testuak luze irakurtzea hainbat helbururekin eta eginkizunen bat burutuz testua ulertu dela erakustea.
4. Testu errazak idaztea eta gramatika zein hitz egokiak erabiltzea eta bai irakurleak testua ongi ulertzeko behar diren barne loturako osagaiak ere.

Hizkuntzaren gaineko gogoeta

1. Ingelesaren kodeko alderdi formalei buruz ikasitakoak praktikan erabiltzeko trebetasunak agertzea (morfologia, joskera eta fonologia) eta horrek komunikazioan arrakasta izateko zenbateko garrantzia duen baloratzea.
2. Ingelesak dituen erregulartasunak hauteman, aztertu, eta arau batzuk itxuratzeko moduko hipotesiak egitea.
3. Pixkanaka gaizki asmatuak direla agertzen diren arauak baztertuz joatea.
4. Hizkuntzaren funtzio berarekin lotura duten forma linguistikoak atzeman eta erabiltzea.

Alderdi soziokulturalak

1. Testuen bidez garraiatzen diren formulak, arauak eta portaerak egoki interpretatzea eta jakingai kultural gehiago ikasteko interesa agertzea.
2. Beste kulturak ezagutzetik eta konparatzetik abiatuta norberarena ere baloratzea.
3. Helarazi nahi diren mezuak mintzakideak dituen ezaugarrien arabera moldatu eta hark ebakeran, azentuan edo ingelesaren jakite mailan izan ditzakeen diferentziak errespetatzea.
4. Preziatzea ingelesa jakiteak zenbateko garrantzia duen hainbat jatorriko pertsonekin komunikatzeko, komunikazioaren iniziatiba hartuz eta dibertsitate kultural eta sozialari buruzko errespetua agertuz.
5. Hizkuntzaren agerkari espresiboak edo artistikoak preziatzea.

Ingelesa IV

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko zein idatzizko testuen osotarako edukiari buruz hipotesiak egitea, bai testuko nola testuinguruko osagaietan, eta entzundako edo irakurritakoa oinarri hartuta ondoren hitza hartzea.
2. Ahozko zein idatzizko informazioak interpretatzean, hiztunaren helburua ulertzea, eta bai mezu inplizituak ere.
3. Testuetan informazio ezezagunen esangura zein den igartzea osagai linguistikoak interpretatuz: testuaren egitura, hitzen erabidea, etimologia, aurrizkiak eta atzizkiak eta abar.
4. Irakurtze estrategia bana erabiltzea testu motaren eta irakurtzearen helburuaren arabera.

5. Solasaldi naturaleko konbentzioak erabiltzea simulazio eginkizunetan: hitza hartzeko txanda, gai aldaketa eta abar.
6. Norbere produkzioak, ahozko zein idatzizkoak, nola hobetu gogoeta egitea.
7. Informazioak kode batetik beste batera aldatzea: ikustezkotik idatzizko/ahozkora, sinbolikotik hitzekora eta abar.
8. Ahozko zein idatzizko mezuak sortzean zuzentasun formala baloratzea.
9. Ahozko zein idatzizko testuak sortzea testuari barne lotura eta koherentzia emateko moduko osagaiak erabiliz: testu bilbea, denboran barna sekuentzia eta abar.
10. Helarazi nahi diren ideiak nola egituratu eta lerroaldeetan nola banatu: ideien plangintza eta garabidea, puntuazio zeinuak, lokailuak.
11. Gramatika osagaiak ezagutu eta erabiltzea norbere produkzioen kalitatea hobetu eta juzgu-gai gehiago izateko informazioa ulertu eta interpretatzekoan.
12. Ohartzea zenbateko garrantzia duen lexikoa ikasi eta etengabe handitzeak, hizkuntzaren osagai oinarrizkoetako bat baita, komunikazio trebetasuna eta haren barreneko azpi-trebetasunak hobetzeko.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

a) *Hizkuntzaren funtzioak eta gramatika*

1. Ohiturak eta bizimoduak deskribatu eta konparatzea.
 - Ohiko egintzetarako orainaldi bakuna.
 - Orainaldi jarraitua berriki gertatzen ari diren egintzetarako.
 - *Used to + infinitiboa*.
2. Iraganeko gertaerak edo orainaldiarekin lotutakoak nola adierazi.
 - Lehenaldi jarraituan emandako egintzak lehenaldi bakunean emandako beste batzuek etenak.
 - Lehenaldi perfektua: *for, since, already, yet*, eta abar.
 - Lehenaldi bakuna.
 - Subjektua eta objektuaren galderak: *who / what...?*
 - Diskurtsoaren markatzaileak.

3. Aurreikuspena egin eta asmoak adieraztea. Seguru zaudela eta uste duzula adieraztea.
 - *Will*.
 - *Be going to + infinitiboa*.
 - Orainaldi jarraitua.
 - Baldintzazko esaldiak (I mota).
 - *May / might / can / can't / could*, eta abar.
4. Zer nahiago duzun eta zer iritzi duzun nola adierazi. Gomitak egin eta haiei erantzutea.
 - Izenorde galdetzaileak.
 - *I love/ like / enjoy / don't like / hate + gerundioa (-ing)*.
 - Lokailuak: *and, but, because, so, such, both*, eta abar.
 - Adjektiboaren mailaketa: konparatiboa eta superlatiboa.
 - Gomita bat egin eta erantzuteko formulak.
5. Hipotesiak egin eta gomendioak ematea.
 - Baldintzazko esaldiak (II mota).
 - *Should / Shouldn't*.
6. Besteren ideiak eta iritziak nola adierazi.
 - Zehar estiloa.
 - Denbora esapideak.
7. Prozesuak eta aldaketak nola adierazi.
 - Pasiboa lehen eta orainaldian.
8. Gauzak, tokiak eta pertsonak deskribatu eta identifikatzea.
 - Izenorde erlatiboak: *who / which / that / where*.
 - *Some / any*-ren bidez konposatuak.
 - Erlatibo esaldi murriztaileak.

b) *Lexikoa*

1. Jorratu diren gaien buruzkoa: harreman pertsonalak eta sozialak, komunikabideak, aisia, sentimenduak, tokiak, ingurumena, ospakizunak, ikasketak, lan mundua, mundu akademikoa, eta abar.
2. Formulak eta esapideak.
3. Hitzen erabideak: aurrizkiak, atzizkiak, hitz elkartuak, eratorriak eta abar.

c) *Fonetika*

1. Bereziki zailak diren zenbait fonema nola ebaki: bokalikoak, kontsonantikoak, diptongoak.
2. Forma laburtuak nola ebaki: *can't, couldn't, won't, wouldn't*, eta abar.
3. Adizkietako bukaerak nola ebaki: gerundioa (*-ing*), aditz erregular eta irregularrretako partizipioak, eta abar.
4. Forma ahulak nola ebaki: *the, than, as*, eta abar.
5. Esaldi eta hitz konposatuak nola azentuatuz: bi silaba baino gehiagoko hitzak.
6. Esaldiak nola intonatu: galderen intonazioa aldiaren arabera, eta abar.
7. Erritmoa.
8. Zenbait sinbolo fonetiko ezagutzea (IPA) hobekien ezagutzen dituzten hitz arrunten ebaketa transkribatzen dituztenak (hiztegia, haien testuliburuaren zerranda...).

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Osagai semiotikoak (jestuak edo osagai proxemikoak) nola moldatu mintzazkidearen arabera, norbere izaera bortxatu gabe.
2. Erregistro egokia erabiltzea komunikazio egoeraren arabera: formala, neutroa, informala eta abar.
3. Komunikabideetan garraiatzen diren albiste edo gaurko gaietan ikuspuntu soziokulturalak antz emateko interesa izatea.
4. Lantzen ari diren testuetan inplizitu dauden alderdi soziokulturalak atzemaitea: ohiturak, tradizioak, ospakizunak eta abar.
5. Intereseko gaien gainean izaten diren iritzi diferentziak errespetatzea eta ikuspuntu soziokultural desberdinak ulertzea.
6. Ingelesa erabiltzea kultur arteko topaketak faboratzeko: karta trukea, teknologia berrien bidezko trukeak eta abar.
7. Baloratzea ingelesak zenbateko garrantzia duen komunikazio teknologikoko bide berrietan nazioarteko harremanak faboratzeko tresnatzat: internet, albiste taldeak eta abar.

8. Hizkuntza komunitate bereko talde desberdinek ageri dituzten ezaugarri kultural eta portaera sozialak sakonago ezagutzea.
9. Ingeleseko mezuak ulertu eta norberaren mezua ingelesez ulertarazteko jarrerara positiboa izatea eta estilo formalak zein informalak mintzakidearen arabera errespetatzea.
10. Hizkuntzaren agerkari espresiboak edo artistikoak preziatzea.

Ebaluazio irizpideak

Komunikazio trebetasunak

1. Ahozko testuetako informazio osotarakoa zein berariazkoa, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ateratzea, ikasleentzat ezagunak diren gaien gainean edo ingelesa mintzatzen den herrietan gizarte eta kulturaren eguneroko alderdien gainean, eta bai askotariko testu idatzi errealetan (deskripzioak, kontraerak, argudiozko testuak, azalpenekoak eta abar), zer den gertaera eta zer iritzia bereiziz eta autoreak zer argudio nagusi erabiltzen dituen atzemanaz.
2. Solasaldietan parte hartzea eta komunikazioa hasi, mantendu eta aurrerazteko estrategia egokiak erabiltzea, diskurtso ulergarria eta egokia sortuz komunikazio egoerarako eta komunikazioaren helbururako.
3. Nork bere kabuz askotariko materialak irakurtzea, norbere helburuaren arabera (kontsulta, informazioa bilatzea, irakurketa xehatua, atsegina eta abar).
4. Testu idatziak sortzea hainbat komunikazio helbururen arabera, eta testuari koherentzia eta barne lotura ematen dizkioten osagaiak errespetatzea, testua irakurleak ongi ulertzeko modukoa izan dadin.

Hizkuntzaren gaineko gogoeta

1. Ohartuki erabiltzea sistema linguistiko berriaren gainean ikasitakoak, norbere produkzioak kontrolatu eta zuzentzeko tresnatzat eta besterenak hobeki ulertzeko bidetzat.
2. Atzerriko hizkuntzaren hizkuntza sistemak berezko dituen erregulartasun eta salbuespenen gainean gogoeta egitea.

3. Behar bezalako kontzeptuazio maila iristea hizkuntzaren funtzioei, osagai linguistikoei, testuen formatu eta ezaugarriei, diskurtsoaren koherentzia eta barne-loturari dagokienez.
4. Ohartuki lehendik ikasitako ikasketa mekanismoak norbereganatzea (dedukzioak egitea, indukzioak, sailkatzea, kategoriak ezartzea, hitzak eratzea) ikasketaren egoera berrietan.

Alderdi soziokulturalak

1. Erreferentzia kulturalak atzeman eta interpretatzea, hartarako klabe linguistikoak eta ez linguistikoak erabiliz, ulermenaren lagungarri.
2. Komunikabideetan gaurko gaien gainean garraiatzen diren informazioetan osagai soziokulturalari antz ematea.
3. Jarrera kritikoa, errespetuzkoa eta gogoetazkoa agertzea diferentzia soziokulturaletatik heldu diren iritzi diferentzietan.
4. Positiboki baloratzea beste kulturek gure kultura nola aberasten duten eta alderantziz, kultur arteko trukeek dakarten abantaila preziatuz.
5. Hizkuntzaren agerkari espresiboak edo artistikoak preziatzea.

Prozedurak

Ahozko komunikazioan

- a) Hainbat iturritarik heldu diren ahozko mezuak osotara ulertzea: mintzakideak, komunikabideak eta abisuak.
- b) Ardurako osagaiak zein diren atzeman.
- c) Ahozko mezuak interpretatzea, oinarrizko datuak zein diren eta bigarren mailakoak zein diren bereiziz.
- d) Ahozko mezu ulergarriak sortzea.
- e) Aditzera eman nahi diren ideien antolamendu koherentea.
- f) Osagai linguistikoak komunikazio helburuaren arabera moldatzea (hitzak, egiturak).

- g) Ahozko elkarrizketetan parte hartzea nahi diren funtzioak adierazteko; bertan estrategia linguistikoak erabiltzea (argitasunak eskatu, perifrasiak eta abar) eta bai ez linguistikoak ere (jestuak, soinuak eta abar).
- h) Ebakera ulergarria eta intonazio egokia.

Komunikazio idatzian

- a) Ikasgelako jardurekin lotura duten testuak ulertzea (jarraibideak, abisuak, lannen gaineko iruzkinak).
- b) Ikasleen esperientziarekin eta ondare kulturalarekin lotura duten testuak osotara ulertzea.
- c) Hiztegia eta irakaslea lagun, komunikabideetatik hartutako zenbait testu osotara ulertzea.
- d) Testu idatzi artaz aukeratuetatik berriazko informazioak ateratzea.
- e) Testu idatzien motak bereiztea.
- f) Haien egitura atzematea.
- g) Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea.
- h) Hitz ezezagunen esangura deduzitzeko estrategiak erabiltzea: testuingurua, beste hizkuntzekin duten antza eta abar.
- i) Hiztegiak eta gramatika erabiltzea, testu idatziak ulertzeko eta bai sortzeko ere.
- j) Testu idatzi sinpleak sortzea: oharrak, karta pertsonalak, gomitak, artikulua laburrak.
- k) Ideiak laburki eta ordenatuki aurkeztea: gidoi bat egitea.
- l) Lexikoa komunikazio idatziaren motaren arabera moldatzea eta ohiko gizalege formulak erabiltzea.
- m) Puntuazio zeinuak egoki erabiltzea.

Hizkuntzaren gaineko gogoetan

- a) Egitura gramatikal oinarrikoak aztertzea, erregularitasun morfologiko, sintaktiko eta lexikoak hautemanaz.
- b) Arau gramatikalak bilatu, ordenatu eta ondoren taula gramatikal pertsonalak itxuratzea.

- c) Hiztegia eta kontsulta liburuak erabiltzea hainbat alderdi linguistikoren gaineko informazioa eskuratzeko.
- d) Lexiko berria ikastea hiztegia erabiliz eta hitzen erabidea jakinez.
- e) Lexikoa sailkatzea, dela fitxak, dela alfabetoaren arabera zerrendak edo arlo semantikoak erabiliz.
- f) Hizkuntzak berezko dituen soinuak atzematea eta maiz praktikatzea, bai bera-riazko ariketak eginaz eta bai ozenki irakurriz.

Eduki soziokulturaletan

- a) Herri ingelesdunek Nafarroan eta Espainian izan duten eragina atzematea.
- b) Nafarroa, Espainia eta herri ingelesdunen arteko harreman sozial, kultural eta ekonomikoak aztertzea.
- c) Herri ingelesdunen zenbait alderdi soziokultural aztertzea, komunikabideetan agertzen direnak.
- d) Herri ingelesdunen portaera arau eta ohitura batzuk erabiltzea (agurra, aurkezpena, gomitak eta abar) egoera simulatuetan.
- e) Herri ingelesdunen bizimoduko zenbait alderdi gureekin konparatzea.
- f) Material errealak erabiltzea herri ingelesdunen kultura hobeki ulertzeko.

Jarrerak

Ahozko komunikazioan

- a) Ikasten ari den hizkuntzan ahozko komunikazioan parte hartzeko interesa, talde jarduera guztietan parte hartuz.
- b) Ingelesa hitz egiten dutenen alderako jarrera errespetuzko eta irekia izatea, irakasleak izan, natiboak, edo huts asko egiten dituzten ikasleak izan.
- c) Konturatzea gauza zarela mezu bat oro har ulertzeko, osagai guzti-guztiak ulertzen ez badituzu ere.
- d) Norbere hutsa edo besteren hutsa ikas prozesuko nahitaezko osagai direla ulertzea.
- e) Ahozko komunikazioan baliabide faltan sortzen diren problemak eta oztopoak gainditzea.

Idatzizko komunikazioan

- a) Ingelesezko idazki bateko ideiak ezagutzeko interesa eta jakin-mina.
- b) Ulermenean sortzen diren zailtasunak gainditzeko joera, azaldu diren estrategiak erabiliz.
- c) Ingelesez eskuragai dauden informazioen aurreko jarrera irekia.
- d) Konturatzea testu idatzi bat oro har ulertzeko gauza zarela, osagai guzti-guztiak ulertzen ez badituzu ere.
- e) Idatzizko trukeak egiteko interesa, eskolako jardueren artean (karta trukea).

Hizkuntzaren gaineko gogoetan

- a) Komunikazio gaitasuna garatzeko egokienak diren ikasgela jardueretan parte hartu eta ardura bizkorra hartzea.
- b) Ikasten ari den hizkuntza zuzen erabili beharra ulertzea, komunikazio jariotsu eta eraginkor bat segurtatzeko.
- c) Norberak aurrera egiteko eta ikasten ari den hizkuntza maila egoki batera iristeko duen gaitasunean sinistea.
- d) Ikasgelako materialen alderako errespetua, ikasketa jarduerak egiteko guztien lagungarri baitira (jokoak, posterrak, mapak eta abar).

Alderdi soziokulturaletan

- a) Baloratzea zenbat aberasten duen norbera beste kultura bateko pertsonekin harremanetan sartzeak.
- b) Herri ingelesdunetako bizimodua eta beste zenbait alderdi soziokultural eza-egutzeko irrika, errespetua eta modu kritikoan baloratzea.

Euskara eta Euskal Literatura.

A Eredua

Sarrera

Euskara eta Euskal Literaturaren helburua ikasle guztiek hizkuntza horretan komunikatzeko gaitasuna lortzea da, bai ahoz, bai idatziz, maila aski izanik eraginkortasunaren eta zuzentasunaren aldetik. Horretarako, beharrezkoa da behin eta berriz trebatzea entzuten eta irakurtzen dutena ulertzen, baita mintzatzen eta idazten ere, hizkuntzaren egitura formalak jakitea ahortzi gabe.

Testu mota desberdinak ezagutu eta erabiltzea izanen da arloaren curriculum aurreratuko duen ardatz nagusia. Gaitasun pragmatikoa landuko da bereziki, erran nahi baita, hizkuntza testuingurura egokitzeko gaitasuna.

Hizkuntzari bakarrik dagozkion trebetasunez gain, ikas teknikak ere garatuko dira. Nahitaezkoa da ikasleen eskutan jartzea ikaskuntza beregaina lortzeko gaitasuna bultzatuko duten tresnak eta materialak, baita teknologia berriek eskura jartzen dizkiguten baliabideak erabiltzea ere.

Euskara eta Euskal Literatura arloaren edukiak eta xedeak aplikatzeko tenorean, kontuan hartu beharra dago hizkuntza estandarra eratzeko gaur egun gauzatzen ari den prozesua, Nafarroako aniztasun soziolinguistikoa ahortzi gabe, bere euskalki desberdinekin, eduki eta helburu horiek kasuan kasuko eskualdean egokitu ahal izateko.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende

dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketari trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkieten askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Arloko hiztegi berariazkoa eta kontzeptu oinarrikoak zehaztasunez erabiltzea.
3. Ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzea, funtsezko ideiak eta ez funtsezkoak bereiziz.
4. Gramatika aldetik zuzen eta behar bezalako intonazioaz mintzatzea.
5. Hainbat motatako testuak idaztea, zuzentasunez, adierazmen aberatsez, kohesioz eta koherentziaz.
6. Ahoz inprobisatzeko gaitasuna garatzea eztabaidetan, antzezpenetan eta abarretan.
7. Euskara ikasi eta erabiltzeko baliabide sozialak ezagutzea.
8. Euskara baloratzea Nafarroako kultur ondare gisa.
9. Euskara batzeko eta estandarizatzeko prozesua baloratzea eta ezagutzea.
10. Euskalkiak ezagutzea, bereiztea eta baloratzea.
11. Euskararen historiaren datu funtsezkoak jakitea, baita inguruko hizkuntzekin izan dituen harremanen ingurukoak ere.
12. Euskal idazleen puntako lanak ezagutzea.
13. Ahozko nahiz idatzizko literaturaren adierazpide guztiak, plazer estetikoaren eta bizi sozialaren eta giza esperientziaren ezagutzaren iturritzat hartzea.
14. Gaitasun kritikoa garatzea, mota guztietako testu idatzien eta ahozko mezuen aitzinean.

Euskara eta Euskal Literatura I

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Trebetasun komunikatiboak*

1. Egunaren une desberdinetako diosalik ohikoenak jakin eta erabiltzea komunikazio egoera desberdinetan.
2. Nork bere burua aurkeztea eta besteak ere bai.
3. Oinarrizko galde-erantzunak lantzea: jattetxean, dendan eta abarretan.
4. Bakoitzaren gustuen gainean galdetzea koloreez, kirolez, janariez eta musikaz den bezainbatean.
5. Testu idatzi laburrak prestatzea, ikasle guztiek ezagutzen dituzten egoera eta lekuen gaineko solasaldiak dituztenak.
6. Euskarazko kantuak entzun eta kantatzea.
7. Testu motzak edo liburuetakoko pasarteak ozenki, argi eta behar bezalako intonazioaz irakurtzea.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

1. Grafiak eta ahoskapena.
2. Aditzak: sistema hauen adizkiak eta erabilera: NOR, NOR (3. pertsona)-NORI eta NOR (3. pertsona)-NORK, orainaldian. Adizki hauek ulertzea: *zaitez* eta *ezazu*. Aditz hauen orainaldia: *Egon* eta *joan*. *Nor* objektu plurala bereiztea *dut-dituz* aditzean.
3. Deklinabidea: oinarrizko erantzunak *nor* eta *nolako* galderei, singularrez eta pluralez, eta *nork*, *nori*, *noren*, *norekin*, *non*, *nondik* eta *nora* galderei, singularrez. Erantzunak *nola* eta *zenbat* galderei. *Nor* eta *nork* erakusleak, singularrez eta pluralez.
4. Leku-posposiziorik ohikoenak.

5. Izen sintagmaren eta baiezko eta galderazko esaldien oinarritzko egitura.
6. Zenbaki kardinalak eta ordinalak.
7. Adberbiorik ohikoenak, moduzkoak, lekuzkoak eta denborazkoak.
8. Hiztegia: familia, koloreak, elikagaiak, gela, etxea, zenbait hiri eta herritako euskal izenak.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Ohitura eta besta batzuen ezagutza: eguberriak eta inauteriak.

Euskara eta Euskal Literatura II

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Trebetasun komunikatiboak*

1. Argibideak eskatu eta ematea, herri edo eskualde batean toki zehatz batera ailegatu ahal izateko.
2. Herri edo auzo bateko alderdi baten deskripzioa idatziz egitea eta gero ahoz azaltzea.
3. Gai baten gaineko ahozko eztabaida egitea, xede edo iritzi desberdinak agertuz.
4. Merkatu baten antzezpena egitea, saltoki desberdinetan izan daitezkeen solasekin.
5. Kontakizun edo ipuin motzak idaztea, gertakari egiazko nahiz alegiazkoetatik abiatutako solasaldi eta deskripzioak erabiliz.
6. Gutun laburrak, postalak, gaztiguak, etab. idaztea.
7. Testu motz egokituak edo maila errazekoak beregain idaztea.
8. Maila errazeko liburu bat hiztegiaren laguntzaz irakurtzea.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

1. Aditzak: sistema hauen adizkiak eta erabilera: NOR, NOR (3. pertsona)-NORI eta NOR (3. pertsona)-NORK orainaldian, NOR eta NOR (3. pertsona)-NORK lehenaldian. Aginteraren adizkirik ohikoenak. Aditz hauen orainaldia: *egon, joan, etorri eta eduki*. Nor objektu plurala bereiztea *dut-ditut* aditzean.
Aspektuen bereizketa: burutua, burutugabea eta geroaldia. Aspektu puntu-karia: *ari naiz*.
2. Deklinabidea: oinarrizko erantzunak *nor, non* eta *nolako* galderei, singularrez eta pluralrez, eta *nork, nori, noren, norentzat-norendako, norekin, non, non-dik* eta *nora* galderei singularrez. *Noren* eta *nongo* bereiziz erabiltzea. *Nor, non* eta *nork* erakusleak, singularrez eta pluralrez. Izenordain pertsonalen deklinabidea.
3. Leku-posposizioak.
4. Baiezko, ezezko eta galderazko esaldien oinarrizko egitura.
5. Orduak.
6. Emendiozko esaldiak eta esaldi hautakariak. Konpletiboen egitura: -(e)la.
7. Konparazioa: baino -ago.
8. Iritzi eta mailaketarako adberbio ohikoenak.
9. Hiztegia: denbora kronologikoa, natura, ikuskizunak, bestak, hiri eta herrietako euskal izenak.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Bertsolaritzaren eta bertsolarien oinarrizko ezagutzak.
2. Auzolana.

Ebaluazio irizpideak

1. Ikaslearen errendimendua, aurrerapena eta bilakaera, norbere lana gelan eta etxean. Bakarka nahiz taldeka lan egiteko gaitasuna. Azalpen teorikoei jar-tzen zaien arreta eta segimendua eta kontzentrazio gaitasuna.

2. Norberaren nahiz gainerako ikaskideen produkzio eta agerpenekiko errespetua.
3. Proposatzen zaizkion ahozko nahiz idatzizko mezuen zentzu orokorraren ulermena, eta hura haien gaineko galderak erantzunez erakustea.
4. Ozenki irakurtzea, argi eta behar bezalako intonazioaz ahoskatuz.
5. Ikusitako eduki gramatikalak bereganatu dituela erakusten duten esaldiak egitea.
6. Ahozko nahiz idatzizko testuak egitea, gutxieneko koherentziaz eta antolamenduaz, oinarritzko gramatika arauak begiratzuz.
7. Beregain edo hiztegi baten laguntzaz liburu erraz edo egokitua irakurtzea, eta haren gaineko galdera zehatzak erantzunez ulertu duela erakustea.

Euskara eta Euskal Literatura III

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Trebetasun komunikatiboak*

1. Herri, eskualde edo alderdi natural baten deskripzio idatzizko eta ahozkoa.
2. Halako egun batean egiten duen eguraldiaren gaineko solasaldia.
3. Besta baten edo kultur ekintza baten kartela egitea.
4. Alegia txiki bat egitea, protagonistatzat animalia ezberdinak izanen dituena.
5. Irratirako iragarki bat grabatzea, kirol edo musika gertakari baten gainean.
6. Lagunei edo familiakoei gutunak idaztea, lantokitik, oporlekutik eta abarretatik.
7. Asteburu baterako aukera desberdinen gaineko solasa.
8. Herriko, auzoko eta abarretako pasadizoren baten antzezpena.

9. "Chat" motako elkarrizketa bat egitea eta, ahal bada, Interneteko foro batean parte hartzea.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

1. Aditzak: sistema hauen adizkiak eta erabilera: NOR, NOR (3. pertsona)-NORI eta NOR (3. pertsona)-NORK orainaldian, NOR eta NOR (3. pertsona)-NORK lehenaldian. aginteraren adizkirik ohikoenak. Aditz hauen orainaldia: *egon, joan, etorri, jakin* eta *eduki*. Nor objektu plurala bereiztea *dut-ditut* aditzean. Aspektuen bereizketa: burutua, burutugabea eta geroaldia. Aspektu puntuakaria: *ari naiz* eta *ari nintzen*. *Nahi izan, behar izan, ezin izan* eta *ahal izan* aditzen erabilera.
2. Deklinabidea: oinarrizko erantzunak *nor, nork, non, nora* eta *nolako* galderei, singularrez eta pluralez, *nori, noren, norentzat-norendako, norekin, norantz* eta *nondik* galderei. Ergatiboaren eta partitiboaren erabilera. *Nor, non, nora* eta *nork* erakusleak, singularrez eta pluralez.
3. Leku-posposizioak eta maiz erabiltzen diren beste batzuk.
4. Baiezko, ezezko eta galderazko esaldien ordena.
5. Ere, baina eta hala ere nola erabili.
6. Oso maiz erabiltzen diren atzizki batzuen ezagutza: -ari, -garri, -keta, -aldi, -tegi.
7. Konpletiboak: -(e)la, -(e)n. Nominalizazioa: -t(z)ea.
8. Testuko lokailu eta antolatzaile batzuk: *gainera, orduan, beraz, adibidez*.
9. Hiztegia: eguraldia, arbolak, itsasoa, bidaiak, harremanak.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Euskal mitologiaren pertsonaia batzuk ezagutzea, ipuin, elezahar eta abarren bidez.

Ebaluazio irizpideak

1. Ikaslearen errendimendua, aurrerapena, bilakaera eta partaidetza aktiboa. Norbere lana gelan eta etxean, bakarka nahiz taldeka. Lan girorako lankide-

tza eta taldearen ikaskuntza dinamikarako ekarpen positiboa. Azalpen teori-koei jartzen zaien arreta eta segimendua eta kontzentrazio gaitasuna gelako lanetan.

2. Proposatzen zaizkion ahozko nahiz idatzizko mezuen zentzu orokorraren ulermena, funtsezko ideiak eta ez funtsezkoak bereiziz, eta hura haien gaineko galderak erantzunez erakustea.
3. Hezkuntza aldetik xede desberdinak dituzten testuak ozenki irakurtzea, argi, behar bezalako intonazioaz eta adierazkortasunez ahoskatuz.
4. Ikusitako eduki gramatikalak bereganatu dituela erakusten duten esaldiak egitea.
5. Ahozko nahiz idatzizko testuak egitea, aldez aurreko plangintzari jarraikiz, hitz egokiak erabiliz eta oinarrizko gramatika arauak begiratzuz.
6. Hiztegiaren eta bestelako materialen aprobetxamendu egokia, testuak ulertu eta sortzean.
7. Beregain edo hiztegi baten laguntzaz liburu erraz edo egokitu bat edo bi irakurtzea, eta haren gaineko galdera zehatzak erantzunez ulertu duela erakustea.

Euskara eta Euskal Literatura IV

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Trebetasun komunikatiboak*

1. Toki urrunen baten deskripzioa eta iraganean kokaturiko gertaeraren baten kontakizuna.
2. Azoka txiki, artisau azoka eta abarretako solasen antzezpena.
3. Eztabaida: nola lortu dirua ikasketa bidaia egiteko.
4. Ipuinak, gutunak, egunkari bateko pasarteak idaztea, orainaldia, lehenaldia eta aspektu desberdinak erabiliz.

5. Klaseak funtzionatzeko dekalogoia prestatzea.
6. Baliabide materialak, diru laguntzak, argibideak, etab., idatziz eskatzea, udal arduradunei, Estatuko erakundeei eta abarrei.
7. Ipuinak edo kontaketak entzutea.
8. Ikastetxean mintzaldia eman behar duen idazle batendako galderak prestatzea.
9. Gidoia idatzia prestatzea, herriko, auzoko, eskualdeko eta abarretako alderdiren baten gainean eta, ahal bada, bideoz grabatzea.
10. Solasaldia, arropa denda batean.

II. *Hizkuntzaren gaineko gogoeta*

1. Aditzak: sistema hauen adizkiak eta erabilera: NOR, NOR (3. pertsona)-NORI eta NOR (3. pertsona)-NORK orainaldian, NOR eta NOR (3. pertsona)-NORK lehenaldian. NOR-NORI (3. pertsona)-NORK orainaldian. Aginteraren adizkirik ohikoenak. *Daiteke* eta *dezake* adizkiak. Aditz hauen orainaldia: *egon, joan, etorri, ibili, eraman, jakin* eta *eduki*. *Zegoen, zeukan, zetorren, zekien* adizkiak.
Aspektuak: burutua, burutugabea, geroaldia eta puntukaria. *Nahi izan, behar izan, ezin izan* eta *ahal izan* aditzen erabilera.
2. Deklinabidea: erantzunak *nor, nori, nork, non, nora* eta *nolako* galdereri, singularrez eta pluralez, eta *noren, norentzat-norendako, norekin, norantz, noraino, nondik* eta *zerez* galdereri, singularrez. Ergatiboaren eta partitiboaren erabilera. *Nor, non, nora* eta *nork* erakusleak, singularrez eta pluralez, eta *noren, norentzat-norendako norekin* erakusleak, singularrez. Norengana kasuko izenordain pertsonalen deklinabidea.
3. Leku-posposizioak eta beste batzuk: *esker, aurka, buruz, bidez*.
4. Atzizki batzuen ezagutza: *-tzaile, -le, - (t)asun, -gailu*.
5. Nominalizazioak: *-t(z)ea* eta *-t(z)eko*.
6. Testuko lokailu eta antolatzaile batzuk: *horregatik, bestela, agian, gainera, orduan, beraz, adibidez, dena dela*.
7. Esaldien egitura: *-(e)enean* eta *-(e)lako*.
8. Adjektiboaren gradazioa.

9. Harridurazko esaldi batzuk: Bai zera! Hau beroa! Zein(en) ongi!
10. Hiztegia: lana, nekazaritza, abeltzaintza, merkataritza, zaletasunak, sentimenduak, giza gorputza.

III. *Alderdi soziokulturalak*

1. Puntako euskal idazle batzuen ezagutza, jatorrizko testu erraz edo egokituen bidez.

Ebaluazio irizpideak

1. Ikaslearen errendimendua, aurrerapena, bilakaera eta partaidetza aktiboa. Norbere eguneroko lana gelan eta etxean, bakarka nahiz taldeka. Azalpen teorikoak eman bitartean jarritako arretaren balorazioa. Lan girorako laguntza eta taldearen ikaste dinamikarako ekarpena.
2. Norberaren ekimenaren garapena, jarduerak proposatu eta horiek bururatzerakoan.
3. Ahozko nahiz idatzizko mezuen zentzu orokorraren ulermena, funtsezko ideiak eta ez funtsezkoak bereiziz, eta haien gainerako galderak erantzunez erakustea eta, ahal baldin bada, horren gainerako iritziak ematea.
4. Ikusitako eduki gramatikalak bereganatu dituela erakusten duten esaldiak egitea.
5. Ahozko nahiz idatzizko testuak egitea, aldez aurreko plangintzari jarraikiz, hitz egokiak erabiliz eta gramatikako oinarriko arauak begiratzuz.
6. Hiztegiaren eta bestelako materialen aprobetxamendu egokia, testuak ulertu eta sortzerakoan.
7. Beregain edo hiztegi baten laguntzaz, puntako euskal idazleen pasarte erraz edo egokituak irakurtzea, baita liburu jatorrizko edo egokituren bat edo bi irakurtzea ere, eta lan berariazkoren baten bidez ulertu dituela erakustea.

Prozedurak

1. Ikastetxeko liburutegia erabiltzea eta haren baliabideak aprobetxatzea.
2. Gelako material berariazkoak zuzen eta txukun erabiltzea.

3. Lortutako informazioak antolatzea eta haietatik ondorioak ateratzea, alderdi batzuetan sakonduz.
4. Hizkuntzaren erregistro ezberdinak bereiztea, baita informazio mailak ere.
5. Inkesta pertsonala erabiltzea, oharrak eta ikastetxetik kanpo hartutako grabazioak informazio iturritako erabiliz.
6. Oharrak eta apunteak hartzea, azpimarrak egitea, etab.
7. Eskemak, laburpenak, laukiak, etab. egitea.
8. Idatzizko lanetan lehenetsunak ezartzea: aurkezpenaren argitasuna, ortografia, puntuazioa, zuzentasun gramatikala, adierazmen aberatsa, testuaren koherentzia, kohesioa eta egokitasuna, kalitatea, sakontasuna eta edukiaren originaltasuna.
9. Ahozko azalpen eta ariketetan lehenetsunak ezartzea: ahoskapen, intonazio eta erritmo egokiak, zuzentasun gramatikala, gaiaren aurrerapena eta inprobisatzeko gaitasuna, edukiaren kalitatea eta originaltasuna.
10. Literatur eta publizitate testuak irakurri eta entzutea.
11. Iritzi pertsonala lantzea gaurkotasuna duen testu edo gai baten gainean.
12. Mezuak testu mota desberdinetan alderatzea.
13. Trafiko seinaleetan, publizitatean eta abarretan erabiltzen diren ikonoen azterketa, ahozko hizkerarekin duten harremanaren ikuspegitik.
14. Testu mota desberdinen ereduak aztertzea eta, teknika horietatik abiatuta, testu berriak sortzea.
15. Testuak prestatzeko eredu eta aukera berriak sortzea.
16. Lanak proposatzea (gelako edo ikastetxeko egunkaria, irratsaioa, bideoa, web orriak, etab.), norbanakoaren nahiz taldearen beregaintasuna eta ekimena garatu beharrez.

Jarrerak

1. Adierazpen zuzen eta aberatsaren garrantzia baloratzea, hala idatzizkoa nola ahozkoa, eta hura hobetzeko nahia.
2. Literaturaren balioaz ohartzea, plazer estetikoaren, informazioaren eta kultur transmisioaren iturria den aldetik.

3. Hizkuntzaren inguruko gehiegikeriez jabetzea (erabilera baztertzaila edo iraingarriak, etab.), jarrera kritikoa hartuz.
4. Besteen iritzia entzuten eta errespetatzen jakitea.
5. Lan baten plangintzaren, akaberaren eta geroko zuzenketaren garrantzia baloratzea.
6. Norberaren akatsak eta zuzendu beharra naturalki onartzea.
7. Inguruko (herriko, ibarreko, auzoko eta abarretako) kulturaren altxorra jakintza iturri gisa baloratzea, erranairu, ipuin, elezahar, kantu eta toponimoen bidez.
8. Mezu batean, zehaztasunaren eta laburtasunaren garrantziaz ohartzea.
9. Beste hizkuntza eta kulturetako literatur produkzioaz interesatzea.
10. Literatur adierazpide desberdinen balioaz ohartzea (poemak, egunkariak, gutunak, ipuinak, antzerkia, etab.) oroitzapenak, esperientziak, desirak eta sentimenduak transmititzeko bitartekoak diren aldetik.
11. Batu estandarren eta euskalkien bateragarritasuna modu positiboan baloratzea, haien osagarritasuna aintzat hartuz eta tokian tokiko aldaerak erabiltzen diren lekuetan erabiltzearen aldeko jarrera piztuz.
12. Batu estandarra eratzeko ahalegina baloratzea.
13. Euskarak duen balioaz ohartzea, Nafarroako kultur ondare gisa.
14. Lortutako informazioen kontrastearen eta norberaren gogoetaren garrantzia baloratzea, iritzi pertsonala lantzeko funtsezko egitate gisa.
15. Jarrera kritikoa bereganatzea, hedabideen mezuen aitzinean.
16. Bakarkako lana eta talde lana elkarren osagarritzat eta beharrezkotzat jotzea.
17. Jarrera irekia hartzea, teknologia berriek informazioak jaso eta mezuak eta ideiak hedatzerakoan eskaintzen dituzten baliabideen aitzinean.

Euskara eta Euskal Literatura.

D Eredua

Sarrera

Euskara eta Euskal Literaturaren helburua ikasle guztiek hizkuntza horretan komunikatzeko gaitasuna lortzea da, bai ahoz, bai idatziz, maila aski izanik eragin-kortasunaren eta zuzentasunaren aldetik. Horretarako, beharrezkoa da behin eta berriz trebatzea entzuten eta irakurtzen dutena ulertzen, baita mintzatzen eta idazten ere, hizkuntzaren egitura formalak jakitea ahortzi gabe.

Testu mota desberdinak ezagutu eta erabiltzea izanen da arloaren curriculum aurreratuko duen ardatz nagusia. Gaitasun pragmatikoa landuko da bereziki, erran nahi baita, hizkuntza testuingurura egokitzeko gaitasuna.

Hizkuntzari bakarrik dagozkion trebetasunez gain, ikas teknikak ere garatuko dira. Nahitaezkoa da ikasleen eskutan jartzea ikaskuntza beregaina lortzeko gaitasuna bultzatuko duten tresnak eta materialak, baita teknologia berriek eskura jartzen dizkiguten baliabideak erabiltzea ere.

Euskara eta Euskal Literatura arloaren edukiak eta xedeak aplikatzeko tenorean, kontuan hartu beharra dago hizkuntza estandarra eratzeko gaur egun gauzatzen ari den prozesua, Nafarroako aniztasun soziolinguistikoa ahortzi gabe, bere euskalki desberdinekin, eduki eta helburu horiek kasuan kasuko eskualdean egokitu ahal izateko.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende

dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketari trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkieten askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Arloko hiztegi berariazkoa eta kontzeptu oinarrikoak zehaztasunez erabiltzea.
3. Ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzea, funtsezko ideiak eta ez funtsezkoak bereiziz.
4. Gramatika aldetik zuzen eta behar bezalako intonazioaz mintzatzea.
5. Hainbat motatako testuak idaztea, zuzentasunez, adierazmen aberatsez, koherentziaz eta koherentziaz.
6. Ahoz inprobisatzeko gaitasuna garatzea eztabaidetan, antzezpenetan eta abarretan.
7. Euskara ikasi eta erabiltzeko baliabide sozialak ezagutzea.
8. Euskara baloratzea Nafarroako kultur ondare gisa.
9. Euskara batzeko eta estandarizatzeko prozesua baloratzea eta ezagutzea.
10. Euskalkiak ezagutzea, bereiztea eta baloratzea.
11. Euskararen historiaren datu funtsezkoak jakitea, baita inguruko hizkuntzekin izan dituen harremanen ingurukoak ere.
12. Euskal idazleen puntako lanak ezagutzea.
13. Ahozko nahiz idatzizko literaturaren adierazpide guztiak, plazer estetikoaren eta bizi sozialaren eta giza esperientziaren ezagutzaren iturritzat hartzea.
14. Gaitasun kritikoa garatzea, mota guztietako testu idatzien eta ahozko mezuen aitzinean.

Euskara eta Euskal Literatura I

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. Ahozko informazioa eta haren idatzizko transmisioa.
2. Ezagutza orokorrak testu baten ezaugarriez, komunikazio unitate oinarrizkoa den aldetik: mintzakidearen ezaugarriak, espazioa, denbora, komunikazio asmoa, erregistroa, etab. Testuen oinarrizko sailkapena haien komunikazio xedeen arabera: narrazioa, deskripzioa, azalpena, heziketa, argudioa, solasaldia, etab. Testu baten oinarrizko antolaketa eta haren aurkezpena, narrazioa, solasaldia eta deskripzio errazak dituzten testuak bereziki landuz. Testu haue-
tan barne kohesioa lortzeko gehien erabiltzen diren elementuak.
3. Alfabetoa, grafiak eta haien ahoskapena.
4. Puntuazioa eta zeinu ortografikoak.
5. NOR, NOR-NORK, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK paradigmatan ohiko komunikazioan gehien erabiltzen diren adizkiak, indikatiboan eta aginteran. Singularra eta plurala bereiztea, NOR objektu zuzenean.
6. Ibili, egon, joan, etorri, eduki, jakin, ekarri eta eraman aditz trinkoetako adizki ohikoenak.
7. Kasu guztien deklinabidea, singularrez eta pluralerik. Partitiboaren eta ergati-
boaren erabilera.
8. Perpaus bakunaren eta haren sintagmen oinarrizko egitura. Ezezko esaldiak.
9. Aditzaren aspektua: burutua, burutugabea, puntukaria eta geroaldia. Aspek-
tua aditz trinkoetan.
10. Adberbio eta lokailu ohikoenak.
11. Zenbakien idazkera.
12. Adjektibazioa: pertsonen, tokien, sentipenen eta abarren deskripzioa.
13. Ahozko tradizioaren bertso eta erromantze adierazgarriak: entzutea eta an-
tzezteak.
14. Hiri, herri eta ibaien euskal izenak.

Euskara eta Euskal Literatura II

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. Testu motak:
 - Aurreko ikasturteko testuetan sakontzea.
 - Publizitateko testuak: elementuak, ezaugarriak, hitzezko eta idatzizko baliabideak eta hizkuntza arlokoak, haien eragina gizartean, etab.
 - Argudio-testua, ezugarriak. Iritzizko gutuna. Testuan gehien agertzen diren lokailuak.
2. Ahozko hizkuntza zuzen ulertzeko mekanismoak abiaraztea: keinuak, abiadura, bokalizazioa.
3. Datzizko hizkuntzaren eta irudien arteko osagarritasuna.
4. Hizkuntzaren erregistroak. Hizkera jasoa eta herri hizkera. Euskara estandar edo batuaren eta euskalkien erabilera.
5. Hots multzo zenbaiten ahoskapena (ez+z>tz; ez+n>en; ez+g>ezk.). “j” grafiaren ahoskapen desberdinak.
6. Esaldiaren ordena.
7. NOR, NOR-NORK, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK paradigmekin gehien erabiltzen diren adizkiak, indikatiboan, ahaleran eta aginteran.
8. Izan aspektu marka duten aditzak: nahi, behar, bizi, ezin, ahal, etab.
9. Kasu guztien deklinabidea, singularrez eta pluralez. Bizidun eta bizigabeen arteko bereizketa. Erakusleen eta izenordain pertsonalen deklinabidea.
10. Posposiziorik ohikoenak.
11. Konparazioa.
12. Esaldi denborazko, kontzesibo eta kausazkoak.
13. XX. mendeko idazle funtsezko batzuk: D. Agirre, Lizardi, Lauaxeta, G. Aresti, A. Urretabizkaia, B. Atxaga, A. Lertxundi, etab.

Ebaluazio irizpideak

1. Zenbait motatako eta formalizazio maila desberdinetako ahozko testuen funtsezko ideiei antzematea, haien edukia idatzizko testuetara ekarriz.
2. Gai berariazko eta ezagun baten gaineko ahozko azalpen baten edo ahozko argudioen laburpena egitea, parte hartzaileen arrazoi eta ikusmolde nagusiak adieraziz.
3. Zenbait motatako eta formalizazio maila desberdinetako testuen zentzu orokorra ahoz laburbiltzea, xedeei antz emanez, ideia funtsezkoak eta ez funtsezkoak bereiziz, edukian izan litezkeen inkoherentziak edo anbiguotasunak harrapatuz eta iritzi pertsonala emanez.
4. Gai baten gainean zenbait testutatik heldu diren informazioak biltzea, sintesi testu bat prestatzeko helburuz, aurkitutako informazio eta ikusmolde nagusiak nahiz norberaren ikusmoldea agertuz.
5. Gai baten inguruan ahozko azalpena egitea, modu ordenatuan, aurretiazko plan edo gidoi bati segituz, gaia komunikazio egoerara egokituz eta hartzailearen arreta atxikiz.
6. Zenbait motatatako testuak idaztea, komunikazio egoerara egokituz, hiztegi aberats eta askotarikoaz baliatuz eta zuzentasun irizpidea begiratuz.
7. Norberak gai baten gainean duen iritzia prestatu eta lantzea eta ahoz nahiz idatziz adieraztea, zuzen eta egoki.
8. Bakarka nahiz taldeka, hiztegi espezializatuak eta beste kontsulta lan batzuk kontsultatzea.
9. Osoki irakurritako literatur testu bat zer generotakoa den antzematea eta haren egiturazko elementu funtsezkoak eta hartan erabilitako hizkuntz baliabide nagusiak atzematea.
10. Elementu lexikoen artean esanahiaren aldetik dauden harremanak bilatzea.
11. Hizkuntzaren unitate sintaktikoei antzematea, baita haien mota eta harremanei ere, eta horiek guztiak euskaraz, ahoz nahiz idatziz, erabiltzeko gai izatea.
12. Euskalkiak non diren aurkitzea, batez ere Nafarroakoa.
13. Komunikazio egoera bateko erregistroari antzematea eta batua eta euskalkiak bereiztea.

14. Hizkuntzaren erabilera sozial desberdinen hizkuntz ezaugarri batzuei antzematea (bereziki izaera sozial eta estilistikoei), zuzeneko behaketa eta askotariko produkzioen azterketa erabiliz.
15. Ahozko euskal literaturaren ezaugarri nagusiak jakitea.
16. XX. mendeko euskal literaturaren idazlan nagusietariko batzuk jakitea.
17. Testu prozesatzaileak maneiatzea eta ikerketa lan errazetara aplikatzeko gauza izatea, baliabide informatiko osagarriak erabiliz (internet, datu baseak, CD-ROMak, testu prozesatzaileak, etab.).

Euskara eta Euskal Literatura III

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. Aurreko zikloan landutako testu tipologian sakontzea.
 - Kazetaritza testuak: iritzizko gutuna, erreportajea, editoriala, elkarrizketa, etab. Ahozko eta idatzizko hedabideak. Egunkariak, aldizkariak eta urtekarriak. Egunkarien, aldizkarien eta irratsaioen egiturak.
 - Izaera teknikoko azalpen testua.
2. Herri hizkera eta hizkera jasoak. Hizkuntz erregistroa.
3. Euskalki nagusien zerrenda eta batuaren eraketa. Euskararen historiaren ezaugarri nagusiak.
4. NOR, NOR-NORK, NOR-NORI y NOR-NORI-NORK paradigmekin, aditz laguntzailearen ohiko adizkiak, indikatiboan, baldintzan eta ahaleran.
5. Deklinabidea: mugagabearen erabilera oinarritzakoa.
6. Ergatiboaren eta partitiboaren erabilera zuzena.
7. OMEN eta OTE partikulak.
8. Esaldi adbersatibo, baldintzazko eta erlatiboak.
9. Hitz elkartuak eta eratorriak. Gehien erabiltzen diren atzizki eta aurrizkiak.
10. Literatura: literatura idatziaren hasierako idazle nagusiak: B. Etxepare, J. Leizarraga, Axular, Oihenart. XX. mendeko poeta eta bertsolariak.

Ebaluazio irizpideak

1. Zenbait motatako eta formalizazio maila desberdinetako ahozko testuen funtsezko ideiei antzematea, haien edukia idatzizko testuetara ekarriz.
2. Hizkuntzaren maila morfosintaktiko eta lexikoetan, oinarrizko gramatika arauak jakin eta begiratzea.
3. Hitz elkartu eta eratorrietako elementuei antzematea eta ezagutza hori lekuen, jendeen eta abarren izenak ulertzeko aplikatzea.
4. Gai berariazko eta ezagun baten gainean mintzaldi edo ahozko eztabaida baten laburpena egitea, parte hartzaileen arrazoi eta ikusmolde nagusiak azalduz.
5. Zenbait motatako eta formalizazio maila desberdinetako testuen -narrazioak, deskripzioak, solasaldiak, prentsa idatzikoak- zentzu orokorra ahoz laburbiltzea, xedeei antz emanez, ideia funtsezkoak eta ez funtsezkoak bereiziz, edukian izan litezkeen inkoherentziak edo anbiguotasunak harrapatuz eta iritzi pertsonala emanez.
6. Gai baten gainean zenbait testutatik heldu diren informazioak biltzea, sintesi testu bat prestatzeko helburuz, aurkitutako informazio eta ikusmolde nagusiak nahiz norberaren ikusmoldea adieraziz.
7. Gai baten inguruan ahozko azalpena egitea, modu ordenatuan, aurretiazko plan edo gidoi bati segituz, gaia komunikazio egoerara egokituz eta hartzailearen arreta atxikiz.
8. Zenbait motatatako testuak idaztea (narrazioak, deskripzioak eta solasaldiak), komunikazio egoerara egokituz, haien antolamendu-egitura erabiliz, hiztegi aberats eta askotarikoaz baliatuz eta zuzentasun irizpidea begiratzuz.
9. Bakarka nahiz taldeka, erreferentziatzko zenbait idazlan kontsultatzea, euskari tradizionaletakoak.
10. Osoki irakurritako literatur testu bat zer generotakoa den antzematea eta haren egiturazko elementu funtsezkoak eta hartan erabilitako hizkuntz baliabide nagusiak atzematea.
11. Euskararen jatorria eta bilakaera jakitea.
12. Testu prozesatzaileak maneiatzea eta ikerketa lan errazetara aplikatzeko gauza izatea, baliabide informatiko osagarriak erabiliz (internet, datu baseak, CD-ROMeko lanak, testu prozesatzaileak, etab.).
13. Euskal literatura idatziaren hasierako idazle nagusietariko batzuk ezagutzea eta haien garaiarekin lotzea.

Euskara eta Euskal Literatura IV

Edukiak

Arloko hizkuntzaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. Testu motak, haien komunikazio xedeen arabera.
 - Nobela eta haren ezaugarri testualak, elezaharra eta narrazio historikoa.
 - Testu formalak eta administratiboak: curriculum, gutuna, eskabidea, erre-gua, posta elektronikoa, erreklamazioa, etab.
 - Argudio-testua: ikusmoldea eta kontrargudioa.
 - Testuko kohesio elementuak.
2. Euskararen historia: XX. mendea. Gaur egungo egoera. Diglosiaren kontzeptua.
3. Iturri bibliografikoak aipatzeko arauak.
4. NOR, NOR-NORK, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK paradigmatako ohi-ko adizkiak, indikatiboan, subjuntiboan, baldintzan, ahaleran eta aginteran.
5. Aditz trinkoetako adizki ohikoenak, indikatiboan eta baldintzan.
6. Deklinabidea: mugagabearen erabilera eta kasuen erabilpena, singularrez eta pluralez. Izen arrunt eta berezien deklinabidea eta izen bizidun eta bizigabe-
en arteko bereizkuntza. A itsatsia. ELKAR eta NORBERE BURUA erabiltzea.
7. Hika, sistema alokutiboaren adizkien eta erabileraren gaineko oinarriko in-
formazioa.
8. Perpaus ondoriozkoak eta gerundiozkoak. Aditzaren nominalizazioa.
9. Lokailuak eta juntagailuak.
10. Esaldiaren ordena: galdegaia eta mintzagaia.
11. Errefrau eta esapideen ezagutza.
12. Aurrizkiak eta atzizkiak. Hitz elkartua.
13. Literatura: Idatzizko antzerkiaren hastapena: P.I. Barrutia. XVIII. eta XIX.
mendeetako idazleak eta euskalariak: J.A. Mogel, Iparragirre, Bilintx, L.L. Bo-
naparte, A. Abbadia eta J. B. Elizanburu. Nafarroako gaur egungo idazleak: P.
Zabaleta, A. Epaltza, P. Perurena, I. Borda, J. Alonso.
14. Toponimiaren erabilera izenen esanahiak ulertzeko eta hitzen arteko aldera-
keta.

Ebaluazio irizpideak

1. Zenbait motatako eta formalizazio maila desberdinetako ahozko testuen funtsezko ideiei antzematea eta haien edukia idatzizko testuetara ekartzea.
2. Gai berriazko eta ezagun baten gainean mintzaldi edo ahozko eztabaida baten laburpena egitea, parte hartzaileen arrazoi eta ikusmolde nagusiak azalduz.
3. Zenbait motatako eta formalizazio maila desberdinetako testuen zentzu orokorra ahoz laburbiltzea, xedeei antz emanez, ideia funtsezkoak eta ez funtsezkoak bereiziz, edukian izan litezkeen inkoherentziak edo anbiguotasunak harrapatuz eta iritzi pertsonala emanez.
4. Gai baten gainean zenbait testutatik heldu diren informazioak biltzea, sintesi testu bat prestatzeko helburuz, aurkitutako informazio eta ikusmolde nagusiak nahiz norberaren ikusmoldea adieraziz.
5. Gai baten inguruan ahozko azalpena egitea, modu ordenatuan, aurretiazko plan edo gidoi bati segituz, gaia komunikazio egoerara egokituz eta hartzailearen arreta atxikiz.
6. Zenbait motatako testuak sortzea (narrazioak, deskripzioak, azalpenak eta argudioak) komunikazio egoerara egokituz, haien antolamendu-egitura erabiliz, hiztegi aberats eta askotarikoaz baliatuz eta zuzentasun irizpidea begiratuz.
7. Bakarka nahiz taldeka, informazio iturri askotarikoak kontsultatzea, aurkibideak, fitxak eta sailkapen sistema askotarikoak maneiatuz eta bitarteko tradizionalak nahiz teknologia berriak aplikatuz.
8. Osoki irakurritako literatur testu bat zer generotakoa den antzematea eta haren egiturazko elementu funtsezkoak eta hartan erabilitako hizkuntz baliabide nagusiak atzematea.
9. Euskalkiei antzematea eta haiek non diren aurkitzea, nafarrerari arreta berezia jarritz.
10. Hizkuntzaren erabilera sozial desberdinen hizkuntz ezaugarri batzuei antzematea, zuzeneko behaketa eta askotariko produkzioen azterketa erabiliz.
11. Hizkuntzaren maila morfosintaktiko eta lexikoetan, oinarritzko gramatika arauak jakin eta begiratzea.
12. Hitz elkartuak osatzen dituzten elementuei antzematea eta ezagutza hori lekuen, jendeen eta abarren izenak ulertzeko aplikatzea.

13. Zuzen ahoskatzea, kate fonetikoaren zenbait zailtasuni erreparatuz.
14. Errefrau eta esapide gutxienerako batzuk jakin eta erabiltzea.
15. XVIII. eta XIX. mendeetako euskal literaturaren ezaugarriak behinenak jakitea, puntako idazleen lanak bitarteko direla.
16. Nafarroako gaur egungo euskal idazle puntakoetako batzuk ezagutzea.
17. Testu prozesatzaileen printzipio funtsezkoak maneiatzea eta ikerketa lan errazetara aplikatzeko gauza izatea, baliabide informatiko osagarriak erabiliz (internet, datu baseak, CD-ROM gisako diskoak, testu prozesatzaileak, etab.).

Prozedurak

Hizkuntzak eta hiztunak

1. Gaztelania eta euskara Nafarroan. Espainiako hizkuntza konstituzionalak.
2. Hizkuntzen arteko ukipenetatik heldu diren fenomenoei antzematea.
3. Testuak erregistro batetik bestera aldatzea.

Hizkuntza eta haren funtzionamendua.

Ahozko eta idatzizko erabilerak

1. Komunikazio egoera formalak eta informalak bereiztea.
2. Testuak adierazkortasunez irakurtzea.
3. Testuetan gaia atzematea. Ideia funtsezkoak eta ez funtsezkoak bereiztea.
4. Igorlearen xedeari antzematea, baita haren jarrerari ere enuntziatuaren eta hartzailearen aitzinean.
5. Testuen interpretazioa, produkzio baldintza materialen eta haiekin batean doazen elementu ez linguistikoen arabera.
6. Testu baten egiturari antzematea eta kohesioa ematen dioten hizkuntz elementuak atzematea (lokailuak, errepikapenak, elipsiak, ordezkapenak, etab.).
7. Testuetan baliabide estilistikoak atzematea, egiten dieten ekarpena baloratzuz.
8. Plangintza egin ondoan idatzizko testuak sortzea, helburu eta mota askotariakoak, printzipio hauek begiratzuz: koherentzia, kohesioa eta zuzentasun gramatikala, aurkezpen egokia eta arau ortografikoekiko begirunea.

9. Plangintza egin ondoan ahozko testuak sortzea, helburu eta mota askotari-koak, koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioak begiratuz, eta doi-nuak, keinuak edo gorputzaren jarrerak mezuen harreran duten eraginaz oharturik.
10. Testuak eraldatzea, komunikazioan parte hartzen duten elementuen aldake-ten arabera (igorlea, hartzailea, bidea, etab.).
11. Testuak, perpausak edo hitz-segidak eraldatzea, zenbait prozedura erabiliz -or-dezkatzea, handitzea, murriztea, kentzea, ordena aldatzea, etab.-, aldaketa hauek esanahian dituzten eraginez ohartzuz.
12. Testuak, perpausak, sintagmak eta hitzak alderatzea eta sailkatzea.
13. Funtzioen identifikazioa eta erlazio sintaktikoak.

Hizkuntza, literaturan

1. Literatur testuen irakurketa eta interpretazioa.
2. Literatur testuen eta inguru sozial eta kulturalaren arteko harremanei antze-matea.
3. Iritzi pertsonal arrazoitua lantzea, zenbait literatur testuren gainean.
4. Xede literarioa duten testuak sortzea.
5. Ikastetxeko liburutegia eta liburutegi publikoa erabiltzea.

Hizkuntza, hedabideetan

1. Hedabideetako zenbait testu motari antzematea eta haien interpretatzea. Al-bistea, haren ezaugarriak eta tratatzeko moduak.
2. Propagandako eta publizitateko mezuen azterketa.
3. Hedabideetan gehien erabiltzen diren hitzik gabeko kodeen azterketa.
4. Testuen arteko alderaketa kritikoa.
5. Hedabideetatik heldu diren testuen eraldaketa.
6. Hitzik gabeko hizkeren komunikazio ahalmenak miatzea.

Hizkuntza, harreman pertsonal eta instituzionaletan

1. Pertsonen arteko eta erakundeekiko komunikazioak berezko dituen ahozko eta idatzizko testuen egitura desberdinei antzematea eta haiek guztiak aztertzea.
2. Erakundeekiko komunikazioaren idazki mota ohikoenak prestatzea edo, ahal bada, betetzea.
3. Euskararen ahozko erabilera formalen plangintza.

Hizkuntza, ikaskuntzan

1. Idazketa pentsamendua antolatzeko erabiltzea.
2. Ahozko eta idatzizko testuen plangintza, eskemak eta gidoiak eginez.
3. Hiztegiaren ohiko erabilera.
4. Teknologia berrien erabilera informazioa bilatzeko.
5. Eskemak prestatzea, elementuen erlazioak eta antolamendu hierarkikoa bistaratzeko aukera eman dezaten.
6. Testuak sortzea, emandako eskemetatik abiatuta.
7. Halako lan batzuk egiteko, ahozko, idatzizko, ikus-entzunezko eta informatikazko informazioaren iturriak hautatu, aurkitu, kontsultatu eta aprobetxatzea.
8. Trebetasunak bereganatzea, buru-lanerako halako teknika batzuk erabiltzerakoan: laburpena, apunteak, azpimarra, eskema, gidoia, fitxak, etab.
9. Dokumentu izaera berariazkoa duten ahozko edo idatzizko testuen interpretazioa.

Jarrerak

Hizkuntzak eta hiztunak

1. Hizkuntzaren aldeko jarrera sustatzea, besteekin harremanak izateko modu esker oneko eta eraginkorra den aldetik.
2. Hizkuntzak baloratzea, agerpen soziokulturalak eta transmisiorako eta kultur sormenerako bideak diren aldetik.

3. Sentiberatasuna eta jarrera kritikoa, hizkuntza dela-eta bazterkeria, erredukzionismoa edo manipulazioa adierazten duten erabileren aitzinean.
4. Hizkuntza guztien eta haien aldaera geografiko eta sozialen aldeko jarrera.
5. Gaztelania eta euskara Nafarroako kultur ondare gisa eta pertsonen arteko komunikaziorako tresna gisa baloratzea.

Hizkuntza eta haren funtzionamendua

1. Hizkuntzaren gaineko gogoetaren garrantzia baloratzea, norberaren produkzioak arautzeko eta besteenak ulertzeko. Hizkuntzaren oinarritzko arauak onartzea eta begiratzea (ortografia, sintaxia, fonetika, semantika, etab.)
2. Testuen plangintzaren eta berrikuspenaren beharra baloratzea, koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioekin bat.
3. Irakurketarekiko interesa, plazer eta dokumentazio iturria den aldetik.
4. Idatzizko testua menperatzeak duen garrantzi sozial nahiz pertsonalaz jabetzea.
5. Hizkuntza begirunez eta zehatz erabiltzeko jarrera, bereziki estereotipoei, hitz zakarrei eta adierazpen iraingarri edo baztertzaileei itzuriz.
6. Euskara erabiltzean, zehaztasun semantikoaren aldeko joera.

Hizkuntza, literaturan

1. Genero ezberdinetako literatur testuekiko interesa eta gustua eta horiek hautatu eta balioratzeko nor bere irizpideak garatzea.
2. Literatur lanen eduki ideologikoarekiko sentiberatasuna eta jarrera kritikoa.
3. Literaturtasunaren balorazioa, produktu linguistiko, estetiko eta kulturala den aldetik.
4. Hizkuntza idatziaren bitartekoak erabiltzeko eta haren ahalmenak miatzeko interesa.
5. Liburutegiak erabiltzeko interesa eta horien erabilpena gobernatzen duten arauetikiko begirunea.

Hizkuntza, hedabideetan

1. Gaur egungo munduan hedabideek duten garrantziaz jabetzea.
2. Hedabideekiko interesa eta irekitasuna eta haiekiko jarrera kritikoa garatzea.
3. Hedabideetan agertzen diren gaur egungo gertakarien gainean ezari-ezarian iritzi beregain eta ongi oinarritua hartzea. "Albiste" eta "iritzia" bereiztea.
4. Teknologia berrien komunikazio ahalmenen balorazioa.
5. Hitzik gabeko hizkuntzak, haien kodeak eta haien erabilera gobernatzen duten arauak baloratzea.
6. Irizpide tekniko eta etikoak bereganatzea, hedabide desberdinen mezuak eta adierazteko baliabideak aztertu beharrez.

Hizkuntza harreman pertsonal eta instituzionaletan

1. Pertsonen arteko eta erakundeekiko harremanetan hizkuntzak duen garrantziari antzematea.
2. Hizkuntzaren balorazioa, gizarte eta hezkuntza errealitatea ezagutu eta interpretatzeko ahalmena ematen duen elementu gisa.
3. Ahozko harremanetan, arau soziokomunikatiboekiko begirunea (mintzatze-ko txanda, begirunea, etab.).
4. Hizkuntzaren oinarritzko arauak onartzea eta begiratzea.

Hizkuntza, ikaskuntzan

1. Hizkuntzaren balio dokumentalaren balorazioa.
2. Dokumentazio iturriak hainbat xedetarako erabiltzeak duen garrantziari antzematea.
3. Laneko teknikak egoki erabiltzeak duen garrantzi sozial, pertsonal eta akademikoaz jabetzea.

Matematikak

Sarrera

Matematikak irakastearen helburu nagusia arrazoitzeko eta abstrakziorako gaitasuna garatzea da. Gizonaren arrazoitzeko gaitasunak hor du berealdiko euskarria bere garabiderako, eta garabide hori izanen da, beraz, zientzia honen helburu pedagogiko nagusia.

Bestalde, kontuan hartu behar da matematikak lotura hertsia dutela zibilizazioak Historian barrena egin duen aurrerabidearekin eta gaur egun lagun egiten diotela Zientzia esperimentalen eta sozialen garabideari eta formalizazioari, behar bezalako tresna-laguntza emanaz. Horrez gain, matematikaren lengoaia, errealitatearen fenomeno eta alderdi desberdinei aplikaturik, tresna baliagarria da errealitatea hobeki ulertzen laguntzeko eta etengabe aldatzen ari den testuinguru eguneroko batera moldatzeko.

Horrenbestez, matematika ikasteak toki gailena izan behar du nahitaez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ikasketa planetan, aukera ematen baitie adin honetako gazteei beren adimenaren gaitasunei antz eman eta beren nortasuna asentatzeko, eta bai, horrez gain, eguneroko bizitzan aurrera atera eta zientziaren beste adarretan aritzeko behar izaten den ondare kultural bat eskuratzen ere.

Ikasleek zientzia honen osotarako ikuskera bat izan dezaten, matematikaren irakaskuntza modu ziklikoan antolatuko da, kurtso bakoitzean eduki berriak sartu ez ezik, aurreko kurtsoetakoak berrituz alegia, haien aplikazio eremua zabaldu eta harreman berriez aberastuz.

Arlo honen metodologia talde bakoitzaren eta ikastetxe bakoitzeko kondizioen arabera moldatuko da, dauden baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.

Kontzeptuak intuitiboki sartu behar dira eta hortik pixkanaka zorrotasun matematikoa bilatu, erabiltzen den metodologia beti ikasleek etapan barrena garatu duten formalizazio gaitasunaren arabera moldatuz.

Horrekin batera, eginahala eginen da ikasleek oinarrizko trebetasun numerikoak eta funtsezko gaitasun geometrikoak ere beregana ditzaten. Eta estrategia pertsonalak ere garatuko dira, ikasleak gai izan daitezen eguneroko bizitzan gertatzen diren problema egoerei aurre egiteko.

Komeni da ikaslea ahoz, idatziz eta irudiz bere esanbeharra adierazteko gai izan dadin matematikaren bidez trata daitezkeen egoeretan, hartarako notazio eta termino matematikoen berriazko lexiko bat beretuz.

Problema egitea ohiko jarduera izanen da arlo honen ikas eta irakas prozesuaren alderdi guzti-guztietan.

Azken urteotan izan den garapen teknologikoa izugarria izan da; kalkulagailuak eta ordenagailuak gero eta sofistikatuagoak izanen dira. XXI. mendeko herritarrak ezin dagozke tresna horien jardunbidearen berri jakin gabe, behartzen direnean erabili ahal izateko, baina modu arrazionalen egin behar dute: ezin dira, adibidez, noraezean geratu kalkulu erraz bat egin behar eta beren kalkulagailua eskura ez dutelako. Horregatik ez da komeni kalkulagailuak erabiltzea oinarrizko kalkuluen trebetasunak ongi ikasirik egon arte.

Talde lanak, jakin-mina pizten duten buruketetan, eta gogoeta lanak erraztu egiten dute zenbait lan ohitura garatzea; horiei esker ikasleak gai izanen dira estrategiak garatzeko beren argudioak ikaskideen aurrean defendatzeko, eta aukera izanen dute hainbat irizpide konparatzeko, gero erantzun egokiena hautatzeko.

Oso gerturik eginen zaio kontu ikasleen ikasketa metodoari, eta arta hartuko ikasleak bere buruaren ederreksi behar adinakoa lortu dezan, ikasgai honen ikasketari ekiteko beharrezkoa baita.

Matematikaren arloa bi aukera diferentetan banatzen da laugarren kurtsoan. Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzak izan behar duen orientazio kutsuak, batez ere bigarren zikloan, beharrezko egiten du ikasleei aukera ematea gero batean aurkituko dituzten matematikak nolakoak izanen diren antz emateko, eta bai zenbateraino izanen zaizkien baliagarri hainbat egoerari aurre egin eta hainbat problema konpontzeko, bai eguneroko jarduerakoak eta bai ezagupen arlo desberdinetakoak.

Matematiketan bertan eta bai handik kanpora behar diren ikasketa askotan, dela ikasketa akademiko hutsetan dela lanbidean hasteko aukeretan, Aurretiazko presalana behar da, aldian halako neurrikoa.

Bestalde, etapa honen bukaeran agertzen dira, beste inon baino areago, ikasleek interesetan, lan erritmoetan eta lan ohituretan dituzten diferentziak. Hori dena gogoan, bada, azkeneko kurtsoan bi matematika diferenteren artean aukera egiteko bidea eman behar zaio ikasleari, hori mekanismo egokia baita ikasleen dibertsitateari kontu egiteko.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mendedago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketan trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkieten askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Pentsamendu logikoaren erak erabiltzea giza jardueraren arlo desberdinetan.
4. Erraz eta egoki aplikatzea eguneroko egoeretan ikasgelan ikasitako tresna matematikoak.
5. Lengoia matematikoa egoki erabiltzea, modu labur, argi, zehatz eta zorrotzean esan nahi dena adierazteko.
6. Errazki eta modu kritikoan erabiltzea baliabide teknologikoak (kalkulagailuak, programa informatikoak eta internet), ikasketan eta matematikek aplikazio instrumentaletan lagungarri izan daitezen.
7. Problema matematikoak egitea hainbat estrategia, prozedura eta baliabide desberdin erabiliz, hasi intuiziotik algoritmoetaraino.
8. Ezagupen fisikoak aplikatzea gure inguruko mundu fisikoa ulertze eta aztertzeke.
9. Metodo eta prozedura estatistikoak eta probabilitatezkoak erabiltzea informazioaren munduan jasotako datuetatik ondorioak ateratzeko.

10. Ezagupen matematikoak integratzea ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan beretu behar dituen ezagupenen multzoan.
11. Hainbat teknika eta metodo garatzea lan ohiturei, jakin-minari eta problemak aztertu eta konpontzeko interesari dagokionez, eta bai erantzunbeharrari eta talde laneko izpirituari ere, soluzioen bila dabilela norbere ikuspuntua aldatzeko behar bezain malgua izaten ikasiz.

Matematikak I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Aritmetika eta aljebra*

1. Zenbaki arruntak. Lerro zuzenean nola irudikatu. Zenbaki arruntekiko eragiketak. Numerazio sistema hamartarra.
2. N-rekiko zatigarritasuna. Multiploak eta zatitzaileak. Zatigarritasunaren irizpideak. Zenbaki lehenak eta zenbaki konposatuak. Zenbaki arrunt sinpleak faktore lehenetan nola deskonposatu. Multiplo komunetako txikiena eta zatitzaile komunetako handiena.
3. Zenbaki osoak. Grafikoki nola irudikatu. Oinarrizko eragiketak. Propietateak. Oinarri osoko eta berretzaile naturaleko potentziak. Propietateak. Erro karra-tu zehatzak. Zenbaki frakzionario eta hamartarrak. Nola irudikatu. Zatiki baliokideak. Zatiki laburtezina. Zenbaki frakzionario eta hamartarren hurrenker-a. Oinarrizko eragiketak. Hurbilketak eta borobiltzeak. Eragiketen hierarkia. Parentesia nola erabili. Buruzko kalkulua egiteko estrategiak nola garatu, zenbakizko eragiketen propietateak oinarri hartuta.
4. Ekuazioaren kontzeptua. Koefiziente sinpleko lehen graduako ekuazioak. Magnitudeak eta haien neurpidea. Sistema metriko hamartarra. Luzera, masa, edukiera, azalera eta bolumeneko unitateak. Magnitude bat bereko unitateak nola eraldatu. Edukieraren eta bolumenaren arteko erlazioa.
5. Diru unitateak, euroa.

6. Zuzeneko eta zeharbideko unitateak. Neurtzeko tresnak. Neurketen zehaztasuna eta estimazioa.
7. Magnitude zuzenki proportzionalak eta alderantziz proportzionalak. Problema egiteko nola aplikatu.

II. *Geometria*

1. Planoaren geometriako hastapenak. Lerro zuzenen arteko intzidentzia, paralelismo eta zutasun erlazioak.
2. Angeluak. Saillapena. Angeluak nola neurtu. Angeluak neurtuzko eragiketarak. Segmentu baten erdibitzailea. Angelu baten erdikaria.
3. Oinarrizko irudi lauak deskribatu, eraiki, sailkatu eta haien propietate nagusiak ikastea. Triangelu baten zuzen aipagarriak (erregela eta konpasarekin nola eraiki).
4. Oinarriko irudi lauen azalera eta perimetroa nola kalkulatu. Nola kalkulatu azalera irudi sinpletan deskonposatuz.
5. Zirkunferentziak eta zirkuluak. Zirkunferentziako angelu eta arkuen arteko erlazioak. Zuzenen eta zirkunferentzien arteko posizio erlatiboak.
6. Problema geometrikoak egitea irudi lauak errepresentatuz, identifikatuz eta haien neurriak kalkulatz.

III. *Taulak eta grafikak*

1. Plano kartesianoa. Koordinatuen ardatza. Koordinatu kartesianoak nola erabili puntuak irudikatu eta atzemateko.
2. Balio-taulak nola eraiki eta interpretatu.
3. Balio-taulak oinarri, grafikak nola itxuratu.
4. Izadiko fenomenoekin, eguneroko bizitzarekin eta informazioaren munduarekin lotuta dauden grafikak interpretatu eta irakurtzea.

Matematikak II

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Aritmetika eta algebra*

1. N-rekiko zatigarritasuna. Zenbaki arrunt bat faktore lehenetan nola deskonposatu eta bi zenbakiren multiplo komunetako txikiena eta zatitzaile komunetako handiena nola kalkulatu.
2. Zatiki baliokideak. Zatiki laburtezinak nola kalkulatu. Izendatzaile komunera nola erreduzitu.
3. Zenbaki osoen, zatikien eta zenbaki hamartarren bidezko eragiketa oinarrikoak. Eragiketen hierarkia eta parentesiaren erabilera. Oinarri arrazionalako eta berretzaile osoko potentziak. Estimazioak, hurbilketak eta borobiltzea. Erro karratu hurbildua. Denbora eta angeluak nola neurtu. Espresio konplexu eta hamartarrak. Eragiketak.
4. Zuzeneko eta zeharbideko neurketak. Neurbideak. Neurketen zehaztasuna eta estimazioa.
5. Arrazoi eta proportzio numerikoak. Termino proportzionalak nola lortu.
6. Magnitude zuzenki proportzionalak eta alderantziz proportzionalak. Hiruko erregela sinple zuzeneko eta alderantzizkoa. Portzentajeak: portzentajearen gehitze eta gutxitzeak nola kalkulatu. Problemak egiteko nola aplikatu.
7. Formula eta espresio algebraikoak eraiki eta interpretatzea. Espresio algebraiko sinpleen bidezko eragiketa oinarrikoak. Espresio algebraiko batean balio numerikoak nola lortu.
8. Lehen graduko ekuazioak. Ezezagun bateko lehen graduko ekuazioak nola ebatzi. Bi ezezaguneko lehen graduko bi ekuazioko sistemak nola ebatzi. Bigarren graduko ekuazioa. Lehen graduko ekuazioak nola erabili problemak ebazteko.

II. *Geometria*

1. Espazioaren geometriako oinarriko osagaiak.

2. Gorputz geometriko oinarrizkoak, deskribatu, garatu eta haien propietate ezaugarriak ikastea: kuboak, oktaedroak, prisma, zilindroak, piramideak, konoak eta esfera.
3. Pitagoraren teorema. Justifikazio geometrikoa. Triangelu angeluzuzen bateko aldeak sistematikoki nola kalkulatu.
4. Azalera eta bolumenak nola kalkulatu.
5. Problema geometrikoak ebaztea irudi oinarrizkoak errepresentatuz, identifikatuz eta haien neurriak kalkulatz.
6. Antzekotasuna: irudi antzekoak. Irudiak nola handitu eta txikitu. Antzekotasun arrazoia. Irudi antzekoak geometrikoki nola eraiki.
7. Talesen teorema eta haren aplikazioak: segmentu bat zati proportzionalatan nola zatitu. Triangelu antzekoak. Antzekotasun arrazoia eta azalaren arrazoia. Mapak eta planoak nola interpretatu: Eskalak.

III. *Funtzioak eta grafikak*

1. Koordinatu kartesianoak. Balio-taulak eta grafika kartesianoak. Enuntziatuetan edo balio-taletan agertzeraren ematen diren erlazioak. Balio-taulak nola osatu eta nola interpretatu. Balio-taula bat oinarri, grafika bat nola itxuratu.
2. Magnitude zuzenki proportzionalen arteko erlazio funtzionalak.
3. Izadiko fenomenoekin, eguneroko bizitzarekin eta informazioaren munduarekin lotuta dauden grafikak interpretatu eta irakurtzea.

IV. *Estatistika*

1. Estatistika unidimentsionala. Oinarrizko terminologia. Izaera estatistiko kualitatibo eta kuantitatiboa. Banaketa diskretuak.
2. Datu kontaketa. Maiztasun taulak, barra eta sektore diagramak nola osatu eta interpretatu.
3. Banaketa diskretu baten batez-besteko aritmetikoa, mediana eta moda datu gutxirekin nola kalkulatu eta interpretatu.
4. Estatistikak eguneroko bizitzan dituen aplikazioak. Estatistikak zientzian dituen aplikazioak.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Zenbaki arrunt, frakzionario eta hamartarrak erlazionatu, irudikatu eta haiekin kontuak egitea, eta eguneroko bizitzarekin lotura duten jarduerak ebazteko erabiltzea.
3. Problema ebaztea, behar den kalkulu mota hautatuz (buruzkoa, eskuzkoa) eta lortzen diren eraiketa, metodo eta emaitzei esangura ematea, enuntziatuaren arabera.
4. Zenbaki arrunteko, frakzionario eta hamartarreko espresio sinpleen balioa estimatu eta kalkulatzeko, lau eragiketa oinarritzkoetan, berretzaile naturaleko potentzietan eta erro karratu zehatzetan oinarrituta, hartarako lehentasun arauak egoki aplikatuz eta zeinuak eta parentesia egoki erabiliz.
5. Zehaztasun, hurbiltze eta errore kontzeptuak erabiltzea problema ebazteko eta behar diren hurbiltzeak hautatu eta baloratzea, bai eta egindako errorearen tamaina ere, enuntziatuak agintzen duenaren arabera.
6. Problema sinpleak sinbolizatzea eta metodo numerikoak, grafikoak edo ezezagun bakarreko lehen graduko ekuazio sinpleak erabiliz ebaztea, eta emaitza problemarako egokia den ala ez egiaztatzea.
7. Neurketa unitateak erabiltzea, eta haien arteko erlazioak ere bai.
8. Zuzeneko neurketak egin eta estimatzea, eguneroko bizitzarekin lotura duten jardueretan, halako fidagarritasun maila batera iritsiz.
9. Behar bezala erabiltzea bihurketa faktorea, hiruko erregela sinplea, zuzeneko eta alderantzizkoa, eta portzentajeak eguneroko bizitzarekin lotura duten problema ebazteko.
10. Irudi eta gorputz oinarritzkoak bereizi, marraztu eta deskribatzea, haien osagai ezaugarritzkoak eraikiz eta kontzeptuak beretuz.
11. Irudi eta gorputz oinarritzkoen propietate bereizgarriak aplikatzea problema geometrikoak ebazteko.
12. Pitagorasen teorema eta behar diren formulak erabiltzea irudi lauen eta gorputz oinarritzkoen luzerak, azalera eta bolumenak lortzeko, problema geometrikoak ebazteko.
13. Segmentuen eta irudi lauen arteko proportzionaltasun geometrikoko erlazioak interpretatu eta erabiltzea, Talesen teorema eta antzekotasun irizpideak erabiliz.

14. Mapa edo planoetan irudikatzen diren dimentsio errealak interpretatzea, eskalak, zenbakizkoak nahiz grafikoak, behar bezala erabiliz.
15. Zuzeneko proportzionaltasunean oinarritu erlazio funtzionalen puntuak eta grafika kartesiano sinpleak errepresentatzea, balio-taula batetik abiatuz.
16. Balio-taulen eta grafiken artean informazioa trukitzea eta grafika kartesiano sinpleetatik (marra jarraitukoak) informazio praktikoa erdiestea eguneroko bizitzarekin eta izadiko fenomenoekin lotura duten problemak ebazteko.
17. Maiztasun taulak, barra eta sektore diagramak egin eta interpretatzea, eta bai banaketa diskretu sinple baten moda eta batez-beste aritmetikoa ere, eragiketa oinarrizkoak egiteko, behar izanez gero, kalkulagailu bat erabiliz.

Matematikak III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Aritmetika eta aljebra*

1. Zenbaki arrazionalak. Zuzenaren gaineko konparazioa, ordenamendua eta irudikapena. Zenbaki arrazionalen bidezko eragiketak. Eragiketen hierarkia eta parentesiaren erabilera. Berretzaile osoko potentziak. Propietateak. Zenbaki arrazional baten n ordenako erroa. Berretzaile frakzionarioko potentziak.
2. Frakzioak eta hamartarrak. Hamartar periodikoa. Kalkulagailua nola arrazionalki erabili hamartarrekiko eragiketetan. Hurbiltzeak eta erroreak. Notazio zientifikoa. Zenbaki irrazionalak identifikatzea.
3. Zenbaki oso eta frakzionarioen segidetan zenbaki erregulartasunak bilatzeko estrategiak itxuratu eta erabiltzea. Progresio aritmetiko eta geometrikoen atarian.
4. Magnitude zuzenki proportzionalak eta alderantziz proportzionalak. Banaketa proportzionalak. Portzentaje kateatuak. Interes bakuna. Eguneroko bizitzaren problema praktikoak ebazteko nola aplikatu.

5. Polinomioak. Polinomioen batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak. Identitate aipagarriak.
6. Lehen graduko ekuazioak eta bi ezezaguneko bi ekuazio linealeko sistemak aljebra bidez nola ebatzi.
7. Bigarren graduko ekuazioak aljebra bidez nola ebatzi. Bi ezezaguneko bi ekuazio linealeko sistemak nola sailkatu.
8. Lehen eta bigarren graduko ekuazioak eta bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak nola erabili izadiko fenomenoekin, eguneroko bizitzarekin eta informazioaren munduarekin lotura duten problemak ebazteko. Ebazpena kritikoki interpretatzea.

II. *Geometria*

1. Planoaren geometria berrikustea. Translazioak, jirak eta simetriak planoan.
2. Pitagorasen teorema, katetoarena eta garaierarena.
3. Prismak, piramideak, zilindroak eta konoak: deskripzioa, propietate oinarrikoak eta azalera eta bolumenak nola kalkulatu. Poliedro erregularrak.
4. Esfera eta haren osagai bereizgarriak. Esfera baten azalera eta bolumena. Lur globoa. Lurreko koordenatuak. Toki bateko longituda eta latitudea nola kalkulatu.

III. *Funtzioak eta grafikak*

1. Erlazio funtzionalak. Imajina eta anti-imajina. Aldagai menpekoa eta aldagai askea. Funtzio bat adierazteko moduak.
2. Balio-taulak nola osatu eta interpretatu enuntziatuak, espresio aljebraikoak edo grafika sinpleak oinarri hartuta.
3. Grafika jarraituak nahiz jarraigabeak osatzea enuntziatu bat balio-taula bat edo espresio aljebraiko sinple bat oinarri.
4. Funtzio baten azterketa grafikoak: haren eremua (dominio) eta ibiltartea, handitzea eta txikitzea, maximoak eta minimoak, simetriak, jarraitasuna eta periodikotasuna atzematea, haren grafika oinarri harturik.
5. Funtzio konstanteak, linealak eta afinak grafikoki eta aljebraikoki aztertzea. Zuzen baten malda. Interpretazioa.

6. Izadiko fenomenoekin, eguneroko bizitzarekin eta informazioaren munduarekin lotura duten problemetan grafikak interpretatu eta irakurtzea.

IV. *Estatistika eta probabilitatea*

1. Estatistika deskriptibo unidimentsionala. Oinarrizko terminologia: populazioa, lagina, aldagai estatistikoa, aldagai motak, maiztasun absolutua eta erlatiboa.
2. Maiztasun taulak, barra eta sektore grafikoak, maiztasun poligonoak, histogramak, populazio piramideak, kartogramak eta piktogramak osatu eta interpretatzea.
3. Aldagai estatistiko diskretuetan maizenik izaten diren zentralizazio eta sakabanatze parametroak kalkulatu eta interpretatzea.
4. Datuak tartez tarte multzoturik dituzten aldagaietan batez besteko aritmetikoa eta desbideratze tipikoa kalkulatzeko.
5. Dokumentu iturri desberdinak eta baliabide teknologikoak (kalkulagailua, programa informatikoak) erabiltzea informazio estatistikoa lortu eta prozesatzeko.
6. Esperimentu aleatorioak. Gertaera. Gertaera baten maiztasuna eta probabilitatea.
7. Probabilitateen kalkulua Laplaceren legearen bidez.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen esangura eta haien berariazko lexikoa ulertzea.
2. Zenbaki arrazionalak atzeman, erlazionatu eta grafikoki irudikatzea eta eguneroko ingurunearekin lotura duten jardueretan erabiltzea.
3. Zenbaki arrazionalen espresio numeriko sinpleak estimatu eta kalkulatzeko, lau eragiketa oinarrizkoetan eta berretzaile osoko potentzietan eta erro karratu zehatzetan oinarrituta, hartarako lehentasun arauak egoki aplikatuz eta zeinuak eta parentesia egoki erabiliz.
4. Hurbiltze hamartarrak, ohiko neurketa unitateak eta proportzionaltasun numerikoko erlazioak egoki erabiltzea (bihurketa faktorea, hiruko erregela sinplea, portzentajeak, banaketa proportzionala, interesak eta abar) eguneroko bizitzarekin lotura duten problemak ebazteko.

5. Problema bat ebazteko prozesuan, behar diren notazioak eta hurbiltzeak hautatzea eta enuntziatuaren arabera baloratzea, eta bai haiekin batera egingdako erroreen tamaina ere.
6. Espresio aljebraikoak eta ekuazio sinpleak osatzea segida numerikoak, taulak edo enuntziatuak oinarri hartuta, eta formula ezagun batean edo ekuazio batean inplizituki gertatzen diren zenbaki erlazioak interpretatzea.
7. Kalkulu aljebraikoaren teknika eta prozedura oinarrizkoak erabiltzea polinomio sinpleak indeterminatu batean batu, kendu edo biderkatzeko.
8. Formula aipagarriak atzeman eta garatzea eta problema sinpleak ebaztea, formula ezagunak erabiliz edo lehen graduko ekuazioak edo bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak planteatu eta ebaziaz.
9. Irudi lauen, gorputz oinarrizkoen eta haien konfigurazio geometrikoen osagai eta propietate bereizgarriak atzeman eta deskribatzea.
10. Translazioak, jirak eta simetriak aplikatzea irudi lau sinpleei eta antz ematea zer mugimendu klasek lotzen dituen planoan posizio bana duten bi irudi berdinean, eta finkatzea zer osagai aldagaitz dauden, zein zentro eta zein simetria ardatz.
11. Gorputz oinarrizkoen luzera, azalera eta bolumen neurriak lortzea problema geometrikoak ebazteko, Pitagorasen teorema, katetoarena eta garaierarena eta ohiko formulak erabiliz.
12. Koordenatu kartesianoen eta geografikoaren sistemak atzeman eta erabiltzea.
13. Funtzio konstante, lineal eta afinen ezaugarri oinarrizkoak atzematea haien forma aljebraiko edo grafikoan, eta grafikoki irudikatzea enuntziatu batez, taula batez edo espresio aljebraiko batez adierazita daudenean.
14. Finkatu eta interpretatzea zer handitze- tarte, zein puntu muturreko, jarraitasun, simetria eta periodikotasunen bidez ebalua daitekeen grafika sinple baten portaera (marra jarraikoa nahiz jarraigabea), eguneroko bizitzaren fenomeno natural nahiz praktikoekin lotura duten problemak ebazteko.
15. Taula eta grafiko estatistikoak osatu eta interpretatzea eta bai banaketa sinpleei dagozkien parametro estatistiko ohikoenak ere (moda, mediana, batezbesteko aritmetikoa eta desbideratze tipikoa) eta, hala behartzen bada, kalkulagailu zientifiko bat erabiltzea.
16. Laginaren espazioa finkatu eta interpretatzea baita esperimendu aleatorio sinple bati dagozkion gertaerak ere, eta probabilitateak esleitzea egoera esperimentaletan edo ekiprobabletan, Laplaceren Legea egoki erabiliz, eta bai arbol diagramak edo kontaketa pertsonala egiteko beste edozein estrategia ere.

Matematikak IV A

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Aritmetika eta aljebra*

1. Zenbaki osoen, zatikien eta espresio hamartarren bidezko eragiketak: eragiketen hierarkia eta parentesiaren erabilera.
2. Erro karratu baten hurbiltze hamartarra. Zenbaki irrazionala. Zenbaki errealen atarian. Zenbaki mota desberdinak sailkatzea bakoitzaren espresio hamartarraren arabera.
3. Zenbakiak zuzen errealean nola irudikatu. R-ko tartekak eta hurrenkera.
4. Notazio zientifikoa. Notazio zientifikoko eragiketak. Kalkulagailua nola erabili.
5. Errotzaille bakunen bidezko eragiketak. Errotzaileen eta berretzaille frakzionarioko potentzien arteko korrespondentzia.
6. Proportzionaltasun numerikoa berrikustea eta eguneroko bizitzako problema praktikoak ebazteko aplikatzea.
7. Polinomioak batu, kendu, biderkatu eta zatitzea. Ruffiniren erregela. Hondarraren teorema. Polinomioen deskonposizio faktoriala nola egin identitate aipagarriak erabiliz eta faktore komuna aterez.
8. Lehen eta bigarren graduako ekuazio eta sistemak aljebra bidez ebaztea.
9. Bi ezezaguneko bi ekuazio linealeko sistemak aljebra eta grafika bidez ebaztea.
10. Ekuazio bikarratuak eta ekuazio errotzailedunak ebaztea.
11. Ezezagun bateko lehen graduako inekuazioak eta inekuazio sistemak.
12. Ekuazioak, inekuazioak eta sistemak nola erabili problemak ebazteko.

II. *Geometria*

1. Irudi antzekoak. Antzekotasun arrazoa. Mapak eta planoak nola interpretatu. Eskalak.
2. Talesen teorema. Angeluen neurketa: radiana. Angelu zorrotz baten arrazoi trigonometrikoak. Triangelu angeluzuzenak ebaztea. Kalkulagailu zientifikoa nola erabili kalkulu trigonometrikoetan.

3. Geometria analitiko lauaren atarian. Puntu eta bektore koordinatuak. Bektoreak batu eta eskalar batez biderkatzea. Bi punturen arteko distantzia, bektore baten modulua.
4. Zuzenaren ekuazio bektoriala, parametrikokoak, orokorra eta esplizitua.

III. *Funtzioak eta grafikak*

1. Aldagaiak eta funtzioak.
2. Funtzio baten azterketa grafikoa. Grafiken osotarako ezaugarriak: eremua, eta ibiltartea, handitzea eta txikitzea, maximoak eta minimoak, simetriak, jarraitasuna eta periodikotasuna.
3. Lehen eta bigarren graduko funtzio polinomikoen azterketa. Tarteen bidez definitutako funtzioak.
4. Funtzio esponentzialen, alderantzizko proportzionaltasunaren eta erro karra-tuaren irudikatze grafikoa, balio-taula esanguratsuak oinarri.
5. Grafikak interpretatu eta irakurtzea, izadiko fenomenoekin, eguneroko bizitzarekin eta informazioaren munduarekin lotuak.

IV. *Estatistika eta probabilitatea*

1. Estatistika deskribatzaile unidimentsionala. Aldagai diskretu eta jarraituak.
2. Datuak kontatu eta aurkeztea. Tartek eta klase markak nola finkatu.
3. Maiztasun taulak, barra eta sektore grafikoak, histogramak eta maiztasun poligonoak nola osatu eta interpretatu.
4. Aldagai diskretu eta jarraituen ohiko zentralizazio eta sakabanatze parametroak nola kalkulatu eta interpretatu: batez-bestekoa, moda, mediana, ibiltartea, banqantze eta desbiderapen tipikoa.
5. Esperimentu aleatorioak eta gertakariak. Gertakarien bidezko eragiketak. Gertakari baten maiztasuna. Probabilitate bakuna eta konposatua. Baldintzapeko probabilitatea.
6. Probabilitate bakunak eta konposatuak esleitzeko konbinazio teknika desberdinak erabiltzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Zenbaki errealak atzeman, erlazionatu eta grafikoki aurkeztea eta ikaslearen eguneroko inguruarekin lotutako jardueretan erabiltzea, notazio egokiak hautatu eta problema bat ebazteko erabiltzen diren eragiketa eta prozedurei esangura ematea, lortzen diren emaitzak enuntziatuaren arabera baloratuz.
3. Zenbaki osoen eta frakzionarioen bidezko zenbaki espresio sinpleak estimatu eta kalkulatzeko, lau eragiketa elementaletan eta berretzaile osoko potentzietan oinarrituta, hartarako lehentasun arauak egoki aplikatuz eta zeinuak eta parentesia egoki erabiliz.
4. Zenbaki espresio arrazional eta irrazionalak kalkulatu eta sinplifikatzea eta kalkulagailu zientifikoa erabiltzea zenbaki errealeen bidezko eragiketetan, modu hamartarrean edo notazio zientifikoan adieraziak, kasuan-kasuan tokatzen diren lehentasun arauak eta hurbiltze teknikak aplikatuz.
5. Bihurketa faktorea, hiruko erregela, portzentajeak, tasak eta interesak erabiltzea eguneroko inguruarekin lotutako egoerak eta problemak ebazteko.
6. Kalkulu aljebraikoaren teknika eta prozedura oinarritzkoak erabiltzea polinomioen batuketan, kenketan eta biderketan osatutako espresio aljebraikoak sinplifikatzeko, polinomio horiek gai bat, bi edo hiru dituztelarik eta gehienez bi eragiketa kateatu daudelarik, bigarren graduko polinomio sinpleak, koefiziente eta erro osodunak, faktORIZATZEKO.
7. Problema sinpleak ebazteko zenbaki edo aljebra metodoak erabiliz, formula ezagunen erabilera eta ekuazioak, inekuazioak eta ekuazio nahiz inekuazioen sistemen planteamenduan oinarritzen direnean.
8. Behar bezala erabiltzea proportzionaltasun geometrikoaren erlazioa beste batzuekiko proportzionalak diren irudiak lortzeko eta mapa edo planoetan irudikatu diren irudien dimentsio errealak interpretatzeko, eskalak, zenbakizkoak nahiz grafikoak, behar bezala erabiliz.
9. Trigonometria elementaleko arazoak erabiltzea testuinguru errealeko problema trigonometrikoak ebazteko, kalkulagailu zientifikoa erabiliz.
10. Korrespondentzia analitikoak ezartzea puntu eta bektoreen koordenatuen artean eta bi punturen arteko distantzia kalkulatzeko erabiltzea, edo bektore baten modulua kalkulatzeko eta zuzenaren ekuazio orokor eta esplizitua atzeman eta lortzea.

11. Funtzio lineal, koadratiko, esponentzial eta alderantziz proportzionalen grafika kartesianoak atzeman eta irudikatzea, balio-taula baten edo espresio aljebraiko baten bidez emanak.
12. Grafika kartesiano sinple bat aurrean dela, finkatzea zein ezaugarri oinarrizko bide ematen duten hura interpretatzeko, hala nola handitze eta txikitze tarteak, muturreko puntuak, jarraitasuna eta periodikotasuna.
13. Eguneroko bizitzako fenomeno sozial edo praktikoei buruzko problemekin lotura duten grafiketatik informazio praktikoa atera eta interpretatzea.
14. Taula eta grafiko estatistikoak osatu eta interpretatzea, eta bai maizenik izaten diren parametro estatistikoak ere, banaketa diskretu eta jarraituei dagozkienak, kalkulagailua erabiliz.
15. Laginaren eremua finkatu eta interpretatzea eta bai esperimendu aleatorio sinple batekin batera datozen gertakariak ere.
16. Gertakari ekuiprobable bat gertatzeko probabilitatea kalkulatzeko, kontaketa teknika oinarrizkoak erabiliz, eta bai arbol diagramak, behar diren kontaketa konbinatorioko teknikak eta Laplaceren Legea erabiliz ere.

Matematikak IV B

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Aritmetika eta aljebra*

1. Espresio hamartar zehatzak, periodikoak eta ez periodikoak.
2. Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak.
3. Zenbaki erreala. Balio absolutua. R-ko hurrenkera. Tarteak. Zuzen errealean grafikoki nola irudikatu.
4. Notazio zientifikoa. Notazio zientifikoko eragiketak. Erroreak estimatu, hurbildu eta akotatzea hamartarrekiko kalkuluetan eta notazio zientifikoa. Kalkulagailua nola erabili.

5. Berretzaile frakzionarioko potentziak eta errotzaileak. Erlazio eta eragiketa oinarrizkoak.
6. Indeterminatu bateko polinomioak. Eragiketak. Ruffiniren erregela. Polinomio baten erroak. Hondarraren teorema. Identitate aipagarriak eta Ruffiniren erregela nola erabili polinomio baten deskonposizio faktoriala egiteko.
7. Lehen eta bigarren graduko ezezagun bateko ekuazioak aljebra bidez nola ebatzi. Ekuazio bikarratuak eta ekuazio errotzailedunak.
8. Bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistema bat aljebra bidez edo grafika bidez nola ebatzi.
9. Bigarren graduko ekuazio sistemak aljebra bidez nola ebatzi.
10. Desberdintzak eta inekuazioak. Lehen eta bigarren graduko eta ezezagun bateko inekuazioak. Lehen graduko eta bi ezezaguneko inekuazioak. Ezezagun bat eta biko lehen graduko inekuazio sistemak. Grafikoki nola ebatzi.
11. Ekuazioak eta ekuazio sistemak nola erabili problemak ebazteko.

II. *Geometria*

1. Irudi antzekoak. Antzekotasun arrazoia. Talesen teorema.
2. Angeluen neurketa: radiana. Edozein angeluren arrazoi trigonometrikoak. Triangelu angeluzuzenak ebaztea. Kalkulagailu zientifikoa nola erabili kalkulu trigonometrikoetan.
3. Geometria analitiko lauaren atarian. Puntu eta bektore koordenatuen arteko erlazioak. Bektoreak batu eta eskalar batez biderkatzea.
4. Bi punturen arteko distantzia eta bektore baten modulua. Segmentu bateko erdiko puntuaren koordenatuak nola kalkulatu.
5. Zuzenaren ekuazio bektoriala, parametrikokoak, orokorra eta esplizitua. Zuzenen arteko intzidentzia eta paralelismoa.

III. *Funtzioak eta grafikak*

1. Funtzioak. Funtzio bat aljebra bidez nola adierazi. Aldagaiak. Funtzioaren eremua eta ibiltartea. Funtzioen bidezko eragiketak.

2. Funtzio baten azterketa grafikoa. Grafiken osotarako ezaugarriak: handitzea eta txikitzea, maximoak eta minimoak, simetriak, jarraitasuna eta periodikotasuna.
3. Lehen eta bigarren graduko funtzio polinomikoen azterketa. Tarteen bidez definitutako funtzioen adiezazpidea.
4. Funtzio esponentzialen eta alderantziz proportzionalen irudikatze grafikoa, balio-taula esanguratsuak oinarri eta kalkulagailu zientifikoa erabiliz.
5. Grafikak interpretatu, irudikatu eta irakurtzea, izadiko fenomenoekin, eguneroko bizitzarekin eta informazioaren munduarekin lotutako problemak ebazteko.
6. Funtzio baten limite eta jarraitasunaren atarian. Alboko limiteak. Limite sinpleak kalkulagailua erabiliz eta grafika oinarri, nola finkatu. Limitea grafikoki nola notatu eta interpretatu. Asintotak. Funtzio arrazional sinpleak nola irudikatu.

IV. *Estatistika eta probabilitatea*

1. Estatistika deskribatzaile unidimentsionala. Aldagai diskretu eta jarraituak.
2. Datuak kontatu eta aurkeztea. Tartekak eta klase markak nola finkatu.
3. Maiztasun taulak, barra eta sektore grafikoak, histogramak eta maiztasun poligonoak nola osatu eta interpretatu.
4. Aldagai diskretu eta jarraituen ohiko zentralizazio eta sakabanatze parametroak nola kalkulatu eta interpretatu: batez-bestekoa, moda, mediana, ibiltartea, bariantza eta desbideratze tipikoa.
5. Kontaketa teknikak. Konbinatoriaren atarian. Konbinazio zenbakiak. Newtonen binomioa.
6. Esperimentu aleatorioak. Esperimentu aleatorio batekin lotutako lagin espazioa. Gertakariak. Gertakari baten probabilitatea. Maiztasunaren eta probabilitatearen arteko erlazioa. Probabilitatearen propietateak.
7. Laplaceren erregela. Probabilitate konposatua. Probabilitate baldintzatua. Gertakari menpekoak eta askeak.

Ebaluazio irizpideak

1. Zenbaki errealak atzeman, erlazionatu eta grafikoki aurkeztea eta ikaslearen eguneroko inguruarekin lotutako jardueretan erabiltzea, notazio egokiak hautatu eta problema bat ebazteko erabiltzen diren eragiketa eta zenbaki prozedurei esangura ematea, lortzen diren emaitzak enuntziatuaren arabera baloratuz.
2. Tarte bat adierazteko eta zuzen errealean irudikatzeko dauden moduak eza-gutzea.
3. Zenbaki espresio konbinatuak ebaztea potentzien eta erroen erregela eta propietate oinarrikoak erabiliz berretzaile frakzionarioko potentziak eta errotzaileak biderkatu, zatitu, sinplifikatu eta erlazionatzeko.
4. Batuketa, kenketa, biderketa eta potentziaz osatutako espresio aljebraikoak sinpletzea.
5. Polinomioak zatitzea eta Ruffiniren erregela eta identitate aipagarriak erabil-tea polinomio sinpleak faktorizatzeke.
6. Ekuazioak eta inekuazioak ebatzi eta emaitzak grafikoki interpretatzea.
7. Ekuazioak, inekuazioak edo ekuazio nahiz inekuazio sistemak behar dituzten problemak planteatu eta ebaztea, eta emaitzak problemaren arabera ote diren konprobatzea.
8. Trigonometria elementaleko erlazioak eta arrazoiak erabiltzea testuinguru errealeko problema trigonometrikoak ebazteko.
9. Korrespondentzia analitikoak ezartzea puntu eta bektoreen koordenatuen ar-tean eta bi punturen arteko distantzia kalkulatzeko erabiltzea, edo bektore baten modulua kalkulatzeko eta zuzenaren ekuazio orokor eta esplizitua atzeman eta lortzea, eta intzidentzia eta paralelismo kondizioen azterketa analitikorako erabiltzea.
10. Grafika kartesiano sinple bat aurrean dela, finkatzea zein ezaugarri oinarri-zok bide ematen duten hura interpretatzeko, hala nola eremua, ibiltartea, handitze eta txikitze tarteak, muturreko puntuak, jarraitasuna eta periodiko-tasuna.
11. Eguneroko bizitzako fenomeno sozial edo praktikoei buruzko problemekin lotura duten grafiketatik informazio praktikoa atera eta interpretatzea.

12. Lehen eta bigarren graduko funtzio polinomiko, esponentzial, alderantziz proportzional eta arrazional sinpleak irudikatzea, enuntziatu, taula edo espresio aljebraikoen bidez eman daitezkeenak, hala behartzen bada kalkulagailu zientifikoa erabiliz.
13. Funtzio baten alboko limiteak eta limitea grafikoki interpretatzea puntu batean eta infinituan.
14. Taula eta grafiko estatistikoak osatu eta interpretatzea, eta bai maizenik izaten diren parametro estatistikoak ere, banaketa diskretu eta jarraituei dagozkienak, kalkulagailua erabiliz.
15. Lagin espazioa finkatu eta interpretatzea eta bai esperimendu aleatorio sinple batekin batera datozen gertakariak ere, eta kalkulatzeko zer probabilitate dagoen gertakari ekuiprobable bat gertatzeko, kontaketa teknika oinarrizkoak erabiliz, eta bai arbol diagramak, behar diren kontaketa konbinatorioko teknikak eta Laplaceren Legea ere.

Prozedurak

Askotariko testuak ulertuz eta bakarka irakurtzea: manualak, dibulgazio liburuak, josteta matematikoei buruzko liburuak, aldizkariak eta abar.

Informazioa eskuratu eta jasotzea

1. Informazio iturriak erabiltzea.
2. Informazioa bilatu eta hautatzea.

Informazioa interpretatzea

1. Informazioa kode matematikoetara itzultzea.
2. Informazioa aljebra eta grafiko bidez irudikatzea.
3. Hitzeko enuntziatuak aljebra hizkerara itzultzea eta alderantziz.
4. Zenbakizko informazioa grafikoetara itzultzea eta alderantziz.
5. Grafikak osatzea.
6. Irudi geometrikoak aljebra bidez irudikatzea eta alderantziz.
7. Unitate, espresio eta notazio desberdinak erabiltzea.
8. Eskalako irudikapenak erabiltzea.

Informazioa aztertu eta prozesatzea. Inferentziak eta dedukzioak egitea, Ikerketa teknikak

1. Grafikak interpretatzea.
2. Egoerak aztertzea erlazioak inferitzeko.
3. Egoerak aztertu eta interpretatzea printzipio edo eredu matematiko bat erabiliz.
4. Eredu matematiko bat osatzen duten hipotesiak ematea.
5. Eredu batetik emaitzak aurreikustea.
6. Ereduak konparatzea.
7. Ikerketa tekniken plangintza egin eta erabiltzea.
8. Estrategia, algoritmo eta emaitza matematikoak erabiltzea problemak ebazteko.
9. Emaitzak eta ondorioak ebaluatzea.

Informazioa ulertu, antolatu eta komunikatzea

1. Datuak ordenatu eta hurrenkatzea.
2. Irudikatze sistemak erabiltzea.
3. Datuak antolatu eta sailkatzea.
4. Testu matematiko bat ulertzeko estrategiak.
5. Kontzeptu desberdinen artean erlazioak ezartzeko estrategiak.
6. Ondorioak antolatu eta adieraztea.
7. Txostenak egitea.
8. Lengoia hitzezkoa, aljebraikoa, grafikoa eta geometrikoa erabiltzea informazioa komunikatzeko.

Tresnak eskukatu eta erabiltzea

1. Zuzeneko eta zeharbideko obserbazioak egitea, neurtze tresnak erabiliz.
2. Kalkulagailua eta ordenagailua erabiltzea.
3. Zeregin matematikoak berezko dituen beste tresna eta materialak erabiltzea (konpasa, eskuaira, kartaboia, gorputz geometrikoak eta abar).

Jarrerak

Norberaren lanari buruzkoak

1. Nork bere gaitasunetan konfiantza izatea problemak ebatzi eta zenbakizko kalkulu eta estimazioak egiteko.
2. Problema matematikoak ebazteko, pertseberantzia eta malgutasuna izatea.
3. Edozein kontaketa, neurketa, kalkulu edo problemaren emaitzari buruzko zentzu kritikoa izatea eta hura errebisatu eta hobetzearen aldeko jarrera izatea.
4. Zenbakizko problema eta kalkuluetan, segitu den prozesua eta izan diren emaitzak argiro eta ordenatuki aurkezteko gustua eta aiherkundera.

Elkarlanari buruzkoak

1. Norberarenak ez bezalako iritzi, estrategia eta problema-ebazpenez interesa hartu eta errespetatzea.
2. Talde lana preziatzea eta baloratzea, jarduera jakin batzuk aurrera eramateko biderik hoberena den partez.
3. Ikaskideekin batera lan egiteko jarrera, behar duten laguntza emanaz.
4. Ikasgelako giroa egokia izan dadin laguntzea.

Matematikekiko harremanari buruzkoak

1. Baloratzea matematikaren lengoaia zein zehatza, sinplea eta baliagarria den eguneroko bizitzako eta ezagutza zientifikoaren hainbat egoera irudikatzeko, eta informazioa helarazi eta interpretatzeko.
2. Informazio edo mezu matematikoen edo lengoaia matematikoen bidez adierazitakoaren aurrean sentikor agertu, interesa hartu eta zentzu kritikoa azaltzea.
3. Problema matematikoei aurre egiteko jakin-mina eta interesa agertzea, eta irudi edo konfigurazio geometrikoen gainean, magnitude eta fenomenoen arteko harremanen ikerketa egiteko.
4. Egoeragatik hala komeni denean, objektuen, espazioen eta denboren neurketak egin edo estimatzeko jarrera.

5. Egindako neurketa eta kalkuluen emaitzak zein neurri unitate erabili diren zehaztuz adierazteko ohitura, kasuan-kasuan komeni direnak erabiliz.
6. Baloratzea zenbateko garrantzia duten teknologia berriek denetarikoinformazioak tratatu eta grafikoki irudikatzeko.
7. Kalkulagailuak eta ordenagailuak prozesu matematikoetan zenbateko garrantzia duten konturatu eta kritikoki baloratzea.
8. Konfigurazio geometrikoen edertasunari antz emateko sentikortasuna izatea, Izadian, Artean eta Teknikan agertzen direla konturaturaz.
9. Matematikaren Historia ezagutzeko interesa eta jakin-mina.

Musika

Sarrera

Musikaren arloak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzakoaren segida izan nahi du, eta horregatik lehen etapa hartako ezagupen, gaitasun eta trebetasunetan sakondu behar du. Bigarren hezkuntzan, musikaren ikasketa berriazkoagoa eta analitikoagoa izanen da, ikasleak bere garabidean abstrakzio gaitasun handiagoa bereganatua baitu. Hortaz, musikaren ikasketak pertsona osotara hezitzen ere lagundu behar du, musika agerkari kultural eta historiko gisa ezagutuz, eta ikasleak jarrera irekia, gogoetatsua eta kritikoa hartzen ikasi behar du gure gizartean musikak duen sorketa eta hedapen bideen aurrean.

Horrez gain, musikari buruzko hezkuntzak pertsona libreak prestatu nahi ditu, demokrazia batean elkarrekin bizitzeko gai direnak, giza eskubideak errespetatu eta ondare kultural eta artistikoa begiratuko dutenak. Estetikoki gozatzeko gauza ere izan beharko du musika ikasleak, eta entzuten jakitea, elkarrizketa, errespetua eta abar bezalako balioak beretuko ditu, gaurko gizartean hainbesteko garrantzia dutenak.

Musikak, nork duda, izugarritzko tokia hartzen du adoleszentearen eguneroko bizitzan eta beraz bide da haren hezkuntzan ere beste hainbestekoa izan dezan. Azpimarratu behar da, beraz, zenbateko garrantzia duen musika-kulturak pertsonaren prestakuntzan. Musikaren irakaspenak lagun egiten du ikaslearen sentikortasun artistikoa osatzen eta historian barrenako agerkari kulturalak ulertzen.

Musika irakasteak, gainera, lagun egiten du pertsonaren osotarako garapenean, gainerako irakasgaien irakaskuntza erraztuz; abstrakziorako eta arrazoibide logikorako gaitasuna gararazi, eta norbere zentzu kritikoa eta beregaintasun pertsonala faboratzen ditu.

Arlo honen ikasketa ikasleen musika prestakuntza sendoagotzeko lantzat hartu behar da. Hala bada, ikasketaren ardatza izanen da ikaslearen musikaganako sentikortasuna handitzea, musika bidezko espresioaren oinarriak ongi ikastea eta musika historian eta gizartean txertatutako fenomenotzat ulertzea.

Arlo honen helburuek noiz musika lengoia ezagutu eta erabiltzea hartzen dute xede, noiz musikak historian izan duen garapena, korrante estetiko desberdinetan konposizio teknikak ikasi eta aztertuz.

Edukiei dagokienez, musikaren irakaspenak bi alderdi oinarrizko ukitzen ditu: fenomeno musikalak deskribatzeko bide ematen duen lexiko bat bereganatzea eta aberastea, eta musika lengoia adierazpen artistikorako bidetzat ulertzea, testuinguru historiko eta sozialaren argitan.

Hautemate eta adierazte gaitasunak handitzeko bi tresna nagusi erabiltzen dira:

1. *Entzutea, tresna nagusi gisa.*

Musika entzun eta ulertzearen bidez bultza egiten zaie ikasleei musika lengoia-
ren osagai osagarriak zein diren eta bakoitzak zer funtzio duen antz ematera. Entzutea izanen da abiaburu, esan bezala, musika fenomenoaren gaineko azterketa eta gogoeta hasteko, horrek abstrakziorako eta gogoetarako gaitasuna hobetuko badu.

2. *Instrumentuaren, ahotsaren eta gorputzaren bidezko espresioak, lagun egiten baitute mugimendu, oreka eta koordinazio gaitasunak garatzen.*

Gaitasun horiek egokiro erabili behar dira etaparen maila diferenteetan barrena, ikasle bakoitzak eta ikasle talde bakoitzak zer ezaugarri dituen kontuan hartuz. Helburua ez da kantariak edo tresna-joleak formatzea; helburua, besterik gabe, aipatu prozedura horien bidez, zera da; musikaren fenomenoaren hobeki ulertzea, musika barrentzeko gaitasuna handituz eta gero bateko musika entzule kritikoak, gaurko gizarteak behar dituen bezalakoak, sortzen lagunduz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko edukien helburua da musika lengoia-
ren osagai oinarrizkoak ezagutarazi eta ikasleen espresio eta komunikazio gaitasunak handitzea. Eduki horiek behar adina kontzeptu, prozedura eta ja-

rrera sendotu nahi dituzte, ondorengo kurtsoetan iraganeko eta gaurko kulturaren eta gizartean izan den eta den musika ezagutzen hasteko, Nafarroako musikari garrantzia berezia emanaz. Lehen hezkuntzan ikasitakoa sakontzeko, musika lengoaiaren oinarrizko kontzeptuak landuko dira: soinua, doinua, erritmoa, harmonia, ehundura, forma, tinbrea eta abar.

Horrez gain, lehen bi kurtsoetan, beste eduki multzo bat eranstean da, musikaren kultura eta historian duen tokia ezagutzen hasteko. Ebaluazioan neurtu beharreko jarrera oinarrizkoak hauek dira: arretazko entzutea, isiltasuna, besteenganako errespetua, parte hartzea eta abar.

Hirugarren kurtsoan -musika arlo nahitaezkoa den azkena baita-, edukiak aberatsagotu eta bost guneren inguruan antolatzen dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako finkatu diren helburuak sendotu eta osatzeko. Lehenbiziko lauek musika sorketak gizartearekin duen harremana proposatzen dute, kultura eta artearen barrenean, historian barrena, musika ikasteko izaten diren prozedura oinarrizkoak lagun, besteak beste: entzutea, musikaren analisia eta interpretazioa. Azken multzoko edukiak gaurko gizarteko herri musika eta komunikabideak hartzen dituzte aintzat, gaur egun horiek musikaren sorketan, hedakuntzan eta kontsumoan duten garrantzia ikusirik.

Laugarren kurtsoan, edukiak bost gai multzotan antolatzen dira, ikasleentzat interesgarri izateko asmozkoak eta hirugarrenean ikasitakoak osatu eta zabaltzen dituztenak, teknologia berriei, Espainiako musikari eta beste herrietako musikari garrantzia berezia emanaz.

Musikaren irakaspenak musika-egiturak osatzen dituzten harremanak entzun, ezagutu eta buruan atxikitzeko gaitasuna sendotu behar du ikaslearengan. Horretarako ezinbestekoa da ikasleak parte hartzea eta motibaturik egotea, isiltasun eta errespetuzko giro batean.

Aniztasunari kasu egin beharra dela medio, bestalde, hainbat estrategia metodologiko desberdin erabiliko dira, ikasleek, zein bere gaitasun eta interesen arabera, duten ikasbide desberdinak faboratzeko. Hartarako, irakasleak zilegi izanen du askotariko materialak erabiltzea eta ikasgelan askotariko taldeak eginaraztea, bai lanak eta analisiak egiteko eta bai interpretaziorako.

Musika lengoaiaren irakaspenak musikaren osagai doinuzkoak, erritmikoak, formalak eta abar jaso, ezagutu edo are interpretatzean sentitzen den bizipena hartu behar du oinarri.

Kantua da musika adierazpenaren bide funtsezko eta berezkoenetako bat. Beti izan da eta da komunikazio bide boteretsua, zeinaren eduki musikala eta seman-

tikoa baliabide didaktiko ederra den musika sentitu eta sentiarazteko. Kantuaren erabilera ez da bakarrik ikaslea espresatzeko eta gozatzeko; musika aztertu eta ezagutzeko tresna ere izanen da.

Musika tresnak erabiltzea, dela bakarka dela taldean, lagun egiten du psikomotritzitateko trebetasunak garatzen. Nolanahi ere, bai ahotsa lantzea eta bai tresnetan trebatzea baliagarri dira diziplina, autokontrola, lagunekiko harremana sustatzeko, eta lagungarri dira, halaber, arreta eta kontzentrazio gaitasuna handitzeko, eta bai ahotsa eta entzumena eskolatzearen bidez musikaren aurreko sentikortasuna ere.

Inprobisazioa bide ona da sormena garatzeko, dela kantua, dantza, edo musika-tresnak erabiliz. Horrez gain, ahotsa zein entzumena eskolatzeko, beste zenbait baliabide metodologiko ere badaude, hala nola bokalizazioa, intonazioa, diktatu melodiko-erritmikoak, mugimendua eta abar. Praktika horiek guztiak kantuari edo tresna jotzeari ekin baino lehen egin daitezke eta haien helburua izanen da obra ikasterakoan sortuko diren zailtasunak prestatzea.

Musikaren irakas prozesua geldia izan daiteke; horregatik komeni da musika jarduera erabiltzea ikasleak ez daitezen aspertu eta ez dezaten adorerik galdu.

Musikaren diziplinartekotasunak berekin dakar musika eta beste arloen artean harremanak ezarri beharra. Prozedura honen bidez, ikasleak aukera izanen du gure gizarteak eskaintzen dizkion musika agerkari desberdinak kritikoki baloratzeko moduko prestakuntza bat eskuratzeko.

Entzutea, kantua, dantza, partiturak, egunkariko testu eta kritikak komentatzea, kanpo ikerketa, mapa kontzeptualak itxuratu eta interpretatzea, ikus-entzunezko baliabideak eta oro har teknologia berriak erabiltzea ezinbestekoak dira musika ikasgelako eguneroko jardunerako.

Zilegi izanen da prozedura horiek osatzeko denetarikoa jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak erabiltzea, hala nola kontzertuetara eta teatro musikalaren antzezpenetara joatea (balletak, operak, zartzuolak eta abar). Zilegi izanen da, halaber, ikastetxeetan, eskola orduz landara, bultzatzea koroak, musika taldeak eta dantza taldeak sortzea, elkarbizitza eta talde lanak dakarren diziplina bultzatuko dutenak.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketan tre-

batzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkion askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Musika lengoaiaren osagai oinarrizkoak ezagutu, hura aztertu eta interpretatu ahal izateko.
4. Bistaz eta soinuz, eskolako musika tresnak, orkestrakoak eta herri musikako batzuk bereizteko gauza izatea, eta bai ahots desberdinak ere.
5. Behar diren gaitasunak bereganatzea ideia musikalei ahotsa edo musika tresnak erabiliz itxura eman ahal izateko, espresio aukerak aberatsagotzeko.
6. Musika lanak analizatzeko gaitasuna garatzea, sormen artistikoaren adibide gisa; gizartean zer erabilera eta zer espresio asmo dituzten ulertzea.
7. Informazio musikalaren iturriak erabiltzen ikastea (partiturak, ikus-entzunezko testuak eta abar), musika ezagutu eta preziatzeko.
8. Prozesu musikalak ahoz zein idatziz azaltzeko gaitasuna ematen duen lexikoa ikastea eta norbere balorazioak egitea.
9. Musika lanak aktiboki eta arretaz entzutea sustatzea, norbere burua kulturalki aberasteko, eta bere gustu musikalak zabaldu eta ñabartzea sustatzeko.
10. Musika jardueretan parte hartzea, bai bakarka eta bai taldeka, jarrera irekia, interesatua eta errespetuzkoa agertuz, isiltasuna inoiz urratu gabe, ezinbesteko baldintza baita musika jarduerarako eta entzuten jakitearen jarrera garratu eta elkarrizketa faboratzen baitu.
11. Historian barrena musika agerpen desberdinak ezagutzea, eta jakitea zer esangura duten eremu artistiko eta soziokulturalean, Nafarroari garrantzia berezia emanaz.
12. Teknologia berriak musika berregiteko erabiltzen hastea eta jakitea zenbateko garrantzia duen musika berriak sortzeko.

Musika I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Musika lengoaia*

1. Soinua. Musikaren lehengai. Soinua, zarata eta isiltasuna. Musikan nola definitu eta aplikatu. Soinuaren parametroak: garaiera, intentsitatea, tinbrea eta iraupena: oinarrizko kontzeptuak.
2. Musika grafikoki nola irudikatu. Pentagrama. Notak, eta pentagraman nola kokatzen diren. Giltza musikalen eginkizuna: Sol giltzan nola irakurri. Soinuaren alterazioak: sostenitua, bemola eta bekoadroa. Figurak eta hauen balioa.
3. Erritmoa musikan. Pultsua eta erritmoa. Erritmo binario eta ternarioen kontzeptuak eta praktika. Konpasa: konpas elementalak eta nola aplikatu. Abiadura musikan: "tempo" a.
4. Doinua eta harmonia. Doinuaren kontzeptua. Bitarteak. Zer diren eta nola sailkatzen diren. Doinu egitura elementalak. Eskala musikala. Eskala handia eta txikia. Akordea. Akorde elementalak nola definitzen eta nola osatzen diren. Monodia eta polifonia.
5. Oinarrizko konposizio prozedurak eta musika antolatzeko moduak. Formaren osagaiak: temak, motiboak eta fraseak. Musika antolatzeko printzipio oinarrizkoak: errepikapena, bariazioa, zabaltzea eta murriztea. Egitura binario eta ternarioak.
6. Musika lengoaiarako hurbilbide praktikoa, irakurtzearen, entzutearen, interpretatzearen eta inprobisatzearen bidez.

II. *Ahotsa musikan*

1. Ahots aparatuen deskripzioa. Ahots motak eta kalitateak. Ahots taldeak.
2. Kantua: haren osagaiak aztertzea (erritmoa, doinua, harmonia eta forma) eta interpretazioaren alderdiak (afinazioa, fraseoa, espresioa eta abar). "A cape-

lla"-ko ahots erreperitorioa praktikatzea, musika tresnak eta hala bide bada mugimendua ere lagun. Kantu tradizionala Nafarroan.

III. *Musika tresnak*

1. Musika tresnak musika espresiorako bide: sailkapena. Orkestrako musika tresnak, herri tresnak eta eskolako tresnak. Trebetasun teknikoak eskola musika tresnetan praktikatzea: ikasketaren osagarri izateko moduko erreperitorio egokia hartzea.
2. Nafarroako tresna temak.

IV. *Musika kulturen eta gizartearen*

1. Mendebaleko kulturaren genero musikalak.
 - Musika erlijiosoa eta profanoa. Tresna musika eta ahots musika.
 - Musika eta teatroa: opera, zartzueta eta baleta.
2. Herri musika: zer den, zer ezaugarri dituen eta zer eginkizun duen. Ahots eta tresnarako adibideak. Herri musikaren organologia. Musika folklorikoa eta herri musikaren artean gaur zer diferentzia dagoen.
3. Herri musika gaurko gizartearen.
 - Definizioa, ezaugarriak eta eginkizuna.
4. Genero eta obra musikalen hurbilbidea, analisia, entzutea eta tresna zein ahotsen praktika erabiliz.

Musika II

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Musika lengoaia*

1. Soinua fenomeno fisiko gisa. Soinua nola sortu, transmititu eta hauteman.
2. Musika grafikoki nola irudikatu. Pentagrama eta tonuaren beste irudikatze grafikoak. Soinua irudikatu eta aldarazten duten figurak eta zeinuak: alterazioak, ñabardurak, lotura, puntilloa, eta abar. Musika giltzen kontzeptua eta eginkizuna.
3. Erritmoa. Erritmo musikalaren definizioa: erritmo motak. Konpasak. Konpas bakunak eta konpas anizkunak. Formula erritmikoak: hirukotxoak, sinkopak, denboraz kontrako notak, eta abar. Tempoak: musikaren abiadari eragiten dioten zeinu eta espresioak.
4. Doinua eta harmonia. Bitarteak eta doinuari eta harmoniari nola aplikatu. Doinua eta harmonia eraikitzeke osagaiak: motiboak, temak, fraseak; akordeak nola eraiki. Eskalak eta tonalitate zein modalitatearekin duten harremana. Eskala maiorrak eta minorrak nola eraiki. Ehundura: monodia eta polifonia. Kontrapuntua, homofonia eta doinu akonpainatua.
5. Konposizio prozedurak eta antolamendu musikaleko moduak. Forma musikalen atarian. Egitura finkoak eta askeak: rondoak, bariazioak, sonata eta abar.
6. Musika lengoaiarako hurbilbide praktikoa, irakurtzearen, entzutearen, interpretatzearen eta inprobisatzearen bidez.

II. *Ahotsa musikan*

1. Ahotsezko musikaren forma oinarrizkoenak: partitura eta entzutea erabiliz aztertzea. Musika korala: ahots formazioak.
2. Ahotsa eta kantua teatroan. "A capella"-ko ahots errepertorioa praktikatzeko tresnak eta hala bide denean mugimendua lagun direla.
3. Nafarroako doinu tradizionalak.

III. *Musika tresnak*

1. Musika tresnak: familiak, taldeak eta azpitaldeak. Tresnen morfologia eta soinua produzitzeko teknikak (pizzicatoa, legatoa, eta abar). Tresna taldeak: Ganberako musika eta musika sinfonikoa. Herri tresnen taldeak. Trebetasun teknikoak eskolako tresnekin nola landu: ikasketaren osagarri izateko moduko erreperitorio egokia erabiltzea.
2. Nafarroako musika temak tresnekin jotzea.

IV. *Musika kulturean eta gizartean*

1. Hirietako herri musika. Herri musika. Musikak eta beste arte agerkarietan nola esku hartzen duen. Musika eta dantza. Musika eta teatroa. Musika eta arte plastikoak: musikak dokumentuetan, pinturan, eskulturen eta abarretan duen agerkariak ezagutzea, ikus-entzunezko hedabideen bitartez. Musika eta zinea.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berriazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Soinuaren parametroak eta musikaren osagai oinarritzkoak, lengoia tekniko egokia erabiliz.
3. Orkestrako tresnen sonoritate bakoitza bereiztea, eta bai haien itxura eta ahots motarik arruntenak ere.
4. Musika grafikoki irudikatzeko erabiltzen diren osagaiak zein diren bereiztea (notak pentagraman non kokatu; sol eta laugarreneko fa giltzak; figuren iraupena; intentsitateari eta ñabardurei eragiten dieten zeinuak: erritmo eta tempoari buruzko jarraibideak eta abar).
5. Erritmo eta konpasak ezagutu eta aplikatzea, hartarako musika lan txikiak edo zatiak irakurri edo entzunez.
6. Musika sortzeko erabiltzen diren eskalak eta oinarritzko doinu eskemak hauteman eta bereiztea (eskala maiorrak eta minorrak eta abar).
7. Musika egitura elementalak inprobisatu eta jotzea, modu eta eskala sinpleen eta erritmo arruntenen gainean eraikiak, sormena garatzea helburu.

8. Monodia eta polifonia kontzeptua aztertu eta ulertzea eta entzutearen bitartez ehundura mota horiei antz ematea, eta musika eraikitzeako modurik sinpleenei ere, abstrakzio, analisi eta sintesi gaitasunak garatzeko.
9. Ikasitako musika agerkarietako batzuk identifikatzea, eta bakoitza bere testuinguru historiko eta sozialean kokatzea, Nafarroako musikari garrantzia berezia emanaz.
10. Musika beste arte eta kultura agerkariekin lotzea: arkitektura, eskultura, pintura eta abar.
11. Musika sorkariak eta ekintzak errespetatzea, jarrera kritikoa eta irekia hartuz, isilik entzuteko eta elkarriketa egiteko behar den diziplina mantenduz.

Musika III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Espresio musikala musika entzun eta interpretatzearen bidez*

1. Soinua hautematea eta musika hautematea: entzutea musikaren ezagupide. Analisi formala. Analisi tekniko-musikala. Testuinguruaren analisisa.
2. Interpretazioa. Ikasgelan tresna eta ahotsa nola landu. Interpretatea eta musika lana.

II. *Musika kulturaren eta gizartean*

1. Mendebaleko musikaren jatorria: aurrekariak. Musika monodikoa: kantu gregorianoa eta trobadoreak. Polifoniaren jatorria.
2. Pizkunde aroko musika. Pizkunde aroko polifonia: musika erlijioso eta profanoa. Pizkunde garaiko tresna forma. Ikasleen mailaren arabera hautatu lan polifonikoak ahotsarekin lantzea. Nafarroan musika tresnen ondare erlijioso eta profanoa.

3. Musika barrokoan. Musika erlijioaren eta monarkiaren zerbitzuan. Teatro musikala: operaren jatorria eta garabidea. Musika eta erlijioa: oratorioa, kantata, pasioa. Tresna forma berriak: suitea, sonata eta kontzertua.
4. Klasizismoko musika eta musikariak. Ahots formak. Tresna formak: sonata, kontzertua eta sinfonia. Klasizismoko musikariak.
5. Erromantizismo musikala. Definizioa. Pentsamendu erromantikoa eta musikan izan zuen eragina. Musika sinfonikoa: sinfonia eta kontzertua. Musika programatikoa. Poema sinfonikoa. Teatro musikala. Piano erromantikoa. *Lied*-a. Ganberako musika.
6. XX. mendeko musika. Aurrekariak: inpresionismoa. Abangoardiak. Gure garaiko musika joerak. XX. mendeko musika Nafarroan: Sarasate, Gayarre eta abar. Abangoardiak: Fernando Remacha eta abar. Gaurko musika taldeak. Ahots zein tresnarakoak, Nafarroan.
7. Dantza kultur agerkari gisa. Bilakaera eta testuinguru historiko eta soziala. Dantza motak: herri dantza, gortekoa, klasikoa gaurkoa eta abar. Dantza baliabide ikusentzunezkoak erabiliz nola ikasi, eta bai, hala bide denean ikasgelan landuz ere.

III. *Herri musika eta haren hedapena*

1. Hirietako herri musika. Agerkariak. Herri musika eta gaurko gizartea.
2. Musika komunikabideetan nola zabaltzen den. Soinua grabatzeko baliabideak. Musika irratian eta telebistan. Musika zinean. Baliabide ikus-entzunezkoak ikasgelan nola erabili.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berriazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Behar den musika lengoia tekniko aplikatzen jakitea entzungaien eta partituren analisisa egiteko.
3. Entzutearen bidez, bereizten jakitea Orkestrako tresnen sonoritateak eta espresio teknikak eta ahotsen erregistro eta kalitate desberdinak, eta bai ahots eta tresna talde arruntenak ere.

4. Partitura baten analisisia oinarri, zer osagai dituen deduzitzea, estiloz kokatu eta identifikatzeko.
5. Ikasgelako tresnekin musika lanak jotzen jakitea, edo bakarkako nahiz taldekako kantuak ere, ikasleen gaitasun eta ezagupenen araberakoak.
6. Entzutearen bidez, ahots eta tresna formazio arruntenak bereizten jakitea.
7. Musika estilo bakoitza bere testuinguru historikoarekin lotzea, Nafarroako musikari garrantzia berezia emanaz.
8. Musika estiloen diferentziak eta antzak finkatzea entzutearen eta analisiaren bidez.
9. Dantzaren agerkari desberdinak ezagutzea eta denboran zer bilakaera izan duten jakitea, bereziki Nafarroako dantzak.
10. Jakitea komunikabideek zenbateko garrantzia duten musika zabaltzeko.
11. Musika jarduera guztietan behar den diziplina eta isiltasuna mantentzea.
12. Nafarroan gaur den musika eskaintza ezagutzea.

Musika IV

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

1. *Musika, irudia eta teknologia*

1. Elektronika eta informatika nola aplikatu musikari. Tresna elektronikoak. Informatika musikalaren atarian: Musika sortzeko eta musika irakasteko aplikazio oinarritzkoak.
2. Musika eta zinea. Eginkizun eta esangura. Zine musikagileak. Zineko musikaren bilakaera: zine mututik gaurko zinera.
3. Musika irratian eta telebistan. Musika eta publizitatea.

II. *Hirietako herri musika*

1. Definizioa eta kontzeptua: hirietako herri musikak, musika folklorikoak eta "ikasia" delako musikak zer alde dituzten. Hirietako herri musikaren jatorria; saloia, teatroa eta barietateak. Jazza: jatorria, bilakaera eta zabalkundean. Kantua, hirietako herri musikaren espresio bide: tipologia.
2. Gazteentzako herri musika: alderdi estetiko eta soziologikoak. Gaurko hirietako herri musikaren mugimenduak.

III. *Espainiako musika*

1. Musika Erdi Aroan:
2. Kantigak eta kantu erlijiosoak. Pizkunde Aroko polifonistak; musika profanoa: Gabon kantak, kantuak eta erromantzeak. Barrokoa: Teatro musikala, musika erlijioso eta zibila. Musika eta gizartea Espainian XIX. eta XX. mendeetan.
3. Nafarroaren ekarpen musikala.

IV. *Herri musika Espainian*

1. Tradizio musikalak Espainian: eraginak eta dibertsitatea. Kantua Espainiako herri musikan: eginkizuna. Dantza eta musika. Musika tresnak tradizionalak.
2. Nafarroaren ekarpen musikala.

V. *Munduko musikak*

1. Folklore, etnomusikologia eta musikaren antropologia. Beste kulturetako musikaren ikerketa.
2. Iberoamerikako herri musika. Indigenen musika. Musika hispanoaren gaineko eragina. Kantua, dantza eta musika tresnak Iberoamerikan.
3. Beste kulturetako musika: Afrika eta Ekialde Urruna: Ekialdeko musika: Txina, Japonia, India eta beste lengoaiak. Musika Afrikan. Musika eta islama. Musika Afrika beltzean.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Musika-diskurtsoaren antolamenduari lotura duten lengoia osagaiak ezagutu, irakurri idatzi eta berregiteko gauza izatea.
3. Gure gizartean musikak zer funtzio desberdin betetzen dituen bereiztea, hainbat aldagairen arabera: erabilera asmoa, egitura formala, erabilitako hedabidea.
4. Musika sortzeko prozesuak aztertzea (partiturak, grabazioak eta abar), profesional bakoitzaren esku-hartzea baloratuz.
5. Musikak komunikabide desberdinetan dituen funtzioen ezaugarriak bilatzea: irratan, telebistan, zinean, eta publizitatean duen erabilera.
6. Musika lanak beren ezaugarri formal eta estilistiko esanguratsuenen arabera analizatzeko jakitea eta bakoitza bere testuinguru kulturalan kokatzea.
7. Behar den terminologia erabiltzea obra eta egoera musikalen analisian, behar diren iturri dokumentalak kontsultatuz.
8. Baloratzea zenbateko garrantzia duten teknologia berriek musika sortu eta berregitean.
9. Espainiako musika ondarearen testigantza inportanteenak ezagutzea eta zein bere testuinguruan jartzea.
10. Jakitea Nafarroak zer ekarpen egin dion herri musikaren eta musika ikasiaren historiari.

Prozedurak

1. Musika zatiak eta lanak entzun eta ezagutzea, hainbat tresna talderekin eta estilorekin.
2. Ikasgelan izandako ahots jarduerak grabatu eta ondoren komentatzea.
3. Askotariko erreperitorio bat erabiltzea ikasleak estilo, aro, kultura eta herri tradizio desberdinak ezagut ditzan, Nafarroari garrantzia berezia emanaz.
4. Interpretazio trebetasun teknikoak lantzea tresna bidezko espresio bide gisa.
5. Herri tradizioak ere lantzea (jostetak, dantzak, kantuak eta abar) tresna jostezarekin batera, Nafarroakoei garrantzia berezia emanaz.

6. Erritmo formulak, bitarteak, aldaketa harmonikoak eta osagai formalak entzun eta atzematea.
7. Hainbat estilo, genero, forma eta etniako musika aktiboki entzutea.
8. Ahozko zein idatzizko hizkuntza erabiltzea entzundako obra batek sortzen dizkizun sentsazio eta sentimenduak aditzera emateko.
9. Musika grabatua analizatzea begizko lengoaiekin konparaturik (zinea, teatroa, eta publizitatea).
10. Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea musika sortu, hauteman eta prezia-tzeko.
11. Zuzeneko musika prestatu, entzun eta haren gainean eztabaidatzea: kontzertuak, festak, musika sakratua, emanaldiak eta abar.
12. Musikaren erabileraren gainean ikertu eta eztabaidatzea.

Jarrerak

1. Ahots bidezko adierazpena, mintzatuz nahiz kantatuz, baloratzea komunikazio bide gisa eta ideiak zein sentimenduak adierazteko bide gisa.
2. Ikaskideen espresio gaitasun eta musika gaitasunak onartu eta errespetatzea.
3. Norbere espresio gaitasunak ere onartzea eta haiek gainditu eta hobetzearen aldeko jarrera hartzea.
4. Jarrera sentikorra eta kritikoa hartzea bakarkako eta taldeko ahots zein tresna interpretazioen aurrean.
5. Garai eta kultura desberdinetako kantu estilo eta forma desberdinen aurrean jarrera irekia izatea.
6. Hainbat eskualde eta zartanetako musika baloratzea, Nafarroako bereziki, gure musika ondarearen adierazpidea baita.
7. Tresna jarduera baloratzea bere agerkarrietan (akonpainamentua, interpretazioa, inprobisazioa), informazio, ikasketa eta dibertsio iturri gisa.
8. Musika tresnak ezagutu, zaindu eta mantentzeko interesa agertzea.
9. Tresna taldearen barruko arauak errespetatu eta betetzea.
10. Grafika musikala, konposizio eta interpretazio teknikak, formak, moduak eta abar ezagutzeko interesa agertzea, eta norbere iritzi musikala adierazterakoan lexiko zehatza eta egokia erabiltzeko interesa.

11. Musika talde desberdinak eta haien funtzio espresiboak ezagutzeko interesa, gaurko joera eta teknologien sorketa eta berrikuntza osagaiak baloratuz.
12. Musika lan eta ikuskizunak entzutea preziatu eta gozatzea, eta haien gaineko iritziak trukatzeari.
13. Musika obrak eta ikuskizunak entzuteko izaten diren portaera arauak errespetatzea.
14. Baloratzea komunikabideek eta teknologia berriek zenbateko garrantzia duten besteak ezagutu, gozatu eta harremanak izateko bide gisa.

Teknologia

Sarrera

Hitzaren erro filologikoa aintzat hartzen badugu, teknologiaren definizio bat hau xe izan liteke: Gizabanakoen nahiz gizataldeen premiak asetzeko asmatutako metodo eta prozedurak oinarri dituen ezagutza arloa, hartarako bere inguruko gizarteak dituen baliabideak erabiliz. Ezagutza horiek, errealitatea hautemateko metodo akademiko tradizionalen gain (obserbazioa eta esperimenezioa) hirugarren bide bat eranstean diote: errealitatearen gaineko esku-hartze zuzeneko. Bestalde, XX. mendean teknologiaren garapena izugarri azkartu delarik, beharrezkoa da arlo horretako prestakuntza ematea ikasleei, herritarrak prozesu horretan eragile aktiboa izateko ezagutzak behar baititu, dela teknologiak eskuratzen dizkion baliabideen kontsumitzaile gisa, dela berrikuntza sortzaile gisa.

Erantzunbehar hori aintzat hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako teknologia arloak eginahala egiten du ikaslearengan trebetasunak eta ezagupenak gararazten, gauza izan dadin objektu teknikoak ulertu eta erabiltzeko. Bultza ere egin nahi dio ikasleari Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzera; prozesu horretako tresnatzat erabiltzera, ordea, ez berezko helburua balitz bezala. Behar den gaitasuna eman nahi dio ikasleari problema errealei soluzioen bila espiritu berritzailea agertzeko. Hortaz, esan liteke teknologiaren arloa ezagupen-egintza bikotearen inguruan antolatzen dela, biek elkarren beteko garrantzia dutela. Materialak etengabe eskukatu beharrak, behar adina ezagupen teknikorik gabe, aktibismo soil batera eraman gaitzake, eta, era berean, ikasketa-irakasketa modu akademiko hutsak ere, esperimeneziorik gabe, entziklopedismo teknologiko fruitugabea ekar dezake.

Arlo honen helburu nagusia, hasierako definizioarekin bat, problema praktikoak ebatzea da. Hartarako, prozesu horretan gogo eman behar zaio ikasleak nola beretzen dituen behar diren ezagupen tekniko eta zientifiko horiek, gauza izan dadin bai dauden objektu teknologikoak aztertu, bai erabili eta bai eraldatzeko ere, beti gogoan edukirik azterbide horrek bere garaiko testuinguru sozial eta kulturala duela gertaleku. Problema praktikoak ebazteko prozesuak ezinbesteko du ikasleak talde lana ere egitea, lan-munduan sartzeko behar diren trebetasunak garatzeko, beste arlo batzuetan lortzeko zailagoak.

Edukiak zeregin teknologikoak behar dituen printzipio zientifiko eta teknikoaren inguruan antolatzen dira, eta askotarikoak baitira, hamar ataletan partitu dira, ikasleak osotarako ikuspegi bat izan dezan, hasi esku teknologietatik informazio eta komunikazio teknologia berrietaraino. Hona atal horiek zein diren:

1. Erabilera teknikoko materialak.
2. Adierazpen eta komunikazio grafikoko teknikak.
3. Egiturak eta mekanismoak.
4. Energia eta energiaren eraldaketa.
6. Antolamendua eta kudeaketa.
7. Informazioaren teknologiak.
8. Komunikazioaren teknologiak.
9. Kontrola eta Robotika.
10. Teknologia eta gizartea.

Ikasle bakoitzaren gaitasun maila diferenteari kasu egin ahal izateko, beharrezkoa da irakasleek zein bere ikasgelako programazioan, eginkizunak ere zatikatzea. Horrela, proiektuek, jarduera konplexua diren partez, bultzatzen egiten dute goi mailako gaitasunak garatzera, hala nola taldeen beregaintasuna, plangintza eta barne antolamendua, gogoan edukirik eduki eta ardatz metodologiko inportantea direla arlo honetan. Nolanahi ere, bultzatu behar da unitate didaktiko osotarakoak ere izan daitezen, hainbat eduki-multzotako gaiak dituztenak.

Azkenik, baina ez hutsenik, kontuan hartu behar da irakurriaren ulermena dela, curriculum osoan, zeharkako teknika edo prozedura inportanteena, ezinbesteko tresna baita arlo guztietako ezagupenak erdiesteko; trebetasun honen mende dago, izan ere, ikasleen arrakasta akademiko eta profesionala. Aipa dezagun, bada, zenbateko garrantzia duen ikaslea irakurritakoa ulertzeko tekniketan trebatzeak eta gai izateak arloko irakasleek ikasketarako aurkezten dizkion askotariko testuak ulertzeko.

Helburuak

1. Arloaren irakaskuntzan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
2. Hiztegi zientifikoa eta arloko oinarrizko kontzeptuak zehazki erabiltzea.
3. Nork bere gain eta sormenez problema teknologiko errazak ebaztea, ordenatuki eta metodikoki lan eginez, enuntziatua ulertuz, behar den dokumentazioa hautatuz eta landuz, baliabideak asmatuz, diseinatuz eta aurreratuz eta emandako problema ebazteko moduko objektu edo sistemak eraikiz, haien egokitasuna ebaluatuz.
4. Ezagupen eta trebetasun teknikoak ikastea eta beste arloetan ikasitakoekin batera erabiltzea, objektu eta sistema teknologikoak aztertu, diseinatu, eta itxuratzeke.
5. Objektu eta sistema teknikoak aztertzea, haien jardunbidea ulertu, haien osagaiak eta funtzioak ezagutzeko; haiek erabiltzeko modurik egokiena ikasi, haien diseinua justifikatzen duten arrazoiak jakin eta haien sorketak izan dituen ondorioak ezagutzea.
6. Ideia eta soluzio teknikoak adierazi eta komunikatzea eta bideragarriak diren ala ez neurtzea, behar diren baliabideak erabiliz.
7. Tresna, objektu eta sistema teknologikoak zehazki erabiltzeko behar diren trebetasunak garatzea, prozesu ordenatu eta planifikatuari segituz, ingurune atsegin eta seguru bat lortzeko behar diren ohiturak hartuz.
8. Erantzunbeharra bete eta laguntza emateko jarrerak garatzea talde lanean, erabakiak hartzerakoan eta eginkizunak egiterakoan, soluzioak bilatzean jarrera errespetuzkoa, irekia eta malgua hartuz.
9. Teknologia berriak agertu eta aurrera egiten dutenean, hori bizkorki onartu eta erabiltzea, eguneroko lanean txertatuz.
10. Internet egokiro erabiltzea bai hainbat iturritan hainbat formatuko informazioa aurkitzeko, bai ideiak trukatu eta komunikatzeko (posta elektronikoa, chat-a, bideokonferentzia, eta abar).
11. Bilaketetan jasotako informazioa antolatu eta lantzea eta behar den bezala aurkeztea.
12. Jarduera teknologikoaren alderako interesa eta jakin-mina piztea, ekimenak sortuz bai problema eta premiek hainbat sistema teknikoren bidez dituzten soluzioen gainean ikerketa egiteko, eta bai problema hori jorratzen duten burutzapen teknologiko berriak bilatu eta lantzeko.

13. Kritikoki aztertu eta baloratzea zenbateko garrantzia izan duen garapen teknologikoak gizartean eta ingurumenean, eta haien arteko erlazioan ere bai.
14. Baloratzea zenbateko poza eta satisfazioa ematen duen problemak ebazteko gaitasunak eta nola poz horrek eginahalean aurrera egiteko eta prozesuko zailtasunak gainditzeko bide ematen duen.

Teknologia I

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Erabilera teknikoko materialak*

1. Maizenik erabiltzen diren materialak. Sailkapen orokorra. Material naturalak eta eraldatuak.
2. Zura: Osaera. Propietateak eta ezaugarriak. Maizenik erabiltzen diren zurak. Zur naturalei eta eraldatuei nola antz eman. Zuraren eratorriak: papera eta kartoia. Ohol artifizialak. Zur naturalek eta manufakturatuek izaten dituzten aplikazio nagusiak.
3. Zurarekin lan egiteko teknika oinarritzkoak eta industrialak. Tresnak nola erabili eta nola segurtasunez erabili.

II. *Adierazpen eta komunikazio grafikoko teknikak*

1. Marrazte tresnak: trazatzekoak eta osagarriak. Erregela, eskuaira, kartaboia, konpasa. Euskarriak, formatuak eta normalizazioa.
2. Bozetoa eta krokisa, lan eta komunikazio tresnak.

III. *Egiturak eta mekanismoak*

1. Egitura erresistenteen motak: armazoiak eta ijetziak.
2. Triangulazioa.

3. Oinarrizko eginahalak. Osagai erresistenteak. Aplikazioak.
4. Oinarrizko egitura osagaiak; zimentazioa, euskarriak, habeak, forjatuak.

IV. *Elektrizitatea eta elektronika*

1. Korrante elektrikoaren atarian.
2. Zirkuitu elektriko sinpleak: osagaiak eta jardunbidea. Serieko eta paraleloko zirkuituen atarian.
3. Korrante elektrikoaren ondorioak: argia eta beroa. Aplikazioak.

V. *Antolamendua eta kudeaketa*

1. Ikasgela-lantegiaren antolamendua
2. Ikasgela-lantegiko segurtasun arau oinarrizkoak
3. Talde lana nola antolatu.

VI. *Informazioaren teknologiak*

1. Ordenagailua, osagaiak, jardunbidea eta erabilera oinarrizkoa. CPU delakoaren eta periferikoen oinarrizko deskripzioa: inpresora, monitorea, teklatura, sagua.
2. Ordenagailua, ideiak adierazi eta komunikatzeko tresna: testu prozesadoreak. Artxiboak nola editatu. Testu bateko taulak eta grafikoak. Beste aplikazio ofimatiko batzuen atarian.
3. Ordenagailua informazioa bilatzeko tresna: entziklopedia birtualak eta beste esuekarriak.
4. Informazioa nola bilatu internet sarearen bidez.

VII. *Teknologia eta gizartea*

1. Teknologia giza premien asebide: zeregin teknologikoaren oinarriak.
2. Asmatze eta diseinatze prozesua, aldiak: premia edo problemari antz ematea, ingurunea aztertu eta ikertzea, informazioa bilatzea, lanak diseinatu, planifikatu, kudeatu, aplikatu eta baloratzea.

Teknologia II

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Erabilera teknikoko materialak*

1. Burdin materialak: burdina: nola ateratzen den. Galdatzea eta altzairua. Nola lortzen den eta zer propietate ezaugarriak dituen: mekanikoak, elektrikoak, termikoak. Aplikazioak.
2. Burdinaz beste metalak: kobrea, aluminioa. Nola lortzen diren eta zer propietate mekaniko, elektriko eta termiko dituzten. Aplikazioak.
3. Metalekin lan egiteko teknika oinarritzkoak eta industrialak. Tresnak nola erabili eta nola segurtasunez erabili.

II. *Adierazpen eta komunikazio grafikoko teknikak*

1. Trazadura geometriko oinarritzkoak.
2. Irudikatze sistemak. Sistema diedrikoa, bistak. Cavaliere perspektiba eta perspektiba isometrikoa.
3. Marrazkiaren eta errealtatearen arteko proportzionaltasuna. Eskalak. Akotazioa.

III. *Egiturak eta mekanismoak*

1. Makina sinpleak: poleak, palankak, plano maldatua.
2. Mugimenduak transmititu eta eraldatzeko mekanismoen deskripzioa eta jardunbidea: gurpilak, poleak, engranajeak, torloju amaigabea, pinoi-katea, pinoi eta kreailera, espeka, gurpil exzentrikoa, biela eta biradera, torloju-azkoina.
3. Transmisio erlazioa. Aplikazioak.

IV. *Elektrizitatea eta elektronika*

1. Zirkuitu elektrikoa: oinarritzko magnitude elektrikoak: erresistentzia, potentzial diferentzia, intentsitatea. Ohm-en legea. Sinbologia. Serieko eta paraleloko zirkuitua eta mistoa.

2. Korrante elektrikoaren ondorioak: elektromagnetismoa. Aplikazioak.
3. Oinarrizko makina elektrikoak: dinamoak eta korrante jarraituko motorea. Korrante elektrikoak nola sortu.

V. *Energia eta energiaren eraldaketa*

1. Energiaren iturriak, sailkapen orokorra: energia berriztagarriak eta berriztaezinak. Energia berriztaezinak, erregai fosil: petrolioak eta ikatza.
2. Energia termikoa energia mekaniko nola bihurtu: lurrin makina, barne errektako motorea, turbina eta errektorea. Deskripzioa eta jardunbidea.

VI. *Antolamendua eta kudeaketa*

1. Kudeaketa dokumentu oinarrizkoak.
2. Problema praktikoak ebazteko faseak.
3. Ergonomia ordenagailuekin lan egiterakoan.

VII. *Informazioaren teknologiak*

1. Ordenagailuaren osagaiak: sarrerako osagaiak, atererakoak eta prozesua. Ohiko periferikoak.
2. Periferikoen eta CPU delakoaren arteko komunikazioaren atarian.
3. Marraketa bektorialerako eta grafismo artistikorako oinarrizko tresnak. Marraketa teknikoak eta diseinuko programaren baten aplikazio generikoa.
4. Kalkulu orriaren atarian. Formulak. Grafikak nola egin.

VIII. *Komunikazioaren teknologiak*

1. Ordenagailua komunikazio bide: internet. Web orriak, posta elektronikoa.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Zurak eta metalek material tekniko gisa dituzten propietate oinarrizkoak eza-gutzea. Haien barietateak erabili eta aplikazio tekniko arruntenetan antz ematea, eta haien esplotazioak ingurumenerako dakartzan eraginak baloratzea.
3. Eskalan, bistak eta perspektibak erabiliz, objektu sinpleak ulertu eta adieraztea, lan tekniko bat komunikatzea helburu.
4. Sistema sinpleetan osagai erresistenteei antz ematea, eta jasan behar dituzten esfortzuei.
5. Behar bezala erabiltzea zura eta metalak neurtu, itxuratu, lotu eta akabatze-ko tresnak, segurtasun irizpide egokiak erabiliz.
6. Makina konplexuetan seinalatzea zein diren bere osaeran mugimendua eral-datu eta transmititzeko mekanismo sinpleak, osotasunean nola ari diren azal-du eta hala bide denean transmisio erlazioa ere kalkulatzeko.
7. Aurretik markatutako efektu bat erdiesteko behar diren eragile mekanikoak konbinatzea.
8. Zirkuitu elektriko baten osagai funtsekoei antz eman eta haren barnean zer eginkizun duten ulertzea.
9. Korrante zuzeneko zirkuitu elektriko sinpleak diseinatzea eta muntatzea, oinarrizko eragileak erabiliz: pilak, etengailuak, pultsadoreak, konmutadoreak, erresistentziak, bonbillak, motorrak, elektroimanak eta erreleak, aurretik jarri-tako helburu bat gogoan.
10. Energia iturri bakoitzean, berriztagarria den ala ez den bereiztea, energiaren erabilera arrazionalak zenbateko garrantzia duen baloratuz, ingurumena ho-betzen lagunduz.
11. Eztanda motor bateko parteak bereiztea eta haren jardunbidea deskribatzea.
12. Ordenagailuko eta haren periferikoetako osagai oinarrizkoak atzeman eta osotasunean zer eginkizun duten ulertzea.
13. Ordenagailua lan tresnatzat erabiltzea, testuak prozesatu, hainbat euskarrita-ko informazioa aurkitu eta manejatuz, eta posta elektronikoz komunikatzeko.
14. Marrazki geometriko eta artistikoak egitea diseinu grafikoko programa erra-zen bat erabiliz.
15. Kalkulu orriak erabiltzea, formulak sartuz eta grafikak itxuratuz.

16. Bizkorki parte hartzea problema praktiko bat ebazteko moduko objektu edo sistema bat eraikitze behar diren jarduera bakarkako eta taldekakoen plan-gintza egiten eta segurtasunez eta metodikoki burutara eramaten.
17. Irizpide ergonomikoak aplikatzea ordenagailuarekin lan egiteko.

Teknologia III

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. Erabilera teknikoko materialak

1. Plastikoen atarian: sailkapena. Nola lortzen diren. Propietate ezaugarriak. Aplikazio industrialak eta etxebizitzetakoak.
2. Plastikoekin lan egiteko teknika oinarrizkoak eta industrialak. Tresnak eta tresnak nola segurtasunez erabili.
3. Eraikuntzako materialak: harrizkoak, zeramikazkoak. Propietate ezaugarriak. Materialen propietate mekanikoak.

II. Adierazpen eta komunikazio grafikoko teknikak

1. Marrazketa teknikoko normalizazioa.

III. Elektrizitatea eta elektronika

1. Zirkuitu elektrikoa: korrante alternoa eta korrante zuzena. Potentzia eta energia elektrikoa. Muntaia elektriko sinpleak: zirkuitu mistoak. Bira-norabidea itzularaztekoa.
2. Neurketa tresna oinarrizkoak: boltmetroa, anperimetroa, polimetroa.
3. Etxebizitzetako instalazio elektrikoak. Domotikaren atarian.
4. Oinarrizko Elektronika: osagaiak, trantsistorea etengailu. Oinarrizko muntaiak. Zirkuitu integratua.

IV. *Energia eta energiaren eraldaketa*

1. Energia elektrikoa: nola sortu, garraiatu eta banatzen den. Zentral hidroelektrikoak, termikoak eta nuklearrak.
2. Hondakinak nola tratatu.
3. Energia berriztagarriak: haizearen energia eguzkiarena eta hotz-beroaren energia aprobetxatzeko sistema teknikoak.
4. Energia berriztagarriak erabiltzeak zer garrantzi duen.
5. Etxebizitzetako instalazioak: ura, saneamendua eta berokuntza. Zirkuitu frigorifikoa eta bero punpa.

V. *Antolamendua eta kudeaketa*

1. Produktu kimikoetarako segurtasun arauak. Eremu elektrikoaren segurtasun arauak.

VI. *Informazioaren teknologiak*

1. Ordenagailuaren osaera era jardunbidea.
2. Informazioaren transmisioa.
3. Sistema eragilea. Programazio kontzeptuaren, Lengoaien eta aplikazioen garapenaren atarian.
4. Ordenagailua informazioaren antolatzaile: datu baseen kudeatzaileak. Informazioa nola bilatu, datu base bat nola sortu eta eguneratu.

VII. *Komunikazioaren teknologiak*

1. Harizko komunikazioa eta harigabekoa: korrante elektrikoa eta uhin elektromagnetikoak. Argi seinalea nola transmititu. Kobrezko eta zuntz optikozko transmisoreak. Telefonía, irratia eta telebista. Eremu irrati elektrikoa.
2. Ordenagailua komunikabide: komunitate eta ikasgela birtualak. Chat eta bi-deokonferentziak. Foroak. Posta elektronikoa.

VIII. *Kontrola eta robotika*

1. Kontrol eta potentzia sistemen atarian.
2. Makina automatikoak eta Robotak: automatismoak. Automata programagarriak.
3. Robot bat nola eraiki. Robot batek mugitzeko behar dituen osagai mekaniko eta elektrikoak.

IX. *Teknologia eta gizartea*

1. Teknologia eta ingurumena: Garapen teknologikoaren ingurumenaren gaineko eragina.
2. Kutsadura. Energi baliabideak eta lehengaiak agortzea.
3. Teknologia zuzentzaileak. Garapen jasagarria.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berriazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Plastikoen material tekniko gisa zer oinarriko propietate dituzten jakitea, maiz erabiltzen diren objektuetan plastikoak atzematea eta itxuratze eta lotze teknika oinarrikoak behar bezala eta segurtasunez erabiltzea.
3. Eraikuntzan eskuarki erabiltzen diren materialen ezaugarriak eta barietateak ezagutzea, harrizkoak, eta zer aplikazio eta zer itxuratze eta lotze teknika dituzten.
4. Zirkuitu simple bat osagai elektronikoekin muntatzea, gutxienez diodoak, transistoreak eta erresistentziak erabiliz, alde aurreko eskema bat oinarri hartuta.
5. Planoak eta eskemak grafikoki irudikatzea, behar bezalako sinbologia erabiliz eta marrazketa teknikoaren arauak begiratzuz.
6. Energia elektrikoaren produkzio bideak ezagutzea, eta hura nola eraldatu eta nola garraiatzen den jakitea, energia alternatiboen erabilera baloratuz.
7. Etxebizitza bateko instalazioak osatzen dituzten osagai oinarrikoak ezagutzea eta haien oinarriko jardunbidea irudikatzea.

8. Ordenagailuko osaera fisikoaren osagaiak atzeman eta haren jardunbideko prozesu logikoak azaltzea.
9. Ordenagailua erabiltzea Interneten informazioa bilatu eta posta elektronikoz, chat-ez eta bideokonferentziaz komunikatzeko.
10. Datu base kudeatzaile bat erabiliz informazioa aurkitzea. Datu base bat sortzea, lehendik sortutako datu base bat eguneratzea eta aldatzea.
11. Harizko telefoniaren, irradiaren eta telebistaren sistemak eskema batean deskribatzea eta bai haien jardunbideko printzipio nagusiak ere.
12. Automatismoa atzematea eguneroko sistema teknikoetan, eta zer eginkizun duten esplikatzea.
13. Sistema mekanikoak eta elektrikoak erabiliz, robot simple bat muntatzea, hotsesamanda mugitzeko gai dena.
14. Ingurumenaren gainean jarduera teknologikoak zer eragin duen atzematea, eta konparatzea jarduera horrek zer onura eta ingurumenean zer kalte dakartzan, bereziki energia aurreztu beharra eta hondakinak tratatu beharra baloratuz.
15. Irizpide ergonomikoak eta osasun eta higienekoak aplikatzea ordenagailuarekin eta teknologiko Ikasgela-lantegiko beste baliabideekin lan egiteko.

Teknologia IV

Edukiak

Arloko lengoaiaren giltza: irakurriaren ulermena.

I. *Adierazpen eta komunikazio grafikoko teknikak*

1. CAD Ordenagailuz lagundutako diseinuaren atarian: bi dimentsiotako marrazkiak.

II. *Elektrizitatea eta elektronika*

1. Funtsezkoa osagai elektronikoak
2. Sistema elektronikoak, blokeak: sarbidea, irtenbidea eta prozesua.

3. Oinarrizko osagai elektronikoak: kondentsadorea, transistorea, erresistentziak, zirkuitu integratu bakunak. Sarbideko dispositiboak: etengailuak, magnitude fisikoen arabera aldatzen diren erresistentziak (LDR, VDR, NTC eta PTC).
4. Irtenbideko dispositiboa: burrunbagailua, errelea, diodoa, led-a, motorra.
5. Prozesuko dispositiboa: zirkuitu integratuak. Aplikazioak.

III. *Antolamendua eta kudeaketa*

1. Enpresa, nola antolatu, kudeatze dokumentuak.

IV. *Informazioaren teknologiak*

1. Ordenagailua, kontrol-sistema: seinale analogikoak eta digitalak. Interfazeak, kontrolatze txartelak.
2. Datuak nola eskuratu. Kontrol programak. Informazio numerikoa kalkulu orrien bidez nola tratatu.
3. Ordenagailu arteko komunikazioa: sare informatikoak.

V. *Komunikazioaren teknologiak*

1. Harigabeko komunikazioa: seinale modulatzaila eta eramalea. Komunikazio sare handiak. Telefonía mugikorra. Sistema zelularrak.
2. Satelite bidezko komunikazioa. Deskripzioa eta printzipio teknikoak. Posizio sistemas.
3. Garapen ikuspegiak. Datuak nola kontrolatu eta babestu.
4. Internet. Deskripzioa. Haren jardunbideko printzipio teknikoak. Komunitate eta ikasgela birtualak. Konexio motak: RDSI, ADSL, kablea.

VI. *Kontrola eta robotika*

1. Ingurua hautematea: maizenik erabiltzen diren sentsoreak. Industrian, medikuntzan eta abarretan zer erabilera dituzten.
2. Robotak kontrolatzeko lengoia: programazioa. Sistemaren berrelikadura.

VII. *Teknologia eta gizartea*

1. Teknologia eta haren garabide historikoa. Funtsezko mugarrak: iraultza neolitikoa, iraultza industrial, XX. mendeko lasterragotze teknologikoa. Aro digitaleko teknologia. Teknologia eta lan eta gizarte arloko aldaketek zer harreman ditzuten. Objektu teknikoak nola bilakatzen diren ezagupen zientifiko eta teknologikoei esker eta egitura sozioekonomikoen eta erabilgai dauden energien arabera.

Ebaluazio irizpideak

1. Testuen eta berariazko hiztegiaren esangura ulertzea.
2. Ordenagailua erabiltzea diseinua laguntzeko tresnatzat, objektu sinpleak grafikoki irudikatzen.
3. Sistema elektronikoa erreal batean sarbide, aterabide eta prozesu multzoak eta haien eginkizuna atzematea.
4. Sistema elektronikoa sinple bat muntatzea sarbide, aterabide eta prozesu multzoak erabiliz.
5. Kalkulu orria manejatzea informazio numerikoa tratatu eta portaerako jarraitubideak aztertzen.
6. Eremu lokaleko ordenagailu sare bat eta Internet sarea oinarriz deskribatzea, eta konexio bat instalatu eta konfiguratu.
7. Satelite bidezko komunikazio sistema bat deskribatzea, eta bai telefonia mugikorreko bat ere, haien jardunbideko printzipioak esplikatuz.
8. Haren jardunbideko eremuan informazioa lortzeko sentore batzuk erantsirik dituen robot bat muntatzea.
9. Robot bat eta haren jardunbidea autonomoki kontrolatzeko bide ematen duen programa bat garatzea, ematen zaion elikaduraren arabera.
10. Ordenagailua erabiltzea datuak eskuratu eta interpretatzeko tresnatzat eta eskuratu diren datuekin beste prozesu batzuk berrelikatzen.
11. Garapen teknologikoko mugari handiak ezagutzea eta zenbait objektu teknikok izan duten bilakaera, gizarte eta lan aldaketetan duten inplikazioa baloratuz.
12. Garapen jasagarriak zer aukera dituen baloratzea, gaur egungo ingurumen baldintzetan, eta jardura teknologikoa ingurumenaren gainean duen eragina.
13. Enpresa organigramak interpretatu eta enpresetako dokumentuak itxuratzea.

Prozedurak

Denetarikoa testuak bakarka eta ulertuz irakurtzea: manualak, dibulgazio liburuak, kazeta espezializatuak eta abar.

Informazioa eskuratu eta jasotzea, errealitateko datuak ateratzea eta obserbazioa

- Objektu, zirkuitu, instalazio eta ingurune teknologikoko prozesu elementalak nola ari diren sistematikoki hautematea.
- Objektu edo sistema bat osatzen duten eragileak atzematea.
- Baliabide teknologikoekin ebatz daitezkeen problemak eta premiak zein diren atzematea.
- Produktu bat lortzeko erabiltzen diren prozesuak zein diren atzematea.
- Magnitude fisikoak behar diren tresnak erabiliz neurtzea.
- Telematika erabiltzea informazio ardurakoa eskuratzeko.
- Inkestak helburu jakin baterako egitea.
- Hainbatetariko informazio iturriak erabiltzea: ahozkoa, paperezkoa edo digitalizatua.
- Prozesu teknologikoak ingurune erreal batean hautematea, edo maiz erabiltzen diren sistema multimedia eta ikus-entzunezkoak erabiliz.
- Analisi eragiketak baliabide informatikotzat erabiltzea.

Datuak interpretatu eta lantzea. Ondorioak ateratzea eta kontzeptuak aplikatzea. Deskodetzea

- Instalazio, zirkuitu edo aparatu bat deskribatzea haren irudikapen grafikoa oinarri.
- Marrazkiak, eskemak, grafikak eta dokumentu normalizatuak irakurri eta interpretatzea.
- Datu base simple informatizatuak sortzea.
- Garai historiko desberdinetan problema teknikoari eman zaizkien soluzioak erregistratu eta konparatzea.
- Kontzeptu propioak eta beste arloetakoak aplikatzea problema teknikoak ebazteko prozesuan.
- Objektu eta sistemak planoak eta maketak erabiliz irudikatzea.

- Aplikazio sinpleetan kalkulu orria erabiltzea.
- Arrisku egoerak desagerrarazi beharrezko operazioak egitea.
- Aurrerabide teknologikoak sortzen dituen problema egoerak aztertzea.

Informazioa aztertu, inferentziak egin, plangintza egin, diseinatu, autorregulazioa eta erregulazio soziala

- Proiektu bat premia batetik abiatuta egitea: diseinua, materialak hautatzea, garapena, azterlan ekonomikoa, eraikitzea eta ebaluatzea.
- Objektu edo sistema bat osatzen duten parteak edo eragileak elkarrekin nola lotu.
- Neurketen ondoriozko magnitudeak kalkulatzeko.
- Artefaktu eta sistemen unibertsoaren azpiko legeak zein diren atzematea.
- Lan operazio segida logiko baten plangintza egitea.
- Eginkizunak esleitu eta lan taldean erabaki diren barne jardunbideko arauak errespetatzea.
- Baliabideak antolatu, kudeatu eta kontrolatzeko tekniken plangintza egin eta erabiltzea.
- Eraiki beharrezko prototipoaren arabera materialak hautatu eta eragileak garatzea, aldagai tekniko, estetiko, ekonomiko eta eraginezkoak aintzat hartuta.
- Lehengaiak lortu eta eraldatzeak ingurumenaren eta gizartearen gainean izaten duen eragina aztertzea.
- Hainbat eragile elektriko eta mekanikok esku hartzen duten prototipoak diseinatu eta eraikitzea.

Tresnak manipulatu eta erabiltzea. Eraikuntza

- Oinarrizko tresnak eraikuntza prozesuetan nola aplikatu (neurtzeko, trazatzeko, ebakitzeko, lotzeko, itxuratzeke, akabera emateko).
- Programa ofimatikoetako ezaugarri oinarrizkoak eta aurreratuetakoren bat erabiltzea.
- Marrazketa teknikoko tresnak egoki erabiltzea.
- Baliabide grafikoak (bozetoak, krokisak, eskema funtzionalak, eta abar) erabiltzea ideiak itzulikatuz eta jardunbide zikloak esplizitatzeko.
- Dokumentu tekniko sinpleak itxuratzea testuak eta baliabide grafikoak erabiliz.

- Berregite eta informatika baliabideak erabiltzea objektuak aurkeztu eta dokumentu teknikoak itxuratzeko.
- Eragile eta dispositibo egokienak aplikatzea makinak edo sistemak eraikitzeko.

Informazioa ulertu eta antolatzeke

- Mapa kontzeptualak osatzea ikas-irakas prozesu baten laburbiltzeko.
- Proiektuen metodologia aplikatzea problema teknikoak ebazteko.
- Enpresa organigramak itxuratzea.
- Iturri desberdinetako informazioa integratzea.

Ideiak eta emaitzak komunikatzea

- Informazioa tratatzeko prozesuak irudikatzea, baliabide grafikoak, digitalak ere barne erabiliz.
- Lexiko egokia erabiltzea, batez ere lexiko teknikoa.
- Oinarrizko administrazio dokumentuak itxuratzea.
- Problema baten aurrean hartu diren soluzioak komunikatzea, hainbat adierazpen baliabide erabiliz.
- Prozesu teknologiko osoaren bilakaera eta emaitzak biltzen dituzten txostenak jaulkitzea.

Balorazioa

- Emandako problema baten aurrean norberak izan dituen emaitzak baloratzea.
- Teknologia desberdinen bilakaera eta hartutako soluzioak aztertzea, eta bai ingurumenean eta pertsonengan izan duten eragina ere.
- Eztabaida ongi hotsemana, teknologiaren inguruko gaien gainean.

Jarrerak

- Soluzioak bilatzeko eta norbere ezagupenak eta beste jakintza arloetakoak aplikatzeko ekimena hartzea, problemak ebatzi eta erabaki teknikoak hartzerakoan.
- Jarrera kritikoa izatea problema bati emandako soluzio motaren aurrean, soluzio diferenteak edo osagarriak emateko eginahala eginaz.

- Jarrera metodikoa.
- Jarrera sortzailea.
- Ikasgela-lantegiko baliabideak egoera onean eduki eta erabiltzearen aldeko jarrera.
- Txukuntasuna, ordena eta ongi egindako lana baloratzea.
- Objektu eta sistemen jardunbidea ezagutzeko jarrera irekia eta jakin-minezkoa.
- Norbere soluzioak preziatzeko jarrera.
- Emandako problema teknologikoei soluzioak aurkitzeko lehia jarraikia.
- Ezagutza teknikoko eta esku jarduerako era desberdinak preziatu eta errespetatzea.
- Konturatzea normalizazioa beharrezkoa dela adierazpena eta komunikazioa hobetzeko.
- Ekintza baino lehen gogoeta egiteko jarrera.
- Zehaztasuna eta lexiko teknikoa baloratzea.
- Segurtasun eta higiene arauak errespetatzea.
- Aurrerapen zientifiko-teknikoak ezagutzea, eta haien aportazio, arrisku eta gizarte kostuen berri jakitea.
- Informazioaren, komunikazioaren eta kontrolaren teknologia berriak (TICC) erabiltzeko interesa agertzea.
- Balorazio, obserbazio eta estimazioetan zorrotz eta arduratsu jokatzeko.
- Saiabide praktikoak egitearen aldeko jarrera.
- Egindako hutsetatik ikasteko jarrera.
- Zenbait material erabiltzerakoan kontuz ibiltzea.
- Giza ekintzak ingurumenaren gainean izaten duen eraginaren aurrean sentikor izatea.
- Jakintza ondare teknikoa eta aurreko belaunaldiek egin dioten aportazioa baloratzea.
- Mundu teknologikoaren inguruko gaietarako jakin-mina.
- Beste momentu historiko batzuetan problema teknikoei eman zaizkien soluzioak konparatu eta geroan izan dezaketeten bilakaerari igartzeko jakin-mina.
- Lankidetzaren aldeko jarrera.
- Besteen ideianganako errespetua.
- Talde lanaren aldeko jarrera.

87/2002 FORU AGINDUA, martxoaren 26koa, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Erlijio Katolikoaren arloko curriculumaren argitalpena onesten duena.

Hezkuntza Administrazioei dagokie Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma zehaztea beren eskumeneko lurralde esparruan, eta hartan, ekainaren 14ko 1007/1991 Errege Dekretuan ezarritako gutxieneko irakaskuntzak sartzea (abenduaren 29ko 3473/2000 Errege Dekretuak aldatua). Erlijio Katolikoaren curriculumari dagokionez, abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretuak, Erlijioaren irakaskuntza arautzen duenak, bere 4.1 artikuluan ezartzen du Erlijio Katolikoaren curriculuma Eliz agintariak finkatuko dutela.

Hori horrela, Iruña eta Tuterako Artzapezpikutzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako erlijio katolikoaren curriculuma aurkezten du, NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadin.

Horregatik, eta Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernua eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 36.2.b) eta c) artikuluen bitartez emandako ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Elizaren agintari eskudunak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako proposatu Erlijio Katolikoaren curriculuma NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko baimena ematea. Curriculum hori Foru Agindu honen eranskinean agertzen dena da.

2. Foru Agindu hau Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuari, Ikasketen Antolamendu eta Lanbide Heziketaren Zerbitzuari, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikus-

kapen Teknikorako Zerbitzuari, Ikasketak Antolatzeko Atalari, Hezkuntza Berri-tatzeko Atalari eta Iru eko Artzapezpikutzari igortzea, behar diren ondo-rioak izan ditzan.

3. Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 20ko 195/1994 Foru Agindua indargabetzea, zeinak Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Erljio Katolikoaren arloko curriculumaren argitalpena onesten duen.

4. Foru Agindu honek NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALean argita-ratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta bertan ezartzen dena 2002-2003 ikasturtean aplikatuko da.

Iruñean, bi mila eta biko martxoaren hogeita seian.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria

Jesús María Laguna Peña

Erljio Katolikoak

Sarrera

Erljio heziketa eta moral katolikoak ikasleek aurreko etapan ikasi eta barrendurik eduki behar dituzten edukietan sakondu nahi du, zentzu kritikoagoa eta garrantzi gehiago emanaz ikasleak sorketarako, berrikuntzarako eta erljio katolikoaren oinarrizko irakaskuntzak aberasteko orain duen gaitasunari.

Eskolaren zeregina baldin bada gizon libre, kritiko eta sortzaileak egitea, ikaslearen nortasuna osotara umotzea lortuko du ikaslea gai denean eskualdatu dizkionten balioak bere-bere proiektu pertsonalaren arabera bereganatu, baztertu eta aldatzeko. Eskolak, horrela, bizitzaren azken oinarri eta zentzuari begira ezartzen du ikaslea, eta beraz zientzia eta kulturaren azken zentzuari begira. Ikasleak bere buruari egiten dizkion galdera handiak argitzea eta erantzutea da helburua, aukera libre eta pertsonal gisa bere gain hartu beharrekoak. Eskolaren helburua da ikasleak bere nortasun pertsonala iristea; baina nortasun hori ez daiteke burutan ongi atera pertsona gisa duen existentziaren azken buruko eta osotarako esanguraz ongi orientaturik egon gabe.

Helburuak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean ikasleak honakoak egiteko gai izan behar du:

1. Gizakiaren duintasunaren aurrean bere burua kokatzea, dela bere jatorri, bere transzendentzia eta helburuagatik, eta antz ematea erlijio gertaeraren elementuei eta historian eta herrien bizitzan izan dituen agerkariei, izatearen gaineko galdera handiei erantzunez.
2. Gizakiaren galdera sakonak aztertzea (bizitza, heriotza, oinazea eta abar), kristau fedea bizitzaren zentzuaz ematen dituen erantzunak baloratzeko.
3. Fede katolikoaren dokumentu oinarrikoak ezagutzea, kristau mezua garratzen dutenak, mezu errebelatu hori eta haren fedezko formulazioak ulertu eta behar bezala adierazteko.
4. Biblia nola erabili jakin, bere jatorrian, forman, helburuan eta interpretazio egokian kokatuz Israelgo historia eta erlijio esperientziarekiko, eta Jainko aitak gizakiei egindako errebelazioaren adierazpide gisa.
5. Jesukristo jainkoaren seme gizon artean haragitua dela ulertzea, hartarako haren mezua, bizitza, eta Espiritu Santuaren bidez elizan duen presentzia ezagutzeko eta aztertuz.
6. Elizaren zentzua eta helburua ezagutu eta baloratzea: Kristok gizakiari eskaintzen dion humanizazio eta salbazio zerbitzua instituzio gisa gauzatzea eta Espainia zein Europako gertaera garrantzitsuenetan izan duen aportazioa deskubritzea.
7. Zeinu eta sinbolo ardurakoenen esangura interpretatzea, sakramentuei eta testuinguru sozial zein erlijiosoan maizenik izaten diren ospakizunei arreta berezia emanaz, erlijio sinismenen kausazko bereizkeria galaraziz.
8. Antz eman eta aztertzea zein oinarri arrazional eta errebelaziokok justifikatzen duten Elizaren irakaskuntza morala eta orientatzen dituzten bizitza, osasun, sexubide, amodio, ondasunen erabilera eta kontsumo eta ingurumenari buruzko ohitura sozialak.
9. Antz eman eta aztertzea zer sakoneko esangura duten elkarbizitzak eta antolamendu sozialeko moduek: tolerantzia aktiboa, elkartasuna, askatasuna, justizia, partehartzea, erantzunbeharra, erlijioen arteko elkarrizketa, eta haien jatorri kristaua seinalatu eta maiz izaten diren egoera pertsonal eta sozialei aplikatzea.
10. Kristautasunaren osagai diren balioak, jarrerak eta arauak hierarkikoki ordenatzen ikastea, norbere bizitzari zentzua ematen ahal dioten aukerak egiteko.

11. Kontzientzia moralaren formazioa garatzen duten juzguak egiten ikastea, kristau moralaren printzipio oinarrikoak, askatasunerako eta erantzunbeharrerako eskubidea kontuan harturik, komunikabideetan eta inguruko errealtate sozial, ekonomiko eta politikoetan egoten den aukera aniztasunari aplikatuz.
12. Erljio, arte eta kultura ondarea ezagutu eta errespetatzea, arkitekturaren, pinturaren, musikaren eta liturgiaren lengoaia sinbolikoaren bitartez, Elizaren Historiako etapa handien eta inguruko kulturaren adierazpidea baita.

Erljio Katolikoa I

Edukiak

1. Gizakia, Jainkoaren sorkari. Gizakiaren aberastasun eta konplexutasuna. Batasuna, gorputza eta espiritua; adimena, maitasuna, kontzientzia morala, askatasuna, izaera komunitario eta soziala.
2. Giza jarduera, sortutakoen onerako emana. Lana baloratzea, norbere burua errealizatzeko bide gisa. Lan pertsonalean eta talde lanean aktiboki eta arduatsu parte hartzea.
3. Erljio esperientzia, errealtate antropologiko. Erljioaren oinarri diren giza galdera handiak. Erljio gertaera eta haren lengoaia.
4. Jainkoaren errebelazioa Eskritura Santuak testigantzen dituen gertaera eta hitzetan.
5. Jesus Kristo eta Jaun delako fede aitormena: egiazko jainko eta egiazko gizon. Kristoren zenbait izenen zentzua eta esangura, Jainko Semea, Mesia, Jauna.
6. Kristau fedearen dimentsio komunitarioa -sozial eta publikoa-. Gure garaiko kristau konpromisoaren zeinuak. Elkartasuna Islamaren eta Judutasunaren erlijio praktiketan. Konbibentzia, justizia eta bakea.
7. Kultura eta askatasuna. Intolerantzia eta arrazismoa aurrez galaraztea. Gizarteko kontrabalioren aurreko gaitasun kritikoa.

8. Kristauek beste erlijio eta instituzioekin elkarlanean aritzea lurreko hiria erai-
kitzeko. Eliza Katolikoak esku hartzen duen mundu mugimenduak. Herri glo-
bala.
9. Jainkoak zero berria eta lur berria agintzen. Maitasunaren zibilizazioa.

Erljio Katolkoa II

Edukiak

1. Bekatuak nola makurtzen duen giza jarduera eta Kristoren bidez nola zuzen-
tzen den. Oinazea eta heriotza.
2. Jainkoa Jesuskrorengan agertzen. Jesukroren salbazioa eta erredentzioa.
3. Jesusen mezuaren muina. Jainkoaren erreinua.
4. Lehenbiziko kristau baldernetan nola egiten zen Jesusen haragitze, hiltze eta
berpiztea sinisteko fede aitormena.
5. Elizak, salbazio sakramentu unibertsala den partez, aurrera eragiten dio Jesu-
kroren obrari, Espiritu Santuak bizkortua.
6. Jainko herriaren kideek zer zentzu eta zer erantzunbehar dituzten.
7. Sakramentuen jatorri, helburu eta zentzua.
8. Jainkoaren grazia Sakramentuen bidez banatzen. Sakramentuen eta giza bi-
zitzaren arteko harremana. Konpromisoa.
9. Sendatze sakramentuak eta komunitatearen zerbitzuko sakramentuak.
10. Liturgia, Jainkoak gurekin eta guk Jainkoarekin dugun harremanaren adieraz-
pide. Jatorria eta gaur egungo kinka. Otoitzaren balioa. Balorazioa eta erres-
petua.
11. Jesukrorengan sortzen den gizon berria. Bizitza proiektu pertsonala den al-
detik. Pertsonaren duintasuna. Gizakia, Elizaren kezkarik handiena.
12. Dimentsio moralaren oinarriak. Egintza moralaren kausa eta ondorioen arte-
ko harremana atzematea. Pertsona, izaki librea. Pertsona Jainkoaren aurrean.
Pertsona gizonenganako maitasunaren aurrean.

13. Gizonak Jainkoarekin dituen harremanen morala. Manamenduak (1.a, 2.a eta 3.a).
14. Giza bizitzaren morala eta gaur egun dituen problemak. Manipulazio genetikoa, abortua, eutanasia, norbere buruaren defentsa zuzena, heriotz zigorra, gizakiarekin esperimentatzea, drogak, alkoholismoa.
15. Sexubidearen zentzu eta helburu oinarrikoa. Sexubideak Jainkoak emandako dohaina den partez duen integrazio zentzua. Bi sexuak baloratu eta errespetatzea.
16. Ezkontzaren eta familia barrengo konbiventziaren morala. Familiaren hezkuntza ardura. Dibortzioa eta haren problemak.
17. Benetakotasun eta egia pertsonalaren gaineko morala. Haren presentzia komunikabideetan.

Ebaluazio irizpideak

1. Jainkoa aita dela pixkanaka agertzera ematen duten Testamentu zahar eta berriko testuen ideia funtsezkoak eta zentzua atzematea.
2. Ahozko zein idatzizko komentarioak egitea Jainkoaren mezua ulertu dela aditzera emateko.
3. Bibliako informazioak atzeman eta loturak egin ikuspuntu historiko, geografiko eta kulturaletik, haren egia eta inspirazioa agerrarazteko moduan.
4. Atzematea zein diren Jesukristoren ezaugarri nagusiak eta haren mezuak, haren salbazio lanean gauzatua, zer ezaugarri nagusi dituen, kristau iragartzearen edukiak ulertu ahal izateko.
5. Jesusen paraboletako eta mezu handietako esangura interpretatzea, kristau bizitzako jarrera oinarrikoak ezagutzeko.
6. Elizak Jainko herri eta salbazio sakramentu den partez dituen funtsezko ideiak laburbiltzea, eta Kristoren erredentzio lanaren jarraitzaile gisa.
7. Deskribatzea zer jatorri, sinbolo eta helburu dituzten Bataio, Konfirmazio, Penitentzia, Eukaristia eta Erien Gantzutze direlako sakramentuek giza bizitzako eta eliz komunitateko etapei dagokienez.
8. Sakramentuak, erlijio festak eta elizkizunak elizaren bizitzan kokatu, Jainkoaren ranganako goratarre, pozezko ospakizun eta konpromiso pertsonal eta sozial diren partez.

9. Moralaren osagai oinarritzkoak aipatzea eta ebanjelioko balioen argitan komentatzea, eta ikustea maitasunaren manamenduan eta zorionbideetan islaturik daudela.
10. Gizona Jainkoaren iruditzat deskribatzen duten bibliako testuak eta maisuen testuak ikustea, haren duintasuna, errespetua eta bere buruaren errespetua eta besteena baloratzeko.
11. Norbere jarrerak ebanjelioaganako atxikimenduagatik nabarmendu diren kristau bizitzako eredu batzuenarekin konparatzea.
12. Norbere inguruko problema sozialen gaineko informazioa eskuratzea, Jesukristori jarraitzetik heldu diren erantzun kristau oinarritzkoekin lotura eginez.
13. Alderdi, bibliko, doktrinal eta liturgikoez zer harreman dituzten inguruko eta ondare unibertsaleko adierazpen artistiko eta kulturalekin aztertu eta aurkitzea.
14. Ikerketa lanak egitea gai sozial eta kulturalen gainean, ikertu beharreko puntuak eta haien ikerbideak proposatuz eta emaitzak modu kritikoa aztertuz ebanjelioko balioen arabera, eta ekintzarako neurriak proposatuz.
15. Talde lanean aritzea modu arduratsuan eta lagunkorrean, taldekideak errespetatuz eta bakoitzari esleitu zaizkion eginkizunak bere gain hartuz.

Erljio Katolkoa III

Edukiak

1. Jainkoaren gaineko galderaren erro antropologikoa. Gizona, bere izatez, Jainkoa aurkitzeko gai: zer bide dituen gizonak Jainkoarengana iristeko.
2. Errebelazioaren izaera: gertaerak eta hitzak. Errebelazioaren iturriak: Eskritura, Tradizioa, Maisutza. Jainkoa pausoz pauso errebelatzen.
3. Jesukristoren salbazio lana. Zentzua eta orijinaltasuna. Azken buruko berpiztearen oinarritze kristaua.
4. Judu erlijioaren eta islamaren ezaugarri nagusiak. Gaurko judutasuna eta islama. Tradizioa eta modernotasuna.
5. Islamak, Judutasunak eta Kristautasunak, gizonaren galdera handiei zer erantzun ematen dieten.

6. Kristau printzipio orokorrak nola aplikatu erlijio handiei dagokienez, II. Bati-kano Kontzilioaren arabera. Jesukristo, promes guztien betegintzarrea.
7. Israelgo kokaera geografikoa eta erlijioz zein kulturaz izan zuen bilakaera.
8. Testamentu zaharra eta testamentu berria interpretatzeko oinarrizko osagaiak. Testamentu zaharreko liburuak eta haien zatiketa, deskripzioa, egileak. Literatur generoak. Testamentu berriko liburuak.
9. Jesusen bizitza eta haren garaiaren berri jakiteko iturrien azterketa (juduak, erromatarrak eta kristauak). Ebanjelioen historikotasuna. Historiak aipatzen duen Jesus eta fedeak erakusten digun Kristo.
10. Jesukristok bere ikasleen komunitatea bilerara deitzen du. Eliza. Eliza, komunioko misterio. Espiritu Santua, fededunen indar eta bizigarri.
11. Hastapeneko eliza Apostoluen eginetan. II. eta III. mendeetan nola ezarri joan zen. Lehenbiziko jazarraldiak. Eliz ministerioa lehen komunitateetan. Doktrinako desbiazioak agertzen hasten dira.
12. Kristautasunaren hedakuntza (IV. mendea). Konstantinoren eliza. Eliza eta denborazko boterea. Artzain handiak.
13. Herriak erdi aroan nola kristautu ziren (V-XIV. mendeak). Inperioa, Eliza, Kristautasuna, Monasterioak, kristau jakintza eta gogoetaren gertaleku. Feudalismoa. Ekialdeko elizak bereizten.
14. Antzinate klasikoaren Pizkundea. Protestanteen erreforma eta Eraberritze katolkoa (XV eta XVI. mendeak). Kristautasuna urratzearen drama: konfesio erreformatuak.
15. Aurkitu berriko lurraldeak nola kristautu ziren eta nola ezarri zen bertan eliza (XVII eta XVIII. mendeak). Burgesen erlijiotasuna. Fede eta arrazoiaren gatazka.
16. Gizartea sekularizatzen (XIX. eta XX. mendeak). Elizaren barneko berritzea: karitatearen, hezkuntzaren eta misioaren aldeko erlijio ordena berriak sortzen. Mugimendu ekumenikoa. II. Bati-kano kontzilioa.

Ebaluazio irizpideak

1. Hainbat dokumentu grafiko, literatur testu, pintura edo eskultura lan, sinbolo, errito, toki sakratu eta sakratuarekin lan egiten duten pertsonak erabiliz, agertzeraz ematea gizona, historia guztian etengabe ibili dela eta ibiltzen dela Janko bila.

2. Gizonak egiten dituen funtsezko galderak aipatu eta deskribatzea, haietan egiten baitu erro erlijioak, eta erantzun kristau nagusiekin lotura egitea.
3. Erljio historiko handien mezua eta kristau mezua konparatzea gizonaren existentziako oinarritzko problemei dagokionez.
4. Biblian aurkitu eta kokatzea zein kategoria funtsezkotan aditzera ematen den Salbazioaren historia eta nola Jainkoa pausoz pauso errebelatuz joaten zaion herri aukeratuari.
5. Jesusen mezuko eduki oinarritzkoen sintesia egitea, Berri Ona osatzen dutenak, eta eduki horiek testamentu berrian kokatzea.
6. Jesusen mezuko ondorio pertsonal eta sozialak deduzitzea, kristau balio funtsekoetan zehazten direnak.
7. Erljioaren gaineko ikerketak egitea, hartarako inkestak, elkarrizketak, galde zerrenda errazak eginaz, liburuak edo komunikabideak kontsultatuz, helburuak zehaztuz, emaitzak tabulatuz eta ondorio nagusienak atarez.

Erljio Katolkoa IV

Edukiak

1. Traszendentziaren zentzua eta gizakiarengan duen ondorioa.
2. Fedea, errebelazioari emandako erantzuna. Fededunen jarrerak.
3. Jainkoa, komunioko misterio: Trinitatea. Trinitatearen doktrinak zer oinarri duen Biblian eta doktrina hori nola osatu zen.
4. Elizaren egitura hierarkikoa. Elizaren katolikotasuna: misio izaera.
5. Eliza gaurko munduan. Elizak gaur egungo munduan zer aportazio egiten duen kultura, hezkuntza eta promozioaren arloan, bereziki Espainian. Katolikoak bizitza publikoan.
6. Jesukristoren mezua adierazpen artistiko eta herrikoietan. Kulturari egiten dion aportazioa.
7. Bibliako genero apokaliptikoaren atarian. Jaunaren etorrera, juizioa eta betiereko bizitza (Mat.24, Apok.21).
8. Jesukristo, Kreazioaren eta Historiaren jauna.

Ebaluazio irizpideak

1. Talde sozialek gaur egun Jainkoaren aurrean dituzten jarrerak deskribatzea, eta adieraztea nola izan behar duen kristau eta ez kristauen arteko elkarrizketak.
2. Argiro adieraztea pertsonaren duintasunak eta gizaki guztien berdintasun funtsezkoak zer oinarri duten, eta bi baieztapen horietatik zer ondorio moral heldu diren, gaurko gizartean egoten diren zapalkuntza eta pobretasun egoerekin kontraesanean.
3. Elizako karismak eta ministerioak lotzea Kristautasunean dagoen Orden eta Ezkontzaren bizipenarekin.
4. Eliza historiako etapetan kokatzea Jesusen mezuaren gauzatzea, bizitza eredu, kultura eta arte adierazpenen eta gizonenganako zerbitzuaren bidez.
5. Elizak zer ezaugarri nagusi dituen aztertu eta baloratzea, eta nola Jesusen aginduari leial egon zaion haren gauzabide historikoaren etapa desberdinetan.
6. Eukaristiak kristau bizitza osoaren iturri eta gailur gisa duen zentzua eta esangura dsskribatzea.
7. Kritikoki baloratzea errealitatean eta komunikabideetan atzemandako gertaera eta portaera moralak Jesusen mezuan dauden balioen ikuspuntutik.
8. Modu kritikoa preziatzea zientziak eta teknikak egiten dituen aportazioak ebanjelioak aurkezten duen behin betiko salbazio proiektuaren ikuspuntutik.
9. Gizateriak gaur dituen problema larrienak deskribatzea eta Elizako irakaspenaren testu funtsezkoen printzipio eta ondorioak aplikatzea gizarte bizitzaren problema estugarrienei, errealitate lokala, nazionala eta nazioartekoa kontuan hartuz.
10. Jainkoak gizonei egin dien maitasun agerraldi progresiboa aztertzea, Jesukristoren salbazioa gailur izan zuena, eta Espiritu Santuaren lanean jarraitua, Kredo Katolikoaren laburpen den aldetik.
11. Errespetu, elkarrizketa eta zentzu kritikoko jarrerak agertzea bestelako pentsaera eta jokaerekiko.

Prozedurak

1. Testu Bibliko eta erlijiosoak behar bezala irakurri eta interpretatzea.
2. Erligio hizkuntzaren esapide nagusiak behar bezala erabiltzea.

3. Gertaera erlijiosoen faktore historiko kulturalen eta geografikoen azterketa, Bibliako datu eta informazioekin konparatua.
4. Bibliaren gaineko informazio datuak oinarri, sinopsiak, eskema eta grafikoak itxuratzea.
5. Erritoetako erlijio zeinuak interpretatzea eta jatorrizko esangurarekin duten erlazioa aztertzea.
6. Erljioari komunikabideetan ematen zaion tratamendua aztertzea.
7. Oro har erlijioetako datu eta kontzeptuak kristautasunarekin konparatzea.
8. Giza existentziako problema oinarrikoak eta erlijio praktika eta sinismenak lotzea.
9. Erljio jarrera desberdinen gainean elkarrizketa irekiko ariketa egitea.
10. Nafarroan fedeak gaur duen zentzua interpretatzea.
11. Bibliako kategoria eta kontzeptu nagusiak atzematea pasarterik inportanteenetan.
12. Ebanjelioetako kontaerek idatzi ziren garaiko testuinguruarekiko duten egoera.
13. Fede katolikoaren baieztapen handien oinarri diren testamentu berriko testuak atzematea.
14. Jesukristoren mezuaren osagai funtsezkoa nola egituratzen den.
15. Jesusen gizatasuna hobekien adierazten duten gertaerak deskribatu eta aztertzea, bibliak kontaktzen duenaren arabera.
16. Jesukristoren hitz eta egintzen arteko lotura hertsari antz ematea.
17. Ikaslearen inguruko erlijio festa, debozio eta praktiketan gailentzen den mezua aztertzea.
18. Jesukristoren mezua arte adierazpenetan aurkitzea: pintura, eskultura, literatura, zinean, musika eta abarretan.
19. Jesusen bizitza gaitzat hartzen duten Nafarroako irudi edo pintura nagusiak aztertzea.
20. Jainkoaren gaia arlo desberdinetako eduki-multzoetan bilatu eta aztertzea.
21. Jainkoarenganako jarrera desberdinen azterketa konparatua.
22. Jainkoarenganako fedearen testigantzen azterketa konparatua.

23. Jainkoa artean atzemateko modu desberdinak aurkitzea.
24. Jesusek errebelatzen duen Jainko irudiak zer diferentzia dituen bestelako Jainko irudiekin.
25. Gizakiaren gaineko datu eta ikerlanen balorazioa.
26. Beste arloetan gizonari buruz ikasten diren alderdi inportanteenak laburbiltzea.
27. Familiaren orientazioa eta beste hezkuntza eragin batzuk aztertu eta ebaluatzea.
28. Gizonak artean dituen adierazpide desberdinak interpretatzea.
29. Gizonak gaurko gizartean bizi dituen zapalkuntza eta pobrezia egoerak aztertzea.
30. Ebanjelioan ageri diren giza irudiaren ezaugarri nagusiak aztertu eta laburbiltzea.
31. Antropologia kristauaren eta gizonari buruzko beste ikuskera batzuen arteko konparazioa.
32. Nafarroan dauden giza bazterkeriazko egoerez konturatzea.
33. Elizaren historiaren gaineko dokumentu idatziak hautatu eta sailkatzea.
34. Elizaren doktrina testuak beren testuinguru historikoan komentatzea.
35. Elizaren historiako gertaera esanguratsuenak interpretatu eta irudikatzea.
36. Mugimendu eta erakunde katolikoek gaur egiten dituzten ekintza soziala ikertu eta aztertzea.
37. Komunikabide sozialek elizaren eta haren instituzioen bizitzaren gainean ematen dituzten datuak ikertu eta aztertzea.
38. Elizak kulturaren, hezkuntzaren eta promozioaren arloan egiten duen aportazioaren gaineko datuak bilatzea, bereziki Espainian.
39. Elizak Nafarroan izan dituen momentu ditzirantenak irudikatzea.
40. Elizak gaur Nafarroan egiten dituen jarduera kultural eta laguntzazkoak eza-gutzea.
41. Inguruko objektu, pertsona eta egintza sakratuak atzeman eta bereiztea.
42. Sakramentuen jatorrizko zentzuak gaurko praktikarekin duen harremana.

43. Sakramentu bakoitzak eta giza bizitzak duten paralelismoa aztertzea.
44. Gorputz hizkera eta liturgiako jestu eta zeinuak konparatzea.
45. Sakramentuen gaineko sintesi sinoptikoak itxuratzea.
46. Erromako liturgia Nafarroako kultura autoktonoan nola txertatu zen ikertzea.
47. Erakunde nazional eta nazioartekoen azterlan zientifikoak oinarri, gizakiaren jardueraren gaineko datuak hautatu, sailkatu eta baloratzea.
48. Komunikabide eta arte adierazpenek azken buruko errealitateei ematen dieten tratamendua aztertu eta baloratzea.
49. Aurkikunde zientifiko eta teknikoak benetako giza aurrerabidean kokatzeko analisi kritikoa egitea.
50. Bibliako apokalipsi generorako hurbilbide exegetikoa egitea oinarrizko zenbait testu erabiliz.
51. Kristau ekintzak behin betiko salbaziorako eta aldi baterako liberaziorako di-tuen printzipioak sistematikoki aztertzea.

Jarrerak

1. Erljio gertaeraren aurrean oro har jarrera irekia izatea, eta bai kristau gertaeraren aurrean eta zentzu bilaketako giza jardueraren edozein agerkariren aurrean.
2. Bestelako pentsaerek zentzu-eroale diren partez errespetatu eta ulertzea.
3. Aniztasuna, erantzunbeharra eta lankidetzaren erabiltzearen aurrean jarrera irekia izatea.
4. Elkarrizketa estimatzea.
5. Erritoetan, erljio zeinuetan eta erljio sentimenduetan adierazten diren giza balioak preziatzea.
6. Beste arloek erljioaren gainean plazaratzen dituzten datu eta galderak ulertu, bereizi eta aztertzeko jarrera.
7. Nafarroako kulturaren alderdi erlijiosoak ezagutu eta kontserbatzeko interesa.
8. Bibliako kulturak Mendebaleko zibilizazioaren eta bereziki Espainiakoaren arte, literatur eta pentsamendu agerkerietan izan duen eragina baloratzea.

9. Jainkoaren errebelazioko zein balio dauden presente gaur egungo kulturari: maitasuna, errespetua, elkartasuna, gizonaren duintasuna, giza bizitzaren sakratutasuna.
10. Kristau errebelazioak esplizituki proposatzen dituen jarrerak: justiziaren, egia-
ren eta bakearen aldeko borroka; senidetasuna eta abar.
11. Gertaera sozial, politiko eta historikoak Eskritura Sakratuaren argitan ulertzea.
12. Testu biblikoenganako estimua eta haiek maiz leitzeko gustua.
13. Jainkoaren errebelazioaren alderako errespetu jarrera: otoitza, esker ona, ale-
grantzia, fededuntzea eta abar.
14. Bibliako kulturak Nafarroako artean izan duen eragina ezagutzeko.
15. Nafarroako kultura tradizionalan presente dauden balio biblikoak aurkitzea.
16. Kristautasunak mendebalean eta bereziki Espainian bizitza eta kulturak hobere-
rako bilakaera izan zezaten izan duen aportazioa baloratzea.
17. Justiziak, libertateak eta maitasunak errealitatearen balorazio guztietarako
irizpide ebanjeliko gisa zenbateko garrantzia duten konturatzeko.
18. Konturatzeko mundua eta historia Jainkoaren dohain direla eta bai gizona es-
klabotza guztietatik askatzeko lan ere.
19. Jesusen muineko mezutik heldu diren gizonaren gaineko balioak: gizakiaren
duintasuna, giza bizitzaren balio jatorrizkoa, askatasuna eta legea, Jainkoare-
kiko harreman zuzenakoa, dohainekotasuna, liberazioa, zoriona, barkamena,
pobreengana hurbiltzea eta abar.
20. Kristau errebelazioak fededunari erakutsi eta beren osotasun guztian ager-
tzera ematen dizkion portaera arauak.
21. Jesusen pertsona behatzeko, entzuteko, miresteko jarrera.
22. Gorputzaren duintasuna baloratzea eta gizona beheratzen duten egoerak
kritikatzea.
23. Sexubidea maitasunera bidean integratzeko jarrera, tentazio hedonista gain-
dituta.
24. Kultura gizona askatzeko eta norbere burua errealizatzeko bide den partez
baloratzea.
25. Gizonaren ikuskera desberdinen aurreko errespetu jarrera, gizona beheratzen
duen guztia kritikatzeko.

26. Kontzientzia morala baloratzea sinismen eta konpromiso pertsonalak esku-ratzeko.
27. Gaurko balio krisiak era gizartean duen eragina ulertzea.
28. Libertatea eta libertinajea gauza bana direla ulertzea.
29. Lana norbere burua errealizatzeko eta besteekin komuneko onaren mesede-tan lan egiteko bide gisa baloratzea.
30. Atsedenaren aurrean jarrera positiboa izatea, hura ere errealizazio pertsonala baita eta ez ihesbide hutsa.
31. Nafarroako aniztasun kulturala baloratzea.
32. Kristautasuna baloratzea gaurko mendebaleko kulturaren.
33. Kristau komunitatearen testigantza historikoetan ageri diren balio nagusiak.
34. Eliza katolikoaren kide izateari buruzko araudi oinarrizkoa.
35. Kristauak Eliza eta Kristoren arteko lotura berezkoaren aurrean duen jarrera.
36. Parrokiako eta eliz barrutiko bizitza baloratzea.
37. Liturgia eta Sakramentuen adierazpideen aurrean errespetu jarrera izatea.
38. Erljio zeremonien jatorria, bizitasuna, eta gaurkotasanaren berri jakiteko in-teresa.
39. Kultuzko objektuen dimentsio artistikoa eta erljio zeremonien edertasuna baloratzea.
40. Elizak ospakizun liturgiko eta sakramentalen gainean duen araudia.
41. Errito eta ohiturek eta bai dramatizazioek, "misterioek", kultuzko objektu eta tokiek Nafarroako Foru Komunitatea osatzen duten eskualdeetan eta berezi-tasunetan, bai eremu euskaldunetan nola erdaldunetan eta mistoan duten di-mentsio antropologiko kultural eta artistikoa baloratzea.
42. Errebelazioan presente dauden giza balioak: gizonaren duintasuna, giza bizi-tzaren ukiezintasuna eta abar.
43. Sexubideak Jainkoaren dohain den partez dituen balio positiboak.
44. Batasunean, maitasunean eta bakean elkarrekin bizitzean dakarren aberasta-sunaz konturatzea.
45. Norbere lanean nahiz talde lanean bizkor eta arduratsu parte hartzea.

46. Gizartearen kultura aberastasunak duen balioa eta agertzen diren kontrabalioren aurreko jarrera kritikoa.
47. Gaurko kontsumo gizartean dohakotasunak zer balio duen konturatzea.
48. Eguneroko bizitzako egoeretan barrenera biltzeak zer balio duen ikustea.
49. Elizak portaera moralaren gainean eman dituen legeak interpretatu eta aplikatzeko arauak.
50. Aurkezten diren problema edo gertaeren testuinguru sozial, politiko eta historikoa ezagutzeko interesa.
51. Beste pentsaera eta sinismenak ulertu, baloratu eta errespetatzea.
52. Elkarrizketa eta lankidetzaren aldeko jarrera.
53. Bakoitzak konpromiso sozialaren gainean eta heriotzaren arandiaz dituen konbikzio erlijiosoak ulertu eta oinarritzeko jarrera.
54. Eliz irakaspenak giza jardueraz eta azken buruko errealitatez eman dituen dokumentuak irakurri eta interpretatzeko arauak.

85/2002 FORU AGINDUA, maiatzaren 26koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparako Hezkuntza Jarduera Antolatua (H.I.A.) arautzen duena.

Ikasketak Antolatu eta Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuko zuzendariak Hezkuntza Jarduera Antolatua (H.I.A.) arautzearen aldeko txostena aurkeztu du Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Legean araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparako.

Xedapen hau prestatzeko, kontutan eduki da abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretua, Erlijioaren irakaskuntza arautzen duena (1995.eko urtarrilaren 26ko "E.A.O."), haren 3.2 artikuluan ezarrita baitago erlijio irakaskuntza aukeratzeko ez duten ikasleentzat ikastetxeek beste ikasketa jarduera batzuk antolatuko dituztela, irakaskuntza osagarri bezala, erlijio irakaskuntzaren ordutegi berarekin. Jarduera horiek, MECD-ek eta irakaskuntza arloko eskumen osoa duten Hezkuntza Administrazioek proposatuko dituztenak, gizarte eta kultur bizitzako zenbait alderdi, iraganekoak edo gaur egungoak, ezagutu eta aztertzen laguntzeko dira, hainbat literatura, plastika eta musika agerpen analizatu eta aztertuz, eta hezkuntza jarduera orok bezala, urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan etapa bakoitzerako ezarritako helburuak bultzatuko dituzte. Beti ere, jarduera horiek ez dira gutxienezko irakaskuntzetan eta hezkuntza mailen curriculumean sartutako edukiei buruzkoak izanen.

Bestalde, abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretuko 3. artikuluko 3. atalean, ezartzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi kurtsotan Ikasketa jarduera alternatiboek, irakaskuntza osagarriak diren partez, erlijio desberdinetako agerkari idatzizko, plastiko eta musikalak hartuko dituzte gaitzat, haien gertaera, pertsonaia eta sinbolo ardurakoenak ezagutzeko, eta bai aroz aro kontzeptu filosofikoetan eta kultural zer eragin izan duten jakiteko.

Halaber, aipatu Errege Dekretuko 3.4 artikuluan ezartzen denez, ikasketa jarduera alternatiboak derrigorrezkoak izanen dira erlijio irakaskuntza ez hartzea aukeratzen duten ikasleentzat eta ikasleen adinari egokituko zaizkio. Jarduera horiek ez dira ebaluatuko eta ez dira ikasleen espediente akademikoetan agertuko. Ikasle horientzat, ikastetxeek beharza bezala antolatutako ikasketa jarduerak eskainiko dituzte erlijio irakasgaia irakasteko programaturik dagoen denboran.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legearen 36.2 b) artikuluan emandako ahalmenen ondorioz,

AGINDU DUT:

1. Foru Agindu hau Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean kokaturik egon eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publiko zein pribatuetan aplikatzea.

2. Guraso edo tutoreek Erlijio eta Moral Katolikoa edo beste erlijio baten irakaskuntza ematea aukeratzen ez badute, ikasleek behar bezala antolatutako hezkuntza saioa edukiko dute aipatu irakaskuntzetarako programaturiko denboran.

3. Aurreko puntuan aipatzen den hezkuntza saioa Hezkuntza Jarduera Antolatuko (H.I.A.) irakaskuntza izanen da. Ikastetxeek H.I.A.ko irakaskuntza garatuko dute, etapako curriculum proiektuan behar bezala planifikatu eta sartuta.

4. Hezkuntza Jarduera Antolatuak ikasleen heldutasun pertsonal, sozial eta morala bultzatuko du, arian-arian gero eta arduratsuago eta beren kabuzago joka dezaten.

5. Hezkuntza Jarduera Antolatuaren edukiak “ikasleen garapen pertsonal eta sozialaren esparrukoak izanen dira” eta “erlijioei loturiko kultur alderdiei buruzkoak”.

Irakaskuntza horien antolamendua erraztearren, eraskinean ageri dira haiei dagozkien edukiak.

6. 1. Irakaskuntza horiek ez dira ebaluatuko eta ez dira ikasleen espediente akademikoetan agertuko, baina familiei igortzen zaien informazioan sartuko dira ikastetxean egindako beste edozein hezkuntza jarduera bezala.

2. Dena den, Hezkuntza Jarduera Antolatua ematen duten irakasleak lantaldekoak izanen dira eta ebaluazio saioetan hartuko dute parte ikasleen jarre-

rak ebaluatzerakoan, esparru horretan hartuko baitira kontutan, behar bezala, haien balorazioak.

7. Filosofiako departamentu didaktikoaren eskumena izanen da Hezkuntza Jarduera Antolatuko edukiak garatzea eta, ahal dela, departamentu horretako irakasleek emanen dute.

8. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa ematen den Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan edo Haur eta Lehen Hezkuntzakoetan, ahal dela, Gizarte Zientzia, Geografia eta Historia arloko maisu-maistrek emanen dute Hezkuntza Jarduera Antolatua, horretarako irakastordurik badute. Dena den, ikastetxeari dagokion Bigarren Hezkuntzako institutuaren Filosofiako departamentu didaktikoaren eskumena izanen da aipatu jardueren programazio didaktikoa.

Xedapen iragankor bakarra

Ezarpen egutegia.

Foru Agindu agindu honetan agintzen dena honela ezarriko da: 2002-2003 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. kurtsoetako curriculumari dagokiona aplikatuko da, eta 2003-2004 ikasturtean 2. eta 4.ei dagokiena.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indargabetzen da Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 23ko 269/1995 Foru Agindua, zeinak arautzen zuen Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparako Hezkuntza Jarduera Antolatua (H.I.A.), Xedapen Iragankorrean ageri den ezarpen egutegiaren arabera.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa.– Ahalmena ematen zaio Hezkuntza zuzendari nagusiari Foru Agindu honetan xedatutakoa aplikatu eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.kp on

Bigarrena.– Foru Agindu hau eta haren eranskina helaraztea Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuari, kasketa eta Ikastetxeen Antolamendurako Zerbitzuari, Lanbide Heziketako Zerbitzuari eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Tek-

nikorako Zerbitzuari, eta Hezkuntza Berriztapenaren Atalari, eta Ikasketen Antolamendurako Atalari eta Nafarroako Aldizkari Ofizialari, argitaratzeko.

Hirugarrena.– Foru Agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamabosteko maiatzaren hogeita seian.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria

Jesús María Laguna Peña

Hezkuntza Jarduera Antolatua

Hezkuntza Jarduera Antolatua I

1. Garapen pertsonal eta soziala

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren taxuak batera heltzen dio ikasleen bilakaera uneari, nabarmena baita orduan norberak bere identitatea deskubritu eta nola sendotzen den piskanaka. Hortaz, osoegokia izan daiteke garapen pertsonal eta sozialaren alderdiei ekitea etaparen lehen zikloan.

Garapen aldi honetan, nork bere burua ezagutu eta onartzea, inguruko lagunekin eta munduarekin piskanaka harreman helduago eta kritikoagoa edukitzea eragingarriak dira hezkuntza koordinatuetarako, horiek ondorioa baitute nork bere buruz duen irudi positiboan, norberarekiko estima, efikazia eta konfiantzan eta norberaren esperientzia behar duen ikasketan.

Ikasketa antolatuak, norberaren ahaleginaren bitartez, ikaslearen gaitasunak garatzen lagundu behar du. Horien artean, aipatzekoak dira jokabide zibikoak hartzea eta pertsona bezala garapen integrala bultzatzen duten balore, ohitura eta bizimoduak hautatzea: lankidetzak, berdintasuna, erantzukizun moralak, elkartasuna, diskriminazio eza eta tolerantzia, besteak beste.

Horretarako, ikasleek aipatu gaitasunak garatzen dituzten zenbait eduki (konzeptuak, prozedurak eta jarrerak) ezagutzera hurbildu behar dute. Eduki horiek alderdi hauei buruzkoak izanen dira ziklo honetan:

- Ikasleen bilakaera unea: pubertaroa eta adoleszentzia, faseaketa ezaugarriak.
- Pertsonen bilakaeraren ikuspegi orokorra. Bilakaera une bakoitzeko (haurtzaroa, adoleszentzia, helduaroa, zahartzaroa...) ezaugarriak ulertzea.
- Ohiturak eta bizimoduak: erabakiak hartzea eta norberak bere bizitza proiektua egitea.
- Bilakaera pertsonalaren efikazia eta bozkarioa: motibazioa, ahalegintzeko gaitasuna eta borondate indarra. Norberaren erantzukizuna. Lankidetzaren eta taldeko lana. Taldeen arauak eta funtzionamendua.
- Elkarbizitza eta giza harremanak: lagundu eta zailtzen duten faktoreak. Ikasleen esparruak: familia, ikaskideak eta lagunak, elkarteak, e.a.

Hezkuntza Jarduera Antolatua II

I. *Erljioei loturiko kultur alderdiak*

Giza sorkuntzaren ekarpena eta haren islada objektiboa den aldetik, kultura da gizon-emakumeek eta errealitateak elkar topo egiteko esparrua eta ildo historikoa. Topaketa horretara hurbiltzeak aukera eman dezake gizadiak denboran zehar egin dituen galdera sakonak eta bizi dituen tradizio ezberdinak ezagutu eta baloratzeko.

Giza izpiritua kultur espresioetan isladatzea gizatasuna bera ezagutzera hurbiltzeko modu zorrotza da. Egintza erlijiosoa, kulturaren espresioa eta, hein batean, haren erroetako bat den aldetik, historian zehar tradizio ezberdinen bitartez azaltzen da, baita herri ezberdinen bitartez ere, bere ezaugarri bereziekin eta alderdi berdinekin aldi berean. Tradizio erlijioso horiek bizitza eta errealitatea ulertzeko modu ezberdinak sortu dituzte eta egungo zibilizazioen ondare historikoan aurki daitezke, baita bizirik ere.

Etaparen lehen zikloan, Hezkuntza Jarduera Antolatuaren (H.I.A.) helburuetako bat da ikasleak fenomeno erlijiosoarekin zerikusia duten zenbait kultur alderdi eta erlijio eta herri ezberdinetan nola gauzatu diren ezagutzera hurbiltzea.

Jarduera horiek, ikasleen adinari, motibazio eta interesei egokituak, ikasleak ingurune erlijiotasunaren agerpenekin loturiko kulturaren egintza, pertsonaje eta sinbolo aipagarrienetara hurbiltzea bilatuko dute. Hortik aitzina, historian eragina

izan eta gauzak ikusteko eta esperientziari esanahia emateko modu bat adierazten duten beste kultura eta erlijioetara hurbilduko dira.

Elkartasuna, lankidetzeta, erantzukizuna, inor baztertzen ez duen jokabidea eta norberaren zein besteren ondasunen balorazioa indartzeko, Hezkuntza Jarduera Antolatua ondoko alderdiei loturiko kontzeptu, prozedura eta jarrerak dituzten edukiei buruzkoa izanen da:

- Ingurune hurbileko erlijioen kultur agerpenak: ohiturak, folklorea, pintura, musika, eskultura, arkitektura, e.a. Kultur ondasunak eta jendearen sinesmen eta hautuekiko begirunea.kp on
- Erlijioak eta mundu mitikoa kultura greko-latindarretan.
- Ekialdeko erlijioak: hinduismoa, budismoa, sintoismoa. Kulturekarpenak.
- Monoteismoak: judaismoa, islamismoa eta kristautasuna. Kultur ekarpenak.

Hezkuntza Jarduera Antolatua III

I. *Garapen pertsonal eta soziala*

Bigarren ziklo honetan ikasleen garapen pertsonal eta sozialean eragina duten gaitasunak indartzen jarraituko da, aurreko zikloan landu baitziren, eta arrazonomendu abstraktoko ohitura eta formak azaldu eta eskuratzearekin zerikusia duten alderdietan egingen da indarra.

Gaitasun razional horiek azaldu eta piskanaka sendotzearekin errealitatea modu kritikoago eta sakonagoz ikusteko aukera ematen da, informazio iturri eta baliabideen aurrean gogoeta egin eta norberaren jarrerak aztertzei aukera eskaintzen da, eta bide ematen du argudio logikoak zorrotz erabili eta mezuen egia bereizteko komunikabideen mundu nahasian.

Horretarako, pentsamendu logiko, razional, kritiko eta sortzailearen oinarria diren gaitasunak garatzeko edukietara (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak) hurbildu behar dira ikasleak. Eduki horiek alderdi hauei buruzkoak izanen dira ziklo honetan:

- Jakinduria, ezagutza eta informazioa: informazioaren iturriak eta tratamendua, haren elaborazioa eta ezagupenak eskuratu eta barneratzea. Pertsonaren garapena eta jakinduria.
- Esperientzia, arrazoa eta sinesmena, giza jakintzaren moduak. Aurreiritziak eta usteak. Zorroztasuna norberaren pentsamendua adierazterakoan.
- Ezagutza zientifikoa eta haren metodoak.
- Frogapen logikoa eta arrazonamendu deduktiboa; argudiatzea. Egia, sinesgarritasuna, ziurtasuna eta begi bistakoa izatea.
- Komunikazio prozesuak eta masen komunikazioa. Informazioa eta haren itxuraldaketa: mezuak eta publizitatearen baliabideak.
- Informazio eta publizitate itxuraldatuen presioei aurre egiteko estrategiak.

Hezkuntza Jarduera Antolatua IV

I. *Erljioei loturiko kultur alderdiak*

Etaparen bigarren zikloan fenomeno erlijiosoari loturiko kultur alderdiak ezagutzen jarraitu eta sakonduko da.

Alderdi horiek kontutan hartuta, ikasleen gaitasunek goia jo dezaten lagunduko duten giza jarrera eta baloreen azterketa, gogoeta eta garapena bultzatu gogo da. Besteekin harremanak izatea, jarrera lagunkoi, argi eta tolerantetz, era guztietako diskriminazioei uko eginez taldeko jardueretan parte hartzea, ahaztezinako hezkuntza helburua da. Hori nabarmen bultzatu daiteke norberaren eta besteen arte eta kultur ondasunak ezagutu, baloratu eta ezagutzearekin eta gure nahiz beste herri eta garaietako tradizio eta kultur ondarearen sinesmen, jarrera eta oinarrizko balioez jabetzearekin, horrek haien balorazio kritikoa baitakar eta pertsonen duintasunaren alde egindako ekarpenak onartzea.

Errealitatearen edo gizakiaren gaineko ikuspegi erlijiosoa edo zientziena, elkarrizketara eta haien ikusmoldeak kontutan hartzera egindako gonbita da. Arteak gizadiaren irudia dira, bere jarrerena eta munduan duen tokiarena, hura ikusi ala ez, eta aztertzeke esparru joria osatzen dute. Haietan adierazten dira erro erlijiosoko balore, mezu eta gogoetak giza izaeraren gainean.

Ikasleek ziklo honetan garatu duten pentsamendu logiko eta razionalaren bidez gauza dira egintza erlijiosoa aztertzen hasi eta ikuspegi orokorra lortzeko sinesmenen arteko erlazioari buruz, haien kultur agerpenei buruz eta herrien bizitzaren zenbait esparrutan duten eraginaren gainean.

Ezagupen horien bitartez gaitasun orokorren jabe eginen dira beste kultura batzuk onartu eta baloratzeko, bestela pentsatu eta sinesten dutenak errespetatu eta ulertzeko; halaber, beste balore batzuk ezagutu ahalko dituzte nork bere baloreen eskala osatzeko lagungarri izanen dituztenak.

Horretarako proposatzen dira kontzeptu, prozedura eta jarrera sail batzuk kultur esparru hauen inguruan:

- Egintza erlijiosoa eta esperientzia erlijiosoa. Giza erlijiotasuna, gizakiaren galderetik erantzun gisa. Sakratuzkoa eta profanoa.
- Esperientzia erlijiosoaren kultur adierazpena. Kultura eta erlijioa.
- Errealitatearen ikuspegi zientifikoa eta erlijiosoa. Berezitasunak eta elkarrizketaren esparruak.
- Erlijio hedatuena. Ezaugarri historiko, geografiko eta kulturalak. Haiek beraien ikusten dituzten elementu berdina eta ezberdina.
- Erlijio hedatuena ekarpenak gizakiaren ezagutza eta balorazioan.